


Enseiukarrean

Rosa Miren Pagola
Gontzal Aldai
Koldo Jule Garai
Juan Manuel Etxebarria

Joan Mari Irigoien
Laura Mintegi
Arantxa Urretabizkaia
Asier (Lubaki)

Nerea Zuloaga
Patxo Fdez. de Larrinoa
Unai Elorriaga
Ainhoa Segura

10. zenbakia



Deustuko
Unibertsitatea

.....

**Euskal Ikaskuntzen
Institutua**

enseiucarrean

Enseiukarreen

Enseiukarrean

Deustuko Unibertsitateko Aldizkaria

10. zenbakia

Bilbo
Deustuko Unibertsitatea
1994

Zuzendaritza:

Joan Otaegi
Nerea Zuloaga

Erredakzioa:

Belén Abajo	Amaia Petralanda
Unai Elorriaga	Paloma Rodríguez
Iratxe Momoitio	Nerea Zuloaga
Joan Otaegi	

Kolaboratzaileak:

Gontzal Aldai	Asier (Lubaki)
Unai Elorriaga	Laura Mintegi
Juan Manuel Etxebarria	Rosa Miren Pagola
Patxo Fdez. de Larrinoa	Ainhoa Segura
Koldo Jule Garai	Arantxa Urretabizkaia
Joan Mari Irigoien	Nerea Zuloaga

Batzorde Kontseilaria:

Joseba Abaitua
Juan Manuel Etxebarria
Joan Otaegi
Jesús Uranga

Marrazkiak:

Alazne Odriozola

Argitalpena:

Deustuko Unibertsitateko Argitalpen Saila
1 Posta Kutxa - 48080 Bilbo
Tfnoa.: (94) 445 31 00 Fax: (94) 445 68 17

Zabalkundea:

Ediciones Mensajero
Sancho Azpeitia 2, 48014 Bilbo
Tfnoa.: (94) 447 03 58 Fax: (94) 447 26 30

Paper ekologiazkoan irarri argitalpena

ISSN: 1130 - 8192

Legezko gordailua: BI.

Fotokonposaketa: IPAR, S.C.L.

Particular de Zurbaran 2-4 - 48007 Bilbo

Inprimatzailea: Artes Gráficas Rontegui, S.A.L.


Avda. Ribera de Erandio, 4 - 48950 Erandio (Bizkaia)

Aurkibidea

Editoriala	9
R.M. PAGOLA, <i>Elizalderen dotrina</i>	17
G. ALDAI, <i>Euskal aditz zaharraz: aspektu oposaketatik modu oposaketara</i>	67
K.J. GARAI, <i>Juan Jose Mogel-en Maiazko Lore bat</i>	85
J.M. ETXEBARRIA, <i>Herri euskeratik euskara batura</i>	129
J.M. IRIGOIEN, L. MINTEGI, A. URREBIZKAIA, ASIER (LUBAKI), <i>Idazte esperientziari buruzko mahaingurua</i>	137
P. FDEZ. DE LARRINOA, <i>Truman Capote-ren Gosaria Tiffany's-en. Semantika bidetan</i>	153
U. ELORRIAGA, <i>Ezpata txanpontzat</i>	197
A. SEGURA, <i>Malen</i>	205

10. zenbakia

Qualität



Zaberg

Editoriala

I. Zuria. Eta ez dio eskurik luzatzen. Zuria bezain mutua. Eta zerbaiten zai dago. Lasaia. Eta lasaitasun horrek begi dardartiei min egiten die. Lasaia bezain salatua, zeren bertan isladatzen den ezerk ezpaitu izkutatzeko biderik aurkituko.

Zuria, mutua, lasaia eta salatua den honek ezerk baino gehiago belhurtzen ditu ikasle gazte horren barneak. Ez luke sentimendu hau izan beharko baina eguneroko saioak ez dio hasierako izua itzali, eta orri baten aurrean jartzen den bakoitzean, hankak dardarka jartzen zaizkio.

Mila gauza kontatu nahiko lioke aurrekoari. Sarritan saiatu da barruan sortzen dituen istorio eder horiek orrian idatziz adierazten, alperrik baina!

Behin, indarra eginez gero ideiak berez jausiko zirela otu zitzaion; indar egiteari utzi zion malko tanta horiek orria busti eta tximurtu zutela ikusi zuenean.

II. Amets bat izan du; amets eder bat. Altxatu bezain laster orri zurriari ordu ilun horietan ikusi eta entzundako guztiak kontatu dizkio.

Idazte bera ametsa bezain polita iruditu zaio eta idatzitakoa, ametsaren koadro balioetsu bat. Baina... begiak itxi ditu eta, berriro zabaldu dituenean, ez du lagun zuri, mutu, lasai eta salati bat besterik aurkitu. Ametsetako idazle famatuaren idazlumaz idatzi du eta, noski, ametsak amets dira beti.

III. Lehen idazten zuen bada! Hori bai, beti izkutuan! inori ezer esan gabe. Bere logelan gordeta, atearen zarataren bat entzun bezain laister paperak mahai azpian gorde eta etxeko lanen koaderno ateratzen zuen.

Amak behin baino gehiagotan ikusi izan du txintxo txintxo koadernoaren aurrean lan eta lan. Horregatik asko harritu zen andereñoak semeak etxeko lanak egin gabe izaten zituela esan zionean.

IV. Gauero amets bera izaten du. Ametsetako orrietan bakarrik margozten duen idazluma behin eta berriro ikusten du idazle famatua-ren atzamar artean.

Eta atzamar horiek idazluma eskuan jartzen diote eta idatz ezazu zuzurlatzen dioen ahots ezezagun batek oihartzun berezi bat sortaraz-ten dio.

V. Idatzi nahiaren aurrean ezintasuna ezagutu zuenetik hona iragan da zenbait urte, eta mutil koskorak zurtasunarekin bakea sinatu du. Elkar trukean aritzen dira; orri zuriak hitzen bat edota esaldiren bat es- katzen dio eta, nola ez, mutilak eman egiten dio nahiz eta hitzik apro- posena ez dela jakin. Hitzak berak hautatzen du bertan geratzea edota zirriborro bihurtzea, honela erabaki baitzuten mutil eta hitzek egindako kontratuan.

Orain gozatu egiten du, lehengo ametsak behingoz bete baititu; buruan eraikitzen duen istorio oro orrian isladatu eta moldeatzeko ka- paz da. Halere, ez da falta orria busti eta tximurtzen dion malkorik.

VI. Pilatuz doaz bere idatziak, lo orduari lapurtutako denboran sor- tutako istorioak ezpaitira urriak. Baina orain idazte berak ez du asetzen, ez lehen bezala behintzat. Lehen idazte bera zen buruko ideia eta nahi guztiak elkartzen zituen puntu bakarra, baina, nagusituz joan ahala, orrian lausotzen duen hitz bakoitzak galdera ezberdin bat egiten dio: «Zergatik gaituzu gatibu? soilik bi begiren aurrean azaltzeko sortu al gaituzu? nik ez dut maite zure logelako txoko ilun hori, ez al gara itoko horrenbeste orriren artean? ez al dugu merezi beste norbaiten onespena ala gaitzespena entzutea?».

Eta galdera hauen aurrean heldutasunak oparitutako indar eta ke- mena zirriborro bihurtu zaizkio bihotzean duen orri zurian.

Berriz ere nonbaiten lurperatua zeukan ezintasuna azaldu zaio, gai- nera, lurpeko hazi balitz bezala, lehen baino indartsuago loratu da arantzez jantzirik.

VII. *Nire hitzek arrazoia dute: koldarra naiz. Hitzak irudikatzeko da- rabiltzadan lerro eta borobilen artean izkutatzen dut neure burua. Eta bertan urrezko ezkutu bailira bezala neure ahulezia defendatzen dut, ezpaitakit ezkutua alboratu eta zein etsaik emango didan ezpata zorro- tzaren garraztasuna dastatzeko aukera.*

Hitzek arrazoia dute; behin freskotasuna izan zuen tinta lehortuz doa eta, honekin batera, makurtzen hasi dira hasieran harrotasunez tinko zeuden hizkiak.

Bai, hitzek arrazoia dute, arrazoi osoa dute.

VIII. Ahantzia zeukan erabat, baina entzun bezain laster ezagun egin zitzaion ahots lehor eta sendo hura. Nahasturik utzi zuen, gau hartako ametsean ezpaitzegen ahots lehor eta sendodun pertsonaia-


rik. Baina ametsak amets dira beti! Eta laino artean galdurik zegoen ahotsak *idatz ezazu* zuzurlatu zion, aintzina egin zuen bezalaxe.

IX. Behin eta berriro entzungo zituen hitz haiek; mendira joan eta haizearen txistuarekin bat *idatz ezazu* entzun zezakeen; hiriko kale nahasietan barna, auto, motor eta zaraten artean, *idatz ezazu* zuzurlatuko zioen ahotsik etzen faltako; udazkeneko pasio luzeetan, hostoen *krasen* artean *idatz ezazu* kras berezia entzungo zuen... Eta irratian, eta sukaldeko sugarrean artean, haur baten negarrean, erlojuaren *tik-takean*, kafeteraren kean... denetan entzungo zuen.

X. Goiz batez, mahai gaineko orrien artean, berea etzen idazluma arraro bat aurkitu zuen.

XI. Liburudenda famatu batean izugarritzko jendetza bildu zen liburu arrakastatsua egilearen sinadura jasotzeko ilusioz. Liburu bat sinatzera zihoan une berean konturatu zen idazluma arraro hura etzela gaztaroko ametsetan azaltzen zitzaion idazle famatuaren idazluma baina. Eta 55 urte luze horiek amets batean iragan zituela sinistu zuen.

XI. Ohe gainean dago; begiak, zabal zabalik, zoroetxeko sabaian iltzatu ditu. Zapai honek zerbait dakarkio burura baina ez daki zer den: Zuria da. Eta ez dio eskurik luzatzen. Zuria bezain mutua. Eta zerbaiten zai dago. Lasaia. Eta lasaitasun horrek begi dardartiei min egiten die. Lasaia bezain salatia, zeren bertan isladatzen den ezerk ezpaitu izkutatze biderik aurkituko.



Elizalderen dotrina

Rosa Miren Pagola

1. SARRERA¹

«Tandis que le Guipuscoan, le Biscayen, le Labourdin et le Souletin existent comme des dialectes littéraires ayant une petite littérature imprimée, le Haut-Navarrais et le Bas-Navarrais, qui sont tout aussi bien des dialectes que les premières, ne possèdent pas de livres. Je ne suis obligué pas, pour ce dialecte, d'inventer un basque théorique qui ne se trouve nulle part...»²

Euskara eta euskalki literarioak garatzeko erligioaren eragina benetan garrantzitsua izan zen, batez ere, Trentoko Kontzilioaren ondorioz, Eliza katolikoak herriarekin zituen harremanetarako eta sinestunak begiratzeko euskaraz baliatzea era26baki zuelako. Beraz, dotrinaren irakaskuntza euskaraz egin nahi bazen, hagitx beharrezkoa eta ia ezinbestekoa gertatzen zen dotrina euskaratzea. Horrekin ahozko hizketak hizkuntza idatziaren eragina jasango zuen, bide batez hizkuntza, neurri batean, landu ere egingo zelarik idatzi beharrez eta idatziaren bitartez. Bestalde, euskarak —euskalkiek—, neurririk xumeenean bazen ere, maila idatzia lortuko zuen, eta hortik sortu zen «dialekto literarioen» kontzeptua, hizkuntza idatzia, besterik gabe eta, beharbada, besterik ezean, zuzenean literariotzat hartuz hain zuzen.

¹ Lan hau inprimategira eramana zegoenean, bi artikulua agertu dira **Fontes Linguae Vasconum** 65, 1994ko aldizkarian. Bat P. Salaberrirena, «Elizalderen Apezendaco dotrina christiana uscaras», 7-39 or. Artikuluaren ondoren, Iruñeko Diputazioaren Liburutegian dagoen alearen edizio faksimila ematen da, 41-65 or. Beste artikulua I. Ursúa Irigoienek idatzia da: «El Padre Francisco Martínez de Elizalde. Notas para una biografía», 67-75 or.

² L.L. Bonapartek B. Echeniquerri 1861eko irailaren 7an idatzitako gutunean, Julio Urquijoren edizioa, *RIEV* 2, (1908, 656-657).

Kontzeptu hibrido hori, errealitatean gertatzen denarekin zerikusi haundirik ez badu ere, egun arte erabili izan da euskalkiak emaitza idatzien arabera sailkatzeko, batzuk euskalki literariotzat onartuz eta besteak ikuspegi hori ukatuz. Baina irizpideak betiere aski subjektiboak izan dira, ezpaita sekula erabaki, ez hemen ez inon, hizkuntza bat, are gutxiago dialektoa, literariotzat jotzeko idatzizko zenbat obra eta zein idazkera mota eta mailatakoak behar diren.

Horrela, Bonaparteren euskalki literarioen sailkapenari gaur arte eutsi zaio batere errebisiorik gabe, lau euskalki literarioak, bizkaiera, gipuzkera, lapurtera eta zuberera alegia, bere hala onartuak baitira inolako aldaketarik sartu gabe³.

Nafarroako hizketei dagokienez eta haietara mugatuz, lehen aipatu ditugun arrazoi erligiosoak zirela tarteko, egun galdurik den Sancho de Elsoren dotrinatik hasita, hainbat lan idatzi ziren euskaraz, Juan de Beriain, Miquelestorena, Sebastian Mendiburu eta Joaquin Lizarragarenak, garrantzitsuenak bakarrik ekarriz, justifikatuko luketenak, aipaturiko hizkuntza idatziaren irizpide edo araura, euskalki literarioen sailkapena errebisatu beharra.

Idazle horiez gain, XVIII. mendeko Francisco Elizalde ere ekarri behariko genuke, bere *Apezendako doctrina christiana uscaras* lanarekin goi-nafarreraz idatzirik dauden testuen esparrua zabaldu eta osatu bait zuen, eta doctrina hauxe da, hain zuzen, hemen berrargitaratzen duguna.

2. EGILEA

Nor zen Francisco Elizalde? Zenbait datu bere liburuaren azalean ageri dira:

«Egindu Jesusen Compañiaco Erreligioso Erretore Missionero, Theologia Moraleco Maistru, Erregueren Predicadore, eta Españaco Erreinaren Alargunaren Confessore Francisco Elizaldec».

Aita Elizalde Nafarroan jaio zen, Gesalazko Bailarako Muzki herrian, 1646-1654 urteen artean⁴. Jesuiten Konpainian sartu zen Toledoko Pro-

³ Horren lekukoa da, esaterako, Arturo Campión naparraren lana. Dialektologiaren aldetik egiten duen lan nagusian bertan, *Gramática de los cuatro dialectos literarios de la lengua euskara* (1884), aipaturiko euskalkiak baino ez bait ditu literariotzat jotzen.

⁴ Datu biografikoak honako lan honetatik jaso ditugu: URIARTE, Eugenio-LECINA, Mariano: 1929-1930, *Biblioteca de escritores de la Compañía de Jesús pertenecientes a la antigua asistencia de España desde sus orígenes hasta el año de 1773*, Imprenta «Gráfica Universal», Madrid. Elizalderi buruzko informazioa, lehehengoa atalean, bigarren alean,

bintzian 1668-1670 urteen inguruan⁵. Lau botoen profesioa 1689ko Urriaren 18an egin zuen. Zortzi urtez gramatika erakusten egon zen. Ondoren, eliz lanetara besterik ez zuela zuzendu bere eginbeharra ere badakigu, non aritu zen ez delarik esaten. Bederatzi urtez Mariana de Neoburgoren konfesorea izan zen. Baita Segurako Ikastetxeko Erretore ere. 1733ko Martxoaren 27an Madrilen hil zen.

Lanen artean, hemen editatzen dugun dotrinaz gain, beste liburu bat ere idatzi bide zuen Pérez Goyenak esaten duenez: «Apendezaco (sic) Liburu berri. Se anunció como obra que se iba a poner a la venta en 1753»⁶.

Azken errege Austriarraren alargunaren konfesorea izan zela esan dugu. Ez dakigu, halere, zein urteetan izan zuen kargu hori, baina kontutan izanik Mariana de Neoburgo Erregina Baionara 1706. urtean joan zela⁷ eta Larramendik 1730. urtean egiteko hori bere gain hartu zuela⁸, bi data horien arteko bederatzi urte han pasatuko zituela uste daiteke. Data gehiago mugatzea nahi izanez gero, 1712. urte ingurua egokia litzateke, zeren urte horretan, 1712ko Ekainaren 1ean, hain zuzen, Bartolomé Pons Aitari Francisco Elizaldek Baionatik gutun bat idatzi zion⁹. Horregatik, harrigarri samar gertatzen da Larramendik bere *Autobiografía* esaten duena:

«Entablé en Palacio la predicación, y tanto más cedió en mi recomendación, cuanto en **26 años no se había oído un sermón ni una explicación de doctrina** a la familia real, que pasaba de mil entre hombres y mujeres»¹⁰.

478-479. or., aurkitzen da. Elizalderi buruz geroztik idatzi dutenek iturri hori bera erabili dutela dirudi.

Jaiotza data, «Catálogos Trienales»en arabera aldatzen da: 1646ko Martxoaren 20 edo 30a; 1646ko Apirilaren 22, 29 edo 30ean; 1650eko Urriaren 4a; 1651ko Martxoaren 24a; eta 1654ko Ekainaren 19a. Data hori erabat finkatzea ezinezkoa da, garaiko eliz-liburuak ez direlako gordetzen.

⁵ Hemen ere jaiotza datarekin gertatzen den arazo bera gertatzen da, hiru data ematen bait dira: 1668ko Martxoaren 28a; 1669ko Apirilaren 18 edo 21a; eta 1670eko Apirilaren 17a.

⁶ PÉREZ GOYENA, A.: 1947-1964, *Ensayo de bibliografía navarra, desde la creación de la imprenta en Pamplona hasta el año 1910*, Príncipe de Viana, Pamplona. Elizalderen erreferentzia, hirugarren alean, 383. or.

⁷ Ikus: DUCÉRE, E.: 1903, *Le Reine Marie Anne de Neoburg à Bayonne, 1706-1738*, Biarritz; eta: BAVIERA, Aldalberto Príncipe de: 1938, *Mariana Neoburgo, Reina de España*, Espasa Calpe, Madrid.

⁸ TELLECHEA IDIGORAS, I.: 1973, *Autobiografía y otros escritos*, Sociedad Gipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, San Sebastián, 4-25. or.

⁹ Eskuizkribu bezala aipatzen dute Uriarte-Lecinak aipaturiko lanean, 479. or.

¹⁰ *Ibidem*, 5. or. Azpimarratua gurea da.

3. F. ELIZALDEREN OBRA

Apezendaco Dotrina Christiana uscaras Iruñean argitaratu zen, Alfonso Burgueteren Alargunaren etxean, 1735. urtean. Ezagutzen dugun edizio hau, lehenengoa ote? Hala balitz, Elizalde ez zuela argitaraturik ezagutu esan beharko da, bera 1733. urtean hil bait zen. Halere, dotri- nan bertan, egilea aipatzean, orainaldia erabiltzen du, «Eguindu Jesusen Compañiaco [...], eta ez “Eguinzue”, lehenengo argitalpena balitz esku artean dugun hau, bi urte lehenago hila zen egilea aipatzerakoan agian espero zitekeen bezala. Edonola ere, 1735. urtean bi argitalpen egin zire- la esan behar da eta biak inprimategi berean, —ikus hurrengo atalean, bi argitalpen egin zirela frogatzeko ematen diren arrazoiak—. Beraz, urte batean bi edizio egin baziren, merkatua bezegoela pentsatu behar da eta, agian, aurretik beste argitalpenik ere egin zitekeela pentsa daiteke.

Larramendik ezagutu eta, ziurrenez, izan ere izango zuen liburu hau, egun Loiolako Liburutegian alerik ez bada gelditzen ere. *Corogra- fian*, «Dialecto navarro»ren deskribapena egiterakoan, aipatzen du:

«Y el Padre Eleizalde (sic) en su doctrina del año 1735 pone ese mismo sentido así: “Cein concebitu baice Espiritu Santuaren obrak: jaio ce [...]”»¹¹.

Juan Mateo de Zavalak ere, bere «Noticia de las obras bascongadas que han salido á la luz despues de las que cuenta el P. Larramendi» la- nean, «En dialecto Navarro» atalean eta 13. zenbakiarekin, aipatzen du:

«Apezendaco dotrina cristiana ucaraz (sic). Doctrina cristiana para uso del los eclesiasticos p[o]r el P. Franc[isc]o Elizalde Jesuita impreso en Pamplona en 1739, su tamaño es como el regular de un Astete aunque algo mas corpulento.»¹²

Ikus daitekeenez, Zavalak 1739. urtea ematen du argitalpenerako. Ezagutzen ez den eta arrastorik utzi ez duen beste argitalpenen bat ote? Hori pentsatu beharko da, Zavalak oker ematen duen informazioa- ren posibilitatea ere erabat baztertzerik ez bada ere.

¹¹ TELLECHEA IDIGORAS, I. (Ed.): 1969, 299. or. Dena den, Loiolako Liburutegian ez da alerik agertu. Ikus: P. ALTUNA: 1984, «La auténtica biblioteca de Larramendi», *Muga* 28, Enero, 66-81; eta: J. ITURRIAGA: 1992, *Larramendi. Biblioteca del Santuario de Loyola. Catálogo e inventario de la Biblioteca personal del P. Manuel Larramendi, S.J.*, Universidad de Deusto, Bilbao.

¹² Aipamena eskuizkributik hartua dago, 2. or. Bonaparte Ondarean kokatzen da es- kuizkribu hau, Bizkaiko Foru Aldundiko Liburutegian Bv-94 erreferentziaz. Eskuizkribua Juan Ignazio Mendizabalek 1839. urtean eginiko kopia da.

Julien Vinsonek ere bere Bibliografian¹³ «57» zenbakiarekin aipatzen du, «Eleizalde» izenez, eta argitalpenaren data 1735ekoa da.

G. Lacombe ere dotrina honen aipamena egiten du¹⁴. Bera 1735. urteko argitalpenaz mintzatzen da eta honela bukatzen du: «elle sera rééditée plus tarde.» dio, beste argitalpen horren berririk ematen ez duelarik.

Goian esan den bezala, badirudi beste liburu bat ere idatzi zuela, «Apezendaco Liburu berri» izenburua zuena, hain zuzen. Ez dakigu liburua benetan argitaratu zen edo ez, baina, oraino behinik-behin, ez da inon, ez argitaratua ez zitatua, ageri. Halere, idatzi zuenaren alde dago Elizalde berak dotrinaren azken atalean, «Au aisquide chiquien daco» deitzen duen atalean, egiten duen aipamena: «Liburu andian dago luceago andien, eta zarrendaco». Zer gertatu ote da liburu horrekin? Oraingoz ez dugu liburu horren beste berririk.

4. DOTRINAREN EDIZIOAZ

4.1. Bi edizio ala bat?

1735. urtean dotrinaren bi edizio egin zirela esan dugu. Hona hemen baieztapen hau egitera mugitu gaituzten arrazoiak. Biak «Alfonso Burguete Alargunaren Echean» egin ziren, baina bien artean desberdintasunak ageri dira. Moldiztegian eginiko desberdintasunak eta testu berari dagozkiotenak. Hemendik aurrera testuok **A** eta **B** deituko ditugu, gure ustez, lehenengo egin zena **A** delarik.

Portadako «Urte IHS 1735» ez daude distantzia berdinerako koka-tuak. Testuan zehar, hitzek lerroetan duten banaketa ez da berdina eta letren karakterizazioa ere ez da erabat berdina, tituluak eta pajinazioa berdin gordetzen badira ere. Puntuazioari eta ortografiari dagokienez, desberdintasunak aurkitzen dira. **A** testuan bi puntu direnak, puntu bazarrez ordezkatu dira **Bn**.

Gauza bera agertzen dute formaren aldetik egin diren aldeketek ere. Lehenengo testuan dauden hainbat huts, bigarrean zuzendu egin dira; hona zenbait adibide: «Sinestacet» **An**, «Sinestacen» **Bn**; «vicien» **An**, «vicien» **Bn**; «deizcen» **An**, «deizen» **Bn**; «guertuncean» **An**, «guerruncean» **Bn**. Horrek ez du esan nahi erratu guztiak zuzendu direnik: «ez» beharko lukeen lekuan «ec» ageri da bi testuetan, «Jangoy-coaren legueco Mandamentuac» atalean. Edo, zuzendu nahian, bi-

¹³ *Essai d'une Bibliographie de la Langue Basque*: 1898, 1. alea, 180. or.; ed. faksimila, Caja de Ahorros de Vizcaya, 1983.

¹⁴ 1909, «Trois livres basques inconnus», *RIEV* III, 340-341.

rritan oker geldituz, «Penitencia, edo Confessioaren gañean» atalean aurkitzen dugun bezala «Jangoyco» hitza: «Jaugoncoac» **A**n eta «Jan-goycao» **B**n. Eta, orohar, **B** testuko bigarren partean zuzenketak ez direla hain arreta haundiz egin esan behar da. Edonola ere, grafiak tinkoagoak dira eta batasun haundiagoa dute **B** testuan. Esan daiteke, beraz, koherentzia bilatu dela bigarren argitalpena prestatu denean.

Aipatzen diren aldaketek bigarren edizio baten aurrean gaudela baieztatzeko bidean jartzen gaituztela esan al daiteke? Alegia, bi «emisio» edota bi «egoera» direla ezin al daiteke pentsa? Gure ustez, aldaketak ugariak direnez, denbora gutxi buruan, dotrina umeen artean zabalduz eta **A** testuari dagokion edizioa agortu ondoren, berriro beste edizio bat egiteko premian aurkitu zirela baieztatu daitekeela uste dugu¹⁵.

4.2. Gure edizioa

Azaldu diren arrazoiaren arabera, **A** testua aurretik eginiko edizioa bezala hartu dugunez, testu horren edizioa da hemen egiten duguna, **B** testuak dituen desberdintasunak oharretan azaltzen direlarik. **A** testua Azkue Liburutegian duten fotokopiatik jaso dugu¹⁶. **B** testua, berriz, Nafarroako Liburutegian dago «109-1/168» katalogo erreferentziatza. Larruzko azalak ditu, hainbat tokitan hautsiak eta egun zeiloz itsekiak daudenak. Bere garaiko josia galdurik duela eta orain duena gero eginikoa dela dirudi. Aurkezpen orrialdearen eskuinaldean «Biblioteca de Navarra»ren zigiluaren erdia du ezarria eta behealdeko er-

¹⁵ Arrazoi teknikoetarako Jaime MOLLEN artikulua jarraitu dugu: 1979, «Problemas bibliográficos del libro del Siglo de Oro», *BRAE* 59, 49-107. Hona arazo honetaz jasotzen ditugun aipamen garrantzitsuenak:

«La unidad básica del libro en el período de la imprenta manual es la edición, la cual puede presentar variaciones, que determinan la existencia dentro de un misma edición, de emisiones y estados.» (58. or.)

«Si la obra tiene que ser impresa de nuevo, aunque el tiempo transcurrido sea breve, se precisa componer otra vez todas sus páginas, y el producto resultante será distinto del anterior, pues es imposible, aunque se componga a plana y renglón, lograr una igualdad absoluta en la distribución de las letras y los blancos, en el uso de letras defectuosas o de otras suertes, en erratas, etc., además del reflejo de los usos habituales de cada componedor. En este caso, nos encontraremos con una nueva edición, o sea con una reedición.» (58. or.)

¹⁶ Eskertu nahi diogu Euskaltzaindiari eta, batez ere, Azkue Liburutegiari, testu honen fotokopia eskeintzeagatik. Fotokopia denez ezin izan dugu orijinala kontsultatu, ez bait genekien ez Azkue Liburutegiak ez guk, nondik izan zen egina fotokopia.

dian «30.904» zenbakia tanpoi batez ezarria du. Azalaren barruko partean «1.043» zenbakia arkatzez idatzia du. Liburuaren eta gaineko azalaren neurriak honako hauek dira: 14 × 6'5 zm. eta atzeko azalekoak: 14 × 6zm. Liburua ondo kontserbatua dago¹⁷.

Bestalde, bi liburuek badituzte amankomunak diren ezaugarriak. Biak 96 orrialdez osatzen dira. Biek, eskuz eta letra berdinez —xx. mendeko letra dela dirudi—, baina ez erabat berdin idatzirik, «Azcona»¹⁸ hitza urtearen argitalpenaren dataren ondoren idatzirik daukate¹⁹. Tituluak berdinak dituzte bi liburuek. **A** testuak, aldiz, azken orrialdean, **Bk** ez bezala eskuz idatzirik dagoen testu hau du: «Etapreguntaesdelbica / Demendibil» eta azkenean zirriborro bat. Letra XIX. mendekoa dela dirudi. Jarraian beste zirribororen bat dauka eta, azkenik, bi arrai eta txori bat marraztuak daude.

4.2.1. *Traskribaketa irizpideak*

Traskribaketarako aipaturiko ale hori jarraitu da zehaztasunez. Edonola ere, egileak darabilen sistema grafikoa eta egin diren aldaketak honako hauek dira:

- a) Liburuaren edizioan aurkitu diren inprenta hutsak testuan zuzendu egin dira eta orijinalako formak oharretan eskeintzen dira. Ageri den formak erratu itxura garbirik ez badu, baina beste kasu batzuetatik desberdina edo berez harrigarria bada, errespetatu egin da parentesi artean «Sic» ipiniz. Bestalde, kasu agramatikalen bat ageri bada, zuzendu egiten da, oharretan azaltzen delarik aldaketa.
- b) Hagitz laburdura gutxi dago testuan, eta daudenak osatu egin dira, letra osagarriak kortxeteen artean jarritz. Kortxeteen artean jarri dira baita ere 5. orrialdean, eskuinaldeko ertzean galtzen diren zenbait letra, ez bait dira fotokopian agertzen.
- c) Grafia, orohar, dagoen dagoenean utzi da. Hona, sistema grafikoan agertzen diren berezitasun larrienak:

—«i» bokal osoa hasieran eta azken posizioan doanean, gehienbat «i»z idatzia dago, baina ez beti; diptongoaren bigarren elementua denean, kontsonantez jarraitua, «i»z: «Aita», «ceinetaco», «baitan»; bokalez jarraitua bada, gehiagotan «y»z:

¹⁷ Gure eskerrak eman nahi dizkiogu Ondarruko Erretore Jaun On Jose M.^a Remeneriari ere, testu honen fotokopia gure esku jarri bait zuen.

¹⁸ Irakurketa bortxatuagoz, gure ustez, bada ere, «Arana» ere irakur daiteke.

¹⁹ Honek bi aleek noizbait jabe bera izan dutela agertzen du.

- «guyago», «ayen». Batzutan, oso gutxitan, hasierako posizioko «i» maiuskula denean «Y-»z ageri da. Kasu orotan orijinalerako grafia eutsi zaio.
- Kasu batzutan, bokalek, hobietako sudurkariarekin trabatuak doazenean, ez dute «n» grafia jarraian eramaten, bere gainean marra bat baizik; kasu horietan bokalari marra kendu egin zaio eta haren ordean sudurkariaren grafia ezarri da. **B** testuko orijinalerako grafia mota hori ageri da, baina gehienetan lerro bukaeran gertatzen denean edo «n» idazteko tokirik gelditu ez zaionean.
 - Inoiz edo behin, bokalak tildearekin agertzen dira eta horrela utzi dira.
 - Biezpainetako leherkari ahostuna «b» eta «v»z, txandaka, idatzia dago, txandaketaren arrazoi tinkorik batere agertzen ez delarik; horiek ere ez dira aldatu.
 - Nolanahi ere, xistukarien sistema grafikoa da nahasiena. Afrikari bizkar-hobietakoa nahiz «tc»z, nahiz «tz»z, nahiz «z»z idazten da. Ez dugu aldaketarik egin. Afrikari mihipunta-hobietakoa, ia kasu guztietan, «ts»z idatzia dago. Igurzkari bizkar-hobietakoa «z»z eta «c»z idatzia dago, txandaketa askeaz hauek ere, eta bere hartan utzi dira. Igurzkari mihipunta-hobietakoa, bokal artean doanean «s»z eta «ss»z dago, hainbestetan «s» grafia luzez; biak gorde dira, soila eta bikoitza alegia, baina kasu denetan laburra. Kasuren batzutan, «ss» bikoitza sabai-aurreko igurzkari ahoskabea ere izan daitekeela uste dugu, «onelasse», «berlasse» edo «issil»; hots bera adierazteko hasierako posizioan doanean, «ch» grafiaz ere baliatzen da —«chussencenditu», «choil»—, inoiz hitz barruan ere agertzen bada ere: «lencheago». Sabaiko afrikaria beti «ch»z idazten du: «Echean».
 - Yod hotsa delakoa beti «j»z idazten du: «jajoce», «jausice», «jarriric», «jayac». Beste jatorrizko kasutan «i»z idatzirik: «ior», baina gehienetan «y»z: «yor», «yondic».
 - Jatorri desberdinetakoa den hotsa hitz hasieran «g»z adierazten da: «genden», «Generalea». Hitz barruan berriz: «meregi»²⁰, «Corregicea», «Diligencia», «ungituric», «Engendratu», «imaginea», «escogiceco»; baita «x» grafiaz ere: «proximo», «exemplo», «exercicio», «luxuria», «luxuriasco», «j» grafiaz ere txandakatzen delarik: «lujuriaren», «Consejua».

²⁰ **B** testuan behin «j»z aldatzen da «mereji», alegia, «Salvea»n. Beste kasu guztitan «g»z.

- Batzutan, hitz barnean letraren bat maiuskulaz idazten du, baina jokabide horretarako ageriko batere arrazoirik ikusten ez denez, kasu horietan minuskulaz aldatu ditugu.
 - Galdera markak egileak berak bukaeran baizik ez ditu jartzen, eta ipintzea ahanzten zaion kasu bakanetan osatu egin dizkiogu.
- d) Partizipioa, ia beti, aditz laguntzailearekin loturik doa; lexema elkartu, eratorri eta horrelakoen elementuak loturik aurkitzea espero zitekeen hainbat kasutan, aldiz, banaturik agertzen dira. Denak dauden bezala utzi dira, lehenengo kasuan, aski normala izan delako idazkera hori euskal literaturaren tradizioan; bigarreanean, berriz, interesgarria gerta daitekeelako, lexikologiaren aldetik, edozein azterketa motatarako.

Azkenik, **B** testuan dauden desberdintasun denak aipatzen direla esan nahi dugu. Ez, ordea, inprenta dela bide, dauden hitzen banaketa desberdinak. Ez dira aipatzen zenbait aldaketa grafiko: «s» soilaren eta «ss» bikoitzaren arteko desberdintasunak, edo «bokal + n» edo «bokal gainean marra duela»ren arteko aldaketak.

5. HIZKERA

Larramendik Nafarroako hizkeran idatzia zegoela esan zuenean ondo asmatu zuen. Elizalderen euskalkia zehatzago kokatuz, ziurrenez bere herriko hizkera ongi ezagutzen zuen, eta Gesalaz bailarakoa izanik, hegoaldeko goi-nafarreran koka daiteke, mendebaldeko azpi-euskalkian, alegia, Bonapartek eginiko sailkapenaren arabera. Euskararen presentzia bailara honetan eta, zehatzago, Muzki herrian, *xvi*. mendetik dokumentatzen da. Iruñeko Elizbarrutiak Nafarroako herrien egoera linguistikoa ezagutzeko jaso zuen zerrendan²¹, euskaraz egiten zen herrien artean birritan «Muzquiz» aipatzen da. Bi horietatik bata, noski, Imozko Bailarakoa, «Muzkitz» herriari dagokio eta bestea, egungo «Muzki» Gesalaz bailarako herriari²².

Herri honek *xviii*. mendean oraindik euskalduna izaten jarraitzen du. 1765. urtetik aurrera, Muzkiko parrokiako erretorea bertako semea zen, Francisco Martínez de Morentin, eta horren ondoren, Francisco Antonio Martínez de Morentin, 1797. urterarte. Batak eta besteak ser-

²¹ Ikus Manuel Lekuona: 1933, «El euskera en Navarra a fines del siglo *xvi*», *RIEV* 26, 365-374.

²² *Op. cit.*, 371. or.

moiak euskaraz egiten zituzten eta horren lekukorik hoberena bertako hizkeraz idatzirik dauden sermoiak gertatzen dira²³.

Luis-Luziano Bonapartek XIX. mendean egin zuen euskararen lehen mapa linguistikoa²⁴. Bertan Muzki herria artean euskaldun agertzen da. Egia da, bai, kolore ahuletan dagoela bailara honi dagokion margoa, euskararen egoera atzerakorra zela agertuz edo, bestela esan, adinekoak baino ez zutela egingo euskaraz adieraziz; halere, garai hartan oraindik Muzki herrian euskaraz egiten zela aitortu behar da.

Euskara idatziaren aldetik, beraz, Muzkirako bi testigantza idatzi ditugu eta biak XVIII. mendekoak: bata, Elizalderena, mendearen lehen laurdenekoa eta bestea, Martínez de Morentin-dar erretoreena, azken laurdenekoa. Azken hauenak sermoiak dira, zuzen-zuzenean herriko hizkeraz eta batere zaindu gabe idatziak; oso bat-bateko hizkuntza agertzen dute, erdararen interferentzia, lexikoa eta sintaktikoa batez ere, erabat nabarmena delarik. Elizalderena askoz ere zainduagoa da eta hizkuntzaren ezaugarrietan hegoaldeko goi-nafarrerarenak agertzen baditu ere, zenbait kasutan hizkera arautuaren bideari segitzen diola esan daiteke, honetan ere, dotrina gehienetan gertatzen den bezala, erromantzearen interferentziak bai lexikoak bai morfo-sintaktikoak agerikoak badira ere. Hona Elizalderen dotrinak, euskalkiari dagokionez aurkezten dituen ezaugarri nabarmenenak:

- Ez da armonia bokalikorik agertzen: «viocean», «gurucean», «fedean», «poderoso», «Credo». Dena den, barruko sandhietan bada salbuespenen bat, «il biardugu»; baina «eguin veardugu», «vearda»²⁵.
- Testu zaharretan aipagarria gertatzen den «oa» bokal taldea hemen txandakatuz ageri da: «goardatu», «guardatu».
- Sinkopa ugaria da: «bedrazigarrena», «atra», «abrsteco», Aditzaren sinkopa ere ageri da: «dramanari», «Erranzquizu Articulo fedescoac», «atracen». Txandaketaren bat ere bada, maila berekoa ez bada ere: «libru» eta «liburu».
- Mugatu plural hurbila zenbaitetan erabiltzen du: «Evaren Seme desterratuoc».

²³ Manuel Lekuona: 1973, «Textos vascos del siglo XVIII en Tierra de Estella», *FLV* 15, 369-390.

²⁴ *Carte de sept provinces basques montrant la délimitation actuelle de l'euscara et sa division en dialectes, sous dialectes et variétés par le Prince Louis-Loucién Bonaparte*, Londres, 1863.

²⁵ Martínez de Morentinenean «-a» bokala «-e» bihurtzen da «i» eta «u» bokalak aurretik joaten diren kasu guzietan. Hemendik aurrera testu honen aipamenak «M.M.» inzialez eginen dira. Bestalde, testu honi buruz eginen diren erreferentzi guziak aipaturiko M. Lekuonaren ediziotik jasoak izanen dira.

- Ergatibo pluralerako «-ek» atzizkiaz baliatzen da: «Apecec, eta leitcen daquitenecc eracusteco», «Eta Andreec beren senarrequi nola?»
- Komitatiboa, «-ki»: «Conseju Errealaren, eta Ordinarioaren licenciarequi».
- Instrumentala, «-s»: «Dotrina Christiana uskaras», «aiec aitus eta memorias icasteco».
- Erakusle singularrean, hirugarren pertsonan genitiboan, txandakatuz: «arren» eta «aren», «il biardugu arren fedean», «Cergatic ostia artan, eta aren parte gucietan dagon Christo gucia». Pluralean, lehenengo pertsona: «ebec», «ebetatic»: «Gure gorputz, eta arima ebec beroc, juntaturic», «Becatu Venialea barcacenda bedraci gauza ebetatic». Testu guzian birritan «obec» ageri da, testuinguru berdinean: «Eta obec naiduten estadoa eman»²⁶. Hirugarren pertsona pluralean, «eyec»: «Cein dire eyec?», baina: «aiec aitus eta memorias icasteco»²⁷.
- Bihurkariak beren balioz ageri dira: «izulizazu gure gana zeure vegui misericordiasco oyec: eta desterru onen buruan eracutsidazaguzu zeure sabeleco fruitu Jesus»; baina beste batzuetan forma indartua baino ez da: «Amar Mandamentu ebec eguitendire bietan: [...] eta proximo laguna gueuren burua becala», «Emandazaguzu egun gueuren egunorosco ogui», «barcadazquiguzu gueuren zorrac».
- Galdetzaile indefinidoetan: «ior» / «yor», «yondic»²⁸.
- Aditzean, iraganeko partizioa «-en»: «Bada noiz egonenda?». Subjuntibo, potentzial eta inperatiboetan radikalez baliatzen da: «geldi dadila», «salbadaique», «Iminzazu», «Cumplibedi zure vorondatea»; halere, partizipioz inoiz ere erabiltzen du: «onesidezagula», «etorribedi». Iraganeko formetan «-n» ez da agertzen: «Christo ilce gurucean»; menpeko perpaus bihurtzen denean ordea, «-n» atzizki menperatzailea hartzen du: «onei emateco Gloria cergatic goardatucitusten aren Mandamentu Sanduac». Datiboa-

²⁶ B testuan, behin bakarrik «obec».

²⁷ M.M.-ena aberatsagoa da, sistema pluraleko formetan batez ere: «abec» eta honen beste forma konjugatuak, «ebec» eta «eben»; baita datibo kasuan ere, «oqui» eta «equi», «aiequi»rekin txandakatuz.

Bestalde, Dotrinan agertzen den «ebec» formari buruz, zera esan beharko da, bi aldaketa fonetiko dela medio sortua izango dela dirudi. Lehenengo «u» bokalaren leherkari biezpaineakoaren aldeko aldaketa eta, gero, «a > e»ren asimilaketa: «aucc > abec > ebec», alegia.

²⁸ M. M.-k txandakatuz: «apenas arquicenda inior ere», «Juicioco eguna iorquere ezluque casoric eguinen».

rekin komuntzadurarik egin gabeko perpausak nahiko agertzen dira: «Ceruan diren Sandu guciey, [...] otoiz eguindezaten enegatic gure Jangoycoari». Pontetzialean forma desberdinak aurki daitezke: «Jangoycoaren iza falta daiteque?», «ezin yor salbadaique», «eta alere irurac dire bat: nola dateque?». «Eman» aditzaren erro supletibo den «-i-»z bizpahiru kasu daude: «eta guero digula gloria»²⁹.

—Sintaxi mailan genitibo objetiboaren erabilera ageri da: «ilce gure salvaceco», «nondic etorrigo baita ilen eta vicien juzgacera».

—Azkenik, lexikoan, euskalkiari dagozkion lexemak dira arruntenak: «andia», «copetan», «soin», «erran», «berce», «ailcinera», «ainguirua», «irur», «laur», «borz», «becala», baina, inoiz, «bezala» ere bai, «guti», «aniz», «igan», «erdechi», «echide(tu)», «imini», «bague», «alques», «fite», «latso», e. ab. Dena den, dotrinaren itzulpena denez, hitz asko erdaratik hartuak dira, batez ere erligioaren arlo semantikoarekin lotzen direnak.

Apezendaco dotrina chistiana uscaras

Apecec, eta leitcen daquitenece eracusteco, eta explicatceco uscaldun puro leitcen estaquitenei; aiec aitus, eta memorias icasteco.

Eguindu Jesusen Compañiaco Erreligioso Erretore Missionero, Theologia Moraleco Maistru, Erregueren Predicadore, eta Españaco Erreinarenen Alargunaren Confessore

FRANCISCO ELIZALDEC.
URTE IHS³⁰ 1735

Conseju Errealaren, eta Ordinarioaren licenciarequi.
Iruñan: Alfonso Burguete Alargunaren Echean.
Eta salcen da Hospital Generalean.

Dotrina chistiana uscaras

Christio fiela, obligacio / daucazu, eta arracio. / Devocio andia iduquicera / ceure viocean gurucera³¹: / Cristo ilce gurucean, / il biardugu arren fedean; / ilce gure

²⁹ Ezin daiteke forma klitxatuetan bakarrik erabilia dela esan, xx. menderarte iraun duen pasarte, «Aita Gurea»ri dagokiona alegia, Elizalde «eman» formaz idazten bait du: «Emandazaguzu egu gueuren egunorosco oguia». Bestalde, M.M.-k ere behin baino gehiagotan darabil: «yguzu siquiera zure misericordiegatic descansaturic gaudequen le-cubat».

³⁰ Apaingarriz hornitua.

³¹ Datiboa eskatzen du, baina, agian, puntuari eutsiz «gurucera» uzten du. Ez da izanen, dena den, datiboaren komuntzadurarik gabeko kasu bakarra.

salvaceco, / becatutic gu atraceco. / Eguin veardugu costumbrea / beti eguitera³² gurucea, / nondic vearda ceñatu, / alaber santiguatu. / Cer dá vada ceñacea? / Irur³³ guruce eguitea, / copetan lembicicoa, / agoan ere bigarrena, / irugarrena bularretan / viozaren ondoan³⁴. / Copetan libraceco, / eta gu apartaceco / pensamiento gaistoetic, / agoan ere itzetatic, / bularretan gu guardaceco / obra gaito ez eguiteco. / Cer da orai santiguacea? / Guruce³⁵ andibat eguitea / copetatic bularretaraño, / soin³⁶ batetic berceraño / eguinzazu onelasse / eta nic eguinen-dut berlasse.

Ceñacea, eta santigoacea

Gurutce Sanduaren señaiegatic + gure etsayetatic + libera gaitzazu gure Jaun, eta Jangoycoa + Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Sanduaren³⁷ icenean. Amen Jesus³⁸.

Alabatua

Alabatua dela Aldareco Sacramentu Sandua: eta Andre Dona Maria Virginnaren Concebicioa becatu originaleric bague, bere lembecico istante naturalean. Amen Jesus.

Bercebat

Jangoycoac Salvazaizala Maria Aita Jangoycoaren Alaba.
 Jangoycoac Salbazaizala Maria Seme Jangoycoaren Ama.
 Jangoycoac salvazaizala Maria Espiritu Sandua<ren>³⁹ Esposa.
 Jangoycoac salvazaiza<la> Maria Trinitate Sanduar<en> Templo, eta Sagrarioa.
 Jangoycoac salvazaiza<la> Maria, gracias betea: beca<tu> originaleric bague conceb<i>tu, ceure lembecico istante naturalean: Amen Jesus.

Paternosterra, edo Aita gurea

Aita gurea Ceruetan zaudena santificabedi zure izena, etorribedi zure Erreñua. Cumplibedi zure vorondatea Ceruan becala, lurrean ere. Emandazaguzu

³² «Eguin [...] costumbrea beti eguiteco» arruntagoa litzateke; agian, «costunbratu» aditzaren errejimenaren eraginez sortua izan daiteke.

³³ Minuskulaz orijinalean. Ikus, bestalde, hiru bertso beherago «irugarrena», kasu honetan, «irugarrena» formarekin txandakatzen delarik.

³⁴ Komaz orijinalean.

³⁵ Minuskulaz orijinalean.

³⁶ «bizkar», alegia.

³⁷ Leherkari ahoskabearekin txandakatzen da dotrinan zehar.

³⁸ «u» bokalaren grafia txandakatzen da «u» / «v» idatziz «Jesus» eta beste zenbait hitzetan, kasu honetan, esaterako, «v» grafiaz dago. Guk beti «u»z idatziko dugu.

³⁹ **A** testuaren fotokopiaren 5. orrialdeak eskuinaldeko ertza ebakia du eta, kasu batuetan, ez dira azkenengo letrak irakurtzen.

egu gueuren egunorosco oguia. Eta barcadazquiguzu gueuren zorrac, guc barcacen ditugun bezala gu zor gaitustenei. Eta ezcaizazula utzi tentacioan erorera: baicic liberagaizazu gaicetic. Amen Jesus.

Ave Maria

Jangoycoac salvazaizala Maria, gracias betea, Jauna da zeurequi, bedeicatu zara emaste gucien artean. Eta bedeicatu da zure sabeleco fruitua Jesus. Santa Maria, Jangoycoaren Ama otoiz eguinazu gu becatariengatic orai, eta gure eriozeco orduan. Amen Jesus.

Credoa

Sinestacen⁴⁰ dut Jangoyco Aita gucis poderoso, Ceruaren, eta lurraren Criazolearen baitan. Eta gure Jaun Jesu Christo bere Seme bacarraren baitan. Cein concebitubaize Espiritu Sanduaren obras. Jayoce Andre Maria Virginaren ganic. Padeicituzue Poncio Pilatoren manuaren azpian: gurucificatuzute, ilzute, orzizute: jausice infernetara, eta irurgarren egunean erresucitatuze ilen ertetic⁴¹. Igance Ceruetara, an dago jarriric Aita Jangoyco gucis poderosoaren escuyeco aldean. Nondic etorrico baita ilen, eta vicien juzgazera. Alaber sinestacendut Espiritu Sanduaren baitan. Sinestacendut Eliza Ama Sandu Catholicoa, Sanduen Comunioa, becatuen barcacioa, Araguaiaren erresurreccioa, eta vice seculacoa. Amen Jesus.

Salvea

Jangoycoac salvazaizala Erreina misericordiaren Ama, vice, dulzetasuna, eta gure esperanza. Jangoycoac salvazaizala: zure gana deyes gaude, Evaren Seme desterratuoc, suspiros, ayes, eta negarres negarresco valle ontan. Ea bada gure Abogada izulizazu gure gana zeure vegui misericordiasco oyec: eta desterru onen buruan eracutsidazaguzu zeure sabeleco fruitu Jesus bedeicatu ori. O Clementissima! O Piadosa! O Dultze⁴² Virgina Maria Jangoycoaren Ama Sandua, otoiz eguizu gure gatic, meregi⁴³ dezazquigun Jesu Christoren prometimentuac⁴⁴. Amen Jesus.

Jangoycoaren legueco Mandamentuac

Jangoycoaren Legueco Mandamentuac dire amar. Lembecico irurac Jangoycoaren ondrendaco: eta berce zazpiac proximoaren provechuarendaco.

⁴⁰ «Sinestacet» orijinalean. Zuzendua **B** testuan.

⁴¹ Orijinalean bi puntu. Beste kasuetan grafia hau errespetatzen dugu, baina egungo erabileraren arabera, puntua dagokionean, kasu honetan bezala, hurrengo hitza maiuskulaz hasten bait da, aldatu egin dugu.

⁴² Ikus «Salvea»ren hasieran, hitz bera igurzkariz idatzia.

⁴³ **B** testuan «mereji». Dena den, aldaketa hau bakarra da, agertzen den beste kasutan «meregi» gordetzen bait da.

⁴⁴ Hemen beste kasu askotan bezala, sudurkariaren ondoko leherkaria ez da ahostun bihurtu.

Lembecicoa, Jangoycoa onesicea gauza gucien gañetic.
 Bigarrena, juramenturic vanoan ez eguitea.
 Irurgarrena, jayac, eta igandeac guardacea.
 Laugarrena, Aita, eta Ama ondracea.
 Borzgarrena, ez ior ilcea.
 Seygarrena, ez fornicacea (edo luxuriasco becatuan ez erortcea.)
 Zazpigarrena, ez⁴⁵ ebastea.
 Zorzigarrena, ez falsu testimonioric, ez guezurric erratea.
 Bedrazigarrena, berceren emastea ez deseacea.
 Amargarrena, berceren ondasunac vide gavean ez deseacea.
 Amar Mandamentu ebec eguitendire bietan. Jangoycoa cervizacean, eta onesicean gauza gucien gañetic, eta proximo laguna gueuren burua becala. Amen Jesus.

Eliza Ama Sanduaren Mandamentuac

Eliza Ama Sanduaren Mandamentuac dire borz.
 Lembicicoa⁴⁶, igande, eta jayetan Meza osoa enzutea.
 Bigarrena, urtean bein verere confessacea.
 Irurgarrena, Bazcoa Garizumacoan comeceacea.
 Laugarrena, barurcea Eliza Ama Sanduac manacenduenean.
 Borzgarrena, Amarren, Primiciac ongui eguitea. Amen Jesus.

Eliza Ama Sanduaren Sacramentuac

Elizaco Sacramentuac dire zazpi.
 Lembicicoa, Batayoa.
 Bigarrena, Confirmacioa.
 Irurgarrena, Penitencia (edo Confessioa⁴⁷.)
 Laugarrena⁴⁸, Comecacioa.
 Borzgarrena, Oliadura.
 Seigarrena⁴⁹, Orden.
 Zazpigarrena, Matrimonioa. Amen Jesus.

Articulo Fedescoac

Articulo Fedescoac dire amalaur: Lembicico zazpiac dire Divinidadearenac: eta berce⁵⁰ zazpiac Christo gure Jaunaren humanidade Sanduarenac.

⁴⁵ «ec» orijinallean, erraturik noski; baita **B** testuan ere.

⁴⁶ «Lembecicoa» formarekin txandakatuz; orain arte denetan «lembecicoa» agertu bada ere.

⁴⁷ «Confesioa» **B**-n. Aurrerago, «passio» eta «pasio» **A** eta **B** testuek, jarraiberean. Dena den, bi testuetan txandaketak ere gertatzen dira.

⁴⁸ «Laugarrena» orain arte.

⁴⁹ Aurretik «Seygarrena»; **B** testuan, aldiz, «y»z kasu guztietan.

⁵⁰ «berze» **B**-n.

Divinidadearenac dire ebec

Lembicicoa⁵¹, sinestacea dela Jangoycobat gucis poderosoa.
 Bigarrena, sinestacea, dela Aita.
 Irurgarrena, sinestacea, dela Semea.
 Laugarrena, sinestacea, dela Espiritu Sandua.
 Borzgarrena, sinestacea, dela Criazalea.
 Seigarrena, sinestacea, dela Salvazalea.
 Zazpigarrena, sinestacea, dela Glorificazalea.

Humanidade Sanduarenac dire ebec

Lembicicoa, sinestacea, Jesu Christo gure Jauna guizon cen becala, concebitucela, Espiritu Sanduaren obras.
 Bigarrena, sinestacea jaiocela Ama Virginaren ganic, beti Virgen gueldicencela, erdi baño len, erdicean, eta erdias gueros.
 Irurgarrena, sinestacea, pasatuzuela passio eta eriocea gure Salvaceagatic.
 Laugarrena, sinestacea, jausicela, ifernuetara, eta atracituela aren beyra ceuden Arima Sanduayec.
 Borzgarrena, sinestacea, erresucitatuclera irurgarren egunean ilen ertetic.
 Seigarrena, sinestacea, igancela Ceruetara, eta dagola jarriric Aita Jangoycoaren escuieco aldean.
 Zazpigarrena, sinestacea, etorrico dela, vicien, eta ilen juzgazera; onei emateco Gloria cergatic goardatucitusten aren Mandamentu Sanduac: eta gaistoei ifernua, cergatic ecitusten goardatu. Amen Jesus.

Obra Misericordiascoac

Obra Misericordiascoac dire amalaur: zazpi corporaleac eta zazpi Espiritualeac.

Corporaleac dire ebec

Lembicicoa, Eriac visitacea.
 Bigarrena, jatera ematea gose denari.
 Irurgarrena, edatera ematea egarri denari⁵².
 Laugarrena, billusiric dagona vesticea.
 Borzgarrena, ostatu ematea Peregrinoari.
 Seygarrena, Cautivoac erredimicea.
 Zazpigarrena, ilen orstea.

Zazpi Espiritualeac dire ebec

Lembicicoa, eracustea estaquienari.
 Bigarrena, bearduenari Consejo ematea⁵³.

⁵¹ «Lembicicoa» **B**-n; berdin hurrengo atalean ere.

⁵² Orjinallean «egarridenari», aurreko kasuan ez bezala.

⁵³ «ematera» orjinallean.

Irurgarrena, uts eguinic doaiena Corregicea.
 Laugarrena, injurien barceacea.
 Borzgarrena, triste dagona Consolacea.
 Seygarrena, eramatea Pacienciarequi lagunaren Flaquezac.
 Zazpigarrena, otoiz eguitea vicien⁵⁴, eta illengatic⁵⁵. Amen Jesus.

Becatu Capitaleac: deizen⁵⁶ baitire mortaleac

Becatu Capitaleac dire zazpi

Lembicicoa, Sobervia: buruan.
 Bigarrena, Embidia: veguietan.
 Irurgarrena, Gula: agoan.
 Laugarrena, Ira: viocean.
 Borzgarrena, Avaricia: escuetan.
 Seygarrena, luxuria⁵⁷: guerruncean⁵⁸.
 Zazpigarrena, Pereza: oñetan.

Zazpi vicio eben contra, dire zazpi Virtute

Soberviaren Contra, Humildadea.
 Embidiaren Contra, Charidadea.
 Gularen Contra, Templanza.
 Iraren Contra, Paciencia.
 Abariciaren Contra, Liberalidadea.
 Lujuriaren Contra, Castidadea.
 Perezaren Contra, Diligencia.

Animaren etsayac dire irur

Lembicicoa, Mundua.
 Bigarrena, Demonioa.
 Irurgarrena, Araguaia.

Iduqui bearditugun Virtuteac dire zazpi⁵⁹

Irur Theologaleac, eta laur Cardinaleac.

⁵⁴ «vicien» orijinalean; **B**-n zuzendua, «vicien».

⁵⁵ «ilen-», grafian bustidurarik gabeko forma arruntena izanik, «ll»z hemen idatzia.
B-n, aldiz, «ilen-».

⁵⁶ «deizcen» **A**-n; forma zuzena **B**-n.

⁵⁷ «Luxuria» **B**-n.

⁵⁸ «guertuncean», **A**-n; **B**-n forma zuzena.

⁵⁹ «Zazpi» **B**-n, hurrengoan ere bai.

Theologaleac dire ebec

Lembicicoa, Fedea.
 Bigarrena, Esparanza.
 Irurgarrena, Charidadea.

Laur cardinaleac dire ebec

Lembicicoa, Prudencia.
 Bigarrena, Justicia.
 Irugarrena, Fortaleza.
 Laugarrena, Templanza.

Arimaren Potenciac dire irur

Lembicicoa, Memoria.
 Bigarrena, entendimentua.
 Irurgarrena, Vorondatea.

Sentido Corparaleac dire ebec

Lembicicoa, Icustea⁶⁰.
 Bigarrena, Adizea.
 Irurgarrena, Usmacea.
 Laugarrena, Gustacea⁶¹.
 Borzgarrena, Palpacea, edo uquicea.

Espiritu Sanduaren Donac dire zazpi

Lembicicoa, Jaquinduria.
 Bigarrena, Entendamentua.
 Irurgarrena, Consejua.
 Laugarrena, Fortaleza.
 Borzgarrena, Ciencia.
 Seygarrena, Piedadea.
 Zazpigarrena, Jangoicoaren beldurra.

Espiritu Sanduaren Frutuac dire amabi

Lembicicoa, Caridadea⁶².
 Bigarrena, Gozo Espiritualea.
 Irurgarrena, Baquea.
 Laugarrena, Paciencia.

⁶⁰ «Ycustea» **B**-n.

⁶¹ «Gustazea» **B**-n; hurrengo «Palpacea» eta «uquicea» kurtsibaz **B** testuan.

⁶² Aurrekoetan «Charidadea»; txandakatuz darabil.

Borzgarrena, Magnanimidadea.
 Seygarrena, Ontasuna⁶³.
 Zazpigarrena, Benignidadea.
 Zorzigarrena, Mansedumbrea.
 Bedrazigarrena, Fedea.
 Amargarrena, Modestia.
 Amecagarrena, Continencia.
 Amabigarrena, Castidadea.

*Bienaventuranzac dire zorci*⁶⁴

Bienaventuratuac dire espiritu pobre duten ayec; cergatic ayenada Cerua.
 Bienaventuratuac dire Mansoac; cergatic ayec izanendire lurraren jabe.
 Bienaventuratuac dire negar eguiten dutenac; cergatic izanendire consolatuac.
 Bienaventuratuac dire justician gose, eta egarri direnac; cergatic aspertuco⁶⁵ dire.
 Bienaventuratuac dire Misericordiosoac; cergatic erdechicodute Misericordia.
 Bienaventuratuac dire vioz garvia dutenac; cergatic icuscodute Jangoycoa.
 Bienaventuratuac dire Pacificoac; cergatic erranendiote⁶⁶, Jangoycoaren Se-meac direla.
 Bienaventuratuac dire, Justiciarengatic padecicen dutenac; cergatic ayena da Ceruco erreytua.

Becatu Venialea barcacenda bedraci gauza ebetatic, edoceinequi

Meza enzuteas devociorequi.
 Ongui Comecearequi.
 Jangoycoaren itza adicearequi.
 Obispoaren Bedeicioarequi.
 Aita gurea erratearequi.
 Confessio generalea erratearequi.
 Ur bedecatu⁶⁷ arcearequi.
 Bularretan golpe ematearequi.
 Au guciau devocio, eta urriquimentuarequi⁶⁸.

Guizonaren azquen finac dire laur

Lembicicoa, Eriocea⁶⁹. Bigarrena, Juicioa. Irurgarrena, Infernua. Laugarrena, Gloria (edo Cerua.)

⁶³ Minuskulaz **A**-n, maiuskulaz, aldiz, **B**-n.

⁶⁴ «zorzi» **B**-n.

⁶⁵ «asetuko», alegia.

⁶⁶ Datiboaren komunztadurarik gabe, «diete»ren lekuan.

⁶⁷ Mugatua espero zitekeen.

⁶⁸ Orrialdearen bukaeran jartzen den hurrengo orrialdeko lehenengo hitzaren aurre-neko silaba erraturik emana, «lurur» jartzen bait da.

⁶⁹ **A** testuan bat bestearen jarraian emanak; **B**-n, aldiz, bat bestearen azpian.

Confessio Generalea

Ni becatorea, confessacen naiz Jangoyco Omnipotenteari, Andre Dona Maria Virginari, Jaun Done Miguel Ainguiruari, Jaun Done Joaniz Bautistari, S.⁷⁰ Pedro, eta S. Paulo Apostolu Bienaventuratueri, Ceruan diren Sandu, eta Sanda guciei, eta neure Aita Confessore orri aniz becatu eguindudala, pensamentus itces eta obras, neure culpas, neure culpas, neure⁷¹ culpa andias. Argatic otoiz eguitendiot Andre Dona Maria Virginari, Jaun Done Miguel Ainguiruari, Jaun Done Joaniz Bautistari, S. Pedro, eta S. Paulo Apostolu Bienaventuratueri, Ceruan diren Sandu guciei, eta neure Aita Confessore orri, otoiz eguindezaten⁷² enegatic gure Jangoycoari. Amen Jesus.

Contricioa

Jesu Christo neure Jauna, Jangoyco, eta guizon verdadera, neure Criado-rea, eta Erredentorea, cergatic zaren Jangoycoa, eta cergatic onesicenzaitudan gauza gucien gañetic, damudut neure bioz gucias orren ofendituas, eta proponicendut confessace, eta firmequiro, beyñere becuric ez eguitemco.

Edo onlasse

Jauna, cergatic zaren Jangoycoa, eta cergatic onesicenzaitudan gauza gucien gañetic, damudut zu ofendituas, eta proposito firmea eguitendut, confessaceco, eta emendaceco.

Eta ara Atricioa

Jesu Christo neure Jauna⁷³, Jangoico, eta guizon Verdadera, neure Criado-rea, eta Erredentorea, damudut zu ofendituas, cergatic becatua gauza itsusia den, edo cergatic castigatuco nauzun mundu ontan, edo vercean, proposito firmea eguitendut Confesaceco, eta emendaceco.

Edo onlasse

Jauna, damudut zu ofendituas, cergatic becatua gauza itsusia den, edo cergatic ifernuaren veldur dudan; proposito firmea eguitendut confessaceco, eta emendaceco.

Aurrendaco advertencia bat

Veren artean passacenditustenean preguntac, errespondacen⁷⁴ duenac, erran beardu⁷⁵ bay Anaya: edo: ez Anaya: Eta Apezac, edo Maistruac, edo Ai-

⁷⁰ «San» osorik, kasu guzietan, **B**-n.

⁷¹ «neur» **B**-n.

⁷² Datiboaren komunztadurarik gabe.

⁷³ «Juana», erratuz, orijinallean. **B**-n forma zuzena.

⁷⁴ «errespondazen» **B**-n.

⁷⁵ «berdu» **B**-n.

tac geldeitendiotenean *bay Jauna*: edo: *ez Jauna*. Eta erratendiotenean errandezala Ave Maria, edo berce edozein oracio, estu cer erran gucia baicic bi itz, eta Amen Jesus.

Capitulo lembicicoa,

Christioaren izena, eta señalacea nola dá

- Galdeiten dut. Aurra: Cembat Jangoyco dire?
 Errespondazazu. Bat solamente⁷⁶.
 Gal. Eta nola da zure izena?⁷⁷
 Err. N.
 Gal. Iduqui bearduzu devocio andia ceure Sanduorri?
 Err. Bay Jauna.
 Gal. Eta Christioa zara?
 Err. Bay Christo gure Jaunaren gracias.
 Gal⁷⁸. Cer naidu erran Christioa?⁷⁹
 Err. Christoren Fedea daucana professaturic Batayoa.
 Gal. Bada nor da Christo?
 Err. Jangoyco, eta Guizon Verdaderoa.
 Gal. Nola da Jangoyco?
 Err. Cergatic Jangoyco viciaren seme naturalea den.
 Gal. Eta nola da Guizon?
 Err. Cergatic alaber Ama Virginaren Semea den.
 Gal. Christoc bi naturaleza ditu?
 Err. Bay Jauna, divinoa, eta humanoa: baña solo Personabat.
 Gal. Guizon eguincen baño len nola deicence?
 Err. Jangoycoaren Seme Eternoa, edo Trinitateco bigarren Persona.
 Gal. Eta guizon Eguinasgueros?
 Err. Deicenda Christo.
 Gal. Cergatic deicen da Christo?
 Err. Cergatic ungituric, eta gracias beteric dagon, gucien gañetic.
 Gal. Christo au da Mesias verdaderoa?
 Err. Bay Jauna, Legueac, eta Profetec prometituzutena.
 Gal. Cein cire aren oficio principalac?
 Err. Salvadore, eta Maistruarenac.
 Gal. Cer dotrina eracutsizue?

⁷⁶ **B** testuan galdera-erantzunak, 1.etik 16.era, zenbakituak daude, galdera eta dagokion erantzuna zenbaki berarekin.

⁷⁷ Batzutan ez du galda markarik ipintzen, guk, ordea, galdera egiten den guzietan ezarriko dugu. **B**-n galda markaz.

⁷⁸ Orijinalean «G.» hutsa, beste kasuren batzutan ere berdin.

⁷⁹ Perpaus honetan «izenak» hitza eliditua dagoela suposatu behar da; beraz, funtzio metalinguistikoan sartzen da «Christioa».

- Err. Dotrina Christiana.
 Gal. Cembat parte ditu dotrina Christianac?
 Err. Laur principalac.
 Gal. Cein dire oyec?
 Err. Credo, eta Mandamentuac, oracioa, eta Sacramentuac.
 Gal. Eta cein da Christioaren señalea?
 Err. Guruce Sandua.
 Gal. Cergatic?
 Err. Cergatic baita Christo crucificatuaren figura: non erredimitu guinduzan.
 Gal. Nola eguiten da gurucea?
 Err. Ceñacean, eta santiguacean.
 Gal. Cer da ceñacea?
 Err. Irur guruce eguitea, copetan, agoan, eta bularretan.
 Gal. Cerequi eguiten da gurucea?
 Err. Escuyeco beaza⁸⁰ lembicico eriarequi guruzaturic.
 Gal. Icusagu⁸¹ nola?
 Err. Guruce Sanduaren señaleagatic, gure etsayetatic libera gaizazu gure Jaun, eta Jangoycoa.
 Gal. Certaco eguitenda copetan?
 Err. Jangoycoac libera gaizan pensamentu gaistoetatic.
 Gal. Certaco agoan?
 Err. Jangoycoac libera gaizan itz gaistoetatic.
 Gal. Cergatic bularretan?⁸²
 Err. Libera gaizan obra, eta deseo gaistoetatic.
 Gal. Eta cer da santiguacea?
 Err. Guruce andibat eguitea copetatic bularretaraño; soin batetic⁸³ berce-
 raño.
 Gal. Icusagun nola?
 Err. Aitaren, eta Semearen⁸⁴, eta Espiritu Sanduaren izenean. Amen Jesus.
 Gal. Noiz eguin bearda gurucea?
 Err. Obra gucien asicean, eta aurquizen garenean peligro, necessidade, edo tentacioan.
 Gal. Cergatic ain berce aldiz?
 Err. Cergatic dembora gucietan gure etsaiec perseguicen gaitusten.
 Gal. Cer etsaiec dire oyec?
 Err. Mundua, Demonioa, eta Araguaia.
 Gal. Eta guruceac badu virtuteri ayen contra?
 Err. Bay; cergatic Christoc garaitucituen guruzean.

⁸⁰ «eskua»ren esanahiz.

⁸¹ «Icusagun» **B**-n, dagokion bezala; erratua izango da **A** testukoa.

⁸² «Certaco» eta «cergatic» agiriko banaketarik gabe erabiltzen ditu.

⁸³ «bateti» **B**-n.

⁸⁴ **A**-n minuskulaz.

Capitulo bigarrena,*Christioaren obligacioaren gañean*

- Gal. Cein da Christioaren lembicico obligacioa?
 Err. Vilacea azquen fina, ceinetaco criatubaizue.
 Gal. Cer finetaco criatuzue?
 Err. Jangoycoa cervizaceco eta gozaceco.
 Gal. Cein obrequi cervizacen da Jangoycoa?
 Err. Fedearen, Esperanzaren, eta Charidadearen obrequi.
 Gal. Cer gauza da Fedea?
 Err. Ycusi⁸⁵ bague sinestacea.
 Gal. Cer gauza da Esperanza?
 Err. Echidetea, edo esperacea.
 Gal. Cer gauza da Charidadea?
 Err. Jangoycoa onesicea.
 Gal. Fedeac cer eracustendigu?
 Err. Sinestadezagula Jangoycoaren baitan: cergatic den eguia.
 Gal. Esperanzac cer eracustendigu?
 Err. Esperadezagula aren baitan: cergatic den podore infinito.
 Gal. Eta Charidadeac cer dio?
 Err. Onesidezagula Jangoycoa gauza gucien gañetic: ondasun andiena becala.
 Gal. Nola jaquinendugu ongui sinestazen?
 Err. Ongui entendazen badugu Credo, eta Articuloac.
 Gal. Nola jaquinendugu esperazen, eta escazen?
 Err. Ongui entendaturic Paternosterra (edo Aita Gurea.)
 Gal. Nola jaquinendugu obrazen?
 Err. Ongui entendaturic Mandamentuac, eta Sacramentuac.
 Gal. Obligacio⁸⁶ andia dugu jaquitera, eta entendazera au guciau?
 Err. Bai: cergatic ezin cumplidezaquegu, entendazen ezpadugu.

Capitulo irugarrena,*Credoaren gañean*

- Gal. Erranzazu Credo.
 Err. Sinistacendut⁸⁷ Aita Jangoyco. Amen Jesus.
 Gal. Cer errandugu oray?
 Err. Credo.
 Gal. Norc erranzue Credo?
 Err. Apostoloec.

⁸⁵ Orain arte kasu bakarra «Y-» hasierako posizioan idazten duela. **B**-n maizago erabiltzen da grafia hori.

⁸⁶ Minuskulaz **A**-n.

⁸⁷ «Sinestacendut» **B**-n.

- Gal. Certaco?
- Err. Gu informaceco Fedean.
- Gal. Eta guc certaco erratendugu?
- Err. Fedea confessaceco, eta artan gueyago confirmaceco.
- Gal. Fedeac eracustenduena cein ciertoa da?
- Err. Ezin geyagocoa: cergatic den Jangoycoaren iza.
- Gal. Jangoycoaren iza faltadaiteque?
- Err. Ez: cergatic ezin engañadaiteque: eta gu ezin egaña gaizaque.
- Gal. Nondic daquigu Jangoycoac errandituela?
- Err. Eliza Ama Sanduaren ganic; Espiritu Sanduac governaturic.
- Gal. Cein bearra da ayen sinestacea?⁸⁸
- Err. Ain beharra, ezi ayen Fedea bague, ezin yor salbadaique.
- Gal. Eta Fedearequi solamente salbatuco da?
- Err. Ez, ezpadu Charidadea eta obra onac.
- Gal. Credo, eta Artículoac gucia da bat?
- Err. Bay jauna.

Capitulo laugarrena,

Articuloen gañean

- Gal. Erranzquizu Artículo Fedescoac.
- Err. Artículo Fedescoac dire amalaur. Amen Jesus.
- Gal. Cer dire Artículo Fedescoac?
- Err. Fedeaeren misterio principalenac.
- Gal. Erranduzu lembicicioa dela sinestacea Jangoycoaren baytan.
- Gal. Nor da Jangoycoa?
- Err. Jaun bat infinitamente Ona, Sabioa, Sandua; Poderosoa, gauza gucien principio, eta fina.
- Gal. Eta berac badu principioric, edo finic?
- Err. Ez jauna: beti izanze, eta izanenda.
- Gal. Bada norc eguynzue Jangoyco au?
- Err. Yorc ez, baicic bera izanze beti.
- Gal. Bada nondic etorrice?
- Err. Yondic ez: beticego lecu gucietan.
- Gal. Bada Cerua, eta mundua eguinbaño len, eze lecuric: orduan non cego Jangoycoa?
- Err. Bere baitan, bere eternidadean.
- Gal. Jangoyco au cembat Persona da?
- Err. Irur igualac gauza gucietan.
- Gal. Nor dire?
- Err. Aita, eta Semea, eta Espiritu Sandua.
- Gal. Misterio oni nola deicen zayo?
- Err. Trinitate Sandua.
- Gal. Aita Jangoycoa da?

⁸⁸ «sinesnestacea» **B**-n, erraturik lerroz aldatzean.

- Err. Bay jauna.
Gal. Semea Jangoycoa da?
Err. Bay jauna.
Gal. Espiritu Sandua Jangoycoa da?
Err. Bay jauna.
Gal. Irur Jangoyco dire?
Err. Ez jauna, baicic irur Persona diferenteac, eta Jangoyco bat.
Gal. Ara berris: Aita Jangoycoa da?
Err. Bay jauna.
Gal. Orra Jangoyco bat?⁸⁹
Err. Bay jauna.
Gal. Semea Jangoycoa da?
Err. Bay jauna.
Gal. Orra Jangoyco bi?
Err. Ez jauna, estire bi.
Gal. Espiritu Sandua Jangoycoa da?
Err. Jangoycoa bay jauna.
Gal. Orra irur Jangoyco?
Err. Ez jauna: baicic irur Persona diferenteac, eta Jangoyco bat.
Gal. Bat dela irur: eta alere irurac dire bat: nola dateque?
Err. Onlasse: Sagar batean daude irur gauza: Sagarraren urrina, sagarren colorea, eta sagarraren saborea: eta alare sagarbat baicic ez.
Alasse, Aita Jangoyco: Semea Jangoyco: Espiritu Sandua Jangoyco eta alare Jangoyco bat baicic ez.
Gal. Persona oyec nola dire diferenteac?
Err. Aita beti da solamente Aita: Semea beti da solamente Seme: Espiritu Sandua beti da solamente Espiritu Sandua.
Gal. Erranzazu berce modubates.
Err. Aita esta Seme; eta ez Espiritu Sandu; baicic Aita: Semea esta Aita, eta ez Espiritu Sandu; baicic Seme: Espiritu Sandua esta Aita, eta ez Seme; baicic Espiritu Sandu.
Gal. Iruretatic cein da lenago, andiago, zarrago, obeago, edo daquiena gueiago?
Err. Irurac dire igualac gauza gucietan: eta golpebates.
Gal. Bada Aitac estu engendracen Semea?
Err. Bay jauna.
Gal. Bada nola da engendrace ori?
Err. Onlasse: Nic isspiluan eguitendudan becala neure iduria: Aitac veiraturic bere entendamentuan, engendratuzue Seme galampat, ain Pode-rosoa, Ona, Sabioa, Sandua, eta ain Jangoycoa, nola Aita.
Gal. Eta nola da Espiritu Sandua?
Err. Onlasse: Aitac, eta Semeac, elcar icusiric ain galantac, onetsizute elcar: eta bien amore ura, da Espiritu Sandua.

⁸⁹ **A**-k galda markarik gabe, bai, ordea, hurrengo bietan; **B** testuan, hirugarrenean bakarrik.

- Gal. Ortaco lenago, edo zarrago da Aita?
 Err. Ez jauna, baicic irurac dire golpebates, eta irurac batean.
 Gal. Bada nola dateque⁹⁰?
 Err. Onlasse: Iguzquia, arguia, eta beroa: irurac dire golpetabes, eta alare iguzquitic atracenda arguia; eta iguzquitic, eta arguitic beroa. Aita, Semea, eta Espiritu Sandua irurac dire golpebates: eta alare Aitac egen-dracendu Semea, eta Aitac, eta Semeac espiracendute Espiritu Sandua.
 Gal. Jangoycoac badu corpucic guc becala?
 Err. Jangoyco den becala ez, baicic da Espiritu puroa.
 Gal. Jangoycoa nola da gucis Poderosoa?
 Err. Cergatic vere vorondates eguitenduen naiduen gucia.
 Gal. Jangoycoa nola da Criazalea?
 Err. Cergatic deusetic eguincituen gauza guciac.
 Gal. Eta nola da Salbazalea?
 Err. Cergatic ematenduen gracia, eta becatuen barcacioa.
 Gal. Cergatic ematendigu vere gracia?
 Err. Bere ondasun andiagatic: eta Christoren⁹¹ meregimentuengatic.
 Gal. Cer da gracia?
 Err. Izate divinobat eguitengaituena Jangoycoaren Seme, eta gloriaren heredero.
 Gal. Gracia orrequi cer ondasun dugu?
 Err. Podorea, eta naya⁹², obra onequi satisfacio eta meregimentu eguiteco.
 Gal. Gracia nola erdechicen, eta aumentacenda?
 Err. Oracioequi, sacramentuequi, eta virtutequi.
 Gal. Jangoycoa nola da Glorificazalea?
 Err. Cergatic ematendion gloria, aren gracion perseveracendenari.
 Gal. Eta Purgatoriora doacencac nor dire?
 Err. Gracian ilzendirenac: baña zordutenac penabat.

Humanidade Sanduaren Articuloac

- Gal. Trinitate Sanduaren cein Persona eguince guizon?
 Err. Bigarrena, Jangoycoaren Seme Eternoa.
 Gal. Eternoa izanic, nola concebituze verriro?
 Err. Artuzue gorpuz, eta arima racionallea milagrosoqui.
 Gal. Aren Ama Virgina izanic, nola jaioc⁹³?
 Err. Milagrosamente, concebituzuen becala. Edo milagrosoqui.
 Gal. Iminzazu exemplo bat.
 Err. Vidrioa autsi bague, iguzquia sarcen, eta atracen da aposentuan, alasse, Ama Virgina Vidrio cristalino, eta Christo Iguzqui verdaderoa: orra nola concebitu, eta jaiocen.

⁹⁰ «dataque» **A-n**; **B** testuan forma zuzena.

⁹¹ «Christioren» **A-n**, erratuz.

⁹² «naya» orjinallean; **B-n** forma zuzena.

⁹³ **A-n** «jaioci».

- Gal. Eta guero Ama izanze beti Virginia?
 Err. Bay Jauna perpetuamente.
 Gal. Jangoycoa certaco eguin ze guizon?
 Err. Guizonaren gatic ilzeco, eta exemplo emateco.
 Gal. Cergatic naizue il?
 Err. Gu becatutic erredimiceco, eta infernutic libraceco.
 Gal. Gu nola sartugina becatuan?
 Err. Gure lembicico Aita Adanec eguinzue becatua: eta aren baitan guc ere.
 Gal. Bada Jangoycoac il bague ezeuca berce modoric?
 Err. Baceuca, baña au convenicizaigu gueiago.
 Gal. Jangoycoa inmortal⁹⁴ izanic nola ilze?
 Err. Cergatic Jangoyco izatearequi batean: guizon mortaleacen.
 Gal. Cergatic naizue il Gurucean?
 Err. Cergatic erioze afrentosoa zen: eta argatic gloriosoago.
 Gal. Erranduzu jauchicela Ifernuetara: cer dire Ifernuac?
 Err. Laur butzu⁹⁵, edo lecu; Cerura joaten estiren arimendaco.
 Gal. Cein dire oyec?
 Err. Lembicicoa, dañatuena, becatu mortalean ilic.
 Gal. Cein da bigarrena?
 Err. Batayatu bague ilzendiren Aurrena.
 Gal. Eta irugarrena?
 Err. Justoen Purgatorioa: non daucaten cer purgatu.
 Gal. Eta laugarrena cein da?
 Err. Lenagoco justoena Christoren beguira baizeude.
 Gal. Ifernu ebetatic ceynetara jauchice Christo?
 Err. Azqueneco ontara: cein baita lenago justoena.
 Gal. Nola jaichize?⁹⁶
 Err. Arima divinidadarequi unituric, edo juntaturic.
 Gal. Eta bere gorpuza nola gueldituze?
 Err. Gurucean, unituric, edo juntaturic⁹⁷ divinidad berarequi.
 Gal. Erranzazu conparaciobat.
 Err. Bada contu eguinzazu, ezpata dela arima, maguia, edo bayna gorpuza, eta guizona divinidad⁹⁸.
 Gal. Eta cerdugu orrequi?
 Err. Escuyac⁹⁸ atracendu ezpata: orra arima apartaturic gorpuetic, baña ez arima, eta ez gorpuza apartacen⁹⁹ esta divinidadetic.

⁹⁴ «immortalea» **A**-n.

⁹⁵ «buztu» **A**-n.

⁹⁶ Ikusten den bezala, «jauchi»rekin txandakaturik

⁹⁷ «iuntaturic» **B**-n.

⁹⁸ Orain arte lexema hau «eskuin» esanahiz erabili du. Hemen, berriz, «esku»ren baliuz. Gorago, aipatu den bezala, «Escuyeco beaza lembicico eriarequi», «beaza» «esku»ren esanahiz.

⁹⁹ «apartace» **B**-n.

- Gal. Nola erresucitatuze?
 Err. Arima, eta gorpuz gloriosoac juntaturic len becala.
 Gal. Nola iganze Ceruetara?
 Err. Inmortalea vere virtute propioas¹⁰⁰.
 Gal. Cer da jarriric dagola Aitaren escuyeco aldean?
 Err. Jangoyco becala, igual gloria duela Aitarequi: eta guizon becala berce guciec baño gueyago.
 Gal. Aragua nola erresucitacoda?
 Err. Gure gorpuz, eta arima ebec beroc, juntaturic eternamente vicizeco Ceruan, edo ifernuan.
 Gal. Eta orduan guc iraunendugu beti seculaco?
 Err. Bay Jauna Jangoycoac becala.
 Gal. Cer naidu erran, sinestacendut Sanduen Comunioa?
 Err. Guciec dugula parte gucien ondasun, edo obra on gucietan, gorpuz-baten miembroac becala.

Capitulo borzgarrena,

Pater noster, edo Aita gurearen gañean

- Gal. Erranzazu Pater nosterra.
 Err. Aita gurea Ceruetan zaudena. Amen Jesus.
 Gal. Norc erranzue Pater nosterra?
 Err. Christo berac: Apostoloec escaturic.
 Gal. Certaco erranzue?
 Err. Guri eracusteco oracio eguiten.
 Gal. Cer da oracio eguitea?
 Err. Arima goracea Jangoycoaren gana: escaceco merchedeac.
 Gal. Cergatic eracusizigu deycera Aita?
 Err. Guc escadezogungatic, Semearen amorearequi.
 Gal. Nola gara aren Seme?
 Err. Cergatic berac emancigun naturalearen¹⁰¹, eta graciaren izatea.
 Gal. Cergatic estugu erraten, Aita enea, baicic gurea?
 Err. Guciec escaceco guciendaco, anaya onac becala.
 Gal. Oracio ontan norequi minzacen gara?
 Err. Gure Aita Jangoycoarequi.
 Gal. Non dago gure Aita Jangoycoa?
 Err. Lecu gucietan, bere essencias, presencias, eta potencias.
 Gal. Cer naydu erran essencias, presencias, eta potencias?
 Err. Bere naturalezas: eta dagola presente, bere podorearequi.
 Gal. Bada cergatic erratendugu Ceruetan dagola?
 Err. Cergatic Ceruetan manifestacen den gueyago.

¹⁰⁰ «proprioas» A-n.

¹⁰¹ «naturalezaren» beharko lukeela dirudi.

- Gal. Cembat peticio ditu Pater nosterrac?
 Err. Zazpi galanqui disponituric.
 Gal. Nola daude disponituric?
 Err. Lemibicico irurac, Jangoycoaren, eta berce laurac guretaco.
 Gal. Cer escacendugu peticioetan?
 Err. Ondasun gucien¹⁰² abundancia, eta gaiz gucien erremedioa.
 Gal. Cer escacenda itz ebetan: *Santificavedi zure icena?*
 Err. Erreverencia andiarequi lauda dezagula.
 Gal. Cer escacenda itz¹⁰³ ontan: *Etorrivedi zure erreynua?*
 Err. Gueldidadila gure baitan aren gracia; eta guero digula¹⁰⁴ gloria.
 Gal. Cer naydu erran: *Eguinvedi zure vorondatea?*
 Err. Guizonec eguindezatela pronto, Ainguiruec becala.
 Gal. Cer escacenda: *Iguzu egun gure egunorosco oguia?*
 Err. Arimaren, eta gorpuzarendaco bearden gucia¹⁰⁵.
 Gal. Cergatic escacen da, egungo solamente?
 Err. Gu obligaceco, biar ere escacera, egun becala.
 Gal. Cer da: *Barcadazquiguzu gueren*¹⁰⁶ *zorrac?*
 Err. Escacenda, culpa gucien, eta ayen penaren barcacioa.
 Gal. Cergatic erraten da: *Guc barcacen dugun becala gu zor gaitustenei?*
 Err. Cergatic lagunari barcacen estionari, Jangoycoac estio barcatuco.
 Gal. Cer escacenda: ezcayzazula utzi tentacioan erorcera?
 Err. Guarda gaizala ayeri consentimentu ematetic.
 Gal. Cein gaizetatic naydugu libratu erratendugunean: *Libera gaizazu?*
 Err. Demonio, ifernu, eta caso desastratu ayetatic.

Capitulo seigarrena,

*Berce*¹⁰⁷ *Oraciobazuc*

- Gal. Bada berce oracioric, Pater nosterras landa?
 Err. Bay: Escritura: Eliza eta Sanduenac.
 Gal. Cein da oracioen andiena?
 Err. Pater nosterra: cein baita gucien erregla.
 Gel. Cergatic da bercen erregla?
 Err. Cergatic Christoc erranzuen: eta daucan bearden gucia.
 Gal. Oracio onaren condicioac cein dire?
 Err. Piedadea, confianza, humildadea, eta perseverancia.
 Gal. Eguin beardugu oracio Ainguiruei, eta Sanduey?
 Err. Bay: gure medianeroey becala.

¹⁰² **A** testuan «gucien».

¹⁰³ Aurrekoan «itz ebetan», perpausak eskatzen duenez.

¹⁰⁴ «-i-», «eman»en erro supletiboz osatua, baita beherago ere.

¹⁰⁵ **B-n** «guci», erratuz.

¹⁰⁶ «gueuren» **B-n**.

¹⁰⁷ «Berco» **A** testuan.

- Gal. Cer dire Ainguiruac?
 Err. Jangoycoa alabacen duten Espiritu Soberanoac.
 Gal. Cer eguiten dute gueiago¹⁰⁸?
 Err. Guardatu guizonac: eta ayen mandatuac eguin Jangoycoari.
 Gal. Ama Virginari cer oracio eguitendiozu?
 Err. Ordinarioqui Ave Maria, eta Salvea.

Capitulu zazpigarrena,

Ave Maria, eta Salvearen gañean

- Gal. Erranzazu Ave Maria.
 Err. Jangoycoac salbazaizala Maria, gracias betea. Amen Jesus.
 Gal. Norc erranzue Ave Maria?
 Err. Aynguiru San Gabriel, eta Santa Isabelec erranzute erdia, eta Elizac berce erdia.
 Gal. Erranzazu Salvea.
 Err. Jangoycoac salbazaizala Erreyna. Amen Jesus.
 Gal. Eta Salbea, nondic icasidugu?
 Err. Elizaren costumbretic.
 Gal. Oracio ebetan norequi minzacengara?
 Err. Ama Virginarequi.
 Gal. Nor da Ama Virginia?
 Err. Andre andibat, virtutes, eta gracias beteric, eta Jangoycoaren Ama.
 Gal. Non dago Andre andiori?
 Err. Ceruan gorpuz, eta ariman¹⁰⁹.
 Gal. Bada zer da Temploan, edo Elizan dagona?
 Err. Aren imagina, figura, edo erretratua.
 Gal. Bada certaco dago?
 Err. Gu Ama Virginas oroizeco, eta eguiteco erreverencia.
 Gal. Cer erreverencia¹¹⁰ eguin bearda imaginey?
 Err. Sanduey becala.
 Gal. Sanduey cer oracio eytendugu¹¹¹?
 Err. Letaniac, edo Procesioac: eta Pater noster, eta Ave Maria.
 Gal. Bada oracio ebec estitugu¹¹² eyten Jangoycoari, eta bere Amari?
 Err. Bai: baña Sanduen medios escazen da Jangoycoari, eta Sanduei erebay.

¹⁰⁸ Diptongoaren bigarren elementua, «i» erdibokala, beste bokal batekin doanean «y»z idatzia dago orohar, halere badira salbuespenak, hemen horietako bat.

¹⁰⁹ «arimam» orjinallean.

¹¹⁰ «b»z **B** testuan.

¹¹¹ Oso gutxitan jausten da bokal arteko leherkari ahostuna, hona hemen kasu bat, goiko lerroan «eguin», «eguiteco» jarri arren. Bestalde, ez du datiboarekin komunztadurarik egiten. Halere, ikus goraxeago: «Ama Virginari cer oracio eguitendiozu?».

¹¹² Datiboarekin komunztadurarik gabe.

Capitulo zorzigarrena,*Mandamentuen gañean*

- Gal. Erranquizu¹¹³ Mandamentuac.
 Err. Jangoycoaren legueco Mandamentuac dire amar. Amen Jesus.

Lembicicoaren gañean

- Gal. Certara obligacen gaytu Jangoycoaren amoreac?
 Err. Bera solamente bacarric onetsicera Jangoyco becala, Fede, Esperantzaz, eta Charidadearequi.
 Gal. Nola beardugu adoratu?
 Err. Gorpuz, eta arimarequi.
 Gal. Bada bera espiritu izanic: esta asqui arimarequi?
 Err. Ez: cergatic arrenganic dugu gorpuzare.
 Gal. Cerda Jangoycoa onesicea gauza gucien gañetic?
 Err. Nayago galdu gauza guciac, Jangoycoa ofenditu baño.
 Gal. Norc egitendu becatu fedearen contra?
 Err. Sinestacen duenac supersticioetan: eta gauza necessarioac¹¹⁴ ucacen, dudac deno edo ignorac dituenac.
 Gal. Norc egitendu becatu esperanzaren contra?
 Err. Jangoycoaren misericordian desconfiacen duenac: edo artan presumicenduenac banoan.
 Gal. Eta norc charidadearen contra?
 Err. Jangoycoaren beneficioey desconocitu dena: eta aren vorondate, eta legueari¹¹⁵ desobedientec.

Bigarren Mandamentuaren gañean

- Gal. Norc egitendu juramentu vanoan?
 Err. Juramentu egitenduenac eguia bague: justicia, edo necessidade bague.
 Gal. Eguia vague juramentu eguytenduenac¹¹⁶ cer becatu eguytendu?
 Err. Mortalea, adverticen¹¹⁷ badu: edo balimbadaqui guezurra diola.
 Gal. Dudan juramentu egitenduenac, becatu mortale egitendu?
 Err. Bay: cergatic daucan peligro guezurrarequi juramentu eguiteco.
 Gal. Norc egitendu juramentu justicia vague?
 Err. Juramentu egitenduenac gaistaqueria eguyn bearduela.
 Gal. Eta orla juramentu egitenduenac, cer becatu egitendu?
 Err. Gueiago, edo gutiago: mortale, edo veniale: noladen gauza cergatic egitenduen juramentua.

¹¹³ «Erranzquizu» **B**-n.

¹¹⁴ «s» bakarrez **B**-n.

¹¹⁵ «leguari» **A**-n, erratuz.

¹¹⁶ «eguytendoenac» **A**-n.

¹¹⁷ «b»z **B** testuan.

- Gal. Cergatic ofendicen da ain aniz Jangoycoa bi juramentu ebetan?
 Err. Cergatic atrevimentu andia den, Jangoycoa ecarcea testigo gauza falsu, eta gaistoendaco.
 Gal. Juramentu eguytenduenac gaistaqueria eyteco, cer eynendu?
 Err. Damutu, eta ez cumplitu.
 Gal. Necesidade vague juramentu eguitenduenac cer becatudu?
 Err. Gutienean venialea erreverencia gutiagatic.
 Gal. Eta becatu da criaturen gañean orla juramentu eguitea?
 Err. Bay: cergatic criaturetan juracenda Criadorea.
 Gal. Bada becatu ez eguiteco nola erranendugu?
 Err. Bay, edo ez Christoc ercustenduen becala.
 Gal. Voto, edo promesan noiz da becatu ez cumplicea, edo luzacea?
 Err. Arracioric estenean: Confessore, edo Letratuaren juicioan.

Irugarren Mandamentuaren gañean

- Gal. Norc goardacen, edo santificacen ditu jayac¹¹⁸?
 Err. Meza osoa enzuten duenac, eta obra onetan empleacen denac.
 Gal. Gauza gucietan, edo beardirenetan trabajatzea becatu da?
 Err. Ez: baña alare dudan galdeguin daquienari¹¹⁹.
 Gal. Mandamentu onen contra berce cembaytec eguitendu becatu?
 Err. Bay: Eliza, eta Elizaco escomecacioa despreciacen duenac.

Laugarren Mandamentuaren gañean

- Gal. Norc ondracenditu Ayta, eta Ama?
 Err. Obedicen, socorricen, eta reverenciacen dituenac.
 Gal. Berceric norda Ayta, eta Ama naturales landara?
 Err. Zarragoac¹²⁰: gueyago daquitenac, eta governacen duenac.
 Gal. Cer eguin beardute Ayta naturalec bere Semeequi¹²¹?
 Err. Sustentatu: dotrina eracusi, eta obec¹²² naiduten estadoa eman.
 Gal. Ezconduec nola eguinbeardute vere Andrequi?
 Err. Amores, eta cordurarequi; Christoc vere Elizarequi becala.
 Gal. Eta Andreec beren senarrequi nola?
 Err. Jangoycoaren Semeequi becala.
 Gal. Eta mutilac Nausiequi?
 Err. Jangoycoa cerbizacen den becala Nausietan.

¹¹⁸ Bi testuetan «jayac» idatzia, inprenta hutsa dudarik gabe, «jay» idatzi bait da beste kasuetan.

¹¹⁹ «da quienari» **A**-n.

¹²⁰ «zarrogoac» bi testuetan.

¹²¹ «Seme equi» bi testuetan. Lerroaren amaieran behar zuen gioia ipintzea ahazturik.

¹²² «ebec» esperatuko genukeen. Ikus, bederatzigarren kapituluaren ere. **B**-n, aldiz, «ebec».

Borzgarren Mandamentuaren gañean

- Gal. Cer debecacendu ez ilceas landara?
 Err. Ez yori gaiz eguitea obras, itces, edo deseos.
 Gal. Norc eguitendu becatu Mandamentu onen contra?
 Err. Meachacen, ericen, injuriacen duenac: edo barcacen estionac bere enemigoari.
 Gal. Ontas landara, bada berce moduric lagunaren ilzeco?
 Err. Bay: escandaloarequi, eta laguncen estenean choil necessitatuari.

Seigarren Mandamentuaren gañean

- Gal. Seigarren Mandamentua norc goardacendu ongui?
 Err. Pensamentus, itces, eta obras casto denac.
 Gal. Pensamentu gaistoetan eguytendu becatu bereganic egoci naidituenac?
 Err. Ez, eta aniz meregicendu orrequi occasioac quencen baditu.
 Gal. Bada norda pensamentu gaistoetan becatu eguytenduen?
 Err. Cumplitu naidituen, edo bere vorondates ayetan deleitacendena.
 Gal. Ezconduy cer manacenda Matrimoniaren¹²³ gañean?
 Err. Estezatela falta errecatoari, eta prometitu zuten fedeari.
 Gal. Cerc lagunduco digu casto izateco?
 Err. Oracioec, Sacramentuec, ocupacioac, eta lagun onec.
 Gal. Eta norc dañacen digu?
 Err. Destemplanzac, vistac, eta conversacio ocasionatuac.

Zazpigarren Mandamentuaren gañean

- Gal. Norc cumplitcendu Mandamentu au?
 Err. Arcen, iduquizen, edo nay estutenac bercearena, jabearen vorondatearen contra.
 Gal. Eta norc austendu?
 Err. Berceari, edo cein modus dañu injusto eguitendionac, edo aren causas bercebatec eguitenbadu.
 Gal. Eta ebatsi, edo dañu eguynduenari, asqui da confessacea?
 Err. Ez ezpadu pagacen ebatsi duena, edo zorduena; edo alduen partea.
 Gal. Eta ezindezaquenac, cer eguynendu?
 Err. Procuratu bere aldetic alduen becala.

Zorcigarren Mandamentuaren gañean

- Gal. Norc cumpticendu zorcigarren mandamentua?
 Err. Berceren gayzac ligeroqui juzgacen, erraten, edo adycen estituenac, fin, edo intencio ona bague.

¹²³ Eta ez «Matrimonioaren», besteetan bezala.

- Gal. Eta norc austendu?
 Err. Infamacen duenac justicia bague: secretoa jaquinarastenduenac: eta guezurra erraten duenac.
 Gal. Fin onarequi guezurra errandayque, becuric eguin bague?
 Err. Ez, beiñere; baña eguia issil daiteque disimularequi.

Bedraci, eta amargarren Mandamentuen gañean

- Gal. Mandamentu ebec bioc cer debecatcen dute?
 Err. Desonestidadearen, eta haciendaren Codiciac.
 Gal. Da becatu deseacea berceac baño gueyago iduquicea vide ones?
 Err. Ez: solo debecacen dire codicia injustoac, eta desordenatuac.
 Gal. Cergatic debecacen dire codicia ebec bioc mandamentu particularearequi?
 Err. Cergatic diren choil importunoac, eta peligrosoac.

Capitulo bedracigarrena,

Berce Mandamentu bazuc

- Gal. Gure legue naturalearen Mandamentuac, Cer dire?
 Err. Nay, edo ez, proximoarendaco, neuretaco naydudana, edo nay estudana.
 Gal. Bada berce Mandamenturic cer jaquin?
 Err. Bay, Oficio particulare¹²⁴, eta estadoenac.
 Gal. Eta obec¹²⁵ norc jaquin bearditu?
 Err. Tocacen zaizquioteney¹²⁶.
 Gal. Eta ignorante dagonac eztu escusaric?
 Err. Ez bere Oficioco gauza Comunetan.
 Gal. Cerequi goardatuco dire Mandamentuac?
 Err. Oracio, Sacramentu, Pedricu (sic), liburu devoto, eta lagun onarequi.
 Gal. Eta cerc dañacen digu?
 Err. Ocasio, eta costumbre gaistoec: devocio guti, eta confianza sobratuac.

Capitulo amargarrena,

Elizaco Mandamentuen gañean

- Gal. Erranzazquizu Elizaren Mandamentuac¹²⁷.
 Err. Elizaco Mandamentu Sanduac dire borz. Amen Jesus.

¹²⁴ «paticulare» orijinalean.

¹²⁵ Hemen ere, lehengo kasuan bezala, ingurumen berdinean: «Eta obec». **B**-n, kasu honetan, «obec».

¹²⁶ Galderaren erantzunak ergatiboa eskatzen du, baina «tokatu» aditzak eskaturik, datiboz emana.

¹²⁷ Galda markaz testuan.

- Gal. Certaco dire Mandamentu ebec?
 Err. Obequi esplicaceco, eta goardaceco Jangoycoaren leguecoac.
 Gal. Cer da Eliza?
 Err. Christio fiel gucien junta, Christoc governaturic, eta aren lecuan Ayta Sanduac.
 Gal. Nor da Aita Sandua?
 Err. Erromaco Obispoa, nori obeditu beardiogu¹²⁸.

Lembicico Mandamentuaren gañean

- Gal. Cer da Meza?
 Err. Christoren sacrificio bat, eta aren viciaren, eta ilzearen memoria bat.
 Gal. Nori eguitendiogu Sacrificio Sanduori?
 Err. Ayta Eternoari.
 Gal. Certaco eguytendiogu?
 Err. Iru gauzataco: berari graciac, edo esquerrac emateco, Satisfacio eguiteteco, eta merchede escaceco.
 Gal. Nori aprovechacendiotte Meccec?
 Err. Vicie¹²⁹, eta Purgatoriocey.
 Gal. Eta ebetatic ceynei principalquiroy?
 Err. Norengatic erraten, enzuten, eta ofracendiren¹³⁰ arengatic.
 Gal. Norc enzutendu Meza osoa?
 Err. Meza gucian presente dagonac, dibertitu bague vere vorondates.
 Gal. Nor dago desobligaturic Meza enzutera?
 Err. Necessidade verdaderoarequi impedituric dagona.

Bi, eta irugarren Mandamentuen gañean

- Gal. Cergatic erranda: Confessatu, comecatu bein berere?
 Err. Cergatic obligacio esten gueiago.
 Gal. Eta consejus cembat aldis?
 Err. Confessore ongui informatuac aconsejacenduen aldioro.

Laugarren Mandamentuaren gañean

- Gal. Baruraren preceptoac certara obligacendu?
 Err. Ez jatera bein baicic egunean, eta orduan ez gauza debecaturic.
 Gal. Noiz bearda bazcaldu?
 Err. Eguerdicoan guti gora bera.
 Gal. Eta debecacendigute edatea barur eguitean?
 Err. Ez: baicic edan daiteque edocein ordus.

¹²⁸ «beardiogun» espero zitekeen.

¹²⁹ «Viciey» **B**-n.

¹³⁰ «ofrazendiren» **B**-n.

- Gal. Colaciac (sic) cembat izan beardu?
 Err. Conciencia onetaco genden artean comunqui usacendena.
 Gal. Nor dago escusaturic ez baruceco?
 Err. Oguey, eta urtebat cumplitu estuena.
 Gal. Eta norc¹³¹ gueyago?
 Err. Ezin baru daytezenac adinaren, edo enfermedadearen, edo traba-
 juaren gatic.
 Gal. Cer eguynendu, adinaren faltas barur estenac?
 Err. Icasi, ensayatu, adina datorreneco.

Borzgarren Mandamentuaren gañean

- Gal. Cein fruituetatic, eta cembat zordugu Amarrena?
 Err. Obispadoetan usacen den becala: tramparic bague.
 Gal. Eta Amarrenari eman beardiogu oberena?
 Err. Gutienean ez gaistoena: bada gucia ematendigu Jangoycoac.

Capitulo amecagarrena,

Sacramentuen gañean

- Gal. Erranzquizu¹³² Sacramentuac.
 Err. Elizaco Sacramentuac dire Zazpi. Amen Jesus.
 Gal. Norc eguincitue Sacramentuac?
 Err. Christoc berac.
 Gal. Cerdire Sacramentuac?
 Err. Medicina spirituale¹³³ bazuc, sendacen, eta justificacen gaytustenac.
 Gal. Nola justificacen gaituste?
 Err. Ariman¹³⁴ ematendigute gracia, Campoco aldeco Señale ayequi.
 Gal. Nola emanendute gracia Campoco aldeco señale ayequi?
 Err. Christoren meregimentuac aplicaturic señale ayeri.
 Gal. Sacramentuac errecibitu beardire disposicio onarequi?
 Err. Bay: bercela esta errecebituco gracia.

Batayoaren gañean

- Gal. Cer da Batayoa?
 Err. Jayoze espiritualebat, non ematendiguten gracia, eta Christioaren señalea.

¹³¹ Nominatiboa beharko luke. **B**-n «nor».

¹³² «Erranzquizu Mandamentuac» eta «Erranzquizu Elizaren Mandamentuac» au-
 rreko ataletan.

¹³³ **B**-n «espirituale».

¹³⁴ «Arimam» **A**-n.

- Gal. Cer lagun ematen digu Batayoac Christioaren viciarendaco?
 Err. Beardiren virtute guciac.
 Gal. Eta cer becatu quencen du?
 Err. Becatu originalea, eta berce edocein, arquicenbadu.

Confirmacioaren gañean

- Gal. Cer da Confirmacioa?
 Err. Batayoac emancigun graciaren aumento espiritualebat.
 Gal. Nola ematendigu aumentu ori?
 Err. Cergatic ematendigun gracia, eta indar Christoren fedea confessaceco.

Penitencia, edo Confessioaren gañean

- Gal. Cer da Penitencia?
 Err. Batayatu asgueros¹³⁵ eguin diren becatuen medicina espiritualebat.
 Gal. Cer eguytendu Penitenciac?
 Err. Ematendu gracia barcaceco becatu pasatuac: eta goardaceco etorrico direnetatic¹³⁶.
 Gal. Cembat parte ditu Penitenciac?
 Err. Irur. Contricioa, Confessioa, eta satisfacioa.
 Gal. Cer da Contricioa?
 Err. Damu andibat, Jangoyco den becala ofendituas¹³⁷, proposito firmearequi confessaceco, eta emendaceco.
 Gal. Cer ondasun ecarcendigu contricioac berac bacarric, Sacramenturic bague?
 Err. Verdaderamente duacanari Jangoycoac barcacendizquio becatu mortale guciac, aniz badire ere: baña atricioac eztu au eguyten.
 Gal. Cer da Atricioa?
 Err. Damubat Jangoycoac¹³⁸ ofendituas, Jangoycoaren castigoaren veldurres, edo becatuaren itsusitasunagatic: proposito firmearequi confessaceco, eta emendaceco.
 Gal. Contricioac, eta Atricioac bieci dute damu Jangoycoa ofendituas: biac dire bat?
 Err. Ez: begirazazu ongui arracioa, cergatic damuduten.
 Gal. Bada erranzazu ceurorrec.
 Err. Contricioac damu du; cergatic Jangoycoa Jangoycoa den: baña Atricioac damu du, Jangoycoaren veldurres.
 Gal. Contricioaren damua nobleago, edo finago da, Atricioarena baño?
 Err. Bay: cergatic da Jangoycoaren amorea: eta bercea Jangoycoaren beldurra.

¹³⁵ «Bataiatuaz geroz», alegia.

¹³⁶ **B-n** «diren etatic».

¹³⁷ Harriduraz bi testuetan.

¹³⁸ «Jaugoncoac» **A-n**; «Jangoycao» **B-n**.

- Gal. Erranzazu ongui diferencia.
 Err. Ara: becatu mortalean ilzen dagona, bacarric Apecic bague, eguytenbadu Contricioa, salbatucoda: baña eguitenbadu Atricioa ez.
 Gal. Atricioarequi solo esta salbatuco?
 Err. Ez: baña Atricioa juntacen bada confessioarequi, bay.
 Gal. Ongui confessatceco bearda Contricioa, edo Atricioa?
 Err. Bay: eta asqui da Atricioa. Eta Contricioa bada obeago.
 Gal. Becatuen confessaceco obligacioac certara obligacen gaytu?
 Err. Lembiciric, ayen pensacera, eta erratera guciac, malicias uci vague mortaleric.
 Gal. Eta asqui da edochein Sacerdoteri becatuac erratea?
 Err. Ez: ezpadu licencia ayen absolviceco.
 Gal. Eta eriozeco orduan, ezpada Sacerdoteric, erranbearditu¹³⁹ becatuac seglarey?
 Err. Ez: baña ongui da, ayen ailcinean confessio escacea dolorearequi.
 Gal. Eta gayzac ezpadu ematen lecuric, eta becatu mortalean badago, ez condenaceco, cer eguinendu?
 Err. Erremedioa de Contricioa, eta Jangoycoaren amorea, iduquicea guttinean bere biocean.
 Gal. Cer da satisfacioa?
 Err. Pagacea penitencias culporen pena.
 Gal. Bada Christoren penac estire asqui guretaco?
 Err. Bay: baña alare naydu, arequibatean, guc ere eguydezagun satisfacioa.
 Gal. Cein obra dire satisfacio eguyteco?
 Err. Oracioa, limosna, eta barua¹⁴⁰.

Comecacioaren gañean

- Gal. Cer da Comecacioa?
 Err. Jateco espiritualebat, arima sustentacen, eta vici eternoa ematen duena.
 Gal. Cer ematen digute manjare Divino artan?
 Err. Christo bera, Jangoyco, eta Guizona, gucia osoric.
 Gal. Nola ematen da? Señalean edo aren figuran?
 Err. Ez: baycic errealidadean, bera bere sustancian¹⁴¹.
 Gal. Non dago Christo?
 Err. Bi lecutan: Ceruan, eta Aldareco Sacramentuan.
 Gal. Nola dago Ceruan?
 Err. Gu emen becala.
 Gal. Eta nola dago Sacramentuan?
 Err. Christo gucia Ostia gucian: eta Christo gucia Ostiaren parte, edo zati gucietan: eta alaber Calizan.

¹³⁹ Datiboarekin komuntadurarik gabe.

¹⁴⁰ «barur» eta «baru» darabiltza; baina, mugagabeetan «barur».

¹⁴¹ **B** testuan «-cian» lekuz aldaturik, bi lerro beherago ageri da.

- Gal. Ostia particen denean, particenda Christo?
 Err. Ez jauna.
- Gal. Bada ceyn aldetara doaye?
 Err. Gučia bi aldetara.
- Gal. Bada amar parte eguytenbadute?
 Err. Gucietan egonen da Christo gučia osoric.
- Gal. Nic estaquit¹⁴² nola?
 Err. Onlasse: beirazaite ispilu andian, eta eguynzazu amar zati ispilua, eta gucietan icusicozara len becala.
- Gal. Sacramentuan estago oguiaren, eta ardoaren sustanciaric?
 Err. Ez jauna: baycic solo daude accidenteac, urrina, colorea, eta gustoa.
- Gal. Bada ezpadago oguiric, eta ardoric nola dago aien urrina?
 Err. Cergatic lencheago consagratu bañolen egonciren ogui, eta ardo.
- Gal. Bada oguiaren, eta ardoaren sustancia cer eguyncire?
 Err. Convertitu, edo itzulicire Christoren gorpuz, eta odolean.
- Gal. Noiz eguytenda ori?
 Err. Sacerdoteac consagracendueanean.
- Gal. Bada batec janbaleza bi libera Ostia Consagratuac, elizaque sustentatuco?
 Err. Bay jauna.
- Gal. Eta edan baleza pintabat Calicetic ordituco?
 Err. Bay jauna.
- Gal. Bada ezpadago an oguiric, eta ardoric, nola eguytenda ori?
 Err. Cergatic accidente ayec eguytendute sustanciaren officioa.
- Gal. Ostian cerdago, gorpuza, ala¹⁴³ odolare bay?
 Err. Gorpuza, eta odola, biac.
- Gal. Eta Calizan cerdago?
 Err. Odola, eta gorpuza.
- Gal. Bada Ostia consagracen denean, orduan oraño Calizan dagona, ardo da?
 Err. Bay jauna.
- Gal. Bada nola egon beardu odola Ostian?
 Err. Cergatic, nola adisqueideac baytire, beti biac acompañañtzen dire.
- Gal. Nainuque berce arraciobat¹⁴⁴.
 Err. Cergatic Christo dago viciric; eta gorpuz vicia ezin dagoque odolic ba-
 gue eta odol vicia ezindagoque gorpuza bague.
- Gal. Batec eramanbaliz¹⁴⁵ Sagrarioco Ostia guciac, orduan egoñlizaque
 Sagrarioan Christo?
 Err. Ez jauna: cergatic orduan estago Sacramenturic.
- Gal. Eta utci bazute forma erdibat?
 Err. Orduan bay, cergatic errandugu Christo dagola parte gucietan.

¹⁴² «estaqui» **A**-n.

¹⁴³ «a la» orijinalean.

¹⁴⁴ Galda markaz **A**-n.

¹⁴⁵ Aditz laguntzaile iragangaitza erabiltzen du iragankorraren lekuan; bestalde, zenbakiaren komunztadurarik gabe.

- Gal. Eta Sacristian, edo Ostiaroan dauden ostietan dago Christo?
 Err. Ez jauna: consagratu arteo.
 Gal. Bada noiz egonenda?
 Err. Sacerdoteac consagracendituenan.
 Gal. Au nola eguitenda, edo cein podorearequi?
 Err. Podore divinoarequi, Sacerdotey comunicaturic.
 Gal. Legoac cergatic comeacendire solo ostiarequi?
 Err. Cergatic ostia artan, eta aren parte gucietan dagon Christo gucia.
 Gal. Cer disposicioarequi juan bearda comeacera?
 Err. Baruric, eta confesaturic becatu mortale guciac.
 Gal. Comecatu baño len cer pensatu beardugu?
 Err. Nor elduden Sacramentuan: norengana elduden: nola, eta cer finequi.
 Gal. Certaco eguynzue Jaunac Sacramentu ain andia?
 Err.¹⁴⁶ Gure ondraceco: gu obligaceco, eta abrasteco.
 Gal. Eta cer eguynbeardugu comecatuas gueros?
 Err. Graciac, edo esquerrac eman Jaungoycoari¹⁴⁷, espaciorequi: eta ofrecitu aren zervizuari, choil obligatuac becala.

Oliaduraren gañean

- Gal. Cer da Oliadura?
 Err. Arimaren azquen convalecencia espiritualebat.
 Gal. Cer ondasun eguytendu?
 Err. Garbicenditu becatuen erreliquia edo señaleac: gure ignorancias, eta descuidos gueldicen baytire.
 Gal. Cergatic goardacen da viciaren azqueneco?
 Err. Disponi gaytecen, azquen finarendaco.

Orden, eta Matrimonioaren gañean

- Gal. Cer eytendu Ordenaren Sacramentuac?
 Err. Ematendu gracia ordenatuey, ongui eguiteco bere oficioa¹⁴⁸.
 Gal. Eta Matrimonioaren Sacramentuac cer eguitendu?
 Err. Ezconduey ematendite gracia ongui viciceco.

Capitulo amabigarrena,

Indulgencien gañean

- Gal. Sacramentues landara, cer lagun dugu Elizan?
 Err. Ur bedeycatua, Indulgenciac, eta Jubileoac.
 Gal. Cer dire Indulgenciac?
 Err. Culparengatic zor dugun penaren barcacioac.

¹⁴⁶ **A**-n, okerturik, «Gal.» ezarria.

¹⁴⁷ Orain arte beti «Jaugoycoa».

¹⁴⁸ «aficioa» **B**-n, erratuz.

- Gal. Noren virtutes ematen dizquigute¹⁴⁹?
 Err. Christoren, eta Sanduen merigimentues¹⁵⁰.
 Gal. Nola irabasten dire Indulgenciac?
 Err. Gracian gaudela, eguiten badugu manacenden gucia.

Capitulo amairugarrena,

Misericordiazco¹⁵¹ obren gañean

- Gal. Erranzquizu Misericordiazco obrac?
 Err. Obra Misericordiascoac dire amalaur. Amen Jesus.
 Gal. Cergatic deytzendire Misericordiascoac?
 Err. Cergatic estiren zor Justicias.
 Gal. Noiz obligacendute Justicias?
 Err. Necesidade andietan: prudentearen Juicioan.
 Gal. Ceinec dute merigimentu andiago?
 Err. Espiritualec: cergatic ondasun andiago eguytendute.
 Gal. Eta corporalen necesidadea balimbada?
 Err. Orduan necesidade andiac eguynenditu obligacioscoac.

Capitulo amalaugarrena,

Arimaren enemigoa, edo etsayen gañean

- Gal. Erranzquizu Arimaren etsayac.
 Err. Arimaren etsayac dire irur. Amen Jesus.
 Gal. Cergatic deicendire orla?
 Err. Cergatic inclinacen gaitusten tentacioarequi gaistaqueriara.
 Gal. Bada Jaungoycoac certaco permiticendu tentacioa?
 Err. Gure exercicio, eta corona andiaren daco.
 Gal. Demonioac nola tentacen gaitu?
 Err. Barreanean imincendigu pensamentu gaistoac, eta campoco aldean tropezuac.
 Gal. Cer erremedio pensamentu gaistoendaco?
 Err. Pensamentu onac: gुरुcea, eta ur bedecatua.
 Gal. Ocasio gaistoendaco cer erremedio?
 Err. Oberena da, ayetatic escapacea, edo iguesitea.
 Gal. Eta ezin escapadaytequenean?
 Err. Orduan prevenitu, oracio, conseju, eta errecatoarequi.
 Gal. Munduac nola tentacen gaitu?
 Err. Ecarcenditu Munduco dichoac, eta uso gaistoac.

¹⁴⁹ «diz quigute» orijinalean.

¹⁵⁰ «merigimentues» orijinalean.

¹⁵¹ «Misericordiasco» espero zitekeen.

- Gal. Cer erremedio ayendaco?
 Err. Jangoycoaren leguea, eta Sanduen usoac, edo costumbreac.
 Gal. Araguiaac nola tentacen gaitu?
 Err. Inclinacio, eta pasione gaistoequi.
 Gal. Cer dire pasioneac?
 Err. Gueuren baytan barrenean, furia, turbatio, edo colera itsucen gaitus-
 tenac.
 Gal. Cein dire oyec?
 Err. Principalenac laur: gozoa, veldurra, esperanza, eta dolorea.
 Gal. Cer erremedio dugu pasione eben contra?
 Err. Jangoycoaren gracia, eta virtuteac.

Capitulo amaborzgarrena,

Becatuen, eta Virtuten gañean

- Gal. Erranzquizu becatu mortale, edo Capitaleac.
 Err. Becatu Capitaleac dire zazpi. Amen Jesus.
 Gal. Cembat generos dire becatuac?
 Err. Irur: Originalea, venialea, eta mortalea.
 Gal. Cer da becatu originalea?
 Err. Gurequi jayocenden ura gure lembicico Aiten ganic eredaturic.
 Gal. Cer da becatu mortalea?
 Err. Pensacea, erratea, eguitea, edo faltacea Jangoycoaren leguearen
 contra.
 Gal. Arimari cer dañu eguitendio becatu mortaleac?
 Err. Quencendio Jangoycoa, Charidadea, gracia, gloria, eta condenacendu
 infernura¹⁵².
 Gal. Cer da becatu¹⁵³ orren erremedioa?
 Err. Penitencia verdadera: irugarren Sacramentuan errandugun becala.
 Gal. Eta cer da becatu venialea?
 Err. Arima ilzen estuena, baña gaizquicenduena.
 Gal. Nola gaizquicendu?
 Err. Cergatic oztendu, eta disponicen, mortalaren eguyteco.
 Gal. Cergatic deicen da venialea?
 Err. Cergatic facilquiro eguytenden, eta barcacen ere bay.
 Gal. Cembat gaucequi barcacen da?
 Err. Len erranditugun bedraci gauza ayequi.
 Gal. Zazpi becatu ayec cergatic deicendire Capitaleac, edo burucoac?
 Err. Cergatic berce aniz becaturen buruac diren.
 Gal. Soberviac, eta Avariciac becatu mortaleac dire?
 Err. Ez guciac: baycic solo Jangoycoaren, eta proximo lagunaren contra di-
 renac.

¹⁵² «ifernura» **B**-n.

¹⁵³ **B**-n «becntu». Erantzunean «Sacrameutuan».

- Gal. Eta noiz dire charidadearen contra?
 Err. Austen denean Jangoycoaren, edo Elizaren Madamentuaren (sic) bat.
 Gal. Cer da Sobervia¹⁵⁴?
 Err. Apetitu¹⁵⁵ desordenatu bat, bercea baño gueyago izateco.
 Gal. Cer da humildadea?
 Err. Inclinacio bat bere despreciaceco.
 Gal. Cer da Abaricia?
 Err. Apetitu desordenatu bat haciendaren gana.
 Gal. Eta cer da liberalidadea?
 Err. Inclinacio bat emateco, nola eta noiz, convenientean.
 Gal. Cer da Luxuria?
 Err. Apetitu torpea gauza carnaletara.
 Gal. Cer da Castidadea?
 Err. Garbitasunaren¹⁵⁶ inclinacioa.
 Gal. Cer da Ira?
 Err. Mendecaceco¹⁵⁷ apetitu desordenatua.
 Gal. Eta Mansedunbrea cer da?
 Err. Iraren aplacacea.
 Gal. Cer da paciencia?
 Err. Tristeza guticobat trabajuetan. Edo tristatu bague sufritu.
 Gal. Cer da Gula?
 Err. Apetitu desordenatubat, jatera, eta edatera.
 Gal. Eta Templanza cerda?
 Err. Apetitu aren frenoa.
 Gal. Cer da Embidia?
 Err. Tristeza bercearen ondasunengatic.
 Gal. Eta proximoaren charidadea cer da?
 Err. Bercearen ondasun, edo gaiza sentitcea, berea becala.
 Gal. Cer da Pereza?
 Err. Triste, eta latso ibilcea Jangoycoaren gaucetan.
 Gal. Eta Diligencia cer da?
 Err. Fite, eta laster, eta gustorequi eguitea Jangoycoaren gauzac.

Capitulo amaseigarrena,

Virtute Theologalen, eta Cardinalen gañean

- Gal. Erranzquizu Virtuteac.
 Err. Virtuteac dire zazpi. Amen Jesus.
 Gal. Cer naydu erran Virtute Theologaleac?
 Err. Virtute Divinoac.

¹⁵⁴ **B**-n «Soberbia».

¹⁵⁵ «Aptitu» **B**-n. Hurrengo galdera-erantzunetan puntuaketa hutsak daude.

¹⁵⁶ «Gerbitasunaren» orijinallean.

¹⁵⁷ «Mendaceco» **A**-n.

- Gal. Cergatic daucate izen ain andia?
 Err. Cergatic juntacengaitusten Jangoycoarequi, eta solo berac ematen dituen¹⁵⁸.
- Gal. Cer da Fedea?
 Err. Arguibat, eta ezaumentu sobrenaturalebat, ceinequi icusi bague sinestacen dugu Jangoycoac erraten duena, eta Elizac eracustendiguna.
- Gal. Badacusazu, nola Jangoycoa den iru Persona, eta alare Jangoyco bat: edo Christo nola den Jangoyco, eta guizon?
 Err. Ez: baña sinestacendut, icustendudana baño obequi.
 Gal. Cergatic sinestacenduzu ain ciertoqui?
 Err. Cergatic Jangoycoac erratenduen, eta Elizac eracusten.
 Gal. Cer da Esperanza?
 Err. Echidetea bienaventuranza, eta beraren alcanzaceco medioac.
 Gal. Certan dago gure bienaventuranza?
 Err. Jangoycoa bere baytan icustean: onesicean: eta gozacean betiroco.
 Gal. Nola alcanzacenda?
 Err. Jangoycoaren graciarequi: Christoren meregimentuequi: eta gure obra onequi.
 Gal. Cer da Charidadea?
 Err. Jangoycoa onesicea gauza gucien gañetic: eta proximoa gueren burua becala.

Virtute Cardinaleen gañean

- Gal. Cergatic deicendire Cardinaleac Virtute ebec?
 Err. Cergatic choil principaleac diren, eta berce aniz virtuteren zañac.
 Gal. Cer¹⁵⁹ oficio du Prudenciac?
 Err. Iduqui erdia bi estremoren artean (edo compondu porfiac.)
 Gal. Cer oficio du Justiciac?
 Err. Eman batbedrari bere derechoa, edo arracioa.
 Gal. Cer oficio du Fortalezac.
 Err. Moderatu enfadoac, eta atrevimentuac.
 Gal. Cer oficio du Templantzac?
 Err. Enfrenatu gula, eta apetitu sensualeac.
 Gal. Cein da Virtuteric andiena?
 Err. Charidadea: oyey ematenbaitiote bicia; eta chussencendituena.
 Gal. Cer finetara chussencenditu?
 Err. Jangoycoaren gana: norequi berac juntacen gaituen.
 Gal. Jangoycoaren ailcinean cein guizon da Sanduago?
 Err. Charidade gueyago daucana: edo cein balimbadare.
 Gal. Norc dauca charidade andiago?
 Err. Mandamentuac obequi goardacen dituenac.

¹⁵⁸ **B**-n partizipioarekin elkartua.

¹⁵⁹ «Ger» orijinalan.

- Gal. Evangelioaren consejuac cembat dire?
 Err. Irur: Pobreza voluntarioa: Castidatea, eta obediencian vicea.
 Gal. Conseju ebec certaco cerbizacendute?
 Err. Obequi guardaceco preceptoac, eta Mandamentuac.

Capitulo amazpigarrena,

Arimaren Potencien gañean

- Gal. Erranzquizu Arimaren Potenciac.
 Err. Arimaren Potenciac dire irur. Amen Jesus.
 Gal. Certaco emancigu Jangoycoac entendimentua?
 Err. Beraren ezauceco, eta aren gauzetan pensaceco.
 Gal. Certaco da Memoria?
 Err. Oroit gaitecen beraren legueas, eta merchedes.
 Gal. Certaco Vorondatea eta libertatea?
 Err. Guc bera onetsiceco, eta meregimentuarequi eguiteco beraren voron-
 datea.

Sentido Corporaleen¹⁶⁰ gañean

- Gal. Erranzquizu Sentido Corporaleac.
 Err. Sentido Corporaleac dire borz. Amen Jesus.
 Gal. Certaco emandizquigu Jangoycoac sentidoac, eta berce miembro gu-
 ciac?
 Err. Guciequi bera cervizaceco gauza gucietan.

Capitulo emezorcigarrena,

Espiritu Sanduaren Donen gañean

- Gal. Erranzquizu Espiritu Sanduaren Donac.
 Err. Espiritu Sanduaren Donac dire Zazpi. Amen Jesus.
 Gal. Certaco dire Espiritu Sanduaren Donac?
 Err. Gu obediente eguiteco Jangoycoaren inspiracioei.
 Gal. Certaco da Entendimentuaren Dona?
 Err. Guri adicera emateco eguiac.
 Gal. Eta Sabiduriaren Dona?
 Err. Eguia oyes ongui juzgacera eguinarasteco.
 Gal. Eta Consejuaren Dona?
 Err. Jangoycoari consultaceco gauza agradableac.
 Gal. Eta Cienciaren Dona?
 Err. Escogiceco ongui, consultatu dena.

¹⁶⁰ Azken «-en» banandurik.

- Gal. Eta Piedadearen Dona?
 Err. Concertacendu arima Jangoycoarequi.
 Gal. Eta Veldurraren, eta Fortalezaren Dona?
 Err. Concertacendu ongui berarequi.
 Gal. Bada au guciau esta Virtuten officoa?
 Err. Virtutec ecarcengaytuste arraciora, eta bearden leguera: eta donec Espiritu Sanduaren movimentuetara.

Espiritu Sanduaren Frutuen gañean

- Gal. Erranzquizu Espiritu Sanduaren Frutuac.
 Err. Espiritu Sanduaren Frutuac dire amabi. Amen Jesus.
 Gal. Cer dire Espiritu Sanduaren Frutuac?
 Err. Fruta arbolean becala, Virtuteen suavidaderic andiena, eta perfectoa.

Capitulo emeretcigarrena,

Bienaventuranzaen gañean

- Gal. Erranzquizu Bienaventuranzac.
 Err. Bienaventuranzac dire zorzi. Amen Jesus.
 Gal. Cer dire Bienaventuranzac?
 Err. Virtuteen, eta Espiritu Sanduaren donen obraric oberenac.
 Gal. Nor dire Espiritu pobre dutenac?
 Err. Nai estutenac honreric¹⁶¹, eta ez abrastasun chiquiric ere.
 Gal. Nor dire Mansoac?
 Err. Iraric, edo iraren movimenturic estutenac.
 Gal. Nola dire lurraren jabeac?
 Err. Berac, bere Jaun diren becala.
 Gal. Nor dire negar eguitendutenac?
 Err. Placer chiquiac ere ustenditustenac.
 Gal. Nor dire justiciaren gose, eta egarri direnac?
 Err. Fervorearequi eguitendutenac bearden gucia.
 Gal. Nor dire Misericordiosoac?
 Err. Choil piadoso direnac: naiz campocoequi¹⁶² ere.
 Gal. Nor dire bioz garvia dutenac?
 Err. Mortificacen direnac beren passionetan.
 Gal. Nor dire Pacificoac?
 Err. Bere, eta berceren baitan baquea eguitendutenac.
 Gal. Nor dire justiciaren gatic padecicendutenac?
 Err. Justician firme daudenac perseguicen badituste ere.
 Gal. Obra ebec cergatic deicendire Bienaventuranzac?
 Err. Cergatic ebetan dago mundu ontaco felicidadeta; eta berce munduco esperanza.

¹⁶¹ **B**-n «honreric».

¹⁶² «campocoequi» **A**-n.

Nola Confessa, eta Comecatu bearden

Lembicicoa, oroitu beardu bere becatues, eta ontaco pensatu bearditu irur gauza: non egonden: norequi ibiliden: eta cer officioetan empleatuden: orrequi etorcendire becatuac memoriara.

Joan beardu Mandamentu gucietatic barrena, icusis ceinetan eroriden pensamentus, itces, edo obras: au eguinasgueros, consideratu beardu Jangoycoari eguindion ofensa, eta bere arimari eguindion gaiza: damutubeardu dolore, eta urriquimentu andiarequi, eta proposito firmearequi ez bein ere becuric eguitemo.

Iminibedi Confessorearen oñetan belaurico, guticoat¹⁶³ apartaturic: ez Confessorearen aurcas, baycic aldean, eta beguiac lurrera beiracendutela: erran beardu Confessioa: eta erranbeardizquio Confessoreari cembat becatu mortalea eguindituen, eta ezpadago seguro cembat diren, erran beardu guti gora vera cenbat diren. Eta ez beinere utci becuric alques: cergatic Jangoycoari erratendizquio, Confessacen denean. Eta Sacrilegio andia da becatu mortalea isilcea confessioan: eta berdin berce aldian dauca obligacio eguia erratera, eta confessio artaco gauza guciac berris confessacera; cergatic gaizqui Confessatucen.

Comecacera doayenean badaqui baruric egon bear duela. Comecacera-coan pensatu beardu, Jangoycoa eldudela orrequi egotera, eta orren ariman sarcera¹⁶⁴. Eta comecatu asgueros ez bereala joan Elizatic, baicic graciac, eta esquerrac eman Jangoycoari, cergatic orren visitatcera etorriden.

Au aisquide chiquien daco

Liburu andian dago luceago andien, eta zarrendaco.

Icusi ditut aniz libru debocio andiequi egun gucico, eta ordu gucietaco. Baña ori da ongui Fraidem¹⁶⁵ eta seroren daco: baña ez berce guciendaco. Devocio galanta, eta facila Christio guciendaco da. Etciteracoan, eta vesticera-coan laur oracioac erratea: cein baytire ceñacea, eta Paternosterra, Avemaria, eta Salvea. Credoan esta oracioa: an estugu deus escacen: baicic sinistacendugu an dagon gucia. Devocio onen arracioa da: cergatic Christoren Gurucea aurpeguian dramanari, ezin guertadaquioque gauza gaistoric, ez egunas, eta ez gauhas (sic).


FINA¹⁶⁶

¹⁶³ «guticoac» **A**-n.

¹⁶⁴ «arimanlarcera» **A**-n.

¹⁶⁵ **A** testuan ez da ongi irakurtzen.

¹⁶⁶ Hurrengo orrialdean, **A** testuan, eskuz idatzia eta hitz guztiak loturik: «Esta pregunta (sic) es del bica<rio> / de Mendibil» (firmarik gabeko errubrika) eta herriaren izena minuskulaz orijinaldean. Ondoren irakur ezin daiteken hitz bat eta azpian bi arrai eta horien artean txori bat marraztuak.



Euskal aditz zaharraz: aspektu oposaketatik modu oposaketara

Gontzal Aldai Garai

Sarrera

Asko dira oraindik euskal aditz sistemaren ikerketa historikoan dauden puntu ilunak, eta handia, beraz, gai honetaz egiteko dagoen lana. Arazo horietariko bat aztertzea da artikulu honen xedea: *EDIN-*EZAN aditzen eta euskal subjuntiboaren eboluzioak.

Horretarako, denon ezagunak diren datu dokumentatuez baliatuko naiz: lehenengo testu literarioek erakusten duten aditz sistemarenez, hain zuzen. Horien bitartez, eta ia beti LAFONen hausnarketetan oinarrituz¹, euskal subjuntiboaren eta *EDIN-*EZAN aditzen bilakaera esplikatatu nahi duten hipotesi zenbait (LAFONenak gehienak) azalduko dira jarraian.

Euskal aditz sistemak historian zehar pairatu bide dituen (eta oraindik pairatzen ari den) bilakaera adar nagusiak modu eskematikoan eman nahian, hiru adizki gatazka edo sistemak egin dituen hiru hautaketa-berrikuntza aipa genitzake:

1. Adizki trinkoak / Adizki perifrastikoak.
2. Alegiazko adizkiak / Iraganeko adizkiak.
3. Aspektu-markarik ez duten adizkiak (*EDIN-*EZAN laguntzailekoak) / Aspektu-marka duten adizkiak (IZAN-*EDUN laguntzailekoak)².

¹ Oso lagungarri suertatu zaizkit baita J.A. Lakarra, P. Altuna, A. Irigoien eta R.M. Paggola irakasleen eskola azalpenak. Mila esker haiei eskaini didaten arretagatik eta artikulu honetaz egindako zenbait oharrengatik.

² «Aspektu-markadun» / «aspektu-markagabe» oposizioaz hitz egingo denean, kanpoko formaz soilik arituko gara; hots, zein adizkik daukan aspektu-marka esplizittoa eta zeinek ez (hobeto esanda, zeinek Ø marka duen). Ez gara saiaturiko, beraz, bereizten zein

Aipatutako hiru prozesuetan, beti ere gatazkan zeuden forma bietarik bat (bigarren tokian idatzi dena) suertatu da garaile, aditz sisteman orokorki ezarriz; baina inoiz ere ez atzera geratu diren formak guztiz desagertaraziz.

Hiru bilakabide hauetatik hirugarrena da artikulu honetan aztertuko dudana: hots, *EDIN-*EZAN-(EGIN) laguntzaileen atzerapen prozesua. Zehaztu behar da, egia esan, laguntzaile horiek inportanteenak direla gaur ere aginte adizkietan («modu inperatiboa») eta -KE atzizkidun adizkietan, hau da, ahalera adizkietan («modu potentziala»)³.

Halabaina, ez dira bi modu horiek hemen aztertuko. Ukituko den gai bakarra, Euskaltzaindiak EGLU-II liburuan proposatu duen aditz sailkapen formalaren [adizkien *forman* soilik oinarritzen dena] arabera⁴, «modu ez-markatua» litzatekeenari dagokio. Modu «formal» honen barruan, adizkien *esanahia* kontutan harturik bakarrik bereiz daitezkeen bi modu «nozional» egongo lirateke: indikatiboa eta subjuntiboa⁵.

Berauen harreman eta eboluzio historikoa da jarraian aztertuko dena, batez ere laguntzaile motari dagokionean.

Subjuntiboa gaur egun

Gaur egungo euskal aditz sisteman subjuntibo hitzarekin izendatzea Euskaltzaindiak proposatu bide duena zera da: «*EDIN edo *EZAN laguntzailea duten adizki perifrastikoen multzoa, bereziki -N edo -LA atzizkiak horniturik daudenean, eta aginte zein ahalera adizkiak alde batera utzita»⁶.

Hau, adizkien formari dagokiolarik. Beren *esanahia* kontutan harturik, ordea, esan genezake aipatutako adizkiok erabiltzen ditugula mendeko perpaus finaletan (1), eta baita agindua, eskakizuna, nahia adierazten duten aditzen perpaus konpletiboetan (2):

den oposizioaren termino markatua eta zein ez-markatua (baldin balego). Halaber, nahiago dugu hitz egitea Ø aspektu-markadun adizkiez (edo marka gabekoez) ezen ez aspektu gabekoez (cf. EGLU-II, 404. orr.).

³ Terminologiari dagokionez, EGLU-II liburuak proposatzen duen ikuspegi formalarena da gehien erabiliko dudana (garbiena eta errezena zehazteko, bestaldetik). Terminologia klasikoa ere erabilia izango da batzutan, eta honetan arazo handiagoak suerta daitezke. Esan nahi baita ez dela maiz erreza, ikuspegi semantiko batetik, beste hizkuntzek erabili ohi dituzten terminoak euskararako egokiak diren ala ez jakitea.

⁴ EUSKALTZAINDIA (1987), 404. orr.

⁵ «Ikuspegi formal / ikuspegi nozional edo semantiko» bereizketarako, ikusi EGLU-II: 113, 138, 399-403. orr.

⁶ EGLU-II, 138. orr.

- (1) *Patxik ikus dezan ekarri dut liburu hau*
 (2) *Paper hori bota dezazula esan dizut!*⁷

Arestian definitutako subjuntibo esparrutik kanpo, ez da gaur ia erabiltzen *EDIN edo *EZAN laguntzaileko adizkirik, aginte eta KE-dun formak kontutan hartu gabe.

Aitortu beharra dago badaudela hemen aipatu ez ditugun beste adizki problematiko batzu: baldintzazko protasi edota denborazko perpaus txertatuetakoen tankerakoak. Beherago ihardungo dugu hauetaz, baina esan daiteke dagoeneko ez dirudiela oso garbi dagoenik kasu hauetan indikatibo / subjuntibo bereizketarik egin daitekeenentz, maiz hori erabakitzeke itzulpenetara jotzen dugularik⁸.

Subjuntiboaren sorrera (-N atzizkia)

Oso bestelakoak ziren gauzak ezagutzen ditugun lehen euskal tes-tuen garaian. Bai eta are ezberdinago, seguru asko, estrapolazioz baizik ezagutu ezin dugun aroan: euskararen historiaurrean.

Esan dezagun aurrena —LAFONEkin batera— euskarak, aro arkaiko batean, ez zuela edukiko subjuntibo berezirik:

«Une autre caractéristique du basque est que, dans des temps plus anciens, il n'avait pas de subjonctif distinct de l'indicatif. Le -(e)n, -(a)n du subjonctif n'est, dit SCHUCHARDT, «rien d'autre que le relatif»⁹.

xvi. menderako, ordea, bukatua zegoen jadanik erlatibozko perpausetatik (-N atzizkidunak) eta perpaus modaletatik (-LA atzizkidunak) subjuntibozko perpausetarako pasabidea:

«Ces deux suffixes ont atteint déjà au xvi siècle ce que SCHUCHARDT appelle «le dernier degré de leur évolution, le degré subjonctif ou impératif»¹⁰.

⁷ Adibideok EGLU-II, 422. orr.tik atereak.

⁸ Ohar gaitezen, bestaldetik, gure inguruko hizkuntzarik hurbilenek, hots, frantsesak eta gaztelerak ez dutela berdin jokatzeko honetan: gaztelerak gehienetan subjuntiboa erabiltzen duen bitartean, frantsesak ez du esandako kasuetan erabiltzen.

⁹ LAFON (1943), I.459. orr.: *Euskararen ezaugarrietariko bat da ez zeukala, garai zaharretan, indikatibotik bereizten zen subjuntiborik. Subjuntiboko -(e)n, -(a)n atzizkia ez da, Schuchardtek esaten duenez, «erlatiboaren marka baizik».*

¹⁰ LAFON (1943), I.473. orr.: *Atzizki bi hauek iritsi dute jadanik xvi. menderako, Schuchardten hitzetan, «beren eboluzioaren azken maila: subjuntibo edo inperatibo gradua».*

Horrela, ezagutzen ditugun lehen testuen garaian baino aski lehenago (LAFONEK zalantzak azaltzen ditu fenomeno hauen kronologiaz), perpaus mota berri bat eratzen hasi zen euskarari; edo hobeto esanda, erlatibozko egitura zaharretik abiatuta, esaldia ulertzeko eta ordenatzeko modu berri bat:

«Un type nouveau de phrase est né, en même temps qu'un mode du verbe: le type à proposition subordonnée avec verbe au subjonctif.»¹¹

LAFONEK -N atzizkiaren balioen zerrenda aurkeztu ondoren, esaten du, SCHUCHARDEKIN batera¹², -N atzizkiak «menpekotasun erlazioa» adierazten duela perpausaren bi atalen artean: alegia, «determinantea» eta «determinatua»ren artean. Halaber gaineratzen du (nahiz zenbait zehaztasunekin) -N atzizki bera dela izenen genitiboarena eta adizkien erlatiboarena.

Bi ikerlari jakintsu hauen usteari MITXELENA irakaslearena gehitu behar zaio, zeinek esaten bait digu -(A)N/ -(E)N erlatibozko atzizkiaren bilakaera ez zela gelditu (bizkaiera zaharrean, behintzat) subjuntibo «graduan», futuro balioa hartzera heldu bait zen.

«[En las formas verbales de RS **axa** “serás”, **dayda** “haré”, etc] no hay manera de evitar, a mi entender, la admisión de un morfema **-a** de “futuro”. Únicamente cabe dudar entre concederle un estado independiente o tratar de reducirlo a otro morfema ya conocido y generalmente aceptado.

En otras palabras RS **dayda** [como **axa**, etc] es una forma de presente provista del sufijo relativo **-(a)n**. La falta de **-n** no exige largas aclaraciones: [hay abundantes ejemplos].

Esta proximidad entre los valores de “futuro” y “subjuntivo” no es tampoco cosa que pueda extrañarnos, pues se trata de una realidad bien conocida en muchas lenguas [como en el griego antiguo].»¹³

-N atzizki emankor honen bilakaera, hortaz, proposizioaren menpekotasun gaitze prozesu bezala azal liteke. Hots, **erlatibo / subjuntibo / inperatibo / futuro** sekuentzia daukagula suposatuz, menpeko perpausetik perpaus nagusirako pasabidea eman dela uler genezake. Horrela ere, -N atzizkidun adizkia gero eta independenteago genuke sekuentzia horretan, delako atzizkia gero eta itsatsiago izanik. «Futuroa» litzateke, be-

¹¹ LAFON (1943), 1.461. orr.: *Perpaus mota berri bat jaiotako da, eta aldi berean aditz modu berri bat ere: subjuntiboko aditza duen menpeko proposizioa, hain zuzen.*

¹² LAFON (1943), 1.454-458 orr.

¹³ MITXELENA (1954), 797. orr.

raz —SCHUCHARDTEN hitzak erabiltzearren— «le dernier degré de son évolution».

Geroaldi berezi hau, dena dela, bizkaieran bakarrik dago dokumentatua, eta gainera ez zuen askorik iraun, partizipio + -KO daramaten forma perifrastikoek gauditua¹⁴.

Gure gai nagusira itzuliaz, esan dezagun subjuntibo egituraren sorrera edo bilakaera hau inguruko hizkuntza erromantzeek bultzatua etorriko zela, seguruenik. Halabaina, ez dirudiena bat ere garbi da, behin subjuntibo egitura sortuta, zergatik espezializatu ziren subjuntibo modurako *EDIN eta *EZAN aditzak.

Bigarren prozesu hau, laguntzaile hautaketarena, lehenengo testigantza idatziak baino aurreragoko garairako hasia bazegoen ere, ez zen guztiz konplitu —demagun— xvii. mende bukaera arte. xvi-xvii. mendeek, beraz, (eta lehenagokoek neurri handiagoan) euskal aditz sistemaren eboluzio sakona ezagutuko zuten.

Aitzineuskarako aspektu oposaketa

Esan dugunez, gaur egun indikatiboaz kanpoko moduetako laguntzaile gisa baino ez dira erabiltzen *EDIN eta *EZAN. Garbi dago hau ez zela horrela aitzineuskarari: indikatibo / subjuntibo bereizketarik ez bazegoen, nekez izan zitezkeen laguntzaile hauek subjuntibokoak bakarrik.

Gainera, EGLU-II liburuan egiten den euskal aditzaren sailkapen formalaren arabera, adizkien forma bakarrik kontutan harturik, ezin dira bereiztu indikatibo eta subjuntibo moduak, eta bai ordea agintekera eta KE-dun modua edo ahalera¹⁵. Honek garbiro esan nahi du gaur ezagutzen dugun indikatibo / subjuntibo oposaketa nahiko berria dela euskal aditzaren historia barruan.

Subjuntiborik ez bazegoen aitzineuskarari (gaur egun ezagutzen duguna bezalakoa, esan nahi da), planteatu behar den arazoa zera da: zer zen IZAN-*EDUN / *EDIN-*EZAN oposaketarekin bereizten zena, garai arkaikotan.

¹⁴ Bestalde, ez dira konfunditu behar, ene ustez, batetik: -N atzikiaren bitartez edozein aditzek eraiki zezakeen geroaldia, subjuntiboarekin erlaziona genezakeena, bizkaieran bakarrik dokumentatua (edo hala itzulia, behintzat); eta bestetik: EGIN aditzaren, edota modu neutroago batez esanda, -(G)- edo -(G)DI- erroaren geroaldia (formaz oraina), potentzialarekin erlazionatzen dena, euskalki zahar guztietan dokumentatua (ahale-ria bezala, behinik behin).

¹⁵ EGLU-II, 138 eta 404. orr.

Aurreko galderari erantzuna ematea ez da gauza erraza, eta hortik joan beharko lirateke gure ahaleginak euskal aditz sistema zaharra ulertzen saiatu nahi badugu. Halabaina, badirudi aspektu oposaketa zela laguntzaile talde biak bereizten zituena; edo hobeto esanda, aspektu oposaketa zela hiztunak bereizten zuena laguntzaile aukeraketa egiterakoan.

Horrela, formari dagokionez, IZAN-*EDUN laguntzaileek aspektu-marka esplizittoa eskatzen zuten (eta dute) aditz nagusian: hots, partizipioa <TU>, aditz izena + inesiboa <TZEN> ala partizipioa + genitiboa <TUKO>. *EDIN-*EZAN laguntzaileek, ostera, Ø aspektu-marka eskatzen zuten (eta dute): hau da, aditzoina.

Gure proposamenaren arabera, beraz, aitzineuskarari IZAN-*EDUN / *EDIN-*EZAN laguntzaile hautaketarekin bereizten zena aspektu oposaketa zen, ez modu oposaketa. Ilunena gaurko euskal hiztunarentzat, oposaketa horrek zer balio semantiko zeukan ulertzea da. Lehenbiziko hurbiltze baten ikuspegitik, badirudi hizkuntza eslaboen aspektu oposaketarekin erlazioa genezakeela nozioz; baina formaz zeharo ezberdinak izanik, euskararena perifrasiatan oinarritzen bait da.

XVIII. mendea baino aurreragoko testigantzarik ez bagenu euskarari, ezinezkoa suertatuko litzaiguke, seguru asko, oposaketa zahar honen izatea asmatzea. Handik hona, modu oposaketa (indikatio / subjuntibo) desberdintzeko baizik ez bait du balio, aztertzen ari garen laguntzaile banaketak. Are gehiago, testu konkretu batzu dira (ez guztiak) arkaismo hauen berri ematen digutenak: muturretako euskalkienak, gehien bat. Lapurterazko testuak (LEIZARRAGA kenduta) ia gaurko usadioa azaltzen dute subjuntiboari dagokionean.

Modu oposaketarantz

Modu oposaketa berri hau (hizkuntza erromantzeek zeukatenaren antzekoa) —eta hau da artikulu honetan azaldu nahi den ideia nagusia— aspektu oposaketa zaharraren lekua betetzera etorri zen, denboran zehar. Hots: aintzinako aspektu oposaketa krisian sartuko zen Erdi Aroan barrena, gero eta errendimentu gutxiago eskeiniz aditz sistemari; horrela forma zaharkituak (*EDIN edo *EZAN laguntzailekoak) gero eta baztertuago geratuko ziren; baina nahiko berria zen subjuntiboa forma horietaz baliatuko zen, azkenez, bere sistema berezia osatzeko.

Ikus dezagun zer esaten digun LAFONEK honetaz:

«Aujourd’hui, **sartzen den** est une forme d’indicatif présent qui sert à l’expression d’une relation de fait, de l’interrogation indirecte et de l’exclamation; **sar dadin**, une forme de subjunctif, dont l’-n finale n’est

plus sentie comme identique à celle de “sartzen den”. [...] Elles [ces deux formes] n’expriment plus deux aspects différents d’un même procès; l’ancienne et originale opposition d’aspect a fait place à une distinction modale semblable à celle qui s’exprime dans les langues romanes.»¹⁶

Aldaketa hau bilakaera luze baten ondoren beteko zen, eta zenbait mendez luzatuko. Horrela bada, XVI-XVII. mendeetako gure testu zaharretan aurkitzen dugun aditz sistema eboluzio honetan murgildua zegoela ulertu behar bide da. Hortik etorriko litzateke testu hauetan topatzen den adizki baliokideen ugaritasuna. «Krisi garaikoa» dei dakioko, ondorioz, lehenengo testu literarioek azaltzen duten aditz sistemari.

Hortaz, XVI-XVII. mendeetako euskal aditz sistemaz ari garelarik, kontutan hartu behar dugu aipatutako bilakaera, modu laguntzaileen espezializazioarena alegia, bete gabe zegoela artean.

Ezin diegu, beraz, —gaurko aditz sistemarako zilegi bide dena— *EDIN eta *EZAN laguntzaileei «subjuntibokoak» deitu, XVI. mendeko aditz sistemaz hitz egiten dugunean. Batetik, artean desagertu gabe zegoen usadio zaharrari jarraituz, *EDIN eta *EZAN-(EGIN) laguntzaileak ezagunak bait ziren indikatiboko erabileran. Eta bestetik, orduko subjuntiboa IZAN eta *EDUN laguntzaileen bitartez osatzeko posibilitatea euskarak bazeukala dirudielako, geroago ikusiko dugunez.

Dokumentazioa

Jarraian, arestian azaldutako ideia nagusiari oinarria ematen dion dokumentazioa azalduko dut. Hau da, IZAN-*EDUN / *EDIN-*EZAN eta indikatibo / subjuntibo oposaketak ezin direla identifikatu euskara zaharrerako. Bi ataletan banatuko dut argumentazioa:

1. XVI-XVII. mendeetan *EDIN-*EZAN laguntzaileak subjuntiboaz kanpo ere agertzen ziren:

a) *EDIN (eta EGIN) aditz nagusi bezala.

XVI-XVII. mendeetako zenbait testutan (RS, LEIZARRAGA, Viva Jesus), *EDIN aditzaren adibide batzu agertzen dira non aditz nagusi bezala

¹⁶ LAFON (1943), II, 49-50 orr.: *Gaur egun, sartzen den indikatiboko orainaldiko adizkia da, ondoko kasuetan erabiltzen dena: benetako (ez alegiazko) erlazio bat adierazteko, zehar galderetan eta harridura perpausetan; sar dadin, ordea, subjuntiboko adizkia da, non bere amaierako -Na ez den ulertzen «sartzen den»aren -Na bezala. [...] Adizki bi hauek ez dute azaltzen dagoeneko prozesu bereko bi aspektu ezberdin; aintzina eta jatorrizko oposaketa aspektualak bereizketa modal berri bat eman du, zeina hizkuntza erromantzeetan gertatzen denaren antzekoa bait da.*

(ez-laguntzaile) erabiltzen bait da. Bere esanahia kasu hauetan gazte-razko «llegar a ser, hacerse, volverse», frantsesezko «devenir» edo ingelerazko «become» aditzen baliokidea litzateke.

- RS 358: Ausazala euriaz loyza *çidi*.
Siendo poluo con la lluuia *se hizo* lodo.
- VJ 5: Yru personaetaric cein *sidin* guizon?
- RS 263: Lotsaga *nindin*, oguiz ase nindin.
Sin verguença *me hice* y arté me de pan.
- RS 249: Asto *dina*, zordun.
El que se haze fiador, deudor.

Dokumentazio gehiagorako: MITXELENA (1970), 291 orr. edota LAFON (1943), 1.88-89 orr. [*EDINen NOR-NORI adizki bipertsonalak ere ager daitezke independenteki, baina hau beste lan baterako gaia litzateke.]

*EZAN aditza, ordea, ez dago dokumentatua aditz nagusi bezala. Halabaina LAFONEk aintzinean existitu egingo zela defendatu zuen, eta EGIN aditzaren antzeko esanahia iratxeki zion¹⁷.

*EDIN eta *EZAN aditzek, hortaz, atzeratze prozesu paraleloak jasango zituzten, beren adizki independenteak desagertu arte. Galeraren kronologia litzateke aditz bion eboluzioak desberdinduko zituen gauza bakarra. *EZAN lehenengo testigantza idatzietarako galdurik zegoen bitartean, *EDINEk gerotxoago bete zuen bere desagerpen prozesua.

EGIN aditza, bere aldetik, askoz dokumentatuago dago aditz nagusi gisa (eta baita laguntzaile moduan ere, bizkaieraz, arabera eta gipuzkeraz *EZANekin batera)¹⁸. Nahiz EGINEk nahiko bilakaera berezia edo propioa pairatu zuen, bere azterketa oso lagungarria suerta daiteke ikertzen ari garen gaia ulertu ahal izateko.

b) «Aoristo» delakoa.

Hitz honekin izendatu ohi da euskara zaharrear *EDIN-*EZAN-(EGIN) laguntzaileen bitartez osatzen zen indikatiboko lehenaldia. XVI-XVII. mendeetako testuak gehien desberdintzen dituzten ezaugarrietariko bat dugu hau. Oso ezaguna, beraz; baina ez hain ondo ulertua. Testu gehienetan agertzen da: ETXEPARE, LEIZARRAGA, R.S., VIVA Jesus, MIKOLETA, OIHENART, KAPANAGA,...

LEIZ. Luc.XI,14: Orduan *egotz ceçan* campora deabrubat, eta hura cen mutu; eta *guertha cedin*, deabrua

¹⁷ LAFON (1943), 1.38-40 orr.

¹⁸ Ikus LAKARRA (1986), 656-658 orr.

	ilki cenean, <i>minça baitzedin</i> mutua; eta <i>mi- rets ceçaten</i> gendetzéc.
RS 294:	<i>laygui cidi</i> naguia, <i>erra cizan</i> vria. <i>Leuantóse</i> el perezoso y <i>quemó</i> la villa.
ETXEP. VI,29:	Neure gayzqui penaceco <i>har cinçadan</i> amore
MIK.:	Dempora baten on oy nerechu, Baya <i>mudadu nindia</i> , Serren penatan <i>vior equida</i> <i>Emon senguidan</i> gloria. En un tiempo quiçe bien, Pero ya <i>me mudé</i> , Que la gloria que <i>me distes</i> En pena se <i>me boluió</i> .

Dokumentazio gehiagorako ikus bedi LAKARRA (1986), 652-654 orr.; edota orain: *Bizkaieraren lekua gaur*, Deustuko Unibertsitatea, 1992. 21-22 orr.

c) Mendeko perpausetako *EDIN-*EZAN-(EGIN) laguntzailetako indikatiboa.

Mendeko perpausak (-N, -LA atzizkiez edo BA-, BAIT- aurrizkiez eta abar osaturikoak), esan genezake, nahiko kontserbadoreak izan bide dira erabilitako adizkiari dagokionean. Esan nahi da, perpaus nagusietan zegoeneko galduta ziren adizkiak edo usadioak, artean manten zitezkeela mendekoetan.

Hori dela eta, ondoko hipotesia suposa genezake: *EDIN eta *EZAN aditzen oraineko forma hutsak (***dadi**, ***nadi**, ***deza**, ***dezat**) existituko zirela garai zaharretan, lehenengo testigantza idatziak baino lehenago galdu baziren ere¹⁹.

Horrela, xvi-xvii. mendeetako testuetan, *EDIN-*EZAN aditzen orainak perpaus nagusietan desagerturik zeudekeen bitartean, oraindik agertzen ziren mendeko esaldietan. Eta ez bakarrik, gaurko usadioaren modura, subjuntibo egituran (**ekarri dut zuk ikus dezazun** bezalakoan), baizik eta gaur egun normalean IZAN eta *EDUN laguntzaileen bidez eraikiko genituzkeen proposizioetan ere.

Hau da, adizki hauek artikulua har zezaketeen, baita deklinabide atzizkiak ere: **sar dadina**, **ikus dezadanean**, ...; eta gainera, nire us-

¹⁹ Hipotesi honen alde dugu, lehen aipatu bezala, EGIN aditzaren testigantza, *EZANen eboluzioa parekoa izan zitekeela suposatuz. Izan ere, EGINen oraineko forma hutsak aski dokumentatuak daude (**dai**, **dait**,...); jakina, ez orainaldiaren balioaz, geroraldiarenaz baizik: formaz ari gara, ez balioz.

tez, «subjuntiboan» zein «indikatioan» erabili ahal izateko, gaur egun zilegi ez dena.

Alegia, honelako kasuetan (baldintzazko protesi, denborazko esaldi edo erlatibozko zenbait perpausetan, adibidez) adizkiak, berez, anbiguoak dira euskaraz. Hala *EDIN-*EZAN laguntzaileez osatzen ziren perpaus haietan (ez gaurkoetan), nola IZAN-*EDUN aditzekin gaur egun erabiltzen ditugunetan. Ez bait dira desberdintzen, formari bagagozkio, indikatibo eta subjuntiboko egiturak (baldin horrela izenda badaitezke).

(3) *etortzen denean, dirua ematen digu.*

(4) *etortzen denean, dirua emango digu.*

(5) *etor dadinean, dirua emango digu.*

(6) ** etor dadinean, dirua ematen digu.*²⁰

Lehenengo erabilerak, (3) adibidekoak baldintza erreala azaltzen du. Bigarrenak, (4) adibidekoak, ostera, nozio ebentuala adierazten duela esan ohi da. Batzuren ustez, (3) indikatiboari dagokion bitartean, (4) subjuntibokoa da. Baina subjuntibo denentz erabakitzeke itzulpenetara jo beharra daukagu; edota nozio semantikoetara, behintzat.

Onartzen badugu (EGLU-IIak ez du inoiz aipatzen, baina komunki egiten da) indikatibo / subjuntibo bereizketa daukagula hemen, ez dago ezer laguntzaile hautaketan ezta adizkien forman ere bi moduen arteko muga markatzen duenik.

Ondorioz, gaur egun subjuntiboko zenbait kasu garbi [(1) eta (2) adibideetakoak] *EDIN-*EZAN laguntzaileen bitartez soilik eraikitzen dira (nahiz, agian, aspaldi bestelako posibilitatea ere egon zitekeen).

Halabaina, beste kasu askotan [(4) adibidekoetan], nahiz eta subjuntibokoa direla esan ohi den, «modu» bereizketa ez dago forman isladatua, eta, hortaz, ez dator bat laguntzaile bereizketarekin.

Are gehiago: ez bakarrik, oraintxe ikusi dugunez, IZAN-*EDUN laguntzaileei dagokienez, baita *EDIN-*EZANen adizkiak ere era bikoitz honetan erabili omen zitezkeen XVI-XVII. mendeetan. EGLU-IIan esaten denez, ordea, gaur egun forma hauek, erabiltzen diren kasu gutxietan, balio ebentuala daukate beti: horregatik, (5) adibidea onargarria da baina (6) onartezina litzateke²¹. Hala ere, ez du ematen, nire ustez, gauzak horrelakoak zirenik lehenengo testuen garaian:

²⁰ Adibideak EGLU-II, 376. orr.tik hartuak. (6) adibideko * izartxoak EGLU-IIak jarria da. J.A. Lakarrak esan zidanez, (4) adibideak gogor samarra ematen du, behar bada ETORRI aditz trinkoa izateagatik: **datorenean** edota **etorriko denean** adizkiek onargarriago dirudite. Hala ere, ITZULI aditzerako, kasu, **itzuliko denean** ez ezik, **itzultzen denean** zeharo normala da. Gainera, ohar gaitezen bata zein bestea IZAN laguntzaileaz daudela eraikita ebentuala adierazteko, ez *EDIN aditzaz.

²¹ EGLU-II: 375-376, 382 orr.

- RS 209: *Sar dina* gueben lecuán, bere caltean.
El que entrare en lugar vedado, en su daño.

Honelako adibideak (ebentualak) gehiengoak dira; baina bestelakoak ere badaude:

- RS 198: *lauxi din* ezcurra, oroén su egur.
El árbol *que cae*, de todos leña de fuego.
- ETXEP. XII,21: Gayzqui *eguin dadinian*, gendec sarri da-
quite.
- OIH. Ats.528: Nehortan *dadina* sobera *fida*,
gero heiagor'ari da.
- OIH. Neur.III,14: Lagun-artean
hel nadinean,
elhaketan, erhogoan,
ez nun dostatzen,
ez nun minzatzen,
hi beti, beti, aut gogoan.
- RS 540: *Ynardun badaguic*, ez doq ue[a]r besterenic.
Si continúas en el trabajo, no tienes neces-
sidad de otro.
- RS 560: *Seyacaz echun dina*, ucuzca jaigui d[o]a.
Quien con niños *se acuesta*, sucio se le-
vanta.²²
- ETXEP. V,11: Harequila *bat banadi*, vihoça zayt harricen,
Neure penen erraytera are eniz ausarcen.

Inon baino garbiago agian ikus daiteke adizki hauen balio bikoitza, (¿) indikatibo / subjuntibo (?), ETXEPAREren ondoko pasarte bi hauek erkatuz:

- ETXEP. I,23: Guero *iraçar adinian*, orhit adi vertaric
Cenbait ere oracione erraytera deuotqui.
- ETXEP. V,2: Andre eder gentil batec vihoça deraut ebaxi,
Harçaz *orhit nadinian* deusere ecin yrexí;

Lehenengoa **ebentuala** den bitartean, bigarrena guztiz **erreal**a da. Beraz modu oposaketa erabiltzea zilegi balitz kasu honetan, dudarik gabe indikatiboko adibidea genuke azkena, aurreko gehienak bezala, eta *EDIN-*EZAN tipoko laguntzaileaz baliatuz eraikia.

²² Azken bi adibideok, Mitxelenak seinlatu zuenez, RSkoak izanik ere, ez dira ager-
tzen daukagun ale bakarrean, bestelako bidez heldu zaizkigularik. Ikus TAV, 174-175 orr.
MITXELENAK eman zien numerazioa mantendu dut.

2. XVI-XVII. mendeetan subjuntiboa egiteko *EDIN-*EZAN laguntzai-leez kanpo bestelako bidez ere balia zitekeen euskara.

a) Aditz erro «forteen» subjuntibo sintetikoak.

Aditz erro «forteak», LAFONEN terminologia erabiliz, adizki trinkoak dauzkatenak dira. Hauek XVI-XVII. mendeetako testuetan, eta zenbait kasu ihartuetan gaur egun arte, beren subjuntibo propioko forma trinkoak osatzeko posibilitatea zeukaten. Ez zuten, hortaz, laguntzaile beharrik subjuntiboa eratzeko: nahikoa zuten indikatiboko adizkiei -N edo -LA atzizkiak eranstearekin.

Adibide hauek ikusita nahiko garbi susma daiteke subjuntiboaren sorrera erlatibozko perpausetatik datorrela, gorago esan dugunez.

Honelako adizkiak milaka daude testu zaharretan. Ikus ditzagun, la-gin bezala, ETXEPAREREN exenplu batzu:

- Hitz.: [...] eta çure escutik oroc *dugun ioya ederra* [...] eta bascoec bercec beçala *duten* bere lengoagian scribuz **cerbait doctrina** [...] eta ginen direnec guero *duten causa oboro* haren abançatzeco [...]
- I,357: Oray *dela* çuyendaco maradicionia / Ifernuco suya eta iagoytico nequia
- I,444: Çure seme iaunarequi eguidaçu baquia / Beccatuyac barçhaturic *didan parabiçuya*.
- II,109: Arrazoyn da mundu oroc *daguien çuri ohore*
- II,141: Fin honera hel guiçaçu, *güiren* salbuyetatic.
- I,265: Anhiz gauça vehar dira iudicio handian / lugeac *duyen potestate* parte ooren gaynian / Demandantac erran deçan vere causa eguiaz
- I,375: langoycuac *daguiela* gure partia hoyequi.

Baita alegiazko-iraganeko adizkietan ere (zeintzu aro zahar batean ez dirudi bereizten zirenik mendeko perpausetan)²³:

- I,43: Hark eryo haritu dic, hiri *leyan* vicia
- XIII,9: Izterbeguier *eneyen* malician leçhuric / loan nendin; enaguien oguen gabe ihesic.
- XII,3: Othoyce bat baneguyon *larradala* eguia

²³ Mendeko perpaussek kontserbatzen zuten beste arkaismo bat bezala uler genezake agian fenomeno hau: iraganeko adizkiek (alegiatzkoek bezala) **I-** aurritzia eramaten zutela 3. pertsonan, subjuntiboa ez ezik, kompletibetan ere. Ikus MITXELENA & BIDEGAIN (1954), 848-849 orr.

- II,94: Beccatoren saluaceco ieyncoac eguin cinducen /
[...] / Çu misericordiaren refugio *cinaden*
- II,20: Amore bat nahi nuque *liadutanic* eguia
- II,81: Oray oro nahi nuque *liren* ieyncoagatic
- VI,17: Minzaceco çurequila gau bat nahi niqeci /
Hilabete conplituric hura luça valedi /
Arranguren qhondaceco asti *nuyen* frangoqui
- V,6; V,7: Mirayl bat nic ahal banu hala luyen donoa /
Neure gogo *neracuxon* secretuqui han varna /
Han veryan nic *nacussen* harena ere nigana /
Huxic ecin eguin neçan behinere hargana!

b) IZAN-*EDUN laguntzaileko subjuntibo perifrastikoa egiteko posibilitatea.

Berriro ere, normalean subjuntibo hitzarekin izendatu ohi dugunari gagozkio: perpaus finalak eta borondatezko aditzen konpletibak. Ez ditugu jarraian kontutan hartuko gorago aipatutako baldintzako protasi, denborazko perpaus txertatu edo alegiazko adizki bezalako kasu ilunak [horietaz hitz egin dugu, batasuna lortzearren, beharbada ez zegokion lekuan: ikus 1.c)].

Esandakoaz ari garela, beraz, proposa dezakegu badirudiela euskarak bazeukala IZAN-*EDUN laguntzaileez baliatuz subjuntiboa eratzeko ahalmena. Gero, agian, horrelako adizkiak ez ziren sistematizatu; baina badaude zenbait adibide non ikusten bait da euskal hiztuna gai zela horrelako egiturak sortzeko.

Ikus ditzagun ETXEPAREren zenbaitzu:

- XIII,38: langoycua, egin dicit çure contra beccatu /
Hayez *nahi enuçula*, othoy heben *punitu*
- I,58: Misericordiaz *bethe ciraden*, iaun eztia !
- I,397: Misericordiaz *bethe ciren*, andere handia !
- X,66: Hiçac haribira, *dugun eguyna!*
- Hitz.: [...] eta *obligatu guiren* guciac geyncoari othoyz eguitera, dizun mundu honetan prosperoqui vicia eta bercian parabiçuya. Amen.
- I,416: Cer çuc galde baytaguiçu *den conplitu* gucia.
- I,450: Oracione haur derrana, andre dona maria, /
Othoy, *gomendatu duçun* hila eta vicia.
- XIII,45: Nahiz heben pena nadin, arima *den salbatu*

LAFONen eritziz, honelako subjuntibo adizkirik ez da aurkitzen XVI-XVII. mendeetako testuetan. Baina gero onartzen du badaudela «*den* + partizipio» moduko subjuntiboko adibideak²⁴. Egia da esenplu hauek ulertu daitezkeela kasu gehienetan aditz independente + partizipio (edo izen/adjetibo) bezala. Halabaina hemen esaten ari garena hori bera da: forma horiek, euskararako zilegiak izanik ere, ez zirela sistematizatu.

Orokorki zabaldu ziren formak *EDIN-*EZAN laguntzailekoak izan ziren. Horrela bada, gaur egun ezagutzen dugun indikatibo / subjuntibo oposaketa ezarri zen. Hala ere, egungo egoera, hautaketa aski berri baten ondorioa dirudi.

Era bereko adibideak lirateke EGLU-II liburuak biltzen dituen honako aginte adizki ihartu hauek:

- (5) *Dugun edan !*
- (6) *Dugun otoitz egin !*
- (7) *Ez hizala jin !*
- (8) *Ez hizala horrela mintza!*²⁵

Konklusio hipotesiak

1. *EDIN eta *EZAN aditzak aditz «normalak» izango ziren aitzin-euskaran; hots, aditz independenteak, seguruena, eta laguntzaile gisa, «indikativokoak» (bereizketarik ez zegokeela esan nahi da).

2. *EDIN-*EZAN / IZAN-*EDUN laguntzaileekiko oposaketa zaharra aspektukoa baino ez zen izango: (¿) «perfektiboa» / «inperfektiboa» (?). Oposaketa hau aspektu-markagabe / aspektu-markadun bereizketan isladatzen da sistema perifrastikoan.

Hau da sakonki ikertu beharra dagoen gaia: oposaketa honen jatorrizko funtzio edo esanahia eta bere antolaketa.

3. Aipatu oposaketa krisian sartuko zen Ertaroan edo, *EDIN-*EZAN laguntzaileetako adizkiak gero eta baztertuago geratuz.

4. Gaur egungo subjuntibo egituraren sorrera nahiko berria dirudi euskaran, erlatibozko perpausetatik abiatutik eta kanpoko eraginak bultzatua.

5. Egitura «berri» honetan, subjuntiboan, bere esparru propioa aurkituko zuten indikatibotik desagertzeaz zeudekeen *EDIN-*EZANeko adizkiak, (baina IZAN-*EDUNeko formak ere erabili ahalko ziratekeen subjuntiborako.)

²⁴ LAFON (1943), 132. orr.

²⁵ EGLU-II: 361, 365. orr.

6. Laguntzaile hautaketa honen zergatia ez dago oso garbi, baina aspektuaren ikerketa sakonak argi gehiago eman liezaiguke arazo hau ulertzen saiatzeko.

7. Interesgarria litzateke ondo zehaztea zein den euskararen subjuntiboaren esparrua (baldin egokia bada hitz hori euskararako). Aditz sailkapen formalean subjuntiborik ez badago, (inguruko hizkuntza erromantzeetan dagoen bezala) sailkapen nozional batean bai bil daitezkeela subjuntiboko kasuak. Nahiz eta, agian, kasuz kasu beste modu batera izendatzea aproposagoa izan daitekeen.


8. Baiezta litekeena da, historikoki ikertua ez dirudiela oso egokia subjuntibo / indikatibo modu bereizketa *EDIN-*EZAN/IZAN-*EDUN laguntzaile oposaketarekin identifikatzea.

Aipamen bibliografikoak

- ALTUNA, P. (1979): *Etxepareren hiztegia. Lexicón Decheperiano*. Mensajero, Bilbao, 1979.
- ETXEPARE, B. (1545): *Linguae Vasconum Primitiae*. P. ALTUNA editore. Mensajero, Bilbao, 1987.
- EUSKALTZAINDIA (1987): *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-II. [EGLU-II]*. Euskaltzaindia, Bilbo, 1987.
- IRIGOIEN, A. (1985): *En torno a la evolución y desarrollo del sistema verbal vasco*. Bilbao, 1985.
- IRIGOIEN, A. (1987): «Euskal berboaren sistema perifrastikoko aspektu-denborez.» in *De Re Philologica Linguae Vasconicae*. Bilbao, 1987. 91-105 orr.
- LAFON, R. (1943): *Le Système du Verbe Basque au XVII^e siècle*. Elkar, Zarautz, 1980. 2 bolumen bateratuta.
- LAKARRA, J.A. (1986): «Bizkaiera zaharra euskalkien artean», *ASJU XX-3*. 639-681 orr.
- LEIZARRAGA, J. (1571): *Jesus Christ Gure launaren Testamentu Berria*. Hordago, Donostia, 1979. 3 bolumen.
- MITXELENA, L. (1954): «Nota sobre algunos pasajes de RS de 1596» in *SHLV*, 792-801 orr.
- MITXELENA, L. (1964) & SARASOLA, I. (1983): *Textos Arcaicos Vascos, [TAV]. & Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos*. ASJU, Donostia, 1990.
- MITXELENA, L. (1970): «Nombre y Verbo en la etimología vasca.» in *PT*, 283-309 orr.
- MITXELENA, L. & BIDEGAIN, M.^aM. (1954): «Las escrituras apócrifas de Andramendi» in *SHLV*, 838-850 orr.
- OIHENART, A. (1657): *Atsotitzak eta Neurtitzak*. LARRESORO ed. Herri-Gogoa (Irakur Sail), Donostia, 1971.
- ORPUSTAN, J.B. (1993): *Oihenarten hiztegia*. Izpegi, Baigorri, 1993.
- REFRANES Y SENTENCIAS (1596), [RS]: Julio de Urquijo editore. Auñamendi, Donostia, 1964. Amaitugabea; 2 bolumen.

Laburdurak

- ASJU: *Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo»*. Donostia, 1967tik aurrera.
- EGLU-II: EUSKALZAINDIA (1987): *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-II*. Euskaltzaindia, Bilbo, 1987.
- PT: MITXELENA, L. (1987): *Palabras y textos*. UPV-EHU, Vitoria-Gasteiz, 1987.
- RS: REFRANES Y SENTENCIAS (1596): Julio de Urquijo ed. Auñamendi, Donostia, 1964. Amaitugabea; 2 bolumen.
- SHLV: MITXELENA, L. (1988): *Sobre Historia de la Lengua Vasca*. J.A. LAKARRA ed. ASJU, Donostia, 1988. 2 bol.
- TAV: MITXELENA, L. (1964): *Textos Arcaicos Vascos*. ASJU, Donostia, 1990.



Juan Jose Mogel-en *Maiazko Lore* bat

Koldo Jule Garai

0. Sarrera

Zelangoak ziren Mogeldarrak orok dakite, edo aurpegian lotsarik badugu halan beharko behintzat, biografia kontuetan bederik. Mogeldarren bizitzak loturik oso igaro dira Euskal-Herriko garai ezezagun bezain garrantzizko izan diren XVIII-XIX mendeekin. Juan Jose Mogelen bizitzan ez dut ikerketa sakonik egin, hau da, ez naiz artxiiboak eta abarrak nahastu ibili, ez eta ere argi berririk aurkitu, beraz ez naiz aurkezpen honetan itsas handiak hausten azartuko, ezagutzen dudan biografia oinarriko bibliografietan aurki baitaiteke¹.

¹ Hemen eskaintzen dugun bibliografia batez ere Altzibarren liburutik atera izan dugu: Xabier Altzibar; *Bizkaierazko Idazle Klasikoak: Mogeldarrak, Astarloatarrak, Frai Bartolome: Nortasuna, idazlanak, Grafiak*. Bilbo, Bizkaiko Foru Aldundia, 1992.

AKESOLO, L., O.C.D.; «De bibliografia Mogueliana», *BAP*, 1965, XXI, 90-91.

ALTZIBAR, X.; «Mogeldarrak, Astarloarrak, Frai Bartolome: I Nortasuna eta obra. II Idazlanak: jatorrizko testuak eta lehen edizioak. III Grafiak» (Doktoradutza-tesia, UPV-EHU, 1990).

—, «[Maiatzeko loreen egunetarako berba-aldijak]: jatorrizko eskuizkribua eta 1885eko edizioa», *ASJU*, XXIV, 1990.

—, *Bizkaierazko Idazle Klasikoak: Mogeldarrak, Astarloatarrak, Frai Bartolome: Nortasuna, idazlanak, Grafiak*. Bilbo, Bizkaiko Foru Aldundia, 1992.

ETXEGARAI, K.; «Karmelo Etxegarai jaunak, Euskaltzaindian sartu zan egunean irakurita-tako lana. Azpeiti'ko Udal-etxean 1925'garen Garagarilaren 25'an», *Euskera*, 1926, 8-25.

ETXENAGUSIA, K.; KORTAZAR, J.; ETXEBERRIA, A.; *Euskal idazleak bizkaieraz. Antologia, testu azterketak, ariketak*. Bilbao [1980].

GARATE, J.; *La época de Pablo Astarloa y Juan Antonio Moguel*. Bilbao: Imprenta Provincial, 1936. Junta de Cultura Vasca.

IRIGOYEN, A.; «La época de Astarloa, Moguel y Humboldt» in *Euskal-Erria* (1789-1850), Bayonne, 1978, 149-168.orr.

KORTAZAR, J.; «Moguel eta bere garaia», *ASJU* (1982), 42-53.

LASA, J.I., O.F.M.; «Juan Jose Mogel idazlearen II. mendeurrena (1781-1981)», *Euskera*, 1981.

MITXELENA, L.; *Historia de la literatura vasca*. Madrid: Minotauro, 1960.2. ediz., Donostia, Erein, 1984.

MOGEL ELGEZABAL, J.J.; *Baserritar jaquintsuaren echeco escola*. Don Juan Jose Moguel, Marquiñaco apaizac Vizcai-eusqueran atera eta D. Gregorio Arruec Guipuzcoacora itzulia. Tolosa: P. Gurrutxaga, 1878.

Hala ere, urteetan gogoan erabili izan dugun galdera honakoa da: izanik xviii. mendean Euskal-Herria hain aurrerakoa, zelan ulertu hurrengo mendean horren integristaraino heltzearena? Datu pare bat baino ez: kimika arloan Proust-ek Bergaran asmatu zuen bere «Proprietate Definituen Legea», eta ezin ahaztu wolframioa Elhuyartarrek aislatu zutena. Zelan bada geroko atzeramendua? Honen gainean behin eta berriro aritzen ziztaigun Bittor Uraga Fakultateko eskoletan. Gogoan daukat Ernest Lluhek *Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko Historiaren II. Mintegian*² emandako hitzaldian esaten zuela Espainia Euskal-Herriaren eskutik ilustratu zela, hona ez baitzen Inkisizioa heltzen³. Eta gero? zer jazo zen gure arerioek «pueblo de curas y vacas» izenda gaitzaten? Nik gure garai honetaz inoiz irakurri dudan artikulurik argigarrienetako bat Jon Juaristiren «Las fuentes ocultas del romanticismo vasco» izan da⁴; askori hau pekatu irudituko zaio, baldin ezagutzen ez badu ildo antzeratsutik doan G. Arestik Deustuko Euskal Kultur Mintegian 1975ean eman zuen hitzaldia⁵.

Batzuk diote zientzia topikoak eraikitzean datzala, batzuk Historia bakoitzaren errealitateari justifikaziorako oinarria ematean datzala. Guk egiaztat dugu topikoen bitartez atzeman ezina den errealitate bat azaltzera heltzen garena, baita halaber topikoak, zientzia bezela, beti direla hausgarri eta behin behineko, bestela zientzia barik dogma baillizteke, hots, topikoak definizioz gezur baina noraezeko dira, komunikaziorik eta zientziarik izango bada. xviii-xix. mendeak topifikaturik dauzkat, eta xviii. mendea nik uste baino itsusiagoa izango zen noski, xixa uste baino aurrerakoiago segurutik, baina arestian aipatu kontraesanok batera ekarri ezinik nabil.

—, *Baserritar Jaquintunaren etxeko eskolia*. Barcelona: Lib. Religiosa, 1880.

—, *Baserritar jaquintunaren ehecho eskolia ateratzen dau bigarren aldiz ta gueigarri barrijacaz D. Juan Jose Moguel Marquinaco abadiac*. Bilbon: J. Elizalde, 1886.

—, *Mayatz-illeraco Berba-aldijac*, Tolosa: Eusebio López, 1885.

URAGA, B.; «Hitzaurrea» in *Baserritar Jakitunaren Etxeko Eskolia*, Bilbo, Labayru Ikastegia, Euskal editoreen elkarte, 1991.

VILLASANTE, L. O.F.M.; *Historia de la literatura vasca*. Burgos. Editorial Aranzazu, 1979. 2. edizioa.

² Donostian, 1988ko Abenduaren 2an. «El cameralismo alemán».

³ «...las ideas penetraban con más dificultad, por que faltaban una cosa tan imprescindible como los textos; aquí había una entrada mucho más fácil, que es lo que explica que en el País Vasco se produzcan algunas cuestiones.»

⁴ Jon JUARISTI; «Las fuentes ocultas del romanticismo vasco» in *Congreso de literatura II*. Euskal Mundu-Biltzarra, Eusko Jaurlaritza. Gazteiz, 1988.

⁵ Gabriel ARESTI; «Joane Etxeberri Sarakoaren sentimendu soziala eta kontzientzia nazionala» in *Gabriel Arestiren Literatur Lanak-10: Artikulua, Hitzaldiak, Gutunak*. Bilbo, Bilboko Udala, Bizkaiko Foru Aldundia, Susa. 1986. 122-129.orr.

—, «Peru Abarka-ren alienazioa». *Anaitasuna*, 1973-V-15, 10.orr.

1. Juan Jose Mogel (1781-1849)

Biografia argi eta arin azaltzekotan, eta kontutan harturik hori ez dela lantxo honen helburua, Bittor Uragak 1991n edizioaren⁶ sarreratik hartuko genuke, bi arrazoiengatik: bata da lehen aipatu garai hauen gainean darabilgun gogoeta bere eskolen harian otu zitzaigulako, bestea «hitzaurrea» bera berreskuratzearen.

«Juan Jose Mogel 1781.eko apirilaren 26an jaio zen Deban. Aita 1786.ean hil zitzaizen Zestoan eta aurrerantzean osaba zuten Juan Antonio Mogelek hartuko du bere gain iloben heziketa.(...)»⁷

(...) «Oinarrizko Teologia ikasketak Oinatiko Unibertsitatean egin zituen,... Eliz karrera nahikoa gaztea zelarik hasiko du eta, hala, 1803. ean eliz gizona zela badakigu, zenbait kapilautza ere bazituelarik. (...) Markina aldeko parrokoa, eliz kabilduko maiordomoa, zenbait kofradiatako maiordomo eta aholkularia, Markina Xemeingo erretorea, Markina aldeko bikarioa, etab. (...) Eliz gizona zen aldetik, berriz, gizon langile, zehatz eta arduratsuaren entzutea hartu zuen eta apezpikutzan, hori zela eta, estimatu egiten zuten.

»Juan Jose Mogel, bestalde, frantsestearen ondoko urteetan bizi izan zen eta, Iraultzak sortutako egoera politikoa eta ideologiazko giro berriari aurre egiteko, politikan ere lan egin zuen, (...) Hala, gerra garaian Valdespina-ko markesaren eta Fernando Zabalaren agindupean sortu zen Diputazio Jeneral Karlistan diputatua izan zen gerratea bukatu arte. Diputatua izan zen garaian hainbat idazki agertzen da berak sinaturik, Bizkaiko gainerako abadeei ere karlisten aldeko jarraera hartzera deitzen zielarik. (...) iharduera hau zela eta arazoak izan zituen Kalahorrako apezpikutzarekin, Bizkaian Leongo apezpikutzaren agindupeko eliza karlista eratzen ari zela eta ez zela, Gerra amaitu zenean, kanpora joan behar izan zuen, non egon zen oso zehatz ez dakigularik. Markinan, dena den, 1841.etik aurrera ibiliko da berriro eta, politikaren mailan zeukan jarreragatik zenbait arazo izan bazituen ere, Markinan iraungo du hil arte.

»Idazten ere oso gazte hasiko da Juan Jose: gazte gazterik hasiko da sermoiak idazten (1809-1830 urteetan ihardun omen zuen, batez ere, sermolaritzan) eta, antza denez, entzute handia zeukan langintza honetan. (...) Kunpli da hemen esatea, dena den, idazten ez ezik, liburugintzan ere aritu zela eta, idatzi zituenetatik hainbat, ez zituela

⁶ Juan Jose MOGEL; *Baserritarr Jakitunaren Etxeko Eskolia*, Bilbo, Euskal Editoreen Elkartea, Klasikoak, Labayru Ikastegia, 1991.

⁷ URAGA; *Op. cit.* «Hitzaurrea». 1. oin-oharrean, Uragak dio atal honetarako Villasanteren; *Historia de la literatura vasca*-n, Sarasolaren; *Historia social de la literatura vasca*-n eta, batik bat, Xabier Altzibarren *Mogeldarrak, astarloarrak, Frai Bartolome: Nortasuna eta Obra, idazlanak, grafia* izendun tesi dokortzean (EHU, Gasteiz, 1989) oinarritu dela.

argitaratu, ezta argitaratzeko egin ere, bestek erabiltzeko eta besteri lagungarri izateko idatzi baitzituen. (...)

»Zein egunetan hil zen argi ez badago ere, badirudi 1849.eko uztailaren 24an hil zela, agiria, X. Altzibarrek dioenez, galdu datekeelarik. (...)»

2. Obra

Juan Jose Mogelen obrari aurrez, aipatu izan zaigu⁸ bi motatako idazlanak direla: molde hitzetan jartzekoak eta eskuizkribu izateko zirenak. Ez dut «argitaratu» berba ibili gura izan, alde batetik garaian testu transmisioa eskurik eskukoa ere izango zelako —bere osabaren *Peru Abarka* horren lekuko— («plazaratzea» *paskin* modukoa ere izango zen bezain batera) eta, bestetik, eskuizkribu horien artean egongo zirelako halan idazlan publikoak zelan pribatuak —bere lanean-eta lagunduko ziotenak aurki—. Inprimatu zirenen artean kontatu ohi da:

1. *Basserritaar nequezaleentzaco escolia*, Bilbo 1816. Eta honen adi-nontze eta berridaztea den: *Basserritaar jaquitunaren ehecho escolia*, Gasteiz 1845.
2. *Egunoroco lan eta erregubac meza santuba entzuteco: confesino eta comunioia biar dan leguez eguitemo prestaera eta zucenbidia*, Bilbo 1820.
3. *Mayatz-illeraco Berba aldijac*, Tolosa 1885. Azken hau J. Jose hila zela eman zen inprentara. Zer dakargu hemendik? Bada segururitik sermoioek ez zirela molde hitzetan emateko onduak izan, sermoi txar eta itxurabakoak arteztutzeko baino, Larramendi eta Mendibururen atxakiei bere eliz ingurumarian erantzun zuzena eman guran, eskuizkribu tankeran urteak igaro eta gero ere, eta ondokoa izango zela inprentaratzeko asmoa.

3. [Maiazko Loreak]

Geroko, orduko edo delako asmoa zelarik ere, kontua da eman zela begietara, moldeetara, egilea hil eta urteengarrenera. Eta izenburuan bertan eskuizkribuak hainbat aldaki ageri digu. Lehen edizioaren izenburua hauxe da⁹: *Mayatz-illeraco Berba-aldijac. Marquinaco Arima-Zai Juan Jose Moguel Jaunac bere azquen urteetan itzcribatuac*. Biar dan bai-emonagaz. Tolosan: Eusebio Lopez-en moldizteguian. 1885 garren urtean:

⁸ URAGA; *Op. cit.*

⁹ Xabier ALTZIBAR; *Bizkaierazko Idazle Klasikoak. Mogeldarrak, Astarloatarrak, Frai Bartolome: Nortasuna, Idazlanak, Grafiak*, Bilbo, Bizkaiko Foru Aldundia, 1992. 379.orr. eta hur.

CASA EDITORIAL DE EUSEBIO LOPEZ.

Mayatz-illeraco

BERBA-ALDIJAC.

MARQUINACO ARIMA-ZAI

Juan Jose Moguel Jaunac

BERE AZQUEN-URTEETAN

ITZCRIBATUBAC.



TOLOSAN:
Eusebio Lopez-en moldizteguian.

1885 garren urtean.

149033

Hara zer dioskun X. Altzibarrek¹⁰ Loreon gainean:

«Maiatzeko Loreen debozioa urte haietan zabaltzen hasi zelarik atzerrian¹¹ (ikus 1. egunerako Berbaldia, 1847), hileko egun bakoitzari berbaldi bana egokitu zion. Berbaldi batzutan urtea ageri da jarrita, horietatik gehienek 1747koa dute eta beste batzuek 1846koa (adibidez, 23, 27 eta 29. egunerakoak). Gaia egun bakoitzari dago-kionaren buruan agertzen da.»

«Baliatu zituzten, dirudienez, egileak ere hori nahi bait zuen, berbaldiok. Adibidez, Fr J.A. Uriartek hauetako batzu kopiatzen ditu («Moguel ad pedem litterae») Bere Maiatzeko Loreetako sermoieta-rako, L.L. Bonaparte printzeari zuzendutako gutunetan azaltzen de-nez (ASJU, 1954, 84. or.)

Eta 594. oin-oharrean¹², sermoi bakoitzaren izenburua eman eta ostean:

«Aita L. Akesoloren iritzi Maiatz hilerako berariz eginikorik gutxi dago: "Geienak badirudi Salbazioko gaietaz egiñik zeuzkan beste itzal-di batzuetatik atera zituela, azkenean Ama Birjiñari zuzendutako otoiz bat erantsita. Argitaratu zituenak bazekien ori, eta ala adierazi zuen argitara baiño urte bete lenagotik, alegia, maiatzerakotzat egon arren, itzaldi aiek oiñarrizko kristau egia asko ikutzen zutela eta edo-zein alditako balio andikoak zirela".¹³»

¹⁰ *Op.cit.* 379-380.orr.

¹¹ Eusebio LÓPEZ-ek, 1885eko editoreak halan diosku «Algunas noticias biográficas del autor»-en: «A los últimos años de su vida apareció la devoción de las Flores de Mayo en honor de María, cuyo culto en esta nueva forma se estableció en el convento de las Monjas de la Merced de Marquina: y ¿qué hace el cura Moguel? Comprendiendo que no todos los clérigos, mayormente jóvenes, tienen capacidad bastante para improvisar sermones, ni abundancia de libros para componerlos, escribe, como decir se suele, á vuela pluma, treinta y un pláticas para todos los días del mes de Mayo, ordenando que la colección de las mismas, escrita de su puño y letra, esté siempre de manifiesto en la sacristía del dicho convento de la Merced, á fin de que hiciesen uso de ella los clérigos que lo tuvieran por conveniente.»

¹² *Ibid.*

¹³ Lino AKESOLO; *Idazlan Guztiak*, I, II, Karmel sorta, LARREA (Amorebieta), 1989 (J. UR-KIZA, prestatzaile) 680.orr., X. ALTZIBARREN, *op. cit.*-tik hartua, 380.orr.

Eta 1885eko editoreak honela diosku «Al lector»-en: «Mientras nos ocupábamos en los trabajos de impresión de esta obra, llegaron á nuestra casa personas competentes, especialmente varios sacerdotes, que nos llamaron la atención sobre una circunstancia relativa al libro, que no podemos querer dar al olvido, sino ántes bien debemos estam-parla aquí, á saber:

Que, aun cuando el autor de estas pláticas las destinaba para los hermosos cultos á María en su mes de Mayo, trató, sin embargo, en muchas de aquellas, asuntos que se adaptan perfectamente á los tiempos del Santo Adviento, Cuaresma, Misiones y demás,

Atal honekin bukatze aldera, platikak duen balio literario gora aipatuko nuke. Bat baino gehiago harrituko da esan dudan honegaz, baina berriz diot. Holako lan bat eskutan hartzen dugunean beti ingurutzen gatzazkio alde filologiko-linguistikotik begiratu guran, eta egia da lehen hurbilketan horixe litzatekeela XIX. mendeko sermoi baten lehen ekarria; hurrengokoan, berriz, bestetara ikusten dugu. Ezin zaio hurre-ratu gure gaur eguneko literatur sentzibilitate erromantikoaz, hori halan da; ordea entseiatzat hartzen badugu, kontsideratzen badugu atzean duen kultur tradizio erromaniko-eklesiastikoa —Axularrek egiten dituen aipuak eta J.J. Mogelenak konparatzea baino ez dago: Crisostomo, eta abarrak—, ikusten badizkiogu dituen sailkapen-bereizketa erretoriko landuak, konturatuko gara Literaturaren definizio osoan erabateko lekua duela irabazirik.

Europako herri gehienetan literatura Bibliaren itzulpenarekin hasi izan da. Biblia hitzun talde homogeneo bati ezartzen zaion testu bat bera izan da, erreferentzia literario-linguistikoa alegia. Gure herrian Duvoisin Kapitainak egin zuen Bibliaren lehen itzulpen osoa, joan zen mendean, Bonaparteren inguruan (ostean). Baina itzulpen horrek ez zuen gure artean arrakastarik izan, bai berriz Uriarterenak, eta argi dago Uriartek jarraitzen ziola gorpuzten bukatzen zihoan tradizio literario bati —ez dugu uste bizkaierazkoa bakarrik zenik—. Uste dugu, sendo gaude iritzi honetan, hegoaldeko prosa literarioa XVIII. mendeko idazleekin hasi eta XIX. mendean ikaragarri garatu zela, eta areago, ezin dela hegoaldeko idazle onik izan garaiotako prosa ezagutzen ez duenik. Gure hurbileko literatur historian egon izan da etenik, baita berreskuratze bat ere (kasurako Bernardo Atxaga-Agirre Asteasukoa). Beraz, bai sorkuntza literarioan, bai kritika literarioan —erretorika indar berritu behar da, eta *imitatio*an oinarrituriko idazlanok aztertu eta konparatu— hemen ageri dugun testuak garrantzia geroago eta handiagoa dauka.

4. Edizioa

Gure lan hau aspaldi hasia da, hartu utzian baina. 1989-1990 ikasurtean Adolfo Arejitak bildutako mintegi batzuen inguruan hasi ginen. Lehenago talde lana izan zen; Arejitak —hemendik gure eskerrik beroenak— emandako autografoen fotokopietatik traskribatze lan astuna. Gure taldeak, lehen zuzenketa eta gero, hurrengo urtean ere aurrera

en que pueden muy bien predicarse: lo que constituye en favor de este libro una ventaja muy digna de tomarse en consideración.

egin zuen, baina, kideak apurka-apurka lanari utziz zihoazela, bakarra lotu nintzen. Nire zatia 24. loretik bukaerarainokoa zen. Eutsi nion arlo horretan, eta ordenadoreen bidez (OCP erabilirik batik bat), hainbat konkordantzia atera ere bai.

Hurrengo pausua argitaratuarekin erkatzea zen, eta halan ikusi nuen zelako alde zegoen. Ez zen parraforik faltan, bai esaldikada luzeak ostera, hitz batzuk txarto traskribatu edo ezulerturik, atzeranzko zenbait erlatibo, zuzendu ustean edota eguneratu nahiz, aposizio bihurturik¹⁴, eta abar. Hain ziren jausi nabarrak pentsatu nuela autografoa eta eskutan nuen edizioaren artean (1885ekoa, dagoen bakarra) besteren bat egongo zela; hots, 1885eko edizioak ustezko 1884koari jarraituko ziokeen, eta hortik hutsegite horiek. Sinestu, bada, egin nion Villasante eta Jon Bilbaori, baina, begitu arren, ez nuen holango libururik idoro¹⁵.

Errakuntzak banan-banan eta oro harturik azaldu beharko dira. Nik aipatu eta azpimarratu bai, eta ahal nuenetan emana dut nire iritzia argala kasu bakoitzean, baina ezin izan ditut sistematikoki azaldu. Altzi-barrek ordea holan laburtzatzen dizkigu:

«Alde batetik, frankotan hitz eta esaldi osoak irentsi izanaz gainera, "zuzenketa" oker (baita latinezko esaldietan ere) eta axolagabeke-riazko huts gehiegi dago. Baina, bestetik, argitaratzaileak eskuizkribua —argi bait dago hemendik aterea dela edizioa, "error coniunctivi" mordo bat lekuko— berariz aldatu du irizpide garbiz, espresuki aitortu ez arren. Ohargarri dateke, hasteko, gaztelerazko izenburu eta berbal-di bukaerako zatitxoak euskaratu edo kendu egiten dituela edizioak. Aitortu behar da eskuizkribuko huts eta akats batzu zuzentzen edo hobetzen dituela, adibidez ortografian —beste batzu, ordea, dauden bezala utziaz—. Eskuizkribuak eginiko lerraketa zenbait ere bai, letra nahiz silabenak.

»Grafien sailean edizioak aldakuntza sistematiko batzu egiten ditu: <v>ren ordez , Y-hasierakoaren ordez l- (idazlan inprimatuetan erabili ohi zenez), eta latin eta gazteleratiko hitzetako <h>ren ezabaketa, baita azentuarena (bokal bituen ordezkoarena adibidez). Gainera ia ss guztiak s bihurtzen ditu, nahaspeidea sortuaz. Joera ba-

¹⁴ Esate baterako demagun «gizon atzo etorri zitzaiguna» > «gizona, atzo etorri zitzaiguna». Honelakoetan zuzenketo baliagarri izan daitezke sintasia ikar diakronikotik aztertzeko.

¹⁵ X. ALTZIBAR; *Op. cit.* 379.orr. «1885eko edizioari buruz zenbait bibliografok eginiko okerra salatu du Aita L. Akesolok, bizkaieraz baino lehen gipuzkeraz atera zelako kontua, alegia». Eta orrialde berean 593. oin-oharrean: «Liburu oni dagokiola, Vinson'ek Euskal-bibliografian naastea sortu du. Ez zigun esan, bada, bizkaieraz agertu baino lenago, gipuzkerazko edizio bat egin zala, edo *Itzaldia*k izeneko bat, beintzat? Etxegarai, Villasantek eta Jon Bilbaok ari siñistu diote eta aren okerra berritu» AKESOLO, L., *O.C.D.*, 680.orr.

tzu ere nabari dira: bokal bituak ezabatzea, baita kontsonante talde kultistak (*examiñau, doctriña*), edo ze- (bokal artekoa) -ce- bihurtzea, adibidez. Iraunkortasun edo joerarik gabeko aldaketak ugari dira. Orijinaleko grafia zalantzarren kasuan (f/p, -in/-iñ-...) edizioak bere modura aldatzen ditu frankotan. Elkarketa-bereizketa eta puntuazio zeinuetan ere badira aldaketak. Argitaratzaileak eskuizkribuko grafiok, gehienbat, garaiko usadioan nagusi direneta egokitu nahi dituela dirudi.

»Morfologia arloan, zuzendu asmoz okertu egiten du edizioak askotan, deklinabide kasu, erakusle, aditz forma eta abarretan. Beharrezkoak ez diren zuzenketa batzu ere egiten ditu 1885eko edizioak. Hitzen formari dagokionez, jatorrizkoa aldatu eta gipuzkera kutsuko jantziaz agertzen dira asko eta asko. Forma zalantzarren finkatu edo modu berean idatzi nahi ditu, eskuizkribuko aldakiak alde batera utzi, *maiatz* hitz usu erabilian bederen. Azkenik, edizioak gaztelar-tiko hitz batzu euskara garbiagoan jartzen ditu¹⁶.»

5. Gure edizioa

Arazo metodologikoak

Askotan esan dugu Euskal Herrian ez dela edizio kritikorik egin, ez bada Schuchardtek Leizarragari eginikoa¹⁷. Esan nahi da, edizio kritikoa bi eratara uler daiteke, edo Lachmannen bidetik edo Bédierren ildotik. Lachmannek zenbait arau eman zituen jatorrizko testu galdua, dokumentu eta testimonio guztiak bildu eta erkatuz, berreraiki ahal izateko. Bédierrek ostera, zientziak beragaz popertza dakarren ziurtasun eza kario zela, berreraikitzeari atzez eginik, lekuko edota testimonio bakar bat ahalik eta zehatzen argitaratzea zela jokabiderik zientifikoena zioen. Gaur egun bidea ez da alde bateko ez besteko erabatez, Neolachmanniarrak dira gehienak¹⁸. Guk, berriz, Euskal Herrian atxakiarik dugu asko: eus-

¹⁶ X. ALTZIBAR; *Op. cit.* 380-381.orr.

¹⁷ Ioannes LEIZARRAGA; *Jesus Christ Gure launaren Testamentu Berria, Othoitza ecclesiasticoen forma, Catechisma, Kalendrea, ABC edo Christinoen instructionea*, Bilbo, Euskaltzaindia, 1990. [I. LEICARRAGA⁵; *Baskische Bücher von 1571 (Neues Testament, Kalender und Abc)*, herausgegeben von TH. LINSCHMANN und H. SCHUCHARDT, Strassburg, Verlag von K.J. Trübner, 1900.] «Sobre el modo de disponer la reimpression, en particular sobre las erratas y variantes en el texto de Leizarraga» 131.orr. «Lo que aquí reeditamos está constituido por tres textos distintos, impresos en 1571, sobre los que J. Vinson informa de modo exhaustivo en los números 3 y 4 de su magnífica bibliografía vasca...»

¹⁸ Alberto BLECUA; *Manual de crítica textual*, editorial Castalia.

Paul MAAS; *Crítica del Testamento* (Trad. dal tedesco di Nello Martinell, Firenze, Le Monnier, 1963.

keraz eginez gero ez zaiola kalitateari horrenbeste begiratu behar, edota ikasleentzat egina denez gero ez dela horren zorroztasunetan ibili behar, eta holangoak gure kalterako, testuak ezagutzera ematearekin ez baita nahikoa, zeren orain argitan jartzen diren testuoi egin beharko zaie inoiz kritika filologikoa, eta erdizka egindako lana ostera ere egin.

Beste alderik ere bada. Axular legezko kasuak kenduta —edizio bat baino gehiago, jatorrizkoa galduta, eta idazlearen kontsentimendurik ez denean, adib.—, gehienetan testu bakoitzeko lekuko bakarra dugu; horretara ez dago *stemmarik* argitzerik, berori testua inprentara ekarri eta kitto. Batzuetan arinegi aitortzen zaio, hala eta ere, idazle (edo azpieuskalki) bati han hemen aurkitutako testua, —testu bat Bermion edo Garesen aurkitzeagatik ez da bertakoa izan behar, esaterako—, baina horrez gain ez dago ezer berreraikitzerik, beharbada ez dugulako lar itauntzen ere.

Beraz, gehienetan bide Bèdiertarrari ekiten zaio; eta nondik eta beti iruditu behar zaigun idazle hark baino gehiago dakigula guk, Denboraren Bukaeretan baixeak, eta «zuzendu»¹⁹. Fideltasuna galduta ez da aurrerantzean Bèdierren bidea, beste zerbait baino.

Gure edizioak badu bere artekotxorik ere; hasteko autografoari jarraitu izan diogu. Eskutan darabilgun testua guk uste izandako idazle berarena denentz jakiteko, hots, autografoa, apografoa edo idiografoa ote den, idazlearen beste autografo ziurrekin erkatu beharko genukeen. Lehen akatsa: ez dugu egin, iturriak —kasuan A. Arejitak— esandakoaz fidatu egin gara (ez dugu praxian Mogelenak direnik zalantzan jartzen, baina gabiltzan maila metodologikoan bai).

Bigarrenez, transkribatze lana bete ondoren²⁰ bi aukera ditugu: edo autografoa hartzen dugu oinarritzat, eta beraz argitaratuari beste funtzioen bat aurkitzen diogu, edo argitaratua zuzentzeari lotzen gatzazkio autografoa eskutan. Bigarren bide honi jarraituz benetakoa kritika testuala egingo genuke eta, gure kasuan, 1885eko edizioaren kritika litzateke²¹.

¹⁹ «La crítica textual es el arte que tiene como fin presentar un texto depurado en lo posible de todos aquellos elementos extraños al autor» BLECUA; *Op. cit.*, 18.orr.

²⁰ «Un copista profesional cometerá menos yerros que un copista accidental. Las estadísticas demuestran que, como media, se comete un error por página». A. BLECUA; *Op. cit.*, 19.orr. Eta 9. oin-oharrean: «Naturalmente, los copistas cometen más errores cuando están fatigados. De ahí que, en general, en los manuscritos e impresos se observa que los errores se acumulan en ciertas zonas y en otras apenas existen.»

²¹ BLECUARI jarraituz (*op. cit.* 33-34. orr) Edizio kritiko batek bialdi hartzen ditu: *recensio* eta *constitutio textus*. Beralan *recensio*ren baitan arlo hauek saika daitezke: a) *fontes criticae*, hau da, lekukoen biltze lana eta azterketa historikoa, b) *collatio codicum*, lekuko guztiak elkarrekiko alderatu, *lectiones variae* edo aldakiak ezagut eta zehaz ditzagun, c) *examinatio* eta *selectio*, aldakion azterketa eta hautaketa, d) *constitutio stemmatis codicum*, ahal delarik testuaren filogenesia (senidetetasuna) zehaztu. *Constitutio textusa*, era

Guk, aldiz, hobeto iritzi izan diogu autografoa zegoen zegoenean argitara emateari, eta 1885eko edizioa alboan eman, hark duen balio filologikoagatik, alegia 1885eko editoreak eginiko zuzenketa asko txarto ulertuak izanik, jakin genezake zein forma zeuden daburduko zaharkituak, nondik egon zitezkeen isoglosak, etab. Badakigu halan eginak irakurleari lana bikoiztea dakarkiola, hala ere, testua gure gaurko sentsibilitate literarioarekin ez datorrenez bat, hizkuntzaz ari direnei bakarrik interesatuko zaielakoan, ez diogu arazo honi garrantzi handiegirik eman.

Eta hirugarrenez, aparato kritikoa (oin-oharrak etab.) ez dugu funtzioa bereziturik eman; oin-ohar mota bat berezi beharko genukeen bakar-bakarrik arazo testualak (zein argitalpenetakoak diren aldakiak...) batu ditzan. Beraz, ageri dugun edizio hau ez da inondik ere edizio kritikoa —Euskaltzaindiaren «Euskararen Lekukoak» bildumakoak ez diren bezalaxe, nahiz eta eurok azalean holan dioten—.

Gure editatze erizpidea oso simplea izan da: erabateko fideltasuna, zuzenketaren bat egon ezketino oinetara ekarri dugu, zein eta zergatik argituz. Esan dugun bezala testu biak eman ditugu, autografoa (A.) eta argitaratua (L.), testu bakoitzak bere oharrek dakartza —autografoarenek traskribatze zalantzak eta ohar linguistikoak ager ditzakete, eta argitaratuarenek autografoarekiko erkaketa oharrek eta linguistikoren bat—, baina oharren zenbakiak ez dira independienteak, jarraian doaz.

Jatorrizko autografoak batzuetan zuzenketak dakartza, badirudi esku berak eginak direla —zenbaitetan tinta ezberdinaz ematen badu ere—. Egilearen zuzenketok bi mota hauetakoak dira: txertatuak eta ezabatuak. Txertatuak, lerroartean, letra txikiagoz eta txertalekua ikur batek adierazirik datozkigunak, horrelakoetan <> ikurren artean sartu izan ditugu adinontze horiek; beste zuzenketak ezabatuak dira, gainean marraz ezabatzen saiatu izan direnak, guk halakoetan egilearen azken borondatea errespetatzea erabaki dugu eta bere azken emaitza oinarritzat hartu, baina azpiko ezabatua oharretan berreraikitzen azaiatu izan gara, ahal izan den guztietan. Jatorrizkoan lerroa berba moztuz aldatzen denean, gidoi batez eman dugu aditzera, nahiz eta gure dispozizioan lerro erdian egokitu; horrelakoetan da-eta arrisku handiagoa erratzeko. Paginazioa ere jatorrizkoari jarraiki egin dugu; *rectusek* Xb zenbakia hartzen dute, *versusek* Xa egiten dutelarik; parentesi artean doa zenbakia; argitaratutakoaren zenbakia ere parentesi artean jarri dugu: 193-199, 1885eko argitaraldiaren arabera. Beste barik, hemen doakizu, irakurle, platika hau:

berera, honakoetara sailka daiteke: a) aldakien *examinatio* eta *selectio*, (*emendatio ope codicum*) b) *emendatio ope ingenii* edo *divinatio*, c) *dispositio textus* (grafiak, azentuzioa, puntuaketa, diakrisia, etab.); d) *apparatus criticus*; e) proben zuzenketa.

A.]

+

Flores de Mayo. Día 24

Del pecado venial y sus consecuencias

Qui spernit²² modica paulatim decidet. Eccli. 19

Pecatu venial edo chicarra dá esan <edo ez esan>²³ eguin <edo ez eguiñ²⁴> edo gura izatia cerbait Jangoicuaren aguinduren baten contra, edo bere Le-guiaz²⁵ bestera²⁶, gauza ariñ²⁷ edo chiquijan. Esaten ja-co veniala errazago jausi leitialaco, ta errazago parcatuten dalaco. Pecatu venialac asco izan arren eurac eureenez ez dabee galduten arimaco gracia, ta Jangoicuac deuscun amodijua, baña <argaldu edo> otzituten dabee gueuc beraganaco gueunca-na. Pecatu venialetan bere, batzubeen erruba andijagua dá bes-te batzubeena baño, dala euren gueija²⁸ gaitic, dala eguiteco boron-datiaren aldetic. Gueijaren aldetic, berbaraco²⁹, Guraso edo nausi bati guzur chicar bat esatiac erru andijagua dau-ca lagun edo bestelaco bati esatiac baño <baita errial bat ostutiac bere, zortzi-marai ostutiac baño.> Borondatiaren aldetic, erru geija-go dauquee ezaguera oso ta argijagaz, ta ardura baga leguez eguiten diranac, argaltasun edo arinta-sunez egiten dira-nac baño; ta ara cetan imiñi biar dogun ondo gogua.

³⁰Munduco er-beste onetan ecin legoque³¹ guizonic, adiñetic aurrera igaro ezquero, beraan beraarizco gracijaren bidez ez izanic, utse-guite³², edo pecatu venial baga, arintasunez bada bere, vicitzia igaro lejanic³³. Daquigu³⁴, Ama Virginia, bat bere norban³⁵ ta(2b)³⁶

²² «sper[m/n]it» (?). Argitaraturik dagoenak, berriz, hobietakoa dakar, horrela behar duela dirudi. Guk ezpainkariaren antz gehiago hartzen diogu eta halan agiri.

²³ Kortxeteok jatorrizkoetan egileak nolabaiteko zuzenketa erakusten diguna ispilatzeko darabil-tzagu; batzuetan beronegatik zalantzazko grafoak agertzen zaizkigu, zuzenketa berezko lerroaren gainean idatzirik daudelako eta, hortaz, letra estutxikerragoaz eginik.

²⁴ Goiko sudurkaria hobietakoa, oraingoa sabaikaria; gertuegi elkarrengandik idazlea horretaz ez ohartzeko.

²⁵ Ez da erraz letra larria eta xehea bereizten, batzuetan maiuskulak argi diren arren, beste batzuetan letrak usu baino handitxoagoak atera zaizkola dirudi, eta minuskulatzat ditugu.

²⁶ «beste[r/n]a»; guk «bestera» izan behar duela uste dugu, argitaratuak dakarren legez, baina jatorrizkoak «n»-aren antza handiagooa badu ere. Aipatu beharko genuke egilearen «r» idazteko tankera berezia: humanista.

²⁷ «ariñ(ian)», azken hiru letrak ezabaturik, hurrengo korrdinazioari indarra emate aldera.

²⁸ Gei: 1.º (B, arc), cosa, chose. Itzok eder, geiok ez. (...) (Prov. de Garibay) 2.º (Bc, R, S), material para hacer algo (...). Var. de «Gai» «Bere ama Konstantzia eritxonak emon eutsan geia soiñeko bat egiteko» (Ur. *Maiatz* 141-17.) (...) 4.º (Bc), materia, asunto. «Au izango dogu, zerua lagun dogula,... zeuen ikasikizunen geia» (...) (Bart. II-13-1). 8.º (AN, B, G, L), **gehi** (BN, S), cantidad «gei edo gitxi» (B-b-mu) R.M. DE AZKUE; *Diccionario vasco-español-francés*, Bilbao, Euskaltzaindia, 1984. 492.orr.

Gei: (...) 8.(c) cuantía, cantidad; (...) 9. añadidura, adición, exceso, creces, sobra, ventaja. Plácido MÚGICA; *Diccionario vasco-castellano*, tomo I, Bilbo, Mensajero, 1981. 859. orr.

²⁹ Esaterako.

³⁰ Autografoak ez dakar parrafoen artean tarterik, ezta argitaratuak ere, guk argitasunaren alde jarri ditugu.

³¹ Trinko honek ahalera zentzu betea du.

³² Ebakera honek Mogelek hitz osotatz zeukala esan nahi digu; harritzekoa ere izan liteke mo-gelek duen etimologiaren kontzientziagaz horrela moztea, eta ez, esaterako «uts-eguite», apika te-knizismotzat sartu nahi zuelako edo.

³³ Formari begiratzu: legianik, «lezanik»; esanahia berriz: «lezakeenik». «Subjuntiboak» —aspektu markabakoak, hobeto esateko— ahalera zentzua du berekin, ez du batueraren —ke— hori be-har, esan nahi da, bizkaierak —ke— horren bidez beste zerbait esan gurako du: futurotasunen bat. Batuerak galdu du. Ikus bedi beherago batuerak —ke— gabez esango lukeena «deitequian» diola

L.] + Mayatzeco Loreen 24en Eguneraco

Pecatu benialaren ta bere ondoreen gañean

Qui spernit modica paulatim decidet. (Ecli. 19.)

Pecatu benial edo chicarra da³⁷ esan edo ez esan, eguin edo ez eguiñ³⁸ gura izatia cerbait Jangoicuaren aguinduaeren baten contra, edo bere leguiaez bestera, gauza ariñ edo chiquijan. Esaten jaco beniala errazago jausi leitalaco, ta errazago parcatuten dalaco. Pecatu benialac asco izan arren euraac eurenez ez dabee galduten arimaco gracia, ta Jangoicuac deuscun amodijua, baña argaldu edo otzituden dabee gueuc beraganaco gueuncana. Pecatu benialetan bere, batzubeen erruba andijagua da beste batzubeena baño, dala euren gueija gaitic, dala eguiteco borondatiaren aldetic, beragati³⁹, guraso edo nausi bati guzur chicar bat esatiac erau⁴⁰ andijagua dauca lagun edo bestelaco bati esatiac baño, baita errial bat ostutiac bere⁴¹ zortzi marai⁴² ostutiac baño. Borondatiaren aldetic, erru gueijago dauquee ezagüera⁴³ oso ta arguijagaz, ta ardura baga lequez eguiten diranac⁴⁴ baño: ta ara cetan imiñi biar dogun⁴⁵ gogua.

⁴⁶Munduco erbeste onetan ecin legoque gizonic, adiñetic aurrera igaro ezquero, beraan beraarizco gracijaren bidez ez izanic, utsequite edo pecatu benial baga arintasunez bada bere, bicitzia igaro leijan. Daquigu, Ama Birginia, bat bere (193)⁴⁷ norban ta

Mogelek: «Zutunic daguala uste dabenac bere, begiratu **dajjala** jausi ez **deitequian**. Eta, celan? Pecatu venialetan jausi ez **dedin** ardura andi bat imiñi,...» (5.b.).

³⁴ Hasiera absolutoetako aditzok ez ditu «Ba-» batez jazten, gaurkoa ete jazte kontu hori? edo ta ahozkotasunetik hurbilago egon gura?

³⁵ Hitz hau ez da ageri ez Azkueren hiztegian ezta Mugikarenean ere. Ageriko ahal da Euskaltzaindiarenean. Bi aldiz dugu —ikus hitegia— sermoi honetan bertan.

³⁶ Horrela azalduko dugu aurrerantzean ere jatorrizko orrialde bakoitza bukatzen denean: parentesi artean agertzen den zenbakia gure paginazoiari darraio; versus guztiak Xa, rectus-ak Xb.

³⁷ Jatorrizkoan azentudun: oro har izan adizkiak, hirugarren pertsonakoak, cf. «litzaaete» etab. Argitaratuak ez ditu inoiz jarriko.

³⁸ «edo» falta da.

³⁹ Hemen berdinetik berdinerako saltoa: «aldetik... aldetik» eta tartean «aldetic. **Gueijaren** aldetic» ahaztu zaio; beraz, zentzua emateko koma artean eta ulerkitza den hurrengo hitza interpretatu beharra zuen editoreak. Guk «bearaco» ulertu izan duguna. Egia da, guztiarekin ere, beste berba baten gainean dagoela idatzita eta nekez ulertzen dela. Azken bi silabak «raco» direla ziurta genezake. Lehendabizikoa «be-» izanik bigarren silaba da zalantzazko litzatekeena: «berbaraco» proposatzen dugu, «adibidez» esateko, edo Sarakoak esango lukeen bezala «jaquiteco».

⁴⁰ Guk «erru» dakusagu zalantza barik. Aipatu dugu gorago Mogelen «r» humanista. Ez dugu «erau» barbarik ez Azkueren hiztegian ez Mugikarenean aurkitu, ez eta «eradu» ere. «Eratu» bai ostera.

⁴¹ Jatorrizkoak gehienetan (b)ere-ren ostean koma jarriko du.

⁴² Guk lotutzat hartuko genuke autografoan oinarriturik: «zortzimari». Dena den argi dago bi osagarri dituela eta hitz ezberdinak direla izan ere.

⁴³ Editoreak gue/güe bereizi zituen, Mogelek autografoetan ez bezala.

-<v/b> homofonikoak batu zituen «b» grafeman.

«beragati» izateak editoreak garaiko bizkaieratzat zuela esan nahi du. Nik, egia esan, -ti ablatibo-prosekutibo duen formarik ez dut aurkitu testu honetan «guztiti» izan ezik.

⁴⁴ Berrito ere, berdinetik berdinerako saltoa: «...diranac, **argaltasun edo arintasunez eguiten diranac** baino». Beltzez jarritako guztia. koma barne, ahaztu zaio editoreari.

⁴⁵ «**ondo** gogua» jatorrizkoan.

⁴⁶ Ez dago parrafo arteko tarterik jatorrizko argitaldian.

⁴⁷ Argitaldian agertzen diren orrialde zenbakia parentesi artean erakutsiko dugu aurrerantzean ere berez adierazo barik.

A.] utseguite baguia izan zala vicitza guztijan, baña beste Santu ez Santari eguin jaconic beraan berarízco⁴⁸ gracijaric utseguite⁴⁹ бага vicitzia igaroteco, ecin esan guñai gauza erabaquiric⁵⁰. Ez dago inor lurraren gañian diño Ecclesiastesac 7.2. <guizon zucenic> beti ona eguiten dabenic, nos bait uts eguin бага. *Non est <enim homo> justus in terra qui faciat bonum, et non peccet*. Esango baguendu pecaturic ez da-ucagula, dirauscu Sn. Juan Evangelistic: 1.Joan 1. 8.⁵¹ gueure bu-rubac enganeetia litzaate, ta ez eguija esatia. *Si dixerimus quo-niam peccatum non habemus, ipsi nos seducimus, et veritas in nobis non est*. Alan Jesu Cristoc aguiñdu eban guztientzat, erre-gututeo Aita beticuari; Parcatu eiguzuz gueure zorrac gueu⁵² gueure zordunei partcatuten⁵³ deutseeguzan leguez: Math. 6.

Baña ez dá bardin nos bait uts eguiteren⁵⁴ baten <argaltasun edo> arinta-sunez jaustia, ceinda⁵⁵ ezaguera osuagaz pecatu venialac eguitia, ez jausteco ar-dura-ric ez imiñtia, ta oituraz eguitia. Negargarrija <da> Cristinau asco-ren ichuta-suna, ecerezera leguez botaric pecatu venialac, aimbete erraztasunegaz eguiten ditubeenian. Onelacuei arimaco begui-jac edeguiteco⁵⁶ beguiratuco deusagu pecatu venialári⁵⁷ bera berez danez, <aztertuco dogu cer dan ardura бага eguitia ta>⁵⁸ sarri, bai <ta bere eracutsi> ondoren ja-rraitu oi dabeen⁵⁹ arimaco caltiac.

Beguiraturic Jangoicuaren anditasun ta ontasunari: ezaguturic gueure Eguilla bacar, doe ta mesede guztien Emollia leguez, erraz autortuco dogu zor de-utsaguna aleguiñez<co> obentasan ta leijaltasun guztija. Bai, leijaltasuna zor bada artu diran mesedeen neurrijan, ta bardin <amodijo ta> obentasuna, beguiraturic ecarri biar jaconaren <ontasun ta> altsutasunari; ⁶⁰celacuac izan biar ez dau guriac Jangoicuaganaco?; Eta noc ez daqui galduten dala leijalta-suna, <otzitu amodijua> ta ucatu obentasuna Peca-tu venialagaz beronen neurrijan? Orregaitic ciñuan Sn. (3a)

⁴⁸ /i/-ren gainean marrazturiko azentuak, beti dira eztabaidagarriak, beste kasuetan ez bezala: dá la-guntzailea denean esate baterako, edota uu «ú» ee «é» aa «á» laburdurak. Oraingo honetan «beraarízco»-ri dagokiola uste dugu, eta, hontaz, autoreak «berarízco» idatzi guran, /i/-ren gainera itzuri zaiola.

⁴⁹ Azpian «utseguin» dakar, azken «-n» hori «-te» bihurturik.

⁵⁰ «eraba[gq]uiric», hitz honetan hain zuzen g/q alternantzia egongo da hasiera baten, gero «g»-k irabaziko du.

⁵¹ Ez dakigu «8» ala «9» dakarren.

⁵² Ergatiboa faltan da, baina dagoena errespetatu dugu, ahokzotasuna ispliatzen duelako: le-herkari ahostuna/ahoskabeok neutralizatzen dira, [geukeure] jarraian ahokzatur gero.

⁵³ Egilearen errata izango da edo geuk txarto ulerturik, gauza da t-antzeko zer bait c-ri lotzen zaiola («k» minuskula arraro xamarra egiten zaigu eta); bestalde kontuan hartzekoa dela uste dut P. Altunak bere Tartasen edizioan «bartuchen(?)» erratatat ematen duela; kasuak ezberdinak dira, han molde hitzetan datorrena hemen eskuzidatzia delako, baina bietan t + c. Bestalde, bada beste berba bat leherkari talde arraroa ageri zaiguna: «chintparta». Bestalde Mitxelenak: «A propósito de la nota 3, ya se ha señalado, supra, 9.2, ad., que Axular empleó grafías personales un tanto extrañas: *cintqui eta fintqui, v(t)quitu, erho(t)queria, iltqui*. Se trata, en parte, de la transcripción de un sonido de transición (cf. lat. *sum-p-si, em-p-tum*, etc.) que Axular oía o creía oír. (...) se trata siempre, y esto puede muy bien deberse a un factor no casual, de oclusivas no aspiradas.» Luis MICHELENA; *FHV*, Donostia, Diputación Foral de Guipúzcoa. 3.ed. 1985. 523.orr.

⁵⁴ Hemen, berriz, lehen esan dugunaren kontra, berbok bereiz datoz: «uts eguite».

⁵⁵ Konparatiba hauek debekaturik daude egungo purismo gramatikalean, baina errekuuperagari direla deritzegu.

⁵⁶ Edegui, ereki, ireki, igiri... etab. Arkaikotzat jotzen duguna ez da ehun urte erabiltzen zena.

⁵⁷ Azentu hau ez da ziurra: venial+ari/veniala+ari?

⁵⁸ Kortxeteon artean datorrena, esan bezala, lerro arteko adinontze bati dagokio, baina hemen, gainera, ezabaturik dugu hurrengo esaldia: «eta guero aztertuco ditugu» (azken hitz hau ez da ziu-rra, laguntzaileren bat dela bai, eta azken silaba «gu» dena ere bai).

L.] utseguite baguia izan zala bicitza guztijan, baño⁶¹ bes-te Santu ez Santari eguin jaconic beraan berarizco⁶² gracijaric utseguite baga bicitzia igaroteco, ecin esan guñai gauza erabaguiric. Ez dago iñor lurraren gañian diño (Ecclesaiustac⁶³ VII.2.) Guizon zucenic beti ona eguiten dabenic, nos bait uts eguin baga. *Non est homo in terra qui ficiat bonum, et non peccet*. Esango baguendu pecaturic ez daucagula, dirauscun⁶⁴ San Juan Ebangelistiac. (1. Joan I. 8.) Gueure burubac enganeetia⁶⁵ litzate, ta ez eguija esatia. *Si dixerimus quoniam peccatum non habemus, ipsi nos seducimus, et veritas in nobis non est*. Alan Jesucristoc aguiñdu eban guztientzat, erregututeco Aita beticuari, parcatu eguizuz gueure zorrac gueu⁶⁶ gueure zordeñei⁶⁷ parcatuten deutseeguzan leguez. (Math. 6.)

Baña ez da bardin nos bait uts eguiteren baten argaltasun edo arintasunetz jaustia, ceinda ezagüera osuagaz pecatu benialac eguitia, ez jausteco arduraric ez imiñtia, ta oituraz eguitia. Negargarrija da cristinau ascoren ichutasuna, ece-recera leguez botaric pecatu benialac, aimbeste erraztasunegaz eguiten ditubeenian. Onelacuei arimaco beguijac edeguiteco beguiratuco deutsagu pecatu benialari bera berez danez; aztertucogogu, cer dan ardura baga eguitia ta sarri, bai ta bere eracutsi ondoren jarraitu oi debeen arimaco caltiac.

Beguiraturic Jangoicuaren anditasun ta ontasanari: ezaguturic gueure Eguilla bacar, doe ta mesede guztien Emollia leguez, erraz autortucogogu zor deutsaguna aleguñezco obentasan ta leijaltasun guztija. Bai, leijaltasun zor bada artu diran mesedeen neurrijan, ta bardin amodijo ta obentasuna, beguiraturic ecarri biar jaconaren ontasan ta altsutasunari, ¿celacuac izan biar ez dau guriac Jangoicuagana? ¿Eta noc ez daqui galduten dala leijaltasuna, otzitu amodijua, ta ucatu obentasuna pecatu benialagaz beronen neurrijan? Orregaitic ciñuan San

⁵⁹ Datibo barik.

⁶⁰ Guk punto eta koma gisa traskribatu duguna galdera ikurra izan liteke, goranzkoa, argitaratuak ageri duen legez.

⁶¹ «baña» jatorrizkoan; gipuzkeraz gertatu ohi den neutralizazioa ageri du editoreak.

⁶² Azentu kontuetan esan gerezake Mogelen erabilerak bi bokal berdinean laburdura azaltzen duela —ee, uu,... etab., edota «dá» adizkia azpimarratzeko—, alabaina «i»-ri ezartzen diogunean zalantzazkoa litzateke beti, eta gainera hitz honetan Mogelek hiru aldakiok erakusten dizkigu: be-ararizco, ber-arizco, ber-arizco (iku. «hiztegia»). Argitaratuak ordea ez du inoiz azenturik erabiltzen, beraz, bokale bituok laburduraz eman direnean galdu egingo ditugu editorearen arau.

«Algunas variedades conservan, al menos parcialmente, lo que no está claro si debe interpretarse fonológicamente como cantidad larga o bien como geminación de las vocales: las largas o geminadas proceden en ocasiones del encuentro de vocales que originariamente tenían distinto timbre. La zona más conservadora a este respecto parece ser o haber sido la parte más oriental del área vizcaína: Marquina y Durango (cf. Capanaga, los dos Astarloas, Moguel, Fr. Bartolomé), y el vizc. de Guipúzcoa y en particular el de Oñate (cf. Garibay, RS, ms. Oñate).(...)

«En los textos que presentan grafías geminadas, éstas aparecen de una manera bastante irregular, lo que podría interpretarse como un indicio de que la vocal no tenía que pronunciarse como larga, sino que podía simplemente realizarse así. Pero hay pruebas de que la inconsecuencia se debe a mero descuido en la notación de una particularidad que los autores no creían muy importante y que tenía que resultar chocante a los lectores de otras zonas.» Luis MICHELENA; *Fonética Histórica Vasca*, San Sebastián. Publicaciones del Seminario Julio de Urquijo de la Excm. Diputación Foral de Guipúzcoa. 3.ª edición. 1985. 111-112.orr.

⁶³ Horrela dakar argitaratuak, inprentako errakuntza dela dirudi.

⁶⁴ Jatorrizkoan ez da azken «-n» hau ageri.

⁶⁵ Hobietako sudurkaria ageri zaigu, despaltalaturik.

⁶⁶ Ergatibo faltan jatorrizkoan bezala.

⁶⁷ Errakuntza gence «zordunei»-ren orde.

A.] Jeronimo Eracusla andijac; Ez daquit emon ete guinaijon ariñaren icenic pecatubari, dana dalacua, izanic Jangoicua-ren ofensia: «*Nescio, an possimus leve aliquod peccatum dicere, quod in Dei contemptu admititur.* ¿Celan bada esaten jaquee ari-ñac pecatu venialei? Alan diralaco pecatu mortaleen aldian. Peca-tu mortalac galduten dau guztic⁶⁸ gracija. Jangoicuaren amodijo ta arimaco edertasuna, ez pecatu venialac, baña onec bere otzituten dau ca-ridadia, ta loituten dau arimia bere guiñuan, guc aitu guinaijan baño gueijago. Jangoicuac aguertu eutsan irudi baten Sta. Catalina Genobacori pecatu venialaren ezañtasuna, ta dirauscu Santiac, uste izan ebala izoztu jacola odol guztija, ta laster igaro ezpalichaco icusmena, zatituco jacola bere gorputza diamantia basen gogo-rra izan baleu bere. Gure ariman⁶⁹ gracijaz apaindutacuaren edertasuna izanic aiñ arrigarrija, natu edo manchaac urte-ten dabee ezañaguac beragan, erropa guztiz zuri edo garvi baten leguez. Ah, bai;⁷⁰ ta ezagutu al baguiñai celacua euquico dabeen Jangoico ainbesteraño edertu citubanaren begui argujeeen aurrian!

Cer izango dà bada, arduraric imiñi baga, ecereztzat leguez artu, ta sarri oituraz jausten bagara? Pecatu venial baten natu edo manchia aiñ ezaña bada gure arima ederrian, ¿Cetara ecarrico dabee aimbestec? Pecatu venial batec otzituten badau Caridadia, ta argal-du arimia, ¿cer izango dá asco, ta ardura baga eguindacuacaz? Emen, gogora ecarri biar dogu Cartilliac eracusten deuscuna, pecatu veniala dala pecatu mortalaren prestaera bat. Eguijaz, celan otzitubaz doian caridadia argaldubaz arimia, aibat erraztuten ja-co Luciferri bidia tentacinoe andijaguac ipiñi, ta pecatu morta-letan jausi eraguiteco. Gauza chicarretan arduratsuba dana, be-netan izango dà andijetan, baña ardura onic chicarretan imin-ten (3b)

⁶⁸ Horrela dakar, ez dugu uste predorsodentala esan nahi izango duenik, hurbilago legoke -rik batetik «osorik» dinogun bezala; argitaratuak, berriz, «guztiz» traskribatzen du.

⁶⁹ Ez da ondo ikusten, gainean zuzenduta dagoelako.

⁷⁰ Cf. lehen galdera ikurrei buruz esanikoa.

L.] Jeronimo eracusla andijac; ez daquit emon ete guiñaijan⁷¹ ariñaren ice-
nic pecatubari, dana dalacua izanic Jangoicuaren ofensia. *Nescis⁷², an possi-
mus leve aliquod peccatum dicere, quod in Dei contemptu admititur.* ¿Celan
bada esaten jaquee ariñac pecatu benialei? Alan diralaco pecatu mortaleen al-
dian. Pecatu mortalac galduten dau guztiz gracia, Jangoicuaren amodijo ta
arimaco edertasuna, ez pecatu benia-(194)lac, baña onec bere otzitzen dau
caridadia, ta loituten dau arimia bere guiñuan, guc aitu guinaijan baño gueija-
go. Jangoicuac aguertu eutsan irudi baten Santa Catalina Genobacori pecatu
benialaren ezaiñtasuna, ta diruscu Santiac, uste izan ebala izoztu jacola odol
guztija, ta laster igoa⁷³ ezpalichaco icumena⁷⁴, zatituco jacola bere gorputza
diamantia bassen⁷⁵ gogorra izan baleu bere. Gure anima graciaj azpainduta-
cuaren edertasuna izanic aiñ arrigarrija, natu edo manchaac urteten dabee
ezafaguac beragan, eropa guztiz zuri edo garbi baten leguez. ¡Ah! ¡Bai ta
ezagutu al baguiñas⁷⁶ celacua euquico dabeen Jangoico aimbesteraño edertu
citubanaren begui argujeen aurrian!

¿Cer da bada, arduraric imiñi baga, eceretzat⁷⁷ leguez artu, ta sarri oituraz
jausten bagara? Pecatu benial baten natu edo manchia aiñ ezaiña bada gure
arima ederrian ¿cetaco ecarri dabee aimbestec? Pecatu benial batec otzitzen
badau caridadia, ta argaldu arimia ¿cer izango da asco, ta ardua baga eguin-
dacuacaz? Emen gogora ecarri biar dogu cartilliac⁷⁸ eracusten deuscuna, pecatu
beniala dala pecatu mortalaren prestaera bat. Eguijaz, celan otzitubaz doian
caridadia, argaldubaz arimia, aibat erraztuten jaco Luciferri bidia tentacinoe
andijaguac ipiñi, ta pecatu mortaletan jausi eraguiteco. Gauza chicarretan ar-
duratsuba dana, benetan izango da andijetan, baña ardua onic chicarretan
imin-

⁷¹ Jatorrizkoak hirugarren pertsona singularrerakoa «o» da zalantza barik; Mogelek batzuetan a/o bereizteko «o»-ri kontrako aldetik buztantxo bat jartzen dio. Ginaion = geniezaion (formaz) genie-
zaioke (zentzuz).

⁷² «Nescio» jatorrizko eskuizkribuan.

⁷³ Badirudi errata dela; «igaro» jatorrizkoan.

⁷⁴ «icusmena» eskuizkribuan.

⁷⁵ Ezin dugu iduritaratu «s» sabaikarien zeinuz datorren legez.

⁷⁶ Egia da egileak «s» eta «i»-ak oso egiten dituela antz handikoak, puntotxoa falta bada ez
dago jakiterik; halatabe guk, logikari jarraikiz, «guiñai» izan dugu nahiago.

⁷⁷ Argitaratzaileak «z+tz» > «tz» murriztu du; egileak ostera «ztz» ematen du.

⁷⁸ Guk uste maiuskulaz dakarrela jatorrizkoak.

A.] ez dabena, sarri icusten dà jausten andijetan. Bai, diño Sn. Gre-gorio andijac: gauza chicarretatic asita oi dator <astunetaraco bidia,>, ba-da gueituric utseguitiac, guenian⁷⁹ eldu oi dà astun edo andi-jetara. à *minimis incipitur, sed surescentibus defectibus, ad mai-ora, et graviora devenitur*. Au erraz ezagutu deitequiiana dà. ¿Ce-tatic urteten dabee gueijeenez araco gorrotozco birao astunac? Ar-dura бага birao chicarrac botaten oitutetic.¿Cer jazoten jaco ema-cume ascori? Asi murmuracinoe chicarretan ta aurrera ta aurrera igazi⁸⁰ andi ta astunetaraguiño. Lapur guichi izango dà <pus>quetatic asi ez zanic. Adisquidetasun deungaric geijeenac bere lelènguan gauza chicarretatic asijac oi dira; ta bardin esan daique-gu beste pecatu guztijetan. Orregaitic arerijo gaistuac aimbeste aleguin iminten dau, pecatu venialeen ezaintasun ta caltiac ezta-liric, euretan erraz jausi eraguiteco.

Pecatu venial ezagueraz ta ardura бага eguiñac iminten dabee berarizco eragozpen bat arimaan Jangoicuaren dei ta gracia ascori leijal erantzuteco, ta atzeratuten dabee sarri Jangoicuaren escu emollia, eguite-tic beste mesede ugari asco egingo leusqueguzanac gauza chi-carraguetan leijal erantzungo bagueuntza <Math. 25.21 *Quia super pauca fuisti fidelis super multa te constuam*>. Emendic oi dator gauza onetaraco otztasun, naguitasun, ta epeltasun, azquenic, sarritan pecatu astunetan jausi ta arimaac guztiz galduten ditubana. Ay! Cembat arima Virtuteetan chito aurreratubac <asiric erraz jausten veniale-tan>, sarturic alan epel-tasun negargarri baten⁸¹ ta ondoren pecatu mortalian, galduten dabeen Ceruco betico Corua⁸² ederra! Gomunta daijeàla⁸³ onelacuac Jangoicuac berac Sn. Juanen bitaartez Efesoco Obispuari adie-razo eutsana: *Habeo adversum te, quod charitatem tuam primam perdidisti.* " Apoc.2.4... Daucat cer zematu⁸⁴ zu leen ceuncan amodijuan otzitu ta epeldu zarialaco; quenduco zaitut ortic penitencija eguiten (4.a)

⁷⁹ «azquenic» dago azpian, gero, gainetik zuzenduta, «az-» ezabatu eta q > g bihurturik. Azkuek (Dicc.) GUEN: 1.º (B,...), limite, fin (...) *Guen-barrenak* (B-m), los límites (...) *Guenean garbi-garbi egiteko arkosko lur-apur, olo garau, auts ta loigarri guztietati*. (Peru Abarka); ¿*Nok daki il' au izango etedan zure bizitzako guenengoa?* (Ur. Maiatz. 15-18).

⁸⁰ «iga[Z/R]i, «z» edo «r» grafema zein ote den ez da errez bereizten, argitaratuak ere honela dakar, dena den nik zalantzak ditut, gainetik zuzendurik egoteaz gain orrialdeko kantoi baten baitago; 4a. orri. 9.lerroan. Igaro zentzua du, baina «igazi» zein «igari»rik ez da Azkueren hiztegian agiri.

⁸¹ «onetan» dakar azpitik, zuzendurikoa ematea komenigarriago irudi zaigu egileak nahi bezela.

⁸² «Corua ederra» «a» itsatsia beraz.

⁸³ Hemen agertzen zaigu beherago emaniko hipotesiaren baieztapena: «-ala», hau da, zara + ala > «zarialaco»; ez «zaretelako», «zarelako» baino.

⁸⁴ «z»taz idatzirik aurkitzeak harritu gaitu, baina holan dago: «cer/zematu/zu», jarraian.

eguiteco	3	epelduric	2	erraztuten	1
eguiten	8	epeltasun	1	erreetan	1
eguiteren	2	epeltasuna	1	erregututeco	1
eguitetic	1	epeltasunian	1	erriago	1
eguitia	3	erabaguiric	1	errial	1
Eguizu	1	eracusla	1	erropa	1
eguizuz	2	eracusten	2	erru	1
EGUNERACO	1	eracutsi	1	erruba	1
egunoro	1	eragozpen	2	errubari	1
Elaisaco	1	eraguin	1	esan	8
eldu	3	eraguiteco	2	Esango	1
Eleisan	1	erantzun	1	esanic	1

emacume	1	erantzungo	1	esaten	3
emen	2	erantzuteco	1	esatia	1
1					
esatiac	2	ezagunian	1	galduric	1
escandalubac	1	ezagutu	5	galduten	6
escaturic	1	ezaguturic	2	ganian	1
escu	1	ezaingarrichureen	1	GAÑEAN	1
est	2	ezaintasun	1	gañian	3
et	3	ezaiña	1	gara	1
Eta	4	ezaiñtasuna	1	garbi	2
ete	1	ezañaguac	1	garbitasunaren	1
euquico	1	ezarri	1	Garbitu	2
euraac	1	Ezpabere	1	gauceetaraco	1
eurac	1	ezpadozu	1	gauza	9
euracaz	1	ezpalichaco	1	gauzaren	1
eureen	3	ezpeltasun	1	Genobacori	1
eureenez	1	ezquero	2	Gizonaren	1
euretan	1	eztaliric	1	gizonic	1
euretatic	1	eztanari	1	goceetia	1
eutsan	1	ficiat	1	gogo	1
eutsana	1	fidelis	1	gogor	1
eutseen	2	fuisti	1	gogora	1
existimat	1	fuit	1	gogorra	1
ez	36	gaisto	1	gogua	1
ezagaitic	1	gaistotu	1	Gomunta	1
ezagüera	5	gaistuac	1	gomuntau	1
ezagüeraz	3	gaitic	3	gorago	1
1					
gordeetaco	1	guenian	1	guztijan	2
gorputz	1	gueruago	1	guztijetan	1
gorputza	1	gheu	1	guztioentzat	1
gorroto	2	gueuc	1	guztiz	7
gorrotozco	1	gueuncana	1	guzur	2
gozua	1	gueure	5	habemus	1
gracija	6	guganutz	1	Habeo	1
gracijaren	2	guichi	2	historijac	1
gracijaric	1	guinaijan	1	homo	1
gracijaz	1	guiñai	1	humillau	1
gracijazco	2	guiñaijan	1	humilldu	1
graviora	1	guiñuan	1	l	1
Gregorio	1	Guizon	1	icaratuco	1
gu	1	guizonic	1	icen	1
guc	1	gura	6	icenic	1
gueija	1	guraari	1	icumena	1
gueijago	5	guraso	1	icusiric	1
gueijagogaz	2	gure	4	icutu	1
gueijeena	1	guriac	1	ichi	3
gueijeenez	2	guzanac	1	ichiric	1
gueituric	1	guztien	1	ichutasuna	1
gueldi	1	guztientzat	1	igaci	1
gueldituten	3	Guztija	3	igaro	4
gueldiz	1	guztijac	1	igaroteco	1

1					
igoa	1	izan	11	jaquiric	1
iguitubagaz	1	izanda	1	jaquiteco	1
II	1	izango	3	jarichico	1
imini	2	izanic	5	jarraitu	3
iminten	4	izateco	2	jarraituteco	1
imiñi	3	izatia	1	jatorcazanac	1
imiñten	1	izoztu	1	Jaun	1
imiñtia	1	izugarrietara	1	jauquera	1
in	5	jaco	3	jausi	8
incipitur	1	jacola	2	jausico	2
incipiunt	1	jacon	1	jausteco	6
indarturic	1	jaconaren	1	jausten	8
indarraz	1	jaconic	1	jaustia	1
iñoc	1	jagui	1	jazoten	1
iñor	2	jaguico	1	Jeronimo	1
ipiñi	1	jaguiten	1	Jesucristoc	1
ipsi	1	Jangoico	2	Joan	1
irudi	1	Jangoicua	1	Juan	1
irudija	1	Jangoicuac	7	Juanen	1
Israeltarrac	1	Jangoicuaganaco	1	justuba	1
isten	1	Jangoicuaren	11	justus	1
Itaquequi	1	Jangoicuari	1	lagun	1
iturrijac	1	jantzija	2	Lapur	1
itzal	1	jaquee	2	laquetate	1
1					
laster	4	loijari	1	mortalaren	1
lasterreen	4	loitu	1	mortaleen	1
lecu	2	loituten	1	mortalera	1
leen	2	LOREEN	1	mortaletan	1
leenago	1	lotsa	1	mortaletic	1
legoque	1	Luciferri	1	mortalian	1
legoquiala	1	lurraren	1	Movebo	1
leguez	9	lurrian	1	mueta	1
leguiaz	1	maiora	1	multa	1
leijal	2	manchaac	1	Munduco	3
leijaltasun	2	manchau	1	murmuracinoe	2
leijaltasuna	1	manchia	1	nabenagaz	1
leijan	1	marai	1	naguitasun	1
leijanic	2	Math	3	naguitu	1
leite	1	maxima	1	nai	1
leitialaco	1	MAYATZECO	1	nas	1
Leleengo	1	me	1	nastubeen	1
leleengotic	1	mesede	3	natu	3
lengua	1	mesedeen	1	nausi	1
leuque	1	minimis	2	ne	1
leve	1	miñac	1	negargarri	2
lituque	1	modica	2	Negargarrija	1
litzaate	1	mortal	1	Nemo	1
loija	1	mortalac	1	Nescis	1
1					
neurrijan	2	ondo	1	orduduco	1

neusquioz	1	ONDOREEN	1	Origenes	1
nisi	1	ondoreengo	1	ortic	1
nobis	1	ondoren	4	orregaitic	5
noc	2	onduen	1	oso	2
Non	4	onec	1	ostutiac	2
norban	2	oneec	1	osuagaz	3
nos	5	Onelaco	2	otorri	1
nundic	1	Onelacu	1	otzitu	2
obentasun	1	onelacuac	1	otzitubaz	1
obentasuna	2	Onelacuei	1	otzituten	3
Obispo	1	onen	1	otztasun	1
Obispuari	1	onetan	2	parca	1
odol	1	onetaraco	1	parcatu	1
ofensaric	1	oni	1	parcatuten	2
ofensia	1	onic	1	pauca	1
Oh	1	ontasun	1	paulatim	2
oi	12	ontasanari	1	pecatu	39
oituraz	3	oñaz	1	pecatubari	1
oitutetic	1	or	1	peccaturic	1
olatu	1	orain	1	peccatum	2
Omnia	1	oraindic	1	peccet	1
on	1	oranguiño	1	peneen	1
ona	1	orduco	1	penitencia	1
1					
perdidisti	1	Santuban	1	templu	1
poenitentiam	1	santubari	1	tentacinoe	2
possimus	1	santubei	1	Tertuliano	1
possum	1	sarturic	2	terra	1
prestaera	1	sartuteco	1	tuam	1
primam	1	sarri	6	turpissimus	1
proruunt	1	sarritan	2	tuum	1
Prov	1	sed	1	ucatu	1
Purgatorijoco	1	seducimus	1	ugari	2
pusquetatic	1	Semiaren	1	ugarijac	1
quenduco	1	sendaro	1	umilldubago	1
qui	6	sendatu	2	urteten	2
Quia	1	sendatuten	1	urrinduteco	1
quod	2	sendo	1	uste	2
quoniam	1	Septies	1	ustez	1
repente	1	Si	1	uts	4
resurget	1	spernit	2	utseguite	6
Salomonec	1	stare	1	utseguitia	1
Salomonen	1	sucres	1	utseguitiac	3
San	5	super	2	utseguitiari	1
Santa	1	Sustrai	1	veritas	1
Santari	1	t	1	videat	1
Santiac	1	ta	86	VII	1
Santu	3	te	1	X	1
1					
XII	1				
XXIV	1				
XXV	1				

zaitut	1
zala	2
zaleetatic	1
zana	1
zanagaz	1
zanic	1
zarialaco	1
zaituico	1
Zazpi	1
zor	3
zordenei	1
zortzi	1
zorrac	1
zu	2
zucendu	2
zucenic	1
zure	1
zuri	1
Zuturic	1

1


Frequency	Relative frequency	Number such	Words in frequency	Vocab total	Word total	Perc. of vocab	Perc. of words	Perc. of words in freq.
1	0.05368	692	692	692	692	72.23	37.14	37.14
2	0.10735	129	258	821	950	85.70	50.99	13.85
3	0.16103	52	156	873	1106	91.13	59.37	8.37
4	0.21471	18	72	891	1178	93.01	63.23	3.86
5	0.26838	16	80	907	1258	94.68	67.53	4.29
6	0.32206	18	108	925	1366	96.56	73.32	5.80
7	0.37574	8	56	933	1422	97.39	76.33	3.01
8	0.42941	5	40	938	1462	97.91	78.48	2.15
9	0.48309	5	45	943	1507	98.43	80.89	2.42
11	0.59045	3	33	946	1540	98.75	82.66	1.77
12	0.64412	2	24	948	1564	98.96	83.95	1.29
13	0.69780	2	26	950	1590	99.16	85.35	1.40
15	0.80515	1	15	951	1605	99.27	86.15	0.81
18	0.96618	1	18	952	1623	99.37	87.12	0.97
21	1.12721	1	21	953	1644	99.48	88.24	1.13
28	1.50295	1	28	954	1672	99.58	89.75	1.50
30	1.61031	1	30	955	1702	99.69	91.36	1.61
36	1.93237	1	36	956	1738	99.79	93.29	1.93
39	2.09340	1	39	957	1777	99.90	95.38	2.09
86	4.61621	1	86	958	1863	100.00	100.00	4.62

Type/Token ratio:0.51422

1

Total words read = 1863
 Total words selected = 1863
 Total words picked = 1863

Total words sampled = 1863
 Total words kept = 1863
 Total vocabulary = 958



Herri-euskeratik euskara batura

Juan Manuel Etxebarria Ayesta

Euskara batua onartu eta hogeita bost urte luze igaro ondoren, euskaldun gehiago garena begien bistan dago. Euskal landare berriz jazten daragoio gure Euskal Herriak baina edozeinek daki jakin ere, landare batek sustrai sendo eta sakonak ez baditu ez dela luzarorako.

Euskara batuaren arbola bakar, sendo, lerdin, eder, emankor eta abar luze batekoa lortu gura badugu, euskara ona non, sustraiak haraxe eginda egingo dugu, eta horretarako landu egin behar dira sustraie-tako bakoitzaren lur-iturriak, «tabula rasa»z ito barik.

Euskara batuaren arbola bakar horren sustrai batek nongo lurretik jan behar duen adierazi nahi nuke: nondik? eta, BIZKAIERAREN EDERRETIK!

Goazen, beste barik, Zeberiora, Bizkaieraren lur zahar baina aberastera eta hartu fabula eder hau. Patxi Etxebarria Arroita dugu berriemailea. Zeberioko Undurra auzunekoa. Nekazaria. Grabaketa 1991an 74 urtekin egina.

Izenburuan jarri dudanez, herri-euskeratik euskara baturako bidea argitu nahian, bost eratara agertuko da Patxi Etxebarriak kontatutako fabula hau, nahi duenak etnografia zein hizkuntzalaritzaren alor ezberdinetatik aztertu ahal izateko eta azkenegoa batuaren barruan gozatzeko.

Bost eratara aurkeztearen nondik norakoa azaltzeari eragongo diot. Lehenengo era, Fonologia mailakoa dugu. Jakina, alfabeto fonologikoa ez da nahikoa hizketa biziaren hotsak adierazteko, horregatik, bigarren eran, transkripzio Fonetikoari dariot behar diren zehaztasunak argituz.

Hirugarren eran, literario-etimologikoa dago, kasu honetan Bizkaiera, berri-emailearen azpi erregistroa Bizkaieran oinarritzen delako. Etimologikoa dinot, gaurko Bizkaiera batu-arautuarekin guztiz bat ez datorrelako. Adibidez, «auen» aditz laguntzaile transitiboaren etimoa

«EUAN» da eta ostera, gaurko Bizkaiera batu-arautuan «NEBAN», «U»ren kontsonantizazioa bitarteko.

Laugarren eran, gaurko Bizkaiera batu-arautuan daragoiot, ortografia batua bitarteko dela. Azkenik, bosgarren eran, gaurko euskara batuan eskeintzen dut, bere barruko edertasun guztiak zainduz eta promozionatuz.

Hasieran aipatutako euskara batuaren arbolak ezin utz lezake hartu barik Bizkaieraren sustrairik harako jakia, bere enborrean eralgi, goragoan loretu eta fruitu onak eman ditzan etorkizuneko euskararen bizibidean.

Azalaria eta txakurra

Transkripzio Fonologikoa

Transkripzio fonologikoa agertzen den edozein etnotesto egiten da ulerkaitz erregistro hori ondo ezagutzen ez duenarentzat. Horregatik, kasurik gatxenetan parentesi artean doatzu kasuan kasuko argitasuna.

«Baten ba, an tejamana bastarrean txakolin da (eta) sagardo barrikak edo upelak ote (egoten) sirean da batzuk u etexureko ure artzeako erabilten sirean.

Da ba olango gaube erresu beten, idergi betea ixin (izan) i sen ixin be, ba aimareatxo (abemariak yo) ta urrin barik, asagarien bat ebilen seguru tejamana ta ollategien arrimuen, bustena ta idune arro-arro dausela, uskaie agirien, da ba ullorik ikusi es edo ta labe ganera in (egin)i auen sailtu te, estau ukusten ba upel baten talo eder bat!

D'ene, sailtu in labe ganeti te birriten pentzau barik i PLAST! bari-rika-urera yausi sen da es talo es talondo

Alegin gustiek ite i ausen urtetako baye esin seguru, d'urumape (eta urrumak be) gero tandiangoak iten i ausen da, ba, alangonbaten txakur ausiepe (ausiek be) entzun sirean da ango txakur malesi bako bape (bat be) gañetu yakon ondora ser dan edo estan yakin gurean.

Asagariak aginotzean eragoion da txakur orrepe (orrek be) an seoser daoelakoan edo badoa ta non diñotzon asagariak:

—I, ator, talo eder batxaok (bat ya(g)ok) emen d'erdie yan yoat eta itzako be bayaok, sailtu ik ona barrure t'ikusikok selango tripeka-dea! Ator atoan! Seri adi agoan baño estok! Bildur as ala sein seoser pasau?

Txakur orrek e sailtu in i auen da ur txirripistadartean asagarie kanpora ta bera barruen lotu, kokorioa alangoa. Da gero es talorik es eser. Txakur ori urrungo goxean atera i audien lau ankan oteko (egoteko) gausestala anka puntak a kiputute gustis otzan otzagas.»

Transkripzio Fonetiko-Filologikoan

[batem ba, an texamana baštafean čakoliñ da śagařdo bařikak edo upelak ote śirean da bacuk u eteűureko ure arceako erabiłten śirean.

da ba olaño gaube efeűu beten, idergi betea iűin i šen iűim be, ba aĩmareačo ta uřim barik, aűagariem bat ebilen šeguru texamana ta ołategien ařimuen, buűtena ta idune ařo ařo đauűsela, uűkaĩe agirien, da ba ułorik ikuűi eű edo ta labe ganera in i aűen šaił tu te eűtaű ukuűtem ba upel baten talo eđer bat!

d'ene, šaił tu in labe ganeti te biřitem pencau barik i plaűt! bařika urera yaűűi šen da eű talo eű talođdoko.

alegiñ guűtik ite i aűűen urtetako ba ye eűin šeguru, d'uřumape gero tađdiagoak iten i aűűen da, ba, alaño gombaten čakur aűűiepe encun širean da año čakur maleűi bako bape ganetu yakon ođdora šeř đan edo eűtan yaikiñ gurean.

aűagariek aginocean eragoiño da čakur ořepe an šeoűer đaelakoan edo bađoa ta noñ dinocon aűagariet:

i, atoř, talo eđer bačaok emen d'erđie yan yoat eta icako be bayaok, šaiłtu ik ona bařure t'ikuűikok šelango tripekadea! atoř atoan! šeri ađi agoam baño eűtok! biłduř aű ala šeĩ šeoűer paűau?

čakur ořek e šaiłtu in i aűen da ur čiriűiűadařtean aűagariet kampařa ta řera bařen lotu, kokorioa alañoa. da gero eű talorik eű eűer. čakur ori uruño goűean atera i aűdien laű aňkan oteko gaűűeűtala aňka puňtak a kiputute guűtiű ocana ocagaű.]

Bizkaiera Literario-Etimologikoan

Baten ba, an tejamana bazterrean txakolin eta sagardo barrikak edo upelak goten ziran eta batzuk u etexureko ura artzeko erabilten ziran.

Eta ba olango gau errasu baten, idergi betea izan ei zan izan be, ba abemariak jo eta urrin barik, azagarien bat ebilen seguru tejamana eta ollategian arrimuan, buztan eta iduna arro-arro dauzala, uzkaia agirian, eta ba ollorik ikusi ez edo eta labe ganera egin ei euan saltu eta, ez dau ikusten ba upel baten talo eder bat!

Eta ene, saltu egin labe ganetik eta birritan pentzadu barik i PLAST! barrika-urera jausi zan eta ez talo ez talondoko.

Aalegin guűtiak egiten ei euazan urtetako baia ezin seguru, eta urrumak be geroago eta andiagoak egiten ei euazan eta, ba, alangoren baten txakur aausiak be entzun ziran eta ango txakur maleűia bako bat be gainetu jakon ondora zer dan edo ez dan jakin gurean.

Azagariak aginotsean eragoion eta txakur orrek be an zeozer da-goalakoan edo badoa eta non diñotson azagariak:

—I, ator, talo eder bat jagok emen eta erdia jan joat eta iretzako be bajagok, saltu egik ona barrura eta ikusiko dok zelango tripekadea! Ator atoan! Zeri adi agoan baino ez dok! Bildur az ala zein zeozer pasadu?

Txakur orrek e saltu egin ei euan eta ur txirripistada artean azagaria kanpora eta bera barruan lotu, kokorioa alangoa. eta gero ez talorik ez ezer. Txakur ori urrengo goizean atera ei eudien lau ankan egoteko gauza ez dala anka puntak a kipututa guztiz otzaren otzagaz.

Gaurko Bizkaiera Literario Arautuan

Baten ba, han tejamana bazterrean txakolin eta sagardo barririk edo upelak egoten ziran eta batzuk ituzureko ura hartzeko erabilten ziran.

Eta ba holango gau errasu baten, idergi betea izan ei zan izan be, ba abemariak jo eta urrun barik, azagariren bat ebilen seguru tejamana eta oilategian arrimuan, buztan eta iduna harro-harro dauzala, uzkaia agirian, eta ba oilorik ikusi ez edo eta labe gainera egin ei eban saltu eta, ez dau ikusten ba upel baten talo eder bat!

Eta ene, saltu egin labe gainetik eta birritan pentsatu barik PLAST! barrika-urera jausi zan eta ez talo ez talondoko!

Ahalegin guztiak egiten ei ebazan urtetako baina ezin seguru, eta urrumak be geroago eta handiagoak egiten ei ebazan eta, ba, halango-ren baten txakur ahausiak be entzun ziran eta hango txakur malezia bako bat be gainetu jakon ondora zer dan edo ez dan jakin guran.

Azagariak haginotsean eragoion eta txakur horrek be an zeozer da-goalakoa edo badoa eta non dinotson azagariak:

—Hi, hator, talo eder bat jagok hemen eta erdia jan joat eta hiretzako be bajagok, saltu egin egik hona barrura eta ikusiko dok zelango tripekada! Hator atoan! Zeri adi hagoan baino ez dok! Bildur haiz ala zein zeozer pasatu?

Txakur horrek saltu egin ei eban eta ur txirripistada artean azagaria kanpora eta bera barruan lotu, kokorioa halangoa, eta gero ez talorik ez ezer. Txakur hori hurrengo goizean atera ei eban lau hankan egoteko gauza ez dala hanka puntak guztiz kipututa hotzaren hotzaz.

Euskara Batuan

Euskara batuan gozatzeko esan dut sarreran eta horra hor beste batzuen artean, lexiko eta joskerako aipamen pare bat gozamen eta etorkizuneko euskararen aberasgarri.

Alde batetik, hitz edo berba zaharrak agertzen dira. Batzuk badatoz hiztegiatan (ituzura, uzkai, kiputu etab.) baina herrian bizirik aurkitzea pozgarria da benetan. Beste batzuk, herriak erabili darabiltza hiztegiatan

agertu ez arren («abemariak» = iluntzetan joten diren kanpaiak ermita zein eleizetan; «atoan» = berehala, momentuan; «idergi betea» = ilargi betea; «kokorio» = lelo, malbako, enbeleko; «seguru» = antza, urrean; «tejamana» = bedar sikua eta abar gordetzeko txabola nagusia; «trirripistada» = txipristina), eta hau aberastasun hau, etnotestoz baino ez bada ere, kontutan hartu eta zaintzekoa da, euskara literarioak ez baitu jaso euskera mintzatuaren aberastasun guztia.

Joskera aldetik horra hor beste aipamentxo bi herriaren joskera aberatsaren ezaugarri bezala.

Bata: «Zeri adi agoan baino ez duk». Honen sinonimo batzuk hauek lirateke: «Ez zekiat zeri adi agoan»; «Zeri adi hago ba?» etab.

Bestea: «...zein zeozer pasatu». Menpeko esaldi hau gaztelerazko «por si» nexoaren parekoa dugu. Bere kideak hauexek:... «zeozer pasatuan ere», edo «zeozer pasatzen bazaizu ere».

Ikusten denez, badauka bai euki ere euskara batuak non zer jaso eta erabili. Oraingo hau bitargi bat baino ez da, horregatik ba, euskara batuak, argi joka dezala etorkizunean ezjakinkeriaren lainaberan barik. Zahar on egin dadila!

Baten ba, han tejamana bazterrean txakolin eta sagardo barriak edo upelak egoten ziren eta batzuk ituzureko ura hartzeko erabilten ziren.

Eta ba holango gau errasu baten, idergi betea izan ei zen izan be, ba abemariak jo eta urrun barik, azagariren bat zebilen seguru tejamana eta oilategian arrimuan, buztan eta iduna harro-harro dituela, uzkaia agirian, eta ba oilorik ikusi ez edo eta labe gainera egin ei zuen saltu eta, ez du ikusten ba upel baten talo eder bat!


Eta ene, saltu egin labe gainetik eta birritan pentsatu barik PLAST! barrika-urera jausi zen eta ez talo ez talondoko!

Ahalegin guztiak egiten ei zituen urtetako baina ezin seguru, eta urrumak be geroago eta handiagoak egiten ei zituen eta, ba, halangoren baten txakur ahausiak be entzun ziren eta hango txakur malezia bako bat be gainetu zitzaion ondora zer den edo ez den jakin guran.

Azagariak haginotsean eragoion eta txakur horrek be an zeozer da-goelakoan edo badoa eta non dinotson azagariak:

—Hi, hator, talo eder bat zegok hemen eta erdia jan diat eta hiretzako be bazegok, saltu egin ezak hona barrura eta ikusiko duk zelango tripakada! Hator atoa! Zeri adi hagoan baino ez duk! Bildur haiz ala zein zeozer pasatu?

Txakur horrek saltu egin ei zuen eta ur txirripistada artean azagaria kanpora eta bera barruan lotu, kokorioa halangoa, eta gero ez talorik ez ezer. Txakur hori hurrengo goizean atera ei zuten lau hankan egoteko gauza ez dela hanka puntak guztiz kiptuta hotzaren hotzez.



Idazte esperientziari buruzko mahai-ingurua

Joan Mari Irigoien
Laura Mintegi
Asier (Lubaki)
Arantxa Urretabizkaia

1994.eko martxoaren 22an, gure aldizkariaren 9. alearen aurkezpena zela eta, *Idazte esperientziari* buruzko mahai-inguru bat antolatua genuen aldizkariko erredakzio taldekoek. Lau gonbidatu izan genuen gure artean: Joan Mari Irigoien, Arantxa Urretabizkaia, Laura Mintegi eta Lubaki Bandako Asier.

Gure helburua, besteak beste, gazteak idaztera gonbidatzearena izan zen.

Oraingo honetan, idazle hauen esanak bildu nahi izan ditugu, unibertsitate honetako Praninfoan zabalduko hitzen oihartzun izan daitezen.

I. JOAN MARI IRIGOIEN

Nire idatz-esperientziaren historia laburra

Sarritan galdetzen digute idazleoi zergatik hasi ginen idazten: zergatik eta nola. Zergatiari dagokionez, mila erantzun asma litezke eta baliteke erantzun guztiak ere egia izatea, maila batean ez bada, bestean. Nolakoari buruz ihardutea, berriz, errezagoa izango litzateke, baldin eta oroimenak iragana ere zehatz bezain finko batean jasoko baligu, baina aurrean zaituztedan ikasle gehienak oraindik gazteak bazarete ere, jakin, jakingo duzue, beharbada, honez gero, oroimena ere, mundu honi lotutako izaki ororen ahalmen mota guztiak bezalaxe, denboraren mende dagoela, eta guk uste ditugun oroipen garbi horiek beste oroipen batzuen gainean eraikitako oroipenak direla, denboraren ur arreetan itxuraldatuak, ez zeharo eta osotoro, baina bai hainbat xehetasun eta ñabarduratan.

Gauzak argitzeko bainoago nahasteko egina dirudien sarreratxo honen ondoren, puntu batzuk ukitu ditut, nire idazle bezalako espe-

rientziaren berri eman lezaketenak, pintzeladaz pintzelada, neronek zenbait aldizkaritan idatzitako artikulu edo beste oinarriztat harturik, Euskal idazleen Elkartek argitaratutako *Hegats* aldizkariaren 4. alean azaltzen dena bereziki.

1. *Zergatik idatzi?*

Maiz esan izan dut herri txiki bateko semea naizela, Altzakoa, baina ez gaurko Altzakoa, orain dela 40 urteko Altzakoa baizik: hango zelai-soroetan eta hango erreka gardenetan bizi izan nuen neure haurtzaroko Paradisua, handik gutxira zementuak suntsiko zuena: horregatik idazten ote dut, beharbada, niri ostutako mundu hura berreraiki nahi dudalako, hitzez hitz eta esaldiz esaldi?

Gure iragana joan da eta iraganarekin batera bizitza doakigu ihesi. Gure bizitzaren segunduak hatzen arteko zirrikituetatik ihesi doazkigun ur-xortak dira. Baina ur-xorta horiek jaso eta berreskuratuak izan daitezkeen lez, ez ote da gure liburu bakoitza, ihesi joan zaigun denbora hori berreskuratu nahi duen ontzia?

Bizitzari begira jartzen gara eta sarritan ametsa dirudi. Liburu baten bidez forma ematen diogunean, ordea, errealitatearen ilusioa ematen digu, deskribatzen ditugun une haiek egiazki gertatu balira bezala... edota une haien inguruan beste une batzuk sortuz, egiazkoak ziren haiek baino egiazkoagoak.

Egia da batzuetan, idazterakoan, barregarri sentitzen naizela; egia da, baita ere, sufritu egiten dudala beste batzuetan... baina batez ere gozatu egiten dut eta gozatu egiten dudalako idazten dut: hitz bat bere lekuan edo metafora bat aski dira noiz edo noiz barnelilura handi bat sentitzeko, metafora hori nota bat balitz bezala, izar eta astroen musikarekin lotzen nauena.

Baina eta ez ote dugu idazten banitateagatik? Bistan da hau ere ez dela nolana hiko arrazoia. Banitatea, berriz, inbidiarekin estu lotuta dago. Eta inbidia itsusia da. Baina bat-bateko erreakzioen gainetik, gizona/ema-kumea egin ere egin daiteke, egiten da, eta nik badaukat bat-bateko sentimendu horien aurkako arma: sublimazioa. Nirea baino hobea den beste idazle baten liburua irakurri, eta lehengo bekaitzaren ondoren, buruan beste ahots bat sentitu, sublimazioaren suak ezereztatutako bekaitzaren gainetik apal mintzo dena: «Hi, bihotzez, zorionak...»

2. *Nola hasi nintzen idazten eta nola jarraitu dut harez geroztik?*

Lehenengo poema Mundaizko korazonisten ikastetxean idatzi nuen, 11/12 urte nituela. Oroitzen dut redondillak, serventesioak eta romanceak zer ziren ikasten ari ginela, eta nik erdi jolasean konposizio

bat idatzi eta gustatu egin zitzaidala. Handik aurrera, izen erabakigarri bat ekarri behar dut hona: aitarena. Aita herriko medikua zen —don Roman—, eta lanorduetatik kanpo, beti ezagutu izan nuen eskuetan irakurgairen bat zuela: liburu edo liburuxkaren bat, aldizkari zein egunkari, edozein gauza. Espainiar klasikoan poema asko zekizkien buruz, Lope de Vega-renak eta... baita berak hogeitau bat aldiz irakurria zuen *ki-xoteren* zati batzuk ere. Berak ere idatzi zituen poema batzuk, Aita Onaindiaren *Mila olerki eder* izeneko antologian azaltzen den «Nik zer ez egin, nik zer ez eman?» poema hura lekuko: poemaren izenburu hori nik neuk erabiliko nuen gero, *Denborak ez zuen nora* liburuko atariko poeman, leitmotiv bezala, nik aitari eskainitako omenalditxoan. Beraz eta lehen utzitako hariari osteria helduz, neure kasuan, literaturaren aldeko giroa ume-umetatik usaindu nuela esan dezaket, han gure etxean. Eta bai, aspaldiko oroipen haien artean, hasierako poema txar haiei lotuta, beti azaltzen zait aitaren irudia, irribarrea ezpainetan. Irribarre ederra zuen aitak. Bizitza osoan osasunik gabe ezagutu nuen: horregatik oroitzen dut, beharbada haren irribarrea, ez baitago irribarre ederragorik oinazearen lurretan sortutakoa baino.

Lehen urrats haietan hitz bat: mimetismoa. Atsegin nituen poetak hartu eta goitik beherako plagioak egiten nituen, plagio eskas bezain barregarriak. Horien artean bat kontatuko dizuet. Oroitzen dut 16 urtedo nituela, Rubén Darío ezagutu nuela eta haren estiloak txundituta utzi ninduela... *Inclitas razas ubérrimas, sangre de Hispania fecunda...* eta hura irakurri ahala, antzeko beste poema bat idatzi behar nuela bururatu zitzaidan... baina ordurako banuen neure herri zapalduaren berri eta horregatik «Oda a Euskalerrria» jarri nion izenburu, eta luma hartu eta idazten hasi nintzen: «Rústico pueblo viril...». Pentsa dezakezue, poema hura ez zen literaturaren historiara pasa.

Ikasketak gazteleraz egin nituen eta euskaraz analfabeto hutsa nintzen, nerabegaroko poema solte haiek guztiak gazteleraz idatzi nituen. Batxillerra amaitzen ari nintzela, ordea, euskeraren kontzientzia hartu eta handik aurrera hizkuntza ikasteari ekin nion, ahal bezala, honi liburu bat eskatuz, hari beste bat, orduan ez baitzegoen gaur egun dagoen aukera eta euskara batua bultzatzeko lehen urratsak eman gabeak baitziren oraindik. Eta ekinaren ekinez, handik urte gutxitara, neure euskerazko lehen poema-sorta izkiriari nuen: «Hutsetik esperantzara». Bukatu nuenean, Irun Hiriko Sarira bidali nuen, baita ustegabeen irabazi ere. Zer esanik ez ikaragarri poztu nintzela eta nire idazten jarraitzeko asmoari eusteko lagundu zidala. Sariak direla eta, eszeptizismo handiagorekin ikusten ditut gauza horiek gaur egun, baina gezurra esango nizueke garai hartan sari hark ez zuela nigan eraginik izan esango banizue. Bihotzak agindutako poemak dira, odol-kol-

peka egituratuak. Haietako poema batzuek lotsa sentiarazten didate gaurko perspektibatik analizatuta... baina bekaizti ere sentiarazten nauten beste zenbaitetan, gero eta lehortzenago ari zaigun bizitzan odolpe kolpe haiek beti ere baitira eskergarri.

Gero, Venezuela-ra joan nintzen, urtebeterako, eta han orduak eta orduak eman nituen irakurtzen, Hego Amerikako literatura bertatik ezagutzeko parada izan nuelarik. Handik itzulita, Txillardegiren *Leturiaren egunkari ezkutua* eta Miranderen *Haur besoetakoa* irakurri nituen. Eta haiek irakurrita konbentzimendu batera iritsi nintzen: zailtasunak zailtasun, euskeraz ere gauza ederrak idatz genitzakeela, munduko beste literaturetan bezala, horretarako geure buruak gero eta hobeto prestatu behar bagenituen ere. Horrekin batera, gure arteko solasetan, euskal poesiak aski maila duina zuela esaten zen eta prosa zela gure gairiditu beharreko apustua. Eta egun batean pentsatu nuen: «Zergatik ez nobela bat idatzi, euskara hobeto ikasi eta geure hizkuntzan sakontzeko?» Gogoeta sozialaren (Franco-ren garaiak ziren) eta majikoaren eraginpean.

Urtebetea hemen iragan eta beste urtebeterako itzuli nintzen Venezuelara. Eta handik berriro etxeratzean, *Poliedroren hostoak* izkiriatu nuen. Liburu honetan gizakion konplexutasuna eta barne haustura adierazi nahi izan nituen, horretarako hamaika estilo eta ikuspegi nahastea egokitzen jo nuelarik, nobelari modernotasun kutsu bat emanaz bide batez. Anbizio handiko apustua izan zen, aroak eta helburuak kontutan hartuz gero nik inoiz egin dudan apusturik goitikoena, idazle izan nahi duen eta maila batean hori sinesten duen norbaitek idatzia. Banekien honelako apustuak inperfekzioa zuela arerio nagusia, baina garai hartan maiteago nituen —eta gaur ere bai, zenbaitetan— inperfekzioz jositako obrak, bihotzik gabeko beste zenbait obra perfektu baino.

Liburu hau idazterakoan hau ere ikasi nuen: liburuak buruz idazten direla, bai, baina batez ere ipurdiz: disziplina behar-beharrezkoa dela alegia, eta fruituak lanorduen ondorio eta emaitza direla nagusiki.

Ondotik, *Udazkenaren balkoitik*. Kezka batek bultzatu ninduen elaberri hau idaztera: euskaldunok apenas arduratu izan garela geure historia idazteaz, are gutxiago nobelatzea, azkenean kanpokoak gehiago arduratu izan direlarik, beren komenientziatzako historia idatziz, hain zuzen ere. Bide horretatik, nire belaunaldiaren historia edo istorio batzu nobelatu behar nituela bururatu zitzaidan; baina abiapuntua hori izan bazen ere, denborarekin liburua korapilatuz joan zitzaidan, korapilatuz eta hedatuz, gurasoen belaunaldiraino. Estilo errealista arrunt batean idatzia dago, errerealismo mota hori modan ez zegoenean... eta gauer egun, aldiz, 1.994.ean modan omen dagoena... Baina modaz ari naize-

la, esan dezadan argi eta garbi ez dudala gehiegi sinesten hitz horretan, abangoardietan-eta larregi sinesten ez dudan lez: literaturaren bide gehienak —guztiak esango nuke— urratuta dauden une honetan, une eklektiko batean gaudelakoan nago, eta orain arteko bideak milaka izanik, bakoitzak bere aukera egin behar duela. Bide horiei gauza bakarra erants diezaiokegu guk: geure arnasa... hala nola Artetak kubismoan oinarritutako bere koadro haiei erantsi zien, Picasso, Braque eta Juan Grisen kubismotik eratorritako bere koadro haiei. Horregatik, urte berean hainbat estilotako liburu argitara litekeela uste dut, guztiok gaur egungoak, eta modaren bat aipatzekotan moda bakarra aipatuko nuke: aniztasunarena.

Liburu honekin amaitzeko, esan dezadan idatzi ditudan elaberrietatik hauxe gertatu zitzaidala zailena, hasi aurretik errezena izango zela iruditu bazitzaidan ere, giroa bertatik ezagutzen nuelako. Baina zenbat eta hurbilago, orduan eta urrunago batzuetan...

Aurreko nobelaren barruan, oraindik ere gogoko dudan ipuin bat idatzi nuen, gero bere bizitza propioa hartu eta beste liburu batean argitararuko nuena: *Bakarrerren gaztelua*: lastima inprimaketa eta ortografi akats askorekin argitaratu zidatela! Nahigabe handia hartu nuen liburua ikusi nuenean, ni ez bainintzen inola ere izan hondamen haren errudun. Liburua ulertu, ulertzen da, bai, baina begirune handiagoa merezi dute irakurleek.

Babilonia. Proiektu honetan aurreko liburuetan jasotako esperientziaz baliatu nahi nuen, sintesi-liburu bat egiteko: *Oilarraren promesatik* eta *Poliedroren hostoaketik*, hizkera poetikoan landutako mundu mitiko-magiko haiek berreskuratu nahi nituen; *Udazkenaren balkoitiketik*, tonu errealista. *Poliedroren hostoaken* ez bezala, guztiz alderantzizko egitura eman nahi izan nion, sendoa, itxia, biribila. Horretarako hiru pertsona —hiru ikuspuntu: ni, zu, eta hura, edo nik, zuk eta hark— tartekatzea bururatu zitzaidan, zirkunferentzia osatzen zuten 120°ko hiru arku bailiran, baserri batean historia kontatzeko, karlistaden garaian.

Nobela honen idazte prozesua guztiz maldan beherakoa gertatu zitzaidan, xamurra. sarritan aidean idatzita balego bezala sentitzen nuen: airean zebiltzan bai, uhinak, batetik bestera, eta ni uhin horiek jasotzen zituen antena bat nintzen, auskalo nondik zetozen mezuak orri batean eta bestean idazten zituena. Xehetasunik aipatzekotan, liburua ez nekiela nola amaitu esan behar... baina egun batean amets bat izan nuen eta hantxe askatu zitzaidan korapiloa. Hala ere, ez uste hori denik idazle on eguneroko ogia, ez horixe! Niri horrelako mirarixoa behin bakarrik gertatu zait: orduantxe! Bestela, lehen ere esan dizuet fidagarriagoa dela disziplina ezain amets baino: idazlea izan nahi duenak ez luke ahaztu behar aholku hori. Eta ez luke ahaztu behar, ezta ere, oso ga-

rrantzitsua dela irakurtzea, klasikoak batik-bat, literatura unibertsalaren maisutzat ditugun horiek. Orain dela hilabete, esate baterako, Doostoievski-ren *Crimen y castigo*, gaztelerazko bertsioan, irakurri nuen eta benetan diotsuet idazle handi horiengandik badagoela beti zer ikasi.

Denborak ez zuen nora, nire bigarren poema liburua da. Nire lehen poema liburuan ukitutako gaiak ukitzen ditut —betiko gaiak alegia: maitasuna, bakardadea, denbora joanak gugan eragiten duen malenkonia, betinahia, e.a.— baina, oro har, askoz era bihurri eta sofistika-tuagoan, metaforizazio landu batez.

Consummatum est, nire azkeneko nobela. Lehen aipatu dut gaurko idazlearen egitekorik garrantzitsuenetako bat, ezagun (?) ditugun munduei gure arnasa eranstea dela, eta elaberri honetan ahalegin hori begizta daiteke. Edo bestela esanda eta gehiago ez luzatzeko: ongia eta gaizkia, bi mundu, arnas bat.

Eta bukatzeko, idazleak alde batera utzita, irakurlearen defentsa egin nahi nuke. Zeren eta konbentzitura bainago idatzitako edozein liburu eder are ederrago egin litekeela irakurlearen baitan. Hau baiezteko ipuin bat kontatuko dizuet:

«Behin batean errege batek bere jauregira deitu zituen Txina eta Bizantzio-ko pintorerik onenak. Txinatarrek munduko artista onentzat zuten beren burua, baina baita grekoek ere. Erregeak aurrez aurre zeuden bi horma pinta zituzten agindu zien. Tartean, gortina bat jarri zuten, elkarren berri jakin ez zezaten. Baina txinatarrek pintura bat eta bestea erabiltzen zuten bitartean, grekoek beren horma lixatu eta leuntzeari ekin zioten, erregearen harridurarako. Gortina bildu zute-nean, berriz, hantxe azaldu ziren horma batean txinatarren fresko miragarriak, baina baita bestean ere, ispilu baten antzera islatzen zitu-lako. Eta txinatarren horman ikusi zuena askoz ederragoa iruditu zitzaion erregeri grekoen horman islaturik».

Irakurle bat dut gogoan. *Babilonia* bi aldiz irakurri zuela esanez, bere poza azaldu zidan. Handik bi hilabetera hil zen, minbizia zuelako. «Babilonia»rik ederrena emakume hark idatzi zuen. Eta irakurriz idatzi zuen gainera. Goian bego.

II. LAURA MINTEGI

Egun on. Gustora nator gaur Deustura, lehengo eta behin aspal-dian ikusi gabeko lagunak berriz ikusteko parada eskaini didalako, eta bigarrenez, etxe honetan izandako bost urteak (garai magikoa nire bizi-tzan) berriz gogoratzeko aukera eman didalako.

Gaiari helduta, bi aspektu ezberdin tratatu nahi nuke gaurko hone-tan. Alde batetik, nola ikusi izan den, **kanpotik**, idazte esperientzia historian zehar, eta, zehatzago, xx. mendean. Bestaldetik, nola bizi duen idazleak **barnetik** idazte esperientzia, edo, behinik behin, zeri ematen diodan nik garrantzi gehien prozesu horretan.

Literatur korronte bakoitzak, eta beronen kritikak, ezberdin ikusi izan du idazlea. Erromantizismoak idealizaturik zuen bitartean, errealismo sobietarrak, aldiz, zerutik lurrera jeitsierazi zuen. Erromantizismoaren ustetan idazlea lurretik hogezi zentimetrotara lebitatzen zuen gizakia zen, izaki hilezkorra, inspirazio dibinoaz idazten zuena eta arazo lurtarretik at bizi zena. Errealismo sobietarrak, aitzitik, idazle-langilea defendatzen zuen, zortzi orduz lantegian bezala jardun behar zuena, gai errealaz eta ardura lurtarraz, protagonismorik gabe: literaturaren proletario bihurtu nahi zuen idazlea.

Korronte marxistaren aburuz, idazlea komunitate baten elementu bat zen, bozgoragailua, engranaiaren torloju bat, eta talderik gabe idazleak ez zuen zentzurik, gorputz gabeko ahots mutu bihurtzen bait zen.

Estrukturalismoaren ustetan, berriz, idazlea leku bat dugu, espazio bat, eta literaturak zeharkatu egiten du espazio hori. Hitzak, nobelak, asmatuak daude alde aurretik. Idazleak egiten duen bakarra zera da, berriz bildu, batu eta beste modu batera eman, ezer berri edo sortzaile-rik asmatu gabe.

Literaturgintzan izan diren abangoardia edo korronteetan ere idazleak ez du paper hobeagorik hartu. Kasu batzutan tailer baten artesa-noa baino ez da (Oulipo); bestetan, lantalde kolektibo baten partaide anonimoa (esperimentalismoa); zenbaitetan, azkenik, irakurleak sortzen du nobela, idazlea aitzakia baino ez delarik (harreraren teoria).

Beraz, idazlea den-dena izatetik, ia ezer ere ez izatera pasatu da: tresna, edo, areago, zirkunstanzia¹. Idazlearen garrantzia aldatuz joan da, beraz, eta honekin batera bere onarpen soziala.

Gaur egun, gure artean, oraindik daude ideia erromantikoaren arrastoak edo zantzuak gizartean, baina gero eta gehiago baloratzen da idazlearen lana ikuspuntu profesionaletik ikusita. Inspirazioa baino, dedikazioa somatzen da idazlanetan, eta musen orde, konstantzia, zuzenketa etengabeak, disziplina eta argialetxearen aholkuak.

Ikus dezagun orain, nola bizi duen idazleak prozesu guzti hori **barnetik**. Edo hobeto esanda, nola bizi duen idazleak, hemen orokorki hitze-

¹ Nobelagintzan gertatu den prozesu berbera ere gertatu izan da egilearekiko: pertsonaiak idazlanaren parte garrantzitsuena izatetik (errealismoan), ia desagertzera pasatu izan dira urte gutxitan, izena, aurpegia eta nortasuna galduz («nouveau roman» esaterako).

giterik ez dagoelako. Nor bere munduak bizi du, areago sormen lanaz dihardugun kasuetan.

Nobela bat planteatzeko unean bi maila ezberdinetako arazoak azaltzen zaizkit. Lehenak teknikoak dira, edo puntualak, edo koiunturalak dei daitezkeenak, eta garrantzitsuak izanik, ez dira garrantzitsuenak. Beste arazoak, aldiz, sakonagoak dira, egiturakoak, ni neu benetan arduratzen nautenak.

Arazo koiunturalak hauexek dira: gaia, pertsonaiak, espazio-denbora koordinadak eta beroien trataera, tonua... hau da, zer esan eta nola esan. Bata bestearekin zeharo lotuta dagoena. Zeren, *zer* bakoitzak badu bere *nola*, eta askotan *nola* batek badakar bere *zera*. Horrela lortzen da tonua, tonu egokia asmatzea.

Baina gauza hauek garrantzitsuak izanik ere, eta dira funtsezkoak. Benetan arduratzekoa, nire ustez, sinesgarritasuna lortzea da, hau da, *kredibilitatea*. Eta sinesgarritasunak ez du zerikusirik egiantzekotasunarekin (edo *verosimilitudekin*). Kontatu nahi duguna sinesteko modukoa izan behar da, EGIA izan behar da, nahiz eta benetazkoa izan ez: EGITAN bizi behar dugu, nahiz eta fikzio hutsa izan. EGIAZKO egin behar dugu, nahiz eta zeharo asmatu, goitik behera.

Literaturan errotik bereiztu behar dira fikzioa eta simulakroa. Fikzioa egiten lizentzia daukagu literaturgintzan, baina simulakrorik ez. Ezin dugu gure burua engainatu, ezta irakurleak ere, idazketa automatikoa eginez, erredakzio mekanikoa, kopiaren beste kopia bat, arrakasta izandakoaren hamaikagarren bertsioa, plagio ezkutua, arriskurik gabeko literatura estandarra. Idazleari bere EGIA idatz dezala eskatu behar zaio, ez egiANTZEKotasuna. FIKZIOA edo errealtatea idatz deza ke, baina ez SIMULAKROA.

Premisa horiek dira, nire ustez, idazte prozesuan ezinbestekotzat jo behar direnak, eta, nire esperientziaren arauera, lortzeko zailenak.

Eta besterik ez. Mila esker entzuteagatik.

III. LUBAKI BANDAKO ASIER²

Lubaki Banda gaztez osoturiko literatur talde bat bezala defini dezakegu; baina ez da edonolako taldea, helburu zehatzak ditu; badaki zeintzu diren ibili beharreko bideak eta atajorik hartu gabe, zuzen zuzeneko bidea jarraitzeko asmoa du.

² Lubaki Bandako Asierrek idatzia zuena galdu egin baitzuen ordenagailuan, uneko emanaren arabera hitzegin beharrean aurkitu zen. Guk esana jaso besterik ez dugu egin, eta lotura haria eman, ahalik eta xehena, halaz ere.

Ekintzei hasiera emanez, manifestu bat eman zuten argitara Asierrrek dioen bezala: *gure Lubaki Banda hau aurrera ateratzeko manifestu bat atera geindun separata moduan agertzen dena Susa aldizkari horretan, **Atzazalez urratzen dugu bidea** edo **Mendeku kulturala** deitzen da. Eta bertan kritikatzeko du gure egoeria gizartian edo gaur eguneko literaturan. Manifestuan agertzen dira salaketa batzu: gaur plataformarik ez daukagula gaztiok, nahiz eta eman dauskuen dana; euskera batu bat eman dauskue, eman dauskuez be gai guztiak... Eta nik uste dot, ikasi behar dogula literatura berrixa, nahiz eta gai guztiak emanda egon, ikasi behar dogu gai hoietatik gai atipikoak ateratzen ero beste molde batez jorratu gai horiek. Eta, nere ustez, literatura oin-txe izan bihako zan piskat kritikoa. Gizarte hau kritikatu behar da, eta nik uste dot literatura, poesia eta dana dala arma oso gogorra, mingarria eta, batzutan, oso ona izaten dala kritika bat itxeko.*

Hasieran esan bezala, talde honek badu helburu finko bat: *nik uste dut, Lubaki Banda sortu zala jendea piska bat sentzibilizatzeko. Eredu izan nahi dogu datozen belaunaldixentzako. Ez dot pentsatzen gu garerik onak, txarrak... ez, guk bakarrik nahi dogu guk ein dogun lana jarraitzea, konpromesu bat daukagulako literaturarekin. Eta uste dot, gaztiak azaltzen ez diran bitartean, literatura, euskal literatura arriskuan dauala.*

Eta orainarte Lubaki Bandak izan duen onespina ez da eskasa izan eskertzekoa da hain gaztiak izanda hasiera fuertea ukitzia, diosku Asierrrek.

Talde honen ekintzak ez ziren manifestua argitaratzearekin bukatu, errezitaldiak ere egiten dituzte; *irakurri izan dau errezitaldi horietan aldizkarixak musikaz lagunduz. Kolaboratzaileak ere izan ditugu kontrabajoa jotzen edo halako laguntzak. Gero, publizitatean eta estenarrietan ere laguntza izan dogu.*

Eta, nola ez, literatura hain gustoko dutenen artean, izaten da elkartu eta txarrek egiteko aukerarik, nahiz eta Asierrrek dioen bezala, taldea bere osotasunean elkartzea ez den hain erreza; *Txarrek eta euki ditugu. Elkartu izan gara Donostin, tabernetan eta bakarrik literaturaz mintzo izateko; liburuak, testuak, idazlien idazkixak komentau... Hone-tan problemak izan ditugu ez garelako denok herri berdinekoak eta transporte aldetik, komunikabide aldetik nahiko txarto ibili garelako, baina nahiko aberatsak izan dira txarla horietan atara diran gauzak.*

Egindakoak aipatu ostean, egitekoak aipatu behar noski!: *pentsautu daukagu 94rako ze ekintza egin behar ditzugun. Pentsatzen dogu ateratzea grabaketa bat edo maketa bat errezitalak emoten deuskuen diru apurrekin. Atara bihu grabaketa bat izango zala aurreko aldizkari-xan gaiari lotuta. Eta hitzak elkartuz joango zien musikakin eta da pis-*

kat alde batera lagatzeko gaur rock taldiak eta halakoak, nahi dogu hartzea euren lekua be; piskat modan jartzea da poesia ero literatura, literatura gaztia. Eta kritikatzan hasi literaturatik badauzela beste era batzu gizartia kritikatzeko.

Gero, pentsauta dekogu beste bi ale ateratzea Susa aldizkariarekin, argitaletxearekin. Bigarrena izango zan apirila-maiatza alderako eta gero bestia Durangoko azokarako.

Orainarte, Susa argitaletxearekin izan dira harremanetan, baina taldearen asmoa aurrera pausu bat eman eta guztizko independentzia bat lortzea litzateke, nahiz eta askatasun honek aldaketak ekarriko lituzkeen: ...*pentsauta daukagu Susatik banatzea, piskat independenteki jokatzea eta pruebak Lubaki Bandak berak itxia bere etxian, nahiz eta formato eta itxura aldetik pixkat kaskarragoa izango zan. Uste dau literatura ez dala bakarrik joan argitaletxe batera eta esan **ipinidazu hau** edo **ona bada ateraizu**. Nahi dou literatura hori bizitzia; bai gu piktzen, maketatzen, eta bueno, marrazkixak guk itxen eta holan, piskat independenteki jokatzen.*

Bukatzeko, mezu garrantzitsu bat luzatu zigun Paraninfoan elkartutako gazteoi: *kolaboratzaileak bila gabiltz laguntza biharra daukagulako. 13 gara Lubaki Taldian, baina bihadauen zuek bezelako gaztiak eta idaztia nahi dabenak, idaztia gustetan jakuenak baina ez dianak ausartzen euren idatzixak argitaratzen.*

Hitz hauekin, Asierrek, bete betean eman zuen mahai-inguruak zeukan helburuan. Idaztera gonbidatu nahi zaituztegu, zuen lanek gure aldizkarian beti lekuren bat izango dutela esanez.

Pozik egongo ginateteke gazteen ametsi ate bat zabaltzen gabiltzan aldizkari izatea lortuko bagenu!!

IV. ARANTXA URRETABIZKAIA

Lehenengo esan behar nukeena hau da: nik uste dut kontu hauetan, literatur kontu hauetan, nerretzat behintzat, bi eratako pertsonak daudela, ezta? batzuk txoriak dira eta beste batzuk hornitologoak dira. Orduan ezagutzen ditut biak betetzen dituztenak, txori eta hornitologo direnak. Baina nik abisatu nahi dut hornitologiaz tutik ere ez dakidala eta, gehienez jota ere, bere buruaz pentsatzen duen txori bat naizela. Horrek esan nahi du ez daukadala nik literaturaren alorrean, ez beste hainbat alorretan ere, baina literatur alorrean ez behintzat, uste finkorik, eritzi edo teoria landurik. Beraz, nik kontatuko dudana da gehien bat nik bizi izan dudana eta bizi izan dudana horrek eragin didana nere barruan.

Gezurra badirudi ere, nik neska koskorretan idazlea izan nahi nuen, eta oso neska koskorretan. Gogoratzen naiz ondo asko amabirginari errezatzen niola idazle izan nahi nuelako, eta oso neska koskorra behar nuen izan, zergatikan gutxienez hamasei urtetatik aurrera ez dut nik sekula errezatu, beraz, banituen, ez dakit, hamalau edo hamabost urte.

Uste nuen idaztea zela doai bat, grazia bat, ederra izatea bezela edo beste gauza baterako talentoa izatea bezala ezta? Geroztik pasa den urte mordoan ulertu dut idaztea dela jardunean ikasten den gauza bat, ofizio bat, eta zentzu horretan nik nere lana hartzen dut artisau moduan ez artista moduan; gertatzen dena da mailua eta zintzela erabili beharrean, nik erretuladore bat erabiltzen dudala, ezta? baina hola sentitzen dut nik neure burua.

Lehenengo eta behin esan beharra daukat, bibliografian falta dela lan bat, hain zuzen lehenengoa, 72an idatzitako poema sorta bat; 72an argitaratutakoa, idatzitakoa urte pare bat lehenago. Aipatu nahi dut hori, hori izan delako salbuespen bakarra nik egin dudana literatur lan gutxitan. Lehenengo lan hori izan zen konpulsibo bakarra; hartu eta, ez dakit nola esan, barruak eraginda bakarrik idatzitako zerbait. Hortik aurrera idaztea da neretzat lanik gogorrena.

Ez dut ezagutzen —eta mila lan egin ditut nere bizitzan eta egingo ditut oraindik ere— hain lan gogorra, ze nik idaztekoan gozatzen dut, ez dago nia gehiago korapilatuko duen lanik.

Gertatzen dena da idatzi ondoren gustoko zerbait lortu baldin badut, eta lorpen hori txikia izan liteke, bainan horrek ematen didan satisfakzioa ez dudala beste inon arkitzen. Bainon idaztea bera da neretzat lanik gogorrena.

Beste lan askok beti uzten dute niaren zati bat libre eta honek ez du niaren zati librerik uzten. Beraz, neretzat da oso erraza aitzaki bat aurkitzea ez idazteko, horregatikan neretzat disziplina oso inportantea da. Esan nahi dut ez naizela bat ere konpulsiboa ez bada lehenengo lan horretan.

Nik ezagutzen ditut gure artean ere atakeak emanda idazten duten idazleak. Eta atakeak eman eta berrogehi folio botatzen dituzte, ezta? Neri sekula santan ez zait horrelakorik gertatu; nik frasez frase idazten dut, ia hitzez hitz. Horregatik ere tresnei buruz —eta gero zerbait aipatuko dut— ordenagailuak neretzat lehenengo sormen kontuan ez du zentzurik, zergatikan gero bai, eskuz egindakoa pasa eta txukundu eta konpondu, baina hain mantxo noanez, ba errotuladorea eta koaderno batekin nahikoa daukat.

Nik egin dudana, hola, esperientzia luzeenean —aurrera noa gero atzera egingo dut— *Saturno. Saturno*, idazteko jun nintzan, ahal izan nuelako, hilabete batzutan etxe txiki batean bakarrik egotera. Eta or-

duan, bakarrik negon, ez neukan nor zaindu, generalean beti eukitzen dut norbait zaintzeko, bainan ez neukan inor zaintzeko, eta nere bu-ruari folio t'erdi jarri nion muga egunean eta batzutan eguardi artean bukatu nun folio t'erdia eta beste batzutan, arratsaldeko zazpiretan, oraindikan ez zegoen folio t'erdi txukunik. Eta ez neukan beste zeregi-rik. Hori da nere idazte erritmoa, beraz, ez da oso oparoa.

Batzutan, hori bai, idea sueltoren bat etortzen zait kalean, elkarriz-ketak entzunda, hortarako ez dakit zer den lehenago, ofizioak eraginda edo zaletasun hori daukadalako aukeratu dudan ofizio hau. Baina ni kalean nagoenean, edo autobusean, edo tabernatan beti aritzen naiz besteak hitzegiten dutena entzuten.

Gaur ere honea etorri naiz ordu erdi bat lehenago, jarri naiz han, disimulatu antzean, zergatikan klaro, bistan zegoen ni ez nintzela ikasle bat, eta saiatzen nintzan elkarrizketak harrapatzen, zertaz hitzegiten zuten nere aurretik pasatzen ziren gazteak eta zergatikan bakarrik zi-ren... Ariketa hori egiten dut.

Baina gehiena, hola datorkidan oihartzun orotatik aparte, eserita egiten den lan bat da. Lehen Joan Marik esan duen bezala, eta uste dut gainera danok gauza bera esango dugula. Eseri koadernoaren aurrean. Esaten dizuet, nik holako koaderno batean idazten dut zertaz, zer ida-tzi behar dudan jakin gabe ere, eseri, hartu koaderno eta hasi. Eta, hori bai, aurretikan orduak ditudala, ez ordu erdi baterako eta, ahal du-dan neurrian, etxean bakarrik nagoela.

Lehen aipatu dizuedan poema sorta hori, hasierakoa, idatzi nuen guztiz klandestinidadetan, inori esan gabe idazten ari nintzenik. Lehen esan dizuet nik pentsatzen nuela, ba hori, doai bat zela, gero halako batean ba, ni donostiarra naiz eta, gezurra badirudi ere, sasoi hortan Donostian euskaldun gutxi ginan eta horietako euskaldun talde batek argialetxe bat egin behar zuela eta norbaitek ezagutzen ninduen eta kontaktatu zuten nerekin jakin gabe nik horrelako zaletasuna ote neu-kan edo ez. Gauza da, argialetxe hori dela eta ezagutu nituela Ibon Sarasola, Ramon Saizarbitoria, Gabriel Aresti —horiek inportanteak ai-patzekotan— eta bertatik ikusi nituenean, derrepentean, iruditu zitzaid-dan haiek idazten bazuten ba nik zergatik ez! bainon ez nien esan.

Nik egiten nitun argialetxean lanak; pruebak zuzendu, liburuak bere azalean sartu eta seiloa jarri eta korreosera eraman..., eta inori ezer esan gabe idatzi nuen poema sorta bat.

Gainera, nik Arestirena egin nahi nuen, Arestik egiten zuena eta neurri batean Ibon Sarasolak egiten zuena; *ni naiz poema konstruktore* esaten zuen berak, ez? Eta hasi eta atera zitzaidan guztiz alderantzizko gauza bat, sasoiari egiten zan poesiarekin inongo zerikusirik ez zeuka-na, bainon atera zitzaidana. Eta orduan, nola ez nintzen lankideei era-

kustea ausartzen ba, Juan Marik egindako gauza bera egin nun, ta sari batera aurkeztu nun.

Orduan, saria irabazi eta izena egunkarian atara zenean Ibon Sarasolari deitu nion eta esan nion *hartu egunkaria, begiratu halako orrialdean*, eta esaten dit *aiba ze kasualitatea beste batek zure izen bera!* ez zuen susmatzen ere ni izan nintekeenik. Eta harrez gero, klandestinidade hori behar dut nik idazteko.

Ahal dela nik etxean bakarrik egon behar dut; seguru egon ez zaidala inor sartuko gelara ezta etxea gainera erortzen baldin bazait ere. Edo taberna bat; bakarrik nago, ta inguruan jendea dago baino jendea ez da nitaz arduratzen, ez didate hitzegiten...

Baino sekretotasun hori oraindik ez zait sendatu. Nik sekretuan idatzi behar dut. Eta gainera ez naiz gauza izan sekula nik idatzitakoa jendeari irakurtzeko, hola poesia emanaldietan da hola. Nik idazten dut irakurlea, irakurtzen ari denean, ni aurrean ez nagolako, bestela ez nuke idatziko. Eta oraindik ere ez dut aguantatzen inor nire aurrean nire zerbait irakurtzen hastea, debekatu egiten diot, egunkariko artikulua bat baldin bada ere. Hartu egunkaria ta itxi eta esaten diot *irakurri ni ez nagoenean*, neretzat hola egina dago eta esan dizuet ni ez naizela hornitologo eta ez dakit esplikatzeko.

Gero, etxean lan egiten dudanez, noizean behin korapilo bat gertatzen bazait, ez badakit nola atera nagoen lekutik, altxatzen naiz eta labadora martxan jartzen dut, edo erropa zabaltzen dut edo landareei ura botatzen diet, edo hautsa kendu... ez hori etzait gustatzen!, eta egiten dut holako zertxo bat. Eta batzutan etortzen zait ideia horretan ari naizen bitartean, beste batzutan eseri behar izaten dut berriro oraindik korapiloa askatu gabe.

Sekula ez gaeuz, lehenengo horregatik hain beste gauzetan da salbuespena poema sorta hori, orduan bai gaeuz egiten nuen, orain gaeuz ez, hobe goizeko seiretan gaueko hamarretan baino. Gaeuz, ba goizeko seirak gaeuz baldin badira bai, baino esan nahi dut, iluna denean baina goizean goiz.

Eta gero, idatziatakoari kendu eta kendu eta beste errepasso bat eta kendu, eta beste errepasso bat eta kendu eta argitaratu eta gero irakurriko banu, ez dudala sekula santan irekurtzen berriz idatzi dudana, seguru nago oraindik kenduko niokeela, hori ere nik mania bat dela uste dut, baina oso persona maitagarri batek esan zidan hori ez zela mania, hori estiloa zela eta izen horrekin eramangarriagoa egiten zait.

Ez dut hiztegirik erabiltzen ez bada idatzitakoa nola... ortografia kontutan esan nahi dut, eskuz hiztegirik gabe beti, gero ordenagailura pasatzerakoan batzutan ortografia zalantzak izaten ditut, oso txarra

naiz ortografian bai euskeraz eta bai erderaz eta behar izaten dut hiztegia, bainan horretarako.

Orduan, nik egingo ditut bi poema lan. Noizean behin poemaren bat egiten dut, hori bai atakeak emanda edo holako zerbait. Eta azken bolada hontan pentsatuak izan dira abestuek izateko eta momentu honetan abeslari batek ditu disko bat egiteko, nola ez dakidan aterako den edo ez, ateratzen bada enteratuko zarete, bestela nahiago dut ez esan.


Hortik aparte prosa lantzen dut. Orduan, nere sistema, sistema izan baldin baliteke da lehenengo istorio bat erabaki, erabaki zer kontatu nahi dudan, ez nere bizitza, inondikan ere ez nire bizitza lehenengo pertsonan kontatua baldin badago. Nere bizitza iruditzen zait oso gutxiri interesatzen zaiela, baina bai inguruko bizitza edo haria edo kakoa egon liteke nik ezagutu dudan norbaiti gertatutako zerbaitetan, hori, hurbilean harrapatzen dut generalean. Erabakitzen dut zer kontatu nahi dudan, nola hasi eta nola bukatu eta gero lanean hasten naiz.

Gero *Saturnon*, adibidez, ba aurreko lan horretan sei-zortzi folio izango ziren, protagonista hil egiten zen bukaeran, eta nobelak aurrera egiten zuen moduan nik ez nuen asmatzen nola demontre hil gizon hura. Eta esan nuen, *bueno ba segi, segi, segi, segi eta berez etorriko zaizu*, eta azkenean ez nuen asmatu nola hil. Heriotze bide guztiak eta denetatikan pentsatu nituen faltsuak iruditzen zitzaizkidan eta orduan hil aurretik eten nuen. Baina nire asmoa zen hil egiten zela.

Doinua, eta hor ez dut gehiegi aipatuko, Laurak oso ondo aipatu duelako, ezta? neretzat kontua da doinua. Eta doinua nik batzutan, gehienetan ez dut hasieratik, hasten naiz eta gero jardunean jardunean halako batean zati batek dauka doinu bat eta esaten dut *hauxe zen* eta orduan atzera egiten dut eta denari jartzen diot doinu hori eta erabakitzen dut bai presentean egingo dudan edo iraganean.

Azken bolada honetan oso interesatua nago presentean, gainera euskerak zailtasun handia dauka presentea adierazteko, benetako presentea adierazteko. Eta erderak edo inglesak ematen dutena euskerak ortodoksiaren barruan ezin dezake eman eta seguru asko, orain hastekotan nagoen lan batean eterodoksiara joko dut.

Nahi dut irakurri ahala gertatzen den istorio bat kontatu, mania hori daukat barruan. Badakizue istoria baina gainera irakurri ahala gertatzen denean, ez atzo ez orain dela ordu laurden bat baizik irakurtzen den bitartean ta horretarako euskeraz eterodoksia besterik ez dago. Pentsatzen dut doinua arkitzen baldin badut, lan egiteko nahiko indar eta nahiko animo behar adina ordu eserita egoteko lortzen baditut ba eukiko duzuela horren berri.



beeee

Truman Capote-ren *Gosaria Tiffany's-en*. Semantika bidetan

Patxo Fdez. de Larrinoa

Historiaren ezagutza: zatizkoa / guztizkoa

Arlo hau guri dagokigun nobelan zuzen-zuzenean garatu baino lehen, oinarritzat, egin beharreko lanaren azalpen bat egitea komenigarria izango litzateke:

Nobela diskurtsoak egituratze eta aurkezpen aukera desberdinak ditu. Narratzaileak erreferentziarekiko hartzen duen jokaeraren arabera bait da (hau da, historiaren gertaeren aurrean hartzen duen jokaeraren arabera).

Horrela ba, narratzaileak edo kontalariak duen historiaren ezagutza guztizkoa, zatizkoa edo nulua izan daiteke, historian parte hartu zein hartu ez.

Kontalariak dena dakienean omniszientea edo orojakilea dela esango dugu. Baina omniszientzia mota desberdinak daude eta omniszientzia desberdin hauek batera agertzerakoan omniszientzia totala edo guztizko omniszientiaren aurrean gaudela esan ahal izango dugu. Baina, omniszientzia, berez, zer da?

Narratzaileak pertsona normal batek jakingo lukeena baino gehiago dakienean omniszientea dela esango dugu; baina omniszientzia hau arlo desberdinetan ager daitekeela esan dugu, goazen ba omniszientzia mota desberdinak aztertzeraz.

Alde batetik, denpora omniszientzia dago: narratzailea denborarekiko guztiz omniszientea bada historiaren aurretik, historian zehar eta ondoren gertatutakoak ezagutuko ditu. Omniszientzia honen adibide legez, nik asmatutako zerbait jarriko dugu. Demagun nobela bateko narratzaileak hurrengo dioela:

«Aurrerago ikusiko dugun bezela Peiok ez du esandakoa beteko».

Adibide honetan narratzaileak orain aldiko perspektiba batetik geroari erreferentzia egiten dio, geroan gertatuko dena ere dakielarik, geroa oraindik heldu ez bada ere. Kasu honetan narratzailea denborarekiko omniszientea da, geroarekiko omnisziente hain zuzen ere. Lehen aldiarekin antzeko zerbait gertatuko litzateke.

Bestalde, omniszientzia espaziala ere izan daiteke. Narratzaileak une berean leku desberdinetan gertatzen dena badaki. Pertsona normal batek leku bakar baten (bera dagoen lekuan hain zuzen ere) gertatzen dena bakarrik daki, baina narratzaileak sarritan ez du jokaera hau hartzen, leku ezberdinetan gertatzen dena dakielarik. Txomin Agirrerren *Kresala* nobela edo elaberrian adibidez, Mañasi Bilbora doanean narratzaileak aldi berean Bilbon eta Arranondon gertatzen dena daki, ondorioz, espazioaren alde-tik Txomin Agirrek kontalari omniszientea darabil. Pertsona normal batek Bilbon ala Arranondon, leku bietarik baten gertatzen dana jakingo luke.

Omniszientzia denborala eta espaziala, beraz, azaldu ditugu. Bestalde, narratzaileak duen pertsonaiekiko ezagutzaren arabera hiru aukera daude:

- a) Narratzaileak pertsonaiek egiten dutena, diotena, pentsatzen dutena eta sentitzen dutena daki. Honi omniszientzia psikikoa deritzo. Kasu honetan narratzailea pertsonaien barruan sartzen da. Txillardegiren *Elsa Scheelen* liburuaren kontalari edo narratzailea mota honetakoa da: kanpotik diarduen narratzaileak edozein momentutan Elsak zer pentsatzen duen eta sentitzen duen daki eta halaxe kontatzen digu. Baina honetaz gain narratzaileak Elsak berak ere baino gehiago daki.
- b) Narratzailea pertsonaien kanpoan kokatzen da eta entzuten eta ikusten duena transkribatzen du, objetiboki zein subjektiboki egin dezakeelarik. Hau da, pertsonaiek diotena zuzen-zuzenean esan dezake edo bere interpretazioa tartean sartu dezake. Interpretazio emate honi omniszientzia semantikoa deritzo.
- d) Hirugarrenik, narratzailea historian parte hartzen duen pertsonaia izan daiteke beste pertsonaiekiko a) edo b) aukerak har ditzakeelarik, edo omniszientzia ez dan jarrera bat ere bai.

Dakusagunez, omniszientzia mota ezberdinetakoa izan daiteke: espaziala, tenporala eta psikikoa (omniszientzia semantikoa omniszientzia psikikoaren azpimultzo bezala kontsideratu ohi da eta guk ere halaxe kontsideratuko dugu).

Omniszientzia totala hiru omniszientzia hauek batera daudenean agertzen da.

Orain arte gehien bat omniszientzia landu dugu, hau da, guztizko ezagutza; bai denborarena, espazioarena eta psikikoa (totala baita).

Baina narratzaileak duen ezagutza zatizkoa ere izan daiteke: kasu honetan narratzaileak historiaren gertakizun zati bat daki. Guk jokaera honi erdi-omnizientzia deituko diogu. Eta omnizientzia arlo desberdinetan aurki bagenezakeen, erdi-omnizientziarekin ere gertatuko da: alde batetik erdi omnizientzia tenporala dago. Adibidez, hasiera baten narratzaileak ezagutzen duen lehen aldi bat konta dezake eta gero historia orain aldi progresibo batez osotu. Lehen aldian kontatutakoak omnizientzia kutsua edukiko luke eta orain aldi progresiboak ez, erdi-omnizientzia beraz.

Omnizientzia espaziala zegoen bezela, erdi-omnizientzia espaziala ere egongo da. Adibidez, historiaren bilakaera leku desberdin bitan gertatua, narratzaile nagusia leku baten egotea eta beste tokian beste bigarren narratzaile bat sortzea erdi-omnizientzia jokaera izango litza-teke.

Azkenik, pertsonaiekiko ere narratzaileak erdi-omnizientzaren jokaera har dezake. Bestalde, narratzaileak hirugarren jokaera nagusi bat har dezake, ezer ere ez dakienaren jokaera, hain zuzen ere. Hau enuntziatua eta enuntziatua guztiz parekatuz edo narrazio eta metanarrazio baten bitartez egin daiteke.

Azken baten aukerak ugariak direla esan dezakegu, nobelak bezain ugariak ia ia.

Bestalde, narratzaileak duen historiaren ezagutzak pertsonaiengan, leketan eta denboran eragina du. Hau da, hartzen den jarrerak diskurtsoaren espresioa eta adierazpen mota baldintzatuko du; noski, beti ere askatasun tarte bat dagoelarik.

Baina idazleak historia kontatzeko aukeratzen duen modua edozein izanik ere, zera kontutan hartu behar dugu: aukera hau idazleak irakurleengan inpresio konkretu bat sortzeko aukeratu duen aukera da, hau da, errekurtsioak semiotizatuta daude, nobelari eduki semantiko bat eman nahi diotelarik.

Orain arte sarrera honetan esandako guzti hau guri aztertzea dago-gigun Truman Capote-ren *Gosaria Tiffany's-en* nobelan aplikatzen saiatuko gara.

Lehenengo eta behin eta azterketa aurrera joan ahala gauzak ahalik eta argien euki ditzagun, kontalaria edo narratzailea zer-nor den argituko dugu. Dakigunez, kontalaria historiaren barrutik gauzak kontatzen dituen alegiazko igorlea da.

Gosaria Tiffany's-en nobelan narratzailea ekintzan parte zuzena hartzen duen pertsonaia da (zerbaitetarako balio badu, ni = narratzaile identifikazioa hartzen duela esango dugu). Bestalde, kontutan hartu beharko genukeen beste gauza bat zera da: historia narratzaileak berak idazle moduan idatzi duen testu bat dela. Hau da, narratzaileak libu-

ruaren hasieran irakurleok irakurtzen gabiltzana bera idatzitako historia bat dela adierazten du:

«Egun haietan ez zitzaidan inoiz bururatu Holly Golightly-ri buruz idazterik, eta orain ere ez zitzaidan bururaturiko, Joe Bellekin izan nuen elkarrizketa gertatu ez balitz, horrek berritu bait zuen Hollyren oroitzapen osoa» (7-8).

Ondorioz, narratzaileak gertaturikoak lehen aldiak kontatzen ditu, eta nolabait gauzak egituratuta emango dizkigu. Narratzaileak berari interesgarri zaizkion gauzak kontatuko ditu, gauza hauei antolamendu jakin bat ematen dielarik. Honek ez du, ordea, narratzailea omniszientea denik esan nahi, ezta gutxiagorik ere, aurrerago ikusiko dugun bezala. Lehenengo eta behin narratzaileak pertsonaiekiko duen omniszientzia (psikikoa, semantikoa...) edo ekiszientzia (omniszientzia ez) aztertuko dugu. Esan dudak bezala, narratzailea pertsonaia bat da.

Hau da, lehen aipatu ditugun hiru aukeretatik d) aukeraren aurrean egongo ginateke. Narratzaile horrek lehenengo pertsonan idazten du. Bere barne mundua, sentimenduak eta berari dagokion guztia daki, noski.

«-o, edozertara ohitzen zara— esan nuen, nire buruarekin haserre, izan ere, harro nengoan leku hartaz» (21).

Bere buruarekin haserre eta leku hartaz harro dagoela berak bakarrik daki, ez beste inork. Honek ez du narratzailea omniszientea bihurtzen, norberaren sentimenduak eta barru mundu guztiak denok ezagutzen ditugulako.

Baina arazorik interesgarriena narratzaileak beste pertsonaiekiko duen jokaera da: Beste pertsonaien barruan sartzen da? Nondik eta zelan ezagutzen ditu?

Truman capote narratzaile objektibo bat sortzen saiatu da, elaberri modernoetako narratzaile gehienek modukoa edo parekoa, hain zuzen ere. Nobela honetan narratzailea omniszientea edo orojakilea ez izaten ahalegintzen da. Hau da, normalean beste edozein pertsonak bere egoeran egonda jakingo lukeena daki. Adibide batzuren bitartez arazoa argiagoa ikusiko dugu.

«Hosto batekin bueltaka ihardun zuen, nola erantzun asmatu ezinik bezala» (8-9).

Adierazpen honekin narratzailea beste pertsonaia barruan sartu da? Ez. Beste pertsonaia barruan ez sartzea «bezala» partikularekin

lortzen du. Honela ez du ezer ziurtatzen; berak ez du objetiboki ez dakiena ziurtatzen. «Bezala» moduko partikulen erabilera ugaria da:

«—bazirudien Joe nire etsipena bere gainean sentitzen hasia zela, eta ez zela halatarik nahi—» (12).

Berak ez daki Joeri gertatzen zaiona ziur egia den edo ez eta arazoa «bazirudien» partikularekin konpontzen du.

«—Isildu egin zen, nire begiratua nabarmenega gertatuko balitzαιο bezala—» (13). Aurreko adibidearen antzeko jokoa.

«Mr. Yunioshiri agindutakoa bete egin zuen, edo hala uste dut nik behintzat» (17).

Narratzaileak ezin du ziurtatu, eta ondorioz, uste duela dio.

«Bestelako harremanik ez genuen, jakina. Nahiz eta eskilaretan, kalean, sarritan egiten genuen topo baina ez zirudien ikusten ninduenik ere» (18).

«Desilusionatua zirudien» (21). «Espresiorik gabe begiratu zidan eta sudurra igurtzi zuen, kilimak balitu bezala...» (23).

«Asperturik zegoen Hautsontziko zigarrokinak apartatzen zituen, azkazalei begiratzen zien, lima bat ez edukitzeaz penaz balego bezala; okerrago, interesaturik neukala zirudienean, laino esanguratsu bat zuen begietan, eskaparateren batean ikusitako oinetakoak erostea ala ez erabakitzen ari balitz bezala» (24).

«Ez nuen ez ikusi ezta entzun ere, eta beheko giltza lortzera ailegatu izango zela pentsatu nuen» (30).

«Ez dago hortik aterako duenik —eskua itxi zuen, ukituezinezko zerbait hautsi nahi balu bezala» (33).

«Bazirudien anfitrioiak tabernatik tabernara ibiliz zabaldu zituela gonbiteak; eta halaxe zen seguraski» (37).

«Hollyren apaleko beste liburu garrantzitsua, eta itxuraz behintzat Hollyk ebakinen gordeleku gisa erabiltzen zuena» (39).

«—Gose naiz —adierazi zuen, eta ahotsak, gainontzekoa bezala umetua, haur intziri larri bat egin zion, errua Hollyri leporatuko balio bezala» (42).

«—Ez nauzu maite —kexatu zen, bakarrik baleude bezela» (43).

«Busty Tawlerrek barre egin zuen disimuloz. Beso bat estutu zion, giharreak mirestuko balitu bezela, eta kopa bat edango ote zuen galdetu zion» (45).

«Festan geratzen zirenak atean zain zeuden, eta neska aspergarri hura ez baitzen mugitzen, begiratu bat egin zidan Hollyk, barkamena eskatuz bezala» (5/).

«Beharbada, atzerrian gaudenean gehienak bezala, ez zen jendea kokatzeko gauza, hoiien argazkirako markoa asmatuz, bere herrian egingo lukeen moduan» (57).

«Berarekiko adoztasuna eskatzen zidala zirudien» (70).

«Burua agertu zen barandaren gainetik eta Hollyk atzera egin zuen ez ikaratu balego bezala, aldiz, desilusioaren oskolean gordeko balitz bezala» (71).

«Hollyk harriduraz begiratzen bait zion gizona non kokatu ez baleki bezala» (71).

«Halaxe zirudien, Hollyren apartamenduan tigreak askatuta balebiltza bezala» (75).

«Guzti horrek ez zuen esan nahi bizitzan interesik galdu zuenik, aitzitik kontentuago zirudien, inoiz ikusi nuen baino zorionsuago hain zuzen ere» (79).

Adibide gehiagorik ere badago.

Ondorioz, narratzaileak beste pertsonaien interpretazio txiki bat egiten duenean ez du ezer ziurtatzen, berari horrela iruditu zaiola baino. Beraz, narratzailea ez da beste pertsonaien barruan sartzen, ez da omnisziente psikikoa.

Hurrengo adibidearen bitartez arazoa erabat argituko da. Har dezagun liburuaren elkarrizketa bat:

«Zergaitik bidaiaria?

—Nire txartelean? —galdetu zidan harriturik— xelebrea iruditzen zaizu ala?

—Xelebrea ez probokatzailea.

Harridura keinu bat egin zuen.

Izan ere, nola dakit nik non biziko naizen bihar?

Horregaitik, bidaiaria jartzeko esan nien. Nolanahi ere, dirua alferrik galtzea izan da, txartel horiek egin erazia. Baina zertxobait erostea zor niela iruditzen zitzaidan, hori bai. Tiffany'skoak dira —nire martinia hartu zuen, ikutu gabe neukan...» (44).

Narratzaileak elkarrizketan parte hartzen du eta beste elkarrizketa-kideari buruz dakiena bere egoeran beste edonork jakingo lukeena da. Ez du omniszienteki jokutzen.

Narratzaileak beste pertsonaiekiko hartu duen jokaera zer nolakoa den aztertu dugu, baina dakigunez, beste omniszientzia (edo omniszientzia eza) mota gehiagorik ere badago. Orain narratzaileak duen denboraren ezagutza aztertzen saiatuko gara.

Oinarrian zera kontutan hartu behar dugu: Idazketa denbora diskurtoaren desenlaze ostekoa da, hau da, narratzailea idazten hasi baino lehen historia gertatu dago eta narratzaileak historia hori ezagutzen du: 2 «Egun haietan ez zitzaian inoiz bururatuko Holly Golightlyri buruz idazterik, eta orain ere ez zitzaidan bururatuko» (7).

Ondorioz, narratzaileak historiaren bere egituraketa pertsonala egiten du, nahi duena kontaktzen duelarik eta nahi ez duena ez. Honek ez du narratzailea subjetoa denik esan nahi. Gure narratzailea objektua izaten saiatzen da, baina zenbait kasutan (oso gitxitan bada ere) bere eskua gehiegi sartzen uzten du:

«Ondoko asteek nire egun larri propioak ekarri zizkidaten. Haste-ko, lanetik bidali ninduten; merezita, hemen kontatzeko nahasegia den jarrera oker eta xeble batengatik» (74).

Hau da, narratzaileak nahi duena idatzi dezake. Hurrengo adibide honetan ere gauza bera soma daiteke:

«Hala ere, tabakozko tapioka izeneko zerbaitekin egin zituen saioak: hobe da ez deskribatzea» (80).

Hurrengo adibidean ere: «Hobe da halaber portugesa menperatzeko egiten zituen ahaleginak ere ez deskribatzea» (80).

Narratzaileak darabilen iraganeko denporaren erabilera antolaketa propio honen adierazgarri da.

«Hirukote italiarrak maitale krisi bat imaginatzen zuen, eta, Hollyren intzirien errua bere lekua uste zuten hartan jarriz, niregana bihurtu zituzten mihiak.» (98).

Ondorioz, narratzaileak edozein momentutan historia osoa ezagutzen du. Historia kontaktzen hasterakoan amaiera badaki. Nolabait esateko, omniszientea da. baina, narratzailea ezagutza horretaz baliatzen da? Omniszienteki jokutzen du? Hala ez da ezagutza horretaz baliatzen?

Normalean ez, nobela moderno gehienetan gertatzen den bezela. Ideia hau adibideen bitartez aztertuko dugu. Goazen 31. orrialdera. Narratzailea (era berean pertsonaia dana) Holly-ren etxera edo apartamendura doa eta gizon batek atea zabaltzen dio. Narratzaileak ez du holako zerbait esaten: O.J Bermanek atea ireki zidan. Idazteko momentuan narratzaileak badaki gizon hura O.J Berman dela; baina atea zabaltzeko momentuan ez, eta horregaitik momentuaz ez du izenik aipatzen. Narratzailea historia bere garaian antzeman zuen bezala idazten edo kontaktzen ahalegintzen da, idazterako momentuan historia guztiaren ezagutzak ematen duen omniszientzia erabili barik. Kokaera objektibo hau nobelan zehar nagusi da eta idazleak horrela jokatu nahi duela igarri ere egiten da. Frogapenerako beste adibide bat erabiliko dut (adibideak frogapenerako biderik onena dira eta):

Narratzaileak behin gizon bat ikusten du eta ikusi bezain laster zera dio:

«Gizonaren izena Rutherford (Busty) Trawlwr zen. 1908.ean bere gurasoak galdu zituen, anarkista baten biktima aita eta ondoko inpresioz ama, eta zorigaitz bikoitz honek umezurtz, milionari eta ospetsu bihurtu zuen, bost urte zituela dena. Orduz geroztik baliapide erosoak izan zen egunkariaren igandetako osagarrietan, eta oraindik eskola umea zela iritsi zuten albisteek unerik goren eta zalapartatsuenak, bere zaindaria atxilotzea lortu zuenean, sodomia karguarekin. Ondoren, ezkontza eta dibortzioen bidez lortu zuen egunkarietako eguzkien azpian bere lekua mantentzea. Lehen emaztea, eta bere pentsioa, Father Divinaren arerio batengana joan ziren. Bigarren emazteaz ezer ez dagoela dirudi, baina hirugarrenak dibortzio demanda jarri zion, erabakiorrak gertatzen diren lekuko pila batekin.

Azken Miss Trawlerrengandik gizona bera dibortziatu zen, emazteak motin bati hasiera eman ziola izaki kexu nagusia, aipaturiko motinaren ondorioz bera Dry Tortugas uharteetan utzia izan bait zen. Nahiz eta ezkongabea izan orduz geroztik, gerra aurretik Unity Mitfordekin ezkondu nahi izan omen zuen, edo behintzat telegrama bat bidali omen zion berarekin ezkontzea eskeiniz Hitlerrekin ezkontzen ez bazen. Horregaitik deitzen omen zuen beti Winchellek Nazi; horregaitik, eta Yorkvilleko mitinetara joaten zelako.» (38-39).

Gizon bat ikustearekin batera berari buruzko informazio guzti hau ematea omniszientzia hutsa da; baina idazleak ez du omniszienteki jokatzen nahi eta ondorioz, esan duena justifikatzeko aitzaki bat jartzen du:

«Gauza guzti hoiak ez zizkidaten kontatu. Saskibaloi aurkitegian irakurri nituen Hollyren apaleko beste liburu garrantzitsua...» (39).

Narratzaileak momentu labur horretan guzti hori irakurri duenaren itxura egiten du. Joko hau omniszientzia apurtzeko darabil.

Hala ere, zenbait adibideetan ez du omniszientzia guztiz estaltzen:

«Keinu hura, sarritan errepikatua ikusirik, bere gauzatan gehitxo sartzen ari nintzelako seinaleztat hartzera heldu nintzen.» (23).

Narratzaileak esaldi hau Hollyren keinua lehenengoz ikusten duenean esaten du ondorioz etorkizunean gertatuko denaren ezagutzarekin jokatzeko du.

Ondorioz, historiako edozein momentu kontatzen duenean hortik historia amaitu arte gertatuko dena ezagutzen du baina ezagutza horretaz ez baliatzen ahalegintzen da. Ezagutza honetaz gain ez dauka denborari gagozkiolarik beste ezagutza berezirik.

Orain, narratzaileak duen espazioaren ezagutza aztertzeraz jo dezagun. Aurrerago idazketaren denbora diskurtsoaren desenlaze ostean gauzatzen dela esan dugu eta narratzaileak duen denboraren ezagutza aztertzeko oso kontutan hartu dugun elementua da. Narratzaileak duen espazioaren ezagutza aztertzeko, ordea, honek ez du horrelako garrantzirik edukiko. Zergaitik ordea? Ba, kasu bakoitza aztertzerakoan denbora unitate berdin baten egongo garelako. Hau da, guk oinarrian, narratzailea momentu konkretu batetan espazio ezberdinak ezagutze-ko gai den edo ez aztertu beharko dugu.

Guri aztertzea dagokigun nobela edo elaberrian narratzailea espazio bakar batera mugatuta dago, bera dagoeneko espaziora hain zuzen ere. Azalpena adibideen bitartez egingo dugu:

Holly bere anaiaren heriotzaren berri hartzerakoan oso urduri jarzen da eta bere apartamenduan dagoelarik itzelezko iskanbila sortzen du. Narratzailea apartamenduaren kanpokaldean dago:

«—Azkar —esan zuen— joan eta polizia ekarri. Norbait hiltzen ari da hori! Norbait bera ari da hiltzen!

Halaxe zirudien, Hollyren apartamenduan tigreak askatuta balebiltza bezala. Izugarrizko iskanbila, kristal hautsiak, erorketak, altzariak ipurdiz gora. Baina durrunda haren barruan ahotsak garrasika ez entzuteak bitxia egiten zuen guzti hura.» (76)

Narratzaileak kanpokaldetik somatzen duena transkribatzen du. Espazioari dagokionez omniszientea izango balitz bera kanpoan egon arren barruan gertatzen den guztia jakingo luke.

Doc Golighl (Hollyren senarra edo) Holly bisitatzen edo ikusten doanean:

«—Hara, Lulamae —hasi zen, eta duda egin zuen, Hollyk harriduraz begiratzen bait zion, gizona non kokatu ez baleki bezala. —Kaixo, maitea —esan zuen gizonak—. Ez al dizute jaten ematen hemen? Hain zaude argala. Ikusi zintudan lehenengo aldian bezala. Ero begiekin.

Hollyk arpegia ukitu zion, okotzaren errealtatea probatu zuen hartzez, bizar hazia.

—Kaixo Doc —esan zuen atsegin, eta musu eman zion masailan.

—Kaixo Doc —esan zuen berriro, eta gizonak altxatu egin zuen eta saihets hezurak hausteko moduan besarkatu.

Lasaitasun barreak poz dardarak eragiten zizkion Doc-i.

—Hara Lulamae. Erresumatik etorria.

Ez bata ez bestea ez ziren nirekin konturatu pasa eta nire gelara igo nintzenean. Ezta Madame Sapphia Spanellerekin ere nonbait, atea ireki eta,» (71-72).

Narratzaileak, Doc eta Hollyren ondoan dagoen bitartean, zer ikusten duen deskribatu dezake, baina euren ondotik igarota bere aparta-

mendura doanean temaz aldatu behar du, jadanik beste espazio baten dagoelako. Honek objetibotasuna dakar (idazleak nobela objetibo bat eraiki nahi du).

Baina badu azken alderdi honetan akatsik ere:

«Ordurako utzia nuen ohea, eta atea apur bat zabaldurik neukan. Mr. Yunioshiren isiltasuna entzun nezakeen: entzun, arnasaren aldaketa nabari bat izan bait zen isilunean.

—Noiz? —galdetu zuen. Neskak barre egin zuen.

—Noizbait —erantzun zuen, hitza luzatuz.

—Edonoiz —esan zuen gizonak, eta atea itxi zuen.

Sarrerara irten nintzen eta baranda gainetik makurtu nintzen juxtu-juxtu ikusia izan gabe neuk ikusi ahal izateko moduan. Eskilaretan zegoen orain, bere pisura ailegatu zen, eta argiak han Hollyren mutil ilearen koloreak argitu zituen, desberdinak, ile-xerlo albinoak eta horiak. Gau beroa zen, uda ia, eta berak soineko beltz fresko bat zerman, sandalia beltzak eta perlazko koilarea. Argaltasun dotore harekin ere, zerealak gosaltzen dituenaren osasun itxura zeukan, limoizko jaboiren garbitasuna, baserri koloreko masail gorriak. Ahoa zabala zuen, harroa sudurra. Betaurreko ilunek izkututzen zizkieten begiak. Hautzaroa atzean utzi duen aurpegia zen, baina hala ere emakume izatera ailegatu gabe. Hamasei urtetatik hogeitamar bitartera edonor egon zitekeela jo nuen...» (15-16).

Narratzaileari Hollyren eta Yunioshiren arteko egoera eta Holly bera deskribatzea interesatzen zio. Baina gauza hoiek ikusten ez baditu eta espazioari dagokionez jokaera ez-omniszientea hartu nahi badu ezin du hori egin, ondorioz, asmatzen duen erremedioa atea pixka bat zabaltea eta gero eskilaretara (berak gauzak ikusi ditzakeen baina besteek bera ikusi ezin duten tokira) joatea da. Atea pixka bat zabalik edukitea edo eskilaretan egotearekin hanbeste gauza ikusi eta somatu izatea ia ezinezkoa da, baina omniszientzia apurtzea lortzen da.

Hurrengo adibidean antzeko zerbait gertatzen da:

«Udazkeneko egun epel horietako bat izan zen igandea, eguzkiak gogor jotzen zuen, leihoa zabalik neukan, eta ahotsak entzun nituen sute ihespidean. Hantxe ziren Holly eta Mag etzanda izara baten gainean zangoak zabaldua katua bien artean, Ilea, garbitu berria, leunki zintzilik zuten. Lanpeturik zebiltzen, Holly behatzak margotzen eta Mag jertze bat egiten.

—jakin nahi baduzu, zo-zo- zoriotsua zarela uste dut. Bustyk badu behintzat gauza bat bere alde. Amerikarra da.

—Horixe gauza ederra!

—Aizu maitea, gerran gaude.

—Eta bukatzen denean, agur eta ikusi arte...» (49).

Narratzailea sute ihespidean edo leihoan dago eta gauza guzti hoiek ikus ditzake. Neskek ordea, ez dute bera ikusten; hala ere, jokiera honek ez du omniszientzia ezer apurtzen.

Ondorioz, espazioari dagokionez ez da omniszientea. Beste edozein pertsonak bere egoeran egonda zentzuen bidez jasoko lukeena bakarrik ezagutzen du. Ondorioz, nobela honetako naratzailea ez da omniszientea, alderdi gehienetan omniszientea ez delako.

Gertakizunen aurkezpena: eskenikoa edo panoramikoa

Narratzaileak duen historiaren ezagutza edozein izanda ere gertakizunak modu bitara aurkez ditzakeela esan ohi da: eskenikoki edo panoramikoki. Orain bi aurkezpen hauen ezaugarriak eta euren arteko ezberdintasunak aztertuko ditugu.

Gauzak argi edukitzea zenbait elementu desberdin beharko genituzke. Narrazioaren barruan diskurtso mota bi daude: naratzailearena edo pertsonaiarena. Honetaz gain, diskurtsoan errelatuak bi izan daitezke, edo errelatu materia bi hobeto esanda: ekintzena eta hitzena. Gertakizunen aurkezpen eskenikoan naratzailearen diskurtsoa desagertzen da, bere ordean pertsonaien diskurtsoa dagoelarik. Honetaz gain, gertakizunen aurkezpen eskenikoan ekintzen errelatua alde batera utzita pertsonaien hitzen errelatua nagusi da.

Nobelek aurkezpen eskenikoan pertsonaiek esandako hitzak transkribitzen ditu. (Lubbock-en ustez nobela batentzat den onena den aurkezpen mota, aurkezpen eskenikoa da).

Baina gertakizunen aurkezpen eskeniko hau literatur arteak darabil-tzan aukera semikoek mugatuta dago; hau da, arte idatzia den nobelan elkarrizketaz gain objektuak deskribatu behar dira, mugimenduak, gestuak... eta aurkezpen eskenikoak ezin du guzti hori egin, naratzailearen parte hartzea beharrezkoa delarik. Hau ikusita aurkezpen eskenikoa edo narrazio mimetikoa (aurkezpen eskenikoari narrazio mimetikoa ere deritza) elkarrizketara mugatzen dela esan dezakegu.

Baina elkarrizketan ere zenbait kasutan naratzailearen presentzia beharrezkoa da, nork hitz egiten duen jakiteko adibidez.

Ondorioz, mimesis maila desberdinak egongo dira. Genettek hiru aukera desberdintzen ditu:

- a) diskurtso errepikatua: diskurtso mota honek pertsonaiaren (edo pertsonaien) hitzak pertsonaiak esaten dituen bezala transkribatzen ditu, naratzaileak parte hartzen ez duelarik.
- b) diskurtso aldatua / ekarria: pertsonaiaren hitzak pertsonaiak esaten dituen bezala eta naratzaileak egiten duen euren transmi-

sioa. Hau da, pertsonaiaren hitzak narratzailearen diskurtsoaren barruan egongo lirateke.

- c) diskurtso narratibizatua: kasu honetan narratzaileak pertsonaien hitzak beste elementu baten moduan hartzen ditu eta euren moldaketa pertsonala egiten du.

Aipaturiko hiru diskurtsoen artean lehenengoa da mimetikoena eta hirugarrena gitxiena. Gaur egun kritikari gehienek a) eta b) diskurtsoak aurkezpen eskenikoaren barruan sartzen dituzte eta c) ez.

Aurkezpen eskenikoa nahiko sakonki azertu ondoren aurkezpen panoramikoa zertan datzan esaten saiatuko gara. Aurkezpen panoramikoan diskurtsoa narratzailearena da eta errelatua ekintzena da. Aurkezpen panoramikan narratzailea jaun eta jabe da, espazioa, denbora eta hizkuntza berak nahi duen bezala aurkeztu eta interpretatuko ditu. Beharrezkoa bada denbora eta espazioa modifikatuko ditu; eszenak laburtu ditzake, luzatu, errepikatu... Narratzaileak beti ere bere asmoen arabera jokatu du, narrazioaren elementuen antolaketa pertsonala egingo duelarik.

Eskenak pertsonaiaren eta irakurlearen arteko aurkezpen zuzena eskatzen duen bitartean panoramak urruneko aurkezpena eskatzen du. Eskenak narratzailearen alboraketa eskatzen duen bitartean panoramak narratzailearen edo kontalariaren zuzendaritza eskatzen du.

Bestalde, eskenak progresioan dagoen denbora presentea (orain aldia) eskatzen duen bitartean (progresioan ez dagoen denbora presentea deskripzioak eskatzen du) panoramak progresioan dagoen lehen aldia eskatzen du.

Baina esan ditugunak esanda, ez dezagun panoramak pertsonaien hitzak adieraz ez ditzakenik pentsa; aurkezpen panoramikoak pertsonaien hitzak transkribatu ditzake, baina modu indirektoan, hau da, narratzailearen eskua tartean delarik.

Laburpen gisa zera esan genezake: aurkezpen eskenikoaren ezaugarri nagusiak pertsonaiaren diskurtsoa, orain aldia eta hitzen errelatua dira. Aurkezpen eskenikoan aurrerago aipatu ditudan a) eta b) mimesi mailak sartuko lirateke. Eta aurkezpen panoramikoaren ezaugarri nagusiak autorearen diskurtsoa, lehen aldia, ekintzen errelatua dira; c) mimesi mota honetan sartuko litzateke.

Baina arazo garbi bat dago: lehen esan dudanez, nobela batek ezin du pertsonaien hitza bakarrik transkribatu, beste zenbait elementu (gauzen deskribapena, mugimenduak, gestuak...) ere landu behar ditu. Ondorioz, nobela bat ezin izango da bere osotasunean eskenikoa izan. Hau dela eta, askotan, benetako aurkezpen eskenikoaren izate bera zalantzan jarri da.

Orduan, nobela batek daukan joera (eskenikoa edo panoramikoa) ikusteko bertan egiten den pertsonaien hitzen transkribaketara jo

beharko dugu, deskripzioak bezalako beste zenbait elementu albo batera utzita.

Orain artean teoriar eremuan aritu gara eta hau dela eta esanda-koan nobela ezberdinetan frogatzen saiatuko gara.

Har dezagun Ramon Saizarbitoriaren *Egunero hasten delako* nobelaren zati bat:

«—Ez, eskerrik asko benetan.

—Oraindik ere Gisèle-rekin?

—Ez... beno pena ematen zidak. Ez duk besteak bezalakoa.

—Beno. Hik berarekin oheratzeko gogoia huen, egin huen eta indartu gabe noski...

Aurrera itzak bakantzak eta etxera hadi... inteligentzia apur bat baldin badu konprenituko dik... nik hartuko dizkiat unibertsitateko firmak.

—Bai hori eginen diat seguruen...

Hiri erdian daude, Jean Louisek kotxea gelditzen du.

—Non nahi duk gosaldtu?

—Edozein lekutan. Neskak mila txorakeria egiteko kapaz dituk eta horrek ematen zidak...

—Beno hi... Non kristo gosaldtu diagu?» (75).

Testu honetan narratzailearen parte hartzea minimoa da, behin bakarrik parte hartzen du, beharrezkoa den informazioa emateko modu bakarra bera delako.

Aurkezpen mota hau argi eta garbi eskenikoa da; aurkezpen, eskenikoaren ezaugarri nagusiak ondo betetzen dira: pertsonaien diskurtsoa, orain aldia eta hitzen errelatua. Aurkezpen panoramikoa holako zerbait izango litzateke: *Mauricek Jean Louisi ezetz esan zion, eta eskerrik eman zizkion. Ondoren Jean Louisek Mauriceri ia Gisélerekin oraindik ote zebilen galdetu zion...*

Esan dudana bezala adibidea guztiz eskenikoa da, baina aurkezpen eskenikoak narratzailearen parte hartze handiagoa ere onartuko luke:

«—Ez, eskerrik asko benetan —esan zuen mauricek.

—Oraindik ere Giselerekin? Galdetu zuen Jean Louisek, kotxea ezkerretara biratuz...»

Hori ere eskenikoa izango litzateke.

Oraingoan har dezagun Martin Ugalderen *Itzulera baten historia* nobela:

«Zuzendariak, estudioko gelan zaingoan zegoen mojarri aurkeztu ninduen, han zeuden nesken milaka begi ikusbera niri begira, eta hertsik, gupidarik gabe aztertzen.

Ordubeta geroago, atsedenaldia eman zutenean, klase guztiaz inguratuta aurkitu nintzen, hasi zen nire galbarioa!; alderdi guztietatik galderek eta keinuek ez zuten nigandik mutu geratzea besterik lortu» (69-69).

Aurkezpen hau panoramikoa da. Ekintzen errelatua, lehen aldia... eta narratzailearen hitza nagusitzen dira.

Jarraian *Gosaria Tiffanys-en* nobelaren gertakizunen aurkezpena aztertuko dugu. Dakigun moduan, gertakizunen aurkezpen eskenikoa literatur arteak darabiltzan aukera semikoek mugatuta dago.

Honela ba, arte idatzia den nobela batean elkarriketaz gain objektuak deskribatu behar dira, ekintzaren bilakaera azaldu... Ondorioz, nobela bat ez da guztiz eskenikoa izango, hainbat kasutan aurkezpen panoramikoa behar beharrezkoa delako. *Gosaria Tiffanys-en* nobelan ere antzeko zerbait gertatzen da. Hona hemen nobela honetatik ateratako aurkezpen panoramikoaren adibideren bat:

«Santu guztien egunerako prest paperezko kalabazaz eta maskaraz gainezka zegoen mostradorea esploratu zuen. Saltzailea maskarak probatzen ari zen moja talde batekin zebilen. Hollyk maskara bat hartu zuen eta aurpegian jarri: beste bat aukeratu eta nirean jarri zuen, orduan eskutik heldu zidan eta kanpora joan ginen. Hori bezain sinplea izan zen. Kanpoan, korrika egin genuen puska batean, dramatis-moa gaineratu nahian uste dut; baina, baita ere, orduan jakin nuenez, arrakasta duen lapurretak euforia dakarrelako. Sarritan lapurtzen al zuen galdetu nion.» (56).

Testu honetako aurkezpen mota aurkezpen panoramikoa da. Aurkezpen panoramikoaren ezaugarri nagusiak gogora ditzagun eta ia testu honetan dauden ikus dezagun: diskurtsoa narratzailearena dela argi dago. Narratzailea jaun eta jabe da elementu desberdinak (denbora, espazioa...) berak eraiki dituelarik. Bestalde, kontatzen zaiguna ekintza bat da: denda baten egin zuten lapurketa. Hirugarrenik, progresioan dagoen lehen aldian kontatutako ekintza da, hau ere aurkezpen panoramikoaren berezko ezaugarria.

Nobela honetan aurkezpen panoramikoaren horrelako adibideak aurkitzea oso erreza da, hona hemen beste adibide bat:

«Kale kantoira abiatu nintzenean, ekialdera Hamburg Heavenez Hirurogeita Hamabi eta Madison kaleen artean, gizonaren atenzioa nigan jarria zegoela sentitzen nuen. Geroago ere, burua jiratu gabe, banekien atzetik segika nuela gizona. Izan ere, txistu joka zihoa entzun nezakeen» (65).

Hemen ere ekintzen errelatua, narratzailearen diskurtsoa eta progresioan doan lehen aldia nabari dira, aurkezpen panoramikoaren ezaugarriak hirurak ere.

Ondorioz, nobela ez da guztiz eskenikoa, ezta gutxiagorik ere eta autoreak duen eskenikotasun maila zein den zehazteko elkarrizketen azterketara edo hitzen transkribaketara jo beharko dugu.

Baina elkarrizketak zuzenean aztertu baino lehen gauza pare bat argi edukitzea gustatuko litzaidake. Nobela baten narratzailea edo kontalaria nobelaren barrutik gauzak kontatzen dituen alegiazko igorlea da eta guri aztertzea dagokigun nobelan narratzailea ekintzan parte hartzen duen pertsonaia da; hau da, narratzailea pertsonaia bat da. Honek desberdinketa bat egitera garamatza. Narratzailea narratzaile moduan eta narratzailea pertsonaia moduan. Aurretik aipatu ditudan adibide bietan narratzaileak narratzaile moduan jokutzen du. Baina har dezagun beste adibide hau:

«—Beno, gizon asko horrelakoak balira, ez nioke nik esker handirik emango jainkoari.

—Esan nahi nuen jainkoari eskerrak ez duzula Mr.Trawlwrrekin ezkondu behar.» (44).

Adibide hau nobelako elkarrizketa baten zati bat da. Bigarrenik hitz egin duena narratzailea da, baina pertsonaia baten moduan jokutzen duelarik, ez narratzaile moduan. Kasu honetan narratzailea pertsonaia huts bezala kontsideratuko dugu, ez narratzaile bezela. Desberdinketa hurrengo adibidearen bitartez argiago geldituko da:

«—Baina zergaitik? —Jakin nahi izan nuen— Zergaitik sortu behar zuen ba halako iskanbila Rustyrengeatik? Bere lekuan, ni poztu egingo nintzateke» (78).

Azken adibide hau elkarrizketa bateko zati bat da. Hitz guztiak narratzaileari dagozkio baina jarrera bi desberdin ditzakegu: «—jakin nahi izan nuen—» Zatian narratzaileak narratzaile moduan jokutzen du eta beste zati guztian narratzaileak pertsonaia baten moduan jokutzen du, lehenengo kasuan narratzailea delarik eta bigarrenean pertsonaia.

Jakin edo gogoratu behar dugun bigarrenengo gauza zera da: narratzaileak testua idazten hasterakoan historia guztia ezagutzen duela onartzen du. Ondorioz, honek narratzaileak egiten duen diskurtsoaren antolaketa propioa, narratzailearena dela esan nahi du gauzak hein handiago edo txikiago batetan antolatuak dituelarik:

«Egun haietan ez zitzaidan inoiz bururatu Holly Golightlyri buruz idazterik, eta orain ere ez zitzaidan bururatuko, Joe Bellekin izan nuen

elkarrizketa gertatu ez balitz, haretzek berri bainu zuen Hollyren orotzapen osoa.» (8).

Aurrerago esan dugunaren frogagarri. Nobela honen eskenikotasun maila aztertzeko, beraz, pertsonaien hitzetara jo dezagun. Dakigunez, pertsonaien hitzak narratzaileak guztiz antolatuta eta bereganatuta ager daitezke. Honelako zerbait adibidez. *Txominek Andoniri bere txakurra zelaira eraman zezan eskatu zion, honek gustora egingo lukela erantzun zion baina konpromizu garrantzitsu bat zeukan, Miren afaltzera eraman behar zuen eta.*

Adibide honetan pertsonaiak esandakoa agertzen da, baina ezin dugu hitzen diskurtsoa denik esan, ekintzen diskurtsoa dela esango bagenu zuzenago genbiltzake. Hau da, aurkezpen panoramikoa da, narratzailea jaun eta jabe da denbora lehenaldia da. *Gosaria Tiffanys-en* nobelan narratzaileak ez du pertsonaien hitzen horrelako maneiamendurik egiten. Ondorioz, pertsonaien hitzak eskenikoki aurkezten zaizkigu. Hala ere eskenikotasun hau maila desberdinetakoa izan daiteke eta jarraian adibideen bitartez aztertuko duguna maila hori da.

«—Jakina —esan zuen ezpatabelar bat ontzi barru-barruan sartzan duen artean—, jakina, ez nizun hona etortzeko esango zure iritzia ezagutu nahi ez banu. Bitxia da. Oso gauza bitxia gertatu da.

—Hollyren berrik izan al duzu?

Hosto batekin bueltaka ihardun zuen, nola erantzun asmatu ezinik bezala. Gizon txikia da, ilea zuria eta latza du buru fin batean; aurpegia hezurtsua, apur bat eroria, gizon luzeago bati hobeto joango zitzaiokeena. Larruzalak eguzkiak beztua dirudi beti: gorrituago zuen orain.

—Esan, ezin esan bere berririk izan dudarik. Alegia, ez dakit. Horregaitik nahi dut zure iritzia. Kopa bat prestatuko dizut. Gauza berri bat. Aingeru zuria deitzen dute —esan zuen, vodka eta ginebra erdi eta erdi nahastuz, vermutik gabe.» (9).

Elkarrizketa honetan elementu desberdinak nahasten dira; deskripzioa, pertsonaien hitza... hala ere aurkezpen eskenikoa dela esan genetzake. Baina ez aurkezpen eskeniko garbia. Aurkezpen eskeniko garbiak azpimarratuta dauden zatiak kentzea eskatuko luke. Hala ere, azpimarratuta dauden zenbait gauza ulermenarako soilik idatzi izana gerta liteke.

Hurrengo adibidean narratzailearen eskua soma daitekeen arren eskenikotasuna garbiagoa da:

«—Noiz? —galdetu zuen. Neskak barre egin zuen.

—Noizbait —erantzun zuen, hitza luzatuz.

—Edonoiz —esan zuen gizonak, eta atea itxi zuen» (15)

Aurkezpen eskeniko hutsak edo garbiak azpimarratuta dauden zatiak kentzea eskatuko luke. Hala ere, eta lehenago ere esan dudan moduan, sarritan azpimarratuta dagoen informazio hori ematea beharrezkoa da, irakurleak kontestua ondo uler dezan.

Nobela honetan aurkezpen guztiz eskenikoaren islada diren zatiak ere badaude:

- «—Benetako, hitzaz zer ulertzen ote duzun da kontua.
- Zera ba, gizona, erosten al du inork zuk idazten duzuna?
- Oraindik ez.» (22).

Hala ere normalean ez da hori gertatzen, hau da, narratzaileak hein handiago edo txikiago baten eskua sartzen du, baina beti ere pertsonaien hitzak era direktoan transkribatuz, ez era indirektoan.

Errekurrentzia narratiboak

Errekurrentzia narratiboak narratzailearen eta lenguiaren arteko erlaziotan kokatu beharko liratekela dirudien arren, narratzailearen eta erreferentziaren arteko erlazioetan kokatzea komenigarriagoa da.

Errekurrentzia narratiboak diogunean zera esan nahi dugu, angulo desberdinetatik egindako erreferentzia baten aurkezpen textuala. Honela ba, motibo bati garrantzia emateko motibo hori errepikatzea errekurrentzia narratibo bat da; erreferentzia mantentzen da eta ikuspuntu desberdinetatik aurkeztuko zaigu. Kasu honetan semiotizazioa dago: idazleak gauza bati garrantzi handiagoa eman nahi izan dio eta horretarako baliabide literario bat erabili du.

Honela bada, diskurtsoa singulatiboa, iteratiboa edo reiteratiboa izan daiteke. Diskurtso singulatiboak behin gertatu dena behin kontatzen du. Diskurtso iteratiboak historian errepikatzen dena behin bakarrik kontatzen du. Reiteratiboak historian behin gertatu dena askotan kontatzen du. Diskurtso iteratibo eta reiteratiboak helburu semiko argia dauka: errelatuaren materia errealitatean ez den modu batera aurkezteko manipulatzeko dutelako. Diskurtso iteratiboan historian askotan gertatu den eszena behin bakarrik errepikatuz lortzen dena eszena horri garrantzia kentzea da. Diskurtso reiteratiboan, aldiz, errepikatzen denari garrantzi handiagoa eta osotasun handiagoa ere ematen zaio. Ondorioz, diskurtsoa ez da uniforme, ez zaie gauza edo gertaera guztiak garrantzi bera ematen.

Ortegaren ustez errepikapenak (diskurtso reiteratiboa) narrazio generoaren bereizgarri dira. Autoreak garrantzitsua zer den eta zer ez den adierazi behar digulako.

Bestalde, errekurrentziak nobelaren elementu ezberdinei aplika die-zazkiekegu: pertsonaiei, ekintzei edo errelatuaren beste edozein unitate sintaktikori.

Maria del carmen Bobes naves-ek *La Regenta* nobelaren errekurrentzia nagusiak aztertzen ditu. Errekurrentzia hauek, Maria del Carmenen esanetara, forma konkretu batzutan agertzen dira eta hurrengoak ditugu: errepikapenak, laburpenak eta surrumurruak. Gehiegi luzatu gabe hauetako bakoitza aztertzen saiatuko gara:

- a) Errepikapenak: (Maria del Carmenek errekurrentzia hauek *La Regenta* nobelaren arabera aztertzen dituela kontutan hartu behar dugu). Errelatuan garrantzi handia daukan gertaera bat ikuspuntu desberdinetatik aurkeztu daiteke. Ikuspuntu desberdin hoietan aztertzen den gertaera berdina da, balio erreferentziala berdina da, eta gertaera behin bakarrik kontatu ezker, informazio nahikoa edukiko genuke, ondorioz, errepikapen honen helburua ez da informazio hutsa ematea. Errepikapenek gertaerari, mensajeari, garrantzia ematen diote eta honetaz gain, ikuspuntu ezberdinen erabilerak gertaerari buruzko interpretazio osotuago baten aukera ematen digu.
- b) Laburpenak: Maria del Carmenek *La Regenta*-n dauden errekurrentziarik nagusien artean laburpenak aipatzen ditu. baina laburpen terminoarekin kontuz ibili beharko dugu, arazoak sor ditzakeelako. Aztertuko ditugun laburpenak ez dira textoan gertaerak laburtzean eta historiaren denbora murrizten dituzten laburpenak. Oraingo laburpen hauek berez errepikapenak dira, errepikapen textualak hain zuzen ere. Hau da, autoreak berak aukeratzen duen une batean, ekintza bat edo pertsonaia bat edo dena delakoa egokiro eta detailez deskribatzen du eta beste une batean informazio bera ukitutxo pare batekin errepikatzerakoan laburpenaren aurrean gaudela esan genezake. Laburpena deskripzio osotua baino lehenago zein geroago koka daiteke idazleak komeni zaionaren arabera jokatzeko duelako. Idazleak ez du zertan pertsonaiaren edo dena delakoaren deskribapen osotua laburpena (edo laburpenak) baino lehen egin behar, behar bada ez zaio pertsonaia hori hasiera-hasieratik mugatzea komeni. Alderantziz ere joka dezake. Ondorioz, idazleak askatasunez jokatzeko du, beti ere komeni zaionaren arabera.

Laburpenen helburua zerbaiten edo norbaiten ezaugarri bereizgarrienak azpimarratzea da, garrantzi gitxiagoko ezaugarriak alde batera utzita. Adibidez, ekintza baten pertsonaia bati sarre-
ra egiterakoan idazleak edo narratzaileak bere ile gorri kirrudun

argitsua eta bere begi handiak bakarrik aipa ditzake. Hori laburpen bat da, eta bere izaera fisikoaren ezaugarri bi bakarrik aipatzerakoan bereizgarrienak direla aditzen ematen da. Ez diogu bere ahoari edo belarriei buruz hitz egin, ziur aski nahiko normalak direlako. Semiotizazioa presente dago. Ezaugarri batzuk beste batzuen aurrean azpimarratzen ditu.

Laburpen hauek, orokorrean errekurrentziak bezela, mensajearen intentsifikazio zeinu bezala kontsidera daitezke, baina honetaz gain errelatuaren sintaxian beste funtzio bat betetzen dute eta helburu semantikoa daukate. Testuaren bateratzerako elementuak dira, bateraketa hau formari eta edukari dagokielarik.

- c) Zurrumurruek: zurrumurruek errekurrentzien artean kokatzen dira. *La Regenta* nobelan zurrumurruek oso ugariak dira. Zurrumurruek irakurleek zenbait ekintzetan eta pertsonaiengan duten interesa handitzen dute. Zurrumurruek ez dira errepikapen hutsak, ez dute adibidez ekintza guztia deskribatzen; gehienetan gertaera printzipalak kontatzen ez diren arren euren inguruko detaileak errepikatzen dira.

Edozein gauzari buruzko zurrumurruek gauza hori (ekintza, pertsonaia edo dena delakoa) nobelan bere osotasunean azaldu aurrekoak zein ostekoak izan daitezke.

Zurrumurruek ekintza bat motibo bihurtu dezakete (kontaketa eragiten duena), ekintza errelatuaren zeinu ikoniko bihurtzen delarik. Zurrumurruek ekintza baten aurkezpen poliedrikoa eraikitzen dute: ikuspuntu desberdinetatik lantzen da. Guzti honen ekintzari garrantzia ematen dio.

Zurrumurruek, beraz, ekintza bat literalizatzen dute; baina pertsonaiengan ere eragina eduki dezakete. Errekurrentzia hauek pertsonaiari konplexutasuna eta sorkuntza artistikoei dagokien dentsitatea ematen diote. Zurrumurruek pertsonaia bere osotasunean aztertu baino lehenagokoak zein gerokoak izan daitezke.

Lehenagokoak badira funtzio semantiko zuzena dute: errelatua aurrera joan ahala konfirmatuz ala ukatuz joango dira. Jokaera honekin pertsonaiaren zenbait ezaugarri azpimarratzen dira: helburu semantikoa duen intentsifikazio prozesua da; semiotizazio prozesua.

Bestalde, zurrumurruen bitartez beste zenbait elementu eraikiz doaz. hauen artean zurrumurruek esaten dituztenak daude. Zurrumurruek esateko moduan esan dituenaren izaerara hurbiltzen gara. Andre batek neska gazte bat haurdun dagoela mundu guztiari badinotso eta gero neska haurdun ez dagoela konfirmatzen bada, andrea gezurti edo pertsona ona ez dela edo antzeko zerbaite ondorioztatuko dugu. Zurrumurruek

murruak sortzen edo esaten direneko kokalekuak sarritan kontutan hartzekoak dira. Adibidez, taberna konkretu bat herri txiki bateko zurrumurruen kokaleku nagusia izan daiteke. Ondorioz, tabernaren esanahia zurrumurruen arabera eraikiko da.

Errekurrentziak kontaketa duen kokalekuak ere garrantzia du. Errepikapen bat, adibidez, kapitulu baten amaieran edo hasieran egoiteak bere esanahia eduki dezake: kapituluaren hasierak eta amaierak irakurlearen arreta handitzeko leku bereziak dira, eta ekintza bat bertan errepikatuz kokaguneari esker bere garrantzia handitzen da.

Bestalde, logikoaenez, errekurrentzia narratiboek diskurtsoaren denboraren eta historiaren denboraren erlazioan eragina dute. Dakigunez, (historiaren denbora eta diskurtsoaren denbora luzatzen du), errealitatean errepikatzen den gertaera bat diskurtsoan behin bakarrik azaldu ezkerro narrazioaren erritmoa handitzen da..., baina denbora erlazio hau gehien bat denbora aztertzerakoan tratatu beharko litzateke.

Hemendik aurrera *Gosaria Tyffanis-en* nobelako errekurrentzia narratiiboak zuzenean aztertuko ditugu. Sarreran, hasiera baten, diskurtsoa hiru modutakoa izan daitekeela esan dugu: diskurtso singulatiboa, iteratiboa eta reiteratiboa. Diskurtso singulatiboak behin gertatu dena behin kontatzen du. Azkenik, diskurtso iteratiboak historian askotan (behin baino gehiagotan) gertatu dena behin bakarrik kontatzen du. Guri aztertzea dakigun nobela edo elaberrian hiru diskurtso mota hauek aurki daitezke:

«Dantzan ari zela zirudien, pauso xebreak egiten Berman, areioei tartean sartzen ez uzteko. Usoei botatako artoa balira bezala neskaren txiste totelak irensten zituzten gizon taldean galdu zuen ardea Mag» (45).

Narratzailea Hollyk bere apartamentuan antolatutako duen erdi jailadiari buruz hitz egiten ari da. Kontatu duen pasartea behin gertatzen da eta behin kontatzen du, diskurtso singulatiboa. Gertaera honek ez dauka errepikatze moduko garrantzirik, sinplea da. Kasu honetan ez dago errelatuaren materia errealitateetik kanpo aurkezteko materia honen manipulapenik, ez dago intentzio semiko zein estilistikorik.

Orain, har dezagun beste adibide hau:

«Hurrengo egunetan nireari deika hasi bait zen, batzuetan goizeko ordubietan... Baina hura gertatu zen lehengo aldian, atera joan nintzen...» (17).

Hollyk narratzailea den pertsonaiaren tinbrea sarritan jotzen du, baina lehenengo aldia bakarrik aipatzen du. Zergaitik? Ba beste aldiek

kontatzeko moduko garrantzi nahikorik ez dutelako. Lehenengoaren azalpenak beste guztien adibide moduan balio du. Egunen baten Hollyk tinbrea jotzerakoan gauza bereziren bat gertatu izan balitz narratzaileak kontatuko zukeen, baina gertatzen ez denez ekintza guztiak ekintza modeliko baten laburbiltzen ditu; honi diskurtso iteratiboa deritzo. Narratzaileak errekurtsio honetan testuari arintasuna ematen dio, Hollyk tinbrea jotzen duen aldi bakoitza deskribatzeak testua lar astunduko luke. Beste adibide bat ikus dezagun:

«—Askotan, brasildarra hiritik kanpo zenean (kontrako jarrera sentitzen nuen berarekiko, eta gutxitan erabiltzen nuen izena) arratsalde osoak ematen genituen elkarrekin, eta orduan ehun hitz baino gutxiago trukutzen genuen.» (83).

Narratzaileak berak ere dioen bezala, «askotan» gertatzen dena behin bakarrik kontatzen du; diskurtso iteratiboa. Narratzaileak Hollyren ematen dituen arratsalde hoiek historian garrantzi handirik ez daukan denboraldi baten gertatzen dira eta idazleak diskurtso iteratiboaren bitartez testuari arintasun egokia ematen dio.

Hirugarrenik diskurtso reiteratiboa dago, kasu honetan gauza bat bera ikuspegi desberdinetatik aurkezten da, gehienetan garrantzi handiagoa ematen zaielarik.

Guk diskurtso reiteratiboaren adibideak errepikapenak aztertzerakoan ikusiko ditugu. Dakigun bezala, Maria del Carmen Bobes Naves-ek dioenez berresanek *La Regenta* nobelan hiru forma konkretu nagusi hartzen dituzte: errepikapenak, laburpenak eta zurrumurruak. Guk forma konkretu hauek *Gosaria Tyffanis-en* elaberrian aztertuko ditugu, bakoitzak daukan garrantzia esanez. Honetaz gain beste errekurtsio aipagarriarik dagoen edo ez aztertzen saiatuko gara.

Has gaitezen errepikapenekin. Errepikatu daitezkeen elementuak desberdinak dira; pertsonaia baten izaera fisiko edo psikikoaren zenbait ezaugarri, ekintza bat edo dena delakoa. Ikus ditzagun orain errepikapen nagusiak.

Hollyren zenbait ezaugarri fisikoren errepikapenak garrantzi handia dauka. Errepikatzen diren ezaugarri fisiko hauen artean ilea eta begiak daude (errepikapen hauek laburpen baten errepikapenak dira, baina honen zergaitia aurrerago, laburpenak ikusterakoan azalduko dugu).

Narratzaileak Joe Bellek erakusten dion argazkian Afrikako beltzak egindako estatua ikusten duenean estatuaren hurrengo ezaugarriak bereizten ditu, oraindik Hollyren irudia dela ez dakielarik:

«Zurezko eskultura bitxi bat zeukan eskutan, buru bat irudikatzen zuen eskultura luzea, neska batena, gizon gazte baten modura lisoa eta

motza ilea, zurezko begiak handiegi eta nabarmenegiak aurpegi hezurtsuan, ahoa zabala, oso markatua, pailaso baten ezpainen antzera» (10).

Eskultura ikusi ondoren zera ondorioztatzen du:

«Lehenengo begiratuan oso lan primitiboa zirudien; baina ez gero, hantxe bait zegoen Holly Golightlyren beraren irudia.» (10).

Eskulturan edo estatuan nabarmendu dituen hiru ezaugarrien artean ilea eta begiak daude. Ondorioz, ilea eta begien koloreak adibidez oraindik deskribatu ez zaizkigun arren, elementu edo ezaugarri horiek lehen mailan jarri dira. Honen esanahia aurrerantzean ikusiko dugu. Jo dezagun beste adibide batzuetara:

«Eskilaretan zegoen orain, bere pisura ailegatu zen, eta argiak han Hollyren mutil ilearen koloreak argitu zituen, desberdinak, ile-xerio albinoak eta horiak» (16).

«Ez nuen inoiz ikusi betaurreko ilunik gabe, eta argi zegoen orain sendagileak agindutako betaurrekoak zirela, keinuka eta neurtuz begiratzeko bait zidan, bitxiagile baten modura. Begi handiak zituen, urdin piska bat, berde piska bat, marroi apurtxo horrituak: Kolore ugariak, ilea bezala; eta, ileak bezala, argi bizi eta beroa ematen zuten» (21).

Adibide honetan begien eta ilearen arteko parekotasuna markatzen da:

«Fred eta biok... —betaurreko ilunak jaso zituen, eta begiek, zituzten kolore desberdinek, grisek eta tanta urdin eta berdeek, begiratu zorrotza zuten» (42).

Oraingoan aipatu dituen begien koloreak ez dira aurreko adibidean aipatu dituen kolore berak. Honekin Hollyren izaera aldakorra, ez finkoa isladatu nahi du. Holly aldakorra da:

«—Zergaitik bidaiaria?
—Nire txartelean? —galdetu zidan harriturik—. Xelebrea iruditzen zaizu ala?
—Xelebrea ez. Probokatzaila.
Haridura keinu bat egin zuen.
—Izan ere, nola dakit nik non biziko naizen bihar?
Horregaitik, Bidaiaria jartzeko esan nien» (44).

Begien eta ilearen zitekin jarraitu dezagun:

«Betaurreko ilunak kendu zituen eta keinuka begiratu zidan. Begiek prisma hautsiak ziruditen, urdin eta berde tantak dizdiraren apurak bailiran» (71).

«Ile nahasia orraztu egin zuen» (73).

«Bapatean, Hollyren ileko kolore nahasiak hostoen kolore hori-gorrikeretan dizdiratzen ikusirik» (86).

«fiskalaren bulegoak adierazpen ofizialik egin ez badu ere, iturri fidagarriak segurtatzen dute aktorea ileargi ederra» (89).

Aktorea gaztea ere esan zezakeen, baina ez, ilea garrantzitsuagoa da. Oraingoan Hollyren ilea azpimarratu duena ez da narratzailea izan, aldizkari bat baño. Ondorioz, errepikapena ikuspegi desberdinetatik emana da.

«Hamabi urte ere ez zituen ematen: bainila koloreko ile argia atzera orraztua, begiak, behingoz betaurreko ilunik gabe, euriaren ura bezain gardenak. Gaixo izan zenik ere ezin zen sinetsi» (95).

Ondorioz, ezaugarri fisiko bi hauek errepikatzen dira. Errepikapen horiek narratzailearen ahotik irtetzen dira; baina errepikapenaren bitartez elementu hauek zergatik azpimarratzen dira? Lehenago ere zerbait esan dugu. Begiek kolore desberdinak dituzte, eta ileak ere bai. Honekin Hollyren izaera ez finkoa azpimarratu nahi da. Ilea mutil baten antzekoa du, hamaseigarren orrialdeko zitan ikusi ahal izan dugun bezala; eta egia esanda, Hollyk daukan bizitza mota edozein mutilen izaerari neska bateri baino hobeto egokituko litzaioke.

Hamargarren orrialdeko zitan ere Holly-ren mutil itxura aipatu du. Ondorioz, errepikapen mota hau ez da ikuspuntu desberdinetatik egingdako errepikapena, baina helburu semantiko argia dauka, ikusi ahal izan dugun bezala.

Jarraian Holly eta Doc-en arteko ezkontza aztertuko dugu. Oraingoan errepikatzen dena ez da ezkontza nolakoa izan zen:

«—Ez du Holly izena, Lulamae Barnes zen lehen. Hala zen —esan zuen, txotxa ahoan mugituz— nirekin ezkondu zen arte. Bere senarra nauzu ni, Golightly» (66).

Golightly jaunaren ustez, beraz, ezkontza normala izan zen, legala, zer esanik ez. Baina Hollyk ez du gauza bera uste:

«—Dibortziatu? Ez naiz dibortziatu, jakina. Hamalau urte besterik ez nuen, Jainkoaren izenean. Hura ezin zen legala izan» (72).

«—Ezin da gertatu. esan nizun, hura ez zen legala. Ezin zuen legala izan» (85).

Ondorioz, ezkontzari buruzko ikuspegi bi daude. ezkontza ekintza ikuspegi desberdin bitatik aipatzen da. Eman behar zaigun oinarrizko

informazioa, Holly ezkontuta dagoenarena da. Ikuspegi bi hauen bitartez informazio osotuagoa lotzen dugu. Gertaera honek garrantzia dauka, Hollyren krisi momentu baten ezagutzen delako eta kontatutako gertaeren logikan aldaketa bat ekarri dezakeelako; eta errepikapenaren zergaitia garrantzi horretan datza.

Hirugarren errepikapen bat ikus dezagun. Errepikapen hau Hollyren pisuari buruzkoa da:

«—Zure pisua horrelakoa al da?

—Askoz txikiagoa.

Errautsa zapaldu zuen oinaz.

—Zikinkeria bat da hau. Sinestezina. baina neska horrek ez daki nola bizi, nahiz eta dirua izan.» (32).

O.J. Bermanen ustez, beraz, Hollyren pisua zikinkeria bat da. Ea narraztaileak zer dioen:

«Hollyren logela bat zetorren salarekin. Kanpamendua jasotzekotan gelako giro bera luzatzen zuen; paketeak eta mailetak, dena jasoa eta aldegiteko prest, legea urrun ez dabilela sentitzen duen gaizkile baten modura» (53).

Narraztaileak ez du explizitoki zikinkeria bat dela esaten baina horrela aurkezten du. Deskribapen honekin aurretik O.J. Bermanek esandakoa frogatzen da, eta honek garrantzi handia dauka, pisua ere (begiekin eta ilearekin gertatzen den bezala) Hollyren adierazgarri delako: pisua antolatugabea da, bere jabeak horrela nahi duelako eta horrelakoa delako. Baina apreziazio hori ez datorkigu narraztailearen ikuspegitik bakarrik, beste pertsonaia baten ahotik ere bai, ondorioz, frogapen bat dago, egia da.

Beste errepikapen garrantzitsu bat Hollyren katuaren jatorriarena da:

«—Gizarajoa —esan zuen, burua kilimatuz katuari-, gizarajo, izenik gabe. Aspergarri samarra da izenik ez edukitze hori. Baina honi izenik emateko eskubiderik ez dut: itxoin egin behar du norbaitena den arte. Ibai ondoan egin genuen behin topo, ez gara elkarrenak: bera independentea da, eta halakoxea naiz ni ere» (41).

Hollyk narraztaileari katuaren aurkezpena egin dio. Jarraian katuaren agurra:

«—Esan nizun —Erreka ondoan elkartu ginen behin, horia da dena. Independienteak, biok. Ez diogu elkarri ezer agindu inoiz. Inoiz...» (106).

Hollyk hitz hauek katua kalean abandonatu ondoren esaten ditu. Errepikapen honek zentzu bikoitza dauka. Alde batetik, katuak Hollyre-

kin daukan antzekotasuna markatzen da eta honek Hollyren izaera askea eta independientea azpimarratzen du. Katua norberekoikeriaren sinboloa da, Holly sarritan ere berekoa delarik.

Honetaz gain katuak ez du inork benetan maitatu dezan uzten, serioa da, urruntzen dena. Narratzailearen eta Hollyren artean antzeko zerbait gertatzen da; narratzaileak Holly maitatu nahi du.

«Hollyrekin maiteminduta egotetik ote zetorren? piska bat bai. Berarekin maitemidua bait nengoen» (75).

Baina bion artean distantzia dago. Narratzailearen eta katuaren artean distantzia dagoen bezala.

Bestalde, errepikapen honek aurretik aipatu dugun funtzio semantikoaz gain egituratze funtzioa ere badauka: Hollyk narratzaileari katua aurkezten dionean bien arteko erlazio hurbilen hasiera markatzen da. Hollyk katua uzten duenean narratzailea utzi duela ikustera ematen da. Ondorioz, katuari egiten zaizkion erreferentzia hauek prozesu baten hasiera eta amaiera markatzen dute.

Hauetaz gain errepikapen txikiagorik ere badago, baina denak aipatzea alferrekoa izango litzateke. Kontutan hartu behar duguna zera da: nobela honetan errepikapen errekurtsuak badaude eta errepikapenik garrantzitsuenak Hollyren ingurukoak dira. Izan ere, Holly nobelaren erdigunea edo ardatza da, dudarik gabe.

Jarraian laburpenak aztertuko ditugu. Esan dugun bezala, laburpenak errepikapen testualak dira: autoreak ekintza bat, pertsonaia bat edo dena delakoa osotasunez edo detailez deskribatzen du eta gero (edo lehenago) informazio bera gauza nagusi gutxi batzuk aipatuz errepikatzen du. Laburpenak deskribapen osotua baino lehenagokoak zein gerokoak izan daitezke. *Gosaria Tiffanys-en* nobelaren egileak laburpenekin jokutzen du. Hona hemen laburpen horiek.

Aipatuko dudan lehenengo laburpena Hollyren eta Sally Tomatoren arteko erlazioari buruzkoa da. Hollyk narratzaileari Sally Tomatorekin dituen erlazioak azaltzerakoan zera dio:

«—ez da ezer. Erantzungailu automatikoan uzten ditudan mezuak besterik ez dira, eta hala Mr. O'Shaughnessyk ziurtatu egiten du ni han izan naizela. Sallyk zer esan behar dudan esaten dit, ba, esate baterako, "haize-zurrumbilo bat da Cuban" eta "elurra ari du Palermon"» (29).

Hollyk ekintza honeri buruz ezer gehiago ez dio, hala ere, zihur aski, zerbait gehiago dagoela badaki:

«—Ez dakit ba. Oso asunto txukuna ere ez dirudi. Irribarre egin zuen» (29).

Ondorioz, Hollyk lehen esan duen ekintzaren laburpena da. Ekintza osotua geroagoko aldizkarietan dakarrenaren bitartez argituko zaigu. Hona hemen ekintza osotua:

«Fiskalaren bulegoak adierazpen ofizialik egin ez badu ere, iturri fidagarriek segurtatzen dute aktorea ileargi ederra, duela gutxi arte Rutheford Trawelwren ohizko laguna "liaison" gisa jardun dela gartzelako Tomato eta bere lehengoaren artean, O'Shaughnessy... Tomatoren familiakoa zelakoan, Miss Golightlyk astero egiten omen zizkion bisitak Singsingen eta bisitaldi haietan Tomatok mezu kodifikatuak ematen omen zizkion hitzez neskari, eta honek O'Shaughnesseyri transmititu... Lotura honen bitartez, Tomatok, zeina Cefalún, Sizilia, jaio dela uste den, 1874-ean, oso ondo kontrola zezakeen mundu guztitik zabaltzen den narkotiko sindikatu bat, Mexikon, Kuban, Sizi-
lian, Tangerangren, Teheranen eta Dakarren zituelarik agenteak» (90).

Laburpena, beraz, ekintza osotua baino aurrerago kontatzen da. Honek badu arrazoirik. Laburpenak expektatiba bat sortzen du eta expektatiba hori gerora, eszena osoturekin konfirmatuko da. Prozesu honek irakurlearengan arreta berezia sortzen du, laburpenarekin bakarrik eszena osotua ezagutzen ez duelako eta ezagutu nahi duelako. Bestalde Hollyk gauzei ematen dien garrantzi txikia ere azpimarratzen da: berak badaki legalki ezin duela Sally Tomato ikusi eta asunto txukuna ez dela somatzen du baina berdin zaio, bera trankil bzi da. Harrapatuz gero kartzelara bialdu dezaketela jakin beharko luke, baina ez dio horri garrantzirik ematen. Azkenean harrapatu eta kartzelan sartuko dute, gero berak Brasilera ihes egingo duelarik. Ondorioz, laburpen honek Hollyren izaerara hurbiltzen gaitu, Hollyren eraikuntzan parte hartzen du. Holly nobelaren erdigunea dela gogora dezagun.

Nobela honetan pertsonaien izaera fisikoaren laburpenak garrantzi handia dute. Nobelaren erdigunea den Holly Golightly-rekin has gaitzen:

«Eskilaretan zegoen orain, bere pisura ailegatu zen, eta argiak han Hollyren mutil ilearen koloreak argitu zituen, desberdinak, ile-xerlo albinoak eta horiak. Gau beroa zen, uda ia, eta berak soineko beltz fresko bat zeraman, sandalia beltzak eta perlazko koilarea. Argaltasun dotore batekin ere, zerealak gosaltzen dituenaren osasun itxura zeukan, limoizko jaboiairen garbitasuna, baserri koloreko masail gorriak. Ahoa zabala zuen, harroa sudurra. Betaurreko ilunek ezkututzen zizkieten begiak. Hautzaroa atzean utzi duen aurpegia zen, baina hala ere emakume izatera ailegatu gabe.

Hamasei urtetatik hogeitamar bitartera edonon egon zitekeela jo nuen; gero jakin nuenez, hemeretzigarren urtebetetzea bi hilabetez juxtu-juxtu pasea» (16).

Hollyren deskribapen hau deskribapen osotua da, sarrera modukoa. Hala ere begiak, Hollyrengan garrantzitsua den elementua, ez dira aztertzen, betaurreko ilunek ezkututzen dituztelako. Baina bere begien sarrera laisterrera egiten du:

«Begi handiak zituen, urdin piska bat, marroi apurtxo horiturik. Kolore ugariak, ilea bezala; eta, ileak bezala, argi bizi eta beroa ematen zuten» (21).

Ondorioz, bi deskribapen hauek Hollyren fisikoaren sarrera osotua direla esan genezake. Gerora eta lehenago ere sarritan, narratzaileak Hollyri buruz hitz egiten duenean elementu hoietako bat edo pare bat aipatuko ditu, ez deskribapen osoa:

«Emakume gazte bat eta bi gizonezko» (11).

Afrikako beltzak esana da, eta deskribapen osotuaren aurrekoa:

«... —betaurreko ilunak jaso zituen, eta begiak zituzten kolore desberdinek, grisek eta tanta urdin eta berdeek, begiratu zorrotza zuten—» (42).

Narratzaileak Holly aurrean du eta bere edozein ezaugarri fisiko aipa zezakeen, baina begiak bakarrik aipatu ditu, garrantzitsuak direlako. Errepikapenak aztertzerakoan begien eta ilearen esanahia sakondu dugu. Errepikapen haiek azken batean laburpen baten errepikapenak direla esan dugu eta hala da. Hollyren begiak eta ilea aipatzean bere deskribapen fisiko osotua garrantzitsuak diren elementu pare batera laburtzen da, laburpena beraz. Eta begiak eta ilea errepikatzen badira laburpen baten errepikapenak direla esan genezake.

«Begiekin prisma hautsiak ziruditen, urdin eta berde tantak dizdiraren apurrak bailiran» (71).

Aurreko adibideetako gauza bera gertatzen da. Bere beste edozein ezaugarri aipa zitekeen, baina begiak aipatzen dira. Honek begiekin beste ezaugarrien aurrean duten garrantzia azpimarratzen du.

«Bapatean Hollyren ileko kolore nahasiak ostoen kolore hori-gorrikerian dizdiratzen ikusirik, neure burua ahazteko adina maitatuen» (86).

Aurreko adibidean garrantzia begietan jarri bada azken adibide honetan ileekin gauza bera gertatzen da.

«Fiskalaren bulegoak adierazpen ofizialik egin ez badu ere, iturri fidagarriek segurtatzen dute aktorea ileargi ederra» (89).

Zita hau aldizkariak dioenetik hartuta dago. Aldizkariak ere laburpena egiten du, Hollyren ileargi ederra bakarrik aipatzen duelako. Laburpen honen funtzioa aurrekoenen bera da: Holly bere ilean sintetizatzen da ileari garrantzia emanez.

«Hamabi urte ere ez zituen ematen: bainila koloreko ile argia atzeraka orraztuak, begiak, behingoz betaurreko ilunik gabe, euriaren ura bezain gardenak. Gaixo izan zenik ere ezin zen sinetsi» (95).

Laburpen honen esanahia aurrekoenen berdina da. Laburpen mota hauek beste pertsonaia batzuekin ere gertatzen dira. Har dezagun Rusty Trawlerren kasua. Narratzaileak Rusty Trawler ikusten duen lehenengo aldian honen deskribapen osotua egiten du:

«Handik puska batera haietako bat nabarmendu egin zen. Haur gazte samar bat zen, haurtzaroko loditasuna inoiz galdu gabea, nahiz eta ipurdi eder eta jotzeko moduko hura disimulatzea jostun treberen batek ia-ia lortu izan. Hezur susmorik ez zuen gorputzean; aurpegiak, miniaturazko begi eta sudur politez betetako zeroa, itxura berria, birjinala zeukan: lehenbizi jaio eta gero zabaldu egin zutela zirudien, eta larruazala batera arrastorik gabe geratu, puztutako globo baten gisa, eta ahoan, nahiz eta kasketa eta negarretarako prest, intziri goxo eta mimatu bat zeukan. Gizonaren izena Rutheford (Rusty) Trawler zen» (38).

Narratzaileak Rusty ume baten moduan deskribatu du eta mesprezu apur batez. Aurrerago, narratzaileari Rusty burura datorkionean:

«Holly "feto absurdo" harekin ezkontzen bazen» (75).

«Feto absurdo» esatearekin aurretik egin duen Rustyren deskribapenaren laburpena egiten du, horrekin bere ume izakera azpimarratzen duelarik.

«Nola ba irauun zezakeen gau bat bestearen atzetik La Ruen, El Maroccon, Wilwooden be-berriketa entzuten eta Rustyren haur ipurdi aurpegiari begira?» (57).

Laburpen honetan ere azpimarratzen dena Rustyren ume izakera da. Eta aurreko adibidean gertatzen den bezala Rusty mesprezatzen du. Baina narratzaileak Rusty txarto epaitzeko arrazoirik badu? Rustyk

itxura baten ez dio narratzaileari kalte pertsonalik egin, baina narratzaileak Hollytaz maiteminduta dagoela gogora dezagun eta Rusty Hollyrekin irtetzen ari denez narratzaileak Rustyrekiko mesprezua sentitzen du, laburpen hauek sentimendu horretan oinarritzen direlarik.

Jarraian Mag Wilwood-eri buruz zerbait esan dezagun. Narratzaileak Mag lehenengoz Hollyren apartamenduan ikusten du. Ikusi bezain laster berari buruz dioen lehenengo gauza zera da:

«Metro bat larogei baino dezente luzeagoa zen, hango gizon gehienak baino handiagoa. Denek luzatu zituzten bizkarrezurrak, barrurantz sartu sabelak; leihaketa orokor bat izan zen, haren luzera balantzakorra nork harrapatu» (44).

Aipatu duen gauza bakarra Mag-en garaiera edo altuera da. Hitz hauek narratzaileak geroago egingo duen Mag-en deskribapen osotua goaren laburpena dira:

«Luzera azpimarratzen zioten takoiak, hain altuak ezen txorkatilak dardarka zeramatzan; korpino estu eta soil bat, hondartzara praka hutsetan joan zitekeela adierazten zuena; estu-estu atzeruntz orraztutako ilea, bere modelo aurpegiaren giharrea eta gosea nabarmentzen zizkiola» (46).

Oraingoan altueraz gain beste zenbait ezaugarri ere aipatu dira. Baina dudarik gabe bere ezaugarrien artean adierazgarriena altuera da eta horregaitik narratzaileak Mag ikusten duen lehenengo aldian bere izaera fisikoa horretan laburtu du.

Pertsonaien inguruko beste laburpenik ere badago. Oraingoan O'Shaughnessy aztertu dezagun. O'Shaughnessy Sally Tomatoren abokatua da. Hollyk narratzaileari O'Shaughnessy-ri buruz lehenengo hitz egiten dionean, hala dio:

«(Abokatua bada, duda egiten dut horretaz, bulegorik ez duela dirudi, erantzungailu automatiko bat besterik ez, eta Hamburg Aaerenen elkartu nahi du nirekin: hori gizona delako da, hamar hanburgesa eta bi entremes eta limoizko tarta oso bat jateko gauza da)» (28).

Lodia dela azpimarratu du, eta gerora:

«O'Shaughnessyk, gizon ilegorri gihartsua, ez zuen komentariorik egin nahi izan eta argazkilaria bati ostikada bat eman zion hankartean» (90).

Azken hau aldizkariko artikuluren zati bat da. Aldizkariak ez du O'Shaughnessy-ren deskribapen fisikorik egin nahi, baina bere gizentasuna aipatzen du, ezaugarri bereizgarrienetariko bat delako.

José Ybarra-Jegar-ekin ere antzeko zerbait gertatzen da. Narratzai-leak José ikusten duen lehenengo aldian dio:

«Konbinaketa zaindua zen, haren buru ilunak eta torero plantak bazuen zehaztasun bat, perfekzio bat, sagar batena, laranja batena bezalakoa, naturak erabat osatu duen zerbait, jarrera apala» (48).

Eta aurrerago:

«Bizkorra zen, itxura onekoa» (57). «Oso guapoa da, ezta?» (50).

Hau da, Jose dotoretasunarekin identifikatzen da, itxura onarekin laburpen hauen funtzioa Joséren ezaugarri hori azpimarratzen da.

Maria del Carmenek *La Regenta* nobelaren errekurtsioak aztertzerakoan hirugarrenetik zurrumurruak aipatzen ditu. *Gosaria Tiffanys-en* ez dago *La Regenta*-n moduko zurrumurrurik. Baina aipatzea gustatuko litzaidakeen zerbait dago. Hollyren jatorria. Doc Golightly-k gauzak argitu arte Hollyren jatorria inkognita da, inork ez daki zihur nondik datorren:

«Noizean behin ordea non ikasi ote zituen, alegia, bera nondik ote zetorren pentsarazten zuten abestiak jotzen zituen. Kantu ibiltariak, gazigozoak pinudi edo belardi usaina zutenak. Hona bat. Ez dut lo egin nahi, ez dut hil nahi, bidaian ibili nahi dut zeruko belardietan barrena» (20).

Bere jatorriari buruzko pistak ematen zaizkigu, baina besterik ez:

«baita ahoa irekitzen duenean eta mendi puntatik, Oklahomatik edo nondik ote datorren jakin ezinik geratzen zarenean. Oraindik ere ez dakit. Nire ustez, ez du inork inoiz jakingo nondik datorren» (34).

O.J. Bermanek ere ez daki Holly nondik datorren, Holly ondoen ezaugarritan duenetarikoa izan arren. Mendi aldetik datorrela suposatzen du, baina ez daki zihur. Ezjakintasun honek irakurlearengan inkognita eta jakinmina sortzen du. Hollyren jatorria ez argitzeak nobelan bere funtzioa dauka: Hollyren izaerarekin bat dator.

Holly ez dago inora eta ezta inori ere lotua. beti orainean bizi da eta ez du lehen aldiaren oinarririk behar. Holly gauza exotikoa da eta bere erakargarritasuna hein handi batetan horretan datza.

Azkenik, Hollyren lehen aldia argituko diguna bere lehenengo senarra izango da, Doc Golightly:

«—Ez du Holly izena. Lulamae Barnes zen lehen. Hala zen —esan zuen, txotxa ahoan mugituz—, nirekin ezkondu zen arte. Bere senarra nauzu ni, Golightly...» (66).

«Hona historia: ama biriketarik hil zitzaien, eta aita igual, eta haur guztiak, talde ederra, batera eta bestera bidali zituzten bizitzera, zi-koitz baino zikoitzagoak jaso zituzten denak Lulamae eta anaia elkarrekin bizitzen izanak ziren famili ziztrin batekin, tulipen ekialdera, ehun eta berrogeita hamar kilometrora. Bazuen zergaitik ihes egin etxe hartatik...» (68).

Ondorioz, Doc-ek Hollyren jatorria argitzen du. Eta, kausalitatea izanik edo ez, lasterrera (Do-ek bere jatorria argitu eta lasterrera) Fred hiltzen da eta Holly formaltzen da, lotu egiten da.

Hollyk bere bizitzan zehar hurrengo prozesu hau jasaten du:

1. Askea > 2. Lotua > 3. askea > 4. lotua > 5. askea.

1. Bera eta Fred euren gurasoak hil ondoren adoptatu zituen fami-
liatik ihes egiterakoan.
2. Doc-ek hartzen dituenean
3. Doc-en etxetik ihes egiten duenean.
4. Fred hil eta gero
5. Ihes egitearekin askatasuna lortzen du. Azkenean jadanik ezin zen
New York-en askea izan eta horregaitik Brasilera ihes egiten du.

Zenbait elementuk Hollyren askatasuna edo askatasun eza frogatzen dute eta, harrigarria bada ere, hauen artean argaltasuna dago. Doc-ek Holly New York-en aurkitzen duenean zera dio:

«—Hara, Lulamae, —hasi zen, eta duda egin zuen, Hollyk harriduraz begiratzen bait zion, gizona non kokatu ez baleki bezala—. Kaixo, mai-
tea —esan zuen gizonak—, ez al dizute jaten ematen hemen? Hain zau-
de argala. Ikusi zintudan lehenengo aldian bezala. Ero begiekin» (71).

Ondorioz, 1. eta 3. garaietan Holly argal dago.

Doc-ek ere esana:

«Bagenituen behiak, lorategia, oiloak, txerriak: motel, gizendu
egin zen benetan» (68).

2. Garaian, beraz, gizentzen da.
Fred hiltzerakoan, berriz:

«Ilea ilundu egin zitzaion, gizendu egin zen» (79).

4. Garaian dakusagunez Holly gizentzen da. Ondorioz, askatasuna argaltasunarekin lotzen da.

Esatea / esana

Orain arte narratzailearen eta erreferentziaren arteko harremanen beste atalak aztertzerakoan lehenengotan sarrera bat egin dugu eta gero azalpen teoriko hori guri aztertzea dagokigun nobelan aplikatzen saiatu gara. Oraingoan, ordea, ez ditugu atal biak zehatz-mehatz banatuko, azterketaren ulermena hobea izango delakoan. Has gaitezen bada:

Sorkuntza literarioa den kontestuetan hiru elementu hauek desberdin ditzakegu: narratzailea (kontakten duen sujeta, kontalaria), esana (kontakutakoa) eta esatea (kontaktzearen ekintza). Beste modu batera esanda; edozein errelatutan esate ekintza egiten duen eta esanaren emaitza lortzen duen narratzailea dago. Honen arabera, esatea testuaren aurrekoa da, lehenagokoa. Esatea testua egingo duen prozesua da, baina testutik kanpo dago. Baina errelatu askoren esanean esatearen aztarnak aurki daitezke, aztarna formal zein semantikoak.

Testuak esatearekin dituen erlazioak errekurtsoen artean kokatzen dira, narratzailearen existentzia gogoratzeko modu bat direlako. Orokorrean narratzailea esanetik kanpo kokatzen da. Guk orain esanean aurki daitezkeen aztarnak aztertuko ditugu, ez narratzailearenak.

Zenbait errelatuk historia bat kontaktzen dute eta era berean diskurtsoan metahistoria bat sartzen dute, hau da, historiaren historia edo diskurtsoaren historia: Kontaktetaren edukia noiz eta zelan ezagutu zen, noiz idatzi zen, materia zelan antolatu den...

Interferentzia hauekin narratzaileak bere kontaktetaren materia autonomoa dela aditzera eman nahi du, ez da bere arabera, hor dago eta berak ikusi besterik ez du egiten, hau da, sortzailea izan beharrean narratzaileak aztertzaile eta kronista joera hartzen du.

Gosaria Tiffanys-en nobelaren narratzaileak honela jokatzeko du, historiaren sortzailea izan beharrean, historiaren antolatzailea da. Pertsonaiek eta ekintzek testuaren mugetatik kanpo euren existentzia dute, errealitatea nobela baino zabalagoa da; honela bada, pertsonaiek diskurtsoa amaitzerakoan bizitzen jarraituko dutela suposatzen da eta beste historia batzutan parte hartuko dute, narratzaileak orain kontaktu nahi ez dituen historiak. Esana hasterakoan *Gosaria Tiffanys-en* nobelaren narratzaileak gertaeren ezagutza osoa duela aditzera ematen du, honekin esatea gertaeren osteko dela eta gertaerak idazten diren bitartean sortzen ez dituela frogatzen ez duelarik; gertaerak idazketaren

aurrekoak dira. Honen frogagarri guri aztertzea dagokigun nobelaren zati hau ikus dezagun:

«Egun haietan ez zitzaidan inoiz bururatu Holly Golightlyri buruz idazterik, eta orain ere ez zitzaidan bururatuko, Joe Bellekin izan nuen elkarriketa gertatu ez balitz, haretzek berriu bait zidan Hollyren oroitzapen osoa» (7-8).

Ondorioz, jarraian idatziko duena berak duen oroitzapen bat da, lehenagoko zerbait; gertaeren ezagutza osoa duela aditzera ematen du.

Ondorioz, esatearen denbora esanaren denboraren ostekoa da. Honen frogagarria nobela idatzia dagoeneko lehen aldia da. Hau da, narratzaileak kontatzen dituenak kontaketaren aurretik gertatu dira. Lehen aldiaren erabilera argia da:

«Sekulako jendetzak **jo zuen** atea. Hurrengo ordu laurdenean mutil zahar itxurako gizonek **bete zuten** apartamentua, uniforme zintziak batzuk, Marinako bi ofizial **zenbatu nituen** eta Haizetako bat; baina soldaduska aspaldi bukatutako gizon ile urdinduek **irabazten zieten**. Gazteak ez **zirela izan** ezik, gonbidatuek ez **zuten** ezer amankomunean, ezezagunen artean dauden ezezagunak **ziruditen...**» (37).

Gure nobelaren narratzaileak, beraz, historia idazketa denboraren aurretik daki baina honetaz gain gertakizunen antolaketa propioa egiten duela ere igartzen zaio:

«Ondoko asteek nire egun gorri propioak ekarri zizkidaten. Haste-ko, lanetik bidali ninduten; merezita, hemen kontatzeko nahasegia den jarrera oker eta xeble batengatik» (74).

Hau da, narratzaileak nahi duena kontatzen du, gauzak antolatuta ditu. Hurrengo adibideetan ere gauza bera frogatu daiteke:

«(...) hala ere, tabakozko tapioka izeneko zerbaitekin egin zituen saioak: hobe da ez deskribatzea» (80).

«Hobe da halaber portugesa menperatzeko egin zituen ahalegiak ere ez deskribatzea» (80).

La Regenta-ko narratzaileak gertakizunak, historia, antolatuta dituenaren itxura eman nahi duen bitartean gure narratzaileak ez du asmo hori, hala ere, aurretik aipatu ditugun adibideen antolaketa igartzen zaio:

«Keinu hura, sarritan errepikatua ikusirik, bere gauzetan gehitxo sartzen ari nintzelako seinaleztat hartzera heldu nintzen» (23).

Adierazpen hau narratzaileak keinu hura ikusi zuen lehenengo aldian dio eta hurrengo aldiei erreferentzia egiten die, ezagutzen duen geroari, hain zuzen ere. Adibide honetan ere narratzaileak egiten duen gertakizunen antolamendu propioa igartzen da.

Baina adibide honetatik beste ondorio bat ere atera dezakegu: nobelaren errelatuak muga batzuk ditu. Narratzaileak «hemen kontatzeko nahasegia den jarrera oker eta xelege batengatik» dioenean jarrera hori errelatutik kanpo dagola esan nahi du; hau da, errelatuari mugak ipintzen zaizkio, errelatuan zera kontatzen da: pertsonaiak euren bizitzaren momentu baten, zenbait ekintza, denbora eta espazio mugatua; historiaren elementuak diskurtsuan partzialki sartzen dira. Honela bada, pertsonaiak diskurtsotik kanpo ere bizi dira, beste ekintza batzutan parte hartzen dute...

Jarrera honekin narratzaileak hurrengo inpresioa eman nahi digu: berak ez ditu pertsonaiak maneiatzen, pertsonaiek askatasunez jokatzen dute, narratzaileak ez ditu pertsonaiak sortu. Diskurtsuak muga batzuk ditu eta historiak muga horiek gainditzen ditu, lehenago hasia delako eta diskurtsua amaituta jarraituko duelako.

Ironia: erreferentearekiko aldea

Ortegaren ustez gaurko artearen bereizgarriak berezienak deshumanizazioa eta ironia dira. Honek ez du ironia literatura berri edo modernoaren ezaugarri bakarrik denik esan nahi; literatur obretan betidanik dago. Baina literatur hizkuntzan egoteaz gain eguneroko hizkuntzan ere badarabilgu. Edozein kasutan ere ironiaren oinarrian igorleak gertaeren aurrean hartzen duen jarrera, obrari gagozkiolarik, ironia modu ezberdinetara ager daiteke. Orain modu desberdin horiek azter ditzagun.

Ironia pragmatikan koka daiteke. Hartzaileak jarrera bat har dezan nahi duenez igorleak, ironia zuzentzeko modu bat da. Kritikak ironia ezaugarri estilistikoaren artean aztertu du, esaten denarekiko adostasuna edo adostasun eza inplikatzan duelako. Honetaz gain, ironiak autorearen (igorlearen) eta irakurlearen (hartzailearen) artean kodigo estetikoaren parekotasuna eskatzen du. Aspektu guzti hauek azterketa semiotiko baten aztergaiak izan daitezke.

Ironiak (humoreak, metaforak etabarrek ere) sintaxia eta semantika semiotikaren aztergaiak diren espresatzeko moduak eta esanahiak ditu. Baina gu arlo semantikoaren inguruan gehiago arituko gara.

Ironian, edozein modutakoa izanda ere, «sistemaren apurketa» gertatzen da. Ironia apurketa bikoitz baten bitartez antzematen dugu.

Terminoen esanahi erreferentzialaren eta textuan hartzen duten esanahiaren artean kontrastea sortzen da; ondorioz, lehenengotan irakurleak terminoen esanahi erreferentziala antzematen du (lehenengo irakurketa) baina termino hauek kontextuan aztertuz euren esanahi berria aurkituko dugu (bigarren irakurketa). Ondorioz, ironia metaforaren antzekoa da: terminoen balio erreferentzialen eta balio ironikoen arteko interakzio semantikoa sortzen da.

Dakigunez, nobela bateko ironia maila desberdinetan aurki daiteke. Nobelaren planteamendu orokorra ironikoa izan daiteke. Planteamendu ironiko honek traman eragina du, sakoneko ironia deritzo. *El Quijote*-k adibidez, planteamendu ironiko orokorra du: Burutik ondo daudenen gizarte bateko zoro bati arrazoiaren bidea aurkitzea dagokio (dakusagunez, planteamendu hau guztiz ironikoa da). Planteamendu honekin Cervantesen irakurlearengan gizarte horren mesprezua lortu nahi du. Narratzaileak ez du gizarte hori zuzenean mesprezatzen, baina ironiaren bitartez efektu hori lortzen du, hau da, ironia zeharkako balorazioa da. Zuzeneko balorazioa baino eraginkorragoa beharbada. Cervantesek ez du gizartearekiko mesprezua inposatu, baina irakurleak gizartea mesprezatu dezan lortu du.

Tramaren ironiaren alboan, maila txikiagoko elementuen ironia dago. Autoreak edo narratzaileak pertsonaiak ere ironikoki trata ditzake. Kasu honetan pertsonaiak modu batera aurkezten dira (esanahi erreferentziala, lehenengo irakurketa); baina irakurleok ondorioztatzen duguna beste gauza bat izango da, esanahi erreferentziala textuan kontrastatua dugulako (bigarren irakurketa).

Honela bada, pertsonaia bat pertsona on, eta zuzen bat bezala aurkez daiteke, baina joku ironikoaren bitartez pertsonaia hori faltsu eta ganorabakoa dela ondorioztatu dezakegu, narratzaileak azken hau zuzenean ez dioen arren. Irakurlea autorearen ironia honetaz konturatu dadin, ez dute euren artean testutik kanpoko balioen sistema berdina eduki behar. Ironia testuan autonomoa da. Bigarren mailako pertsonaiak ironikoki tratatzea adibidez, askotan gertatzen da. Efektu hau pertsonaia desberdinak elkarren artean oposatuz ere lor daiteke; hauetako pertsonaia bat ironikoki tratatua dago eta bestea ez. Honela ironikoki tratatua dagoena oraindik ironikoago dirudi. Sarritan bigarren mailako pertsonaia hauen gan «izakeraren ironia» aurkezten zaigu: pertsonaiak beste irudi bat eman nahi du, baina lortzen duena kontrako efektua da. Pertsonaiengan gertatzen den bezala ironia sintaxiaren beste elementu funtzionaletan ere ager daiteke: denboran, espazioan, etab.

Azkenik, adierazpen ironikoak daude, helburu sakonik ez duten adierazpen hutsak, hain zuzen ere. Ironiak termino bi erlazioan jartzekoan intentsifikazio semantikoa lortzen du. Intentsifikazio hau modu

desberdinetara lor daiteke: termino bat errepikatuz, erlazio metonimiko eta metaforikoaren bitartez etab.

Ironiaren esanahi erreferentzialaren eta kontextualaren arteko kontrastea termino bati kontextuan ez dagokion esanahia emanaz lortzen da. Irakurleak esanahi biak antzeman beharko ditu, bestela ironia ondo ulertuko ez duelako. Era honetan bada, esaldia, parrafoak etab. ironikoak izan daitezke.

Jarraian *Gosaria Tiffanys-en* nobelaren ironia azter dezagun. Sarrean, lehenengo eta behin, nobela batek eduki dezakeen planteamendu ironiko orokorrari buruz hitz egin dugu, traman eragina duen ironia, hain zuzen ere. *Gosaria Tiffanys-en* nobelan ironia mota hau soma dezakegu? Honetarako nobelan zer planteatzen den jakin beharko dugu. Nobelaren erdigunea Holly Golightly da eta kontaktzen zaiguna azken batean Hollyren bizitzaren zati bat da, narratzailearekin harremana izan dueneko zatia alegia. Holly oso pertsonaia bitxia da, bitxiegia hobeto esanda: jatorri iluneko edo arrarokoa, hamalau urte betetzerakoan ezkondu zena, gero bere etxetik aldegin zuena, nobelak hartzen duen denboran New York-en bizitza harrigarria darama. Gizon askorekin dabilena... (guzti hau kontatzea ez da orain dagokigun gauza). Aipatu ditudan elementu hauek planteamendua ironikoa egiten dute? ez. Holly guztiz pertsonaia zoroa da, baina honekin bakarrik ez zaigu ironiaren bitartez kontrako efekturen bat sortu nahi. Esan duen moduan, Holly oso berezia da. Berezitasun honek erakargarri bihurtzen du eta eta arazorik ez daukan bitartean jende asko hurbiltzen zaio. Hurbilketa honen arrazoa batez ere bere edertasuna da, eskura erreza dirudien edertasuna. Honetaz gain bere bizimodu alaia etab. ere bai. Baina berarengana hurbiltzen diren guztiak zerbait lortu nahi dute, gutxi batzuk izan ezik (narratzailea O.J. Berman eta J. Bell izan ezik). Ondorioz, arazorik ez daukanean jendea hurbiltzen zaio:

«Ez zegoen bakarrik. Gizon bat zetorkion atzetik. Haren eskuek neskaren kadirak heltzeko zuten erak desegokia zirudien... Azkenean ordea, giltza aurkitu eta atea ireki ondoren, gizonarengana jiratu zen atsegin.

—Eskerrik asko, maitea. Oso jatorra izan zara etxeraino lagunduz.

—Aizu neska! —esan zuen gizonak, atea muturrean ari bait ziren ixten...

—Aizu, polit hori, utzidazu sartzen, polita. Gustokoa nauzu, polit horrek...» (16-17).

Hollyrekin apartamenduko ateraino gizon bat joan da; gizonak beraraino lagundu dio, baina laguntza horren ordez zerbait nahi du, sexua ziur aski. Eta hurbiltzen zaion jende gehienek ere berarengandik horrelako zerbait nahi du, eta hurbiltzen zaizkionak asko dira:

«Sekulako jendetzat jo zuen atea. Hurrengo ordu laurdenean mutil zahar itxurako gizonek ere bete zuten apartamendua, uniforme zintziak batzuk, Marinako bi ofizial zenbatu nituen eta Haizetako bat, baina soldaduska aspaldi bukatutako gizon ile urdinduek irabazten zieten» (37).

Baina gerora Hollyri arazoak sortzen zaizkio:

«PLAYGIRL BAT ATXILOTUA DROGA ESKANDALUAN (Journal-American), AKTORESA ATXILOTUA DROGA KONTRABANDOAN (Daily news), TRAFIKANTE SAREA DESEGINA, POLIZIAK NESKA EZAGUN BAT HARTU DU (Daily Mirror)» (88).

Holly arazo handi baten sartu da, gartzelara daramatelarik. Honekin batera bere inguruan zebiltzatenek (Narratzaileak, Joe Bellek eta O.J. Ber-manek izan ezik) ihes egiten diote. Ez dakite zihur Holly erruduna den edo ez, baina hor konpon; berarengandik aldentzen dira:

«Minduegi eta dardartiegi nengoen bakarrik jazteko; Joe Bellek lagundu behar izan zidan tabernako telefonoan sartu ninduen, martini bikoitz bat eta txanpanez betetako Brandy kopa batekin. Baina ez nekien nori hotsegin. José Washingtonen zen, eta ez nekien berarekin harremanetan nola jarri. Rusty Trawler? Putakume hura ez! Baina, beste lagunik nor ezagutzen nuen? Arrazoi zuen lagunik batere ez zuela esan zuenean, benetakoak ez behintzat» (93).

Modu batekoa izatera lagundu diotenak gero halakoa izateagatik sortzen zaion arazo baten abandonatzen dute. Ironia hartan datza. Ez da barre egiteko ironia, baina ironikoa da. Jarrera hau batez ere Jose-rengan igertzen da. Jose hasiera batean pertsona zuzena dirudi, Holly inguratzen dutenen artean normalena edo onargarriena beharbada. Jose eta Hollyk barkatzen diote elkarri eta erlazio nahiko sakona mantentzen dute: Holly haurdun geratzen da eta ezkontzeko planak ere egiten dituzte:

«Zeren nik maite bait dut José: berak eskatuko balit erretzeari ere utzi egingo nioke. Adiskide ona da, barre egin erazten dit baina egun gorrietan ere,...(82).

«—Azken finean, badaki haurdun nagoela. Bai, maitea, halaxe nago» (81).

«Larunbatean zortzi. Erosi ditu Josék txartelak —trantzean ia, ka-lean behera eramaten utzi nion—. Miamin aldatuko ditugu hegazkina. Gero itsasoaren gainetik» (84).

«—Ezkonduko gara, eta ondo gainera. Elizan. Eta bere familia han izango da. Horretxegaitik ari gara itxoiten Riora ailegatu arte.» (85)

Hollyk narratzaileari asmo hauek kontatu eta lasterrera Hollyren arazoa sortzen da eta (aurretik aipatua dugu). Baina Jose gizon publikoa da eta Hollyren arazoak kaltetu dezakela sumatzen duenean ihes egiten du (Holly haurdun dagoela gogora dezagun).

«"Nire maitetxo hori,... baina saia zaitetz ulertzen zernolako desesperazioa sentitu dudan hain era gordin eta publikoan jakitean nolako aldea dagoen zu eta nire erlijioa eta karrera duen gizonak emaztetzat hartzea esperoko lukeen emakumearen artean... Orain ez nago hemen. Etxera joan naiz. Jainkoa izango ahal da beti zurekin eta haurrarekin. Ez ahal da jainkoa izango izenpetzen duen hau bezalakoa José» (97-98).

Zita hau Josek Hollyri utzitako eskutitzaren zati bat izan da. Josek ere abandonatu du. Bere inguruko «lagunek» (lehen aipatu ditudan hirurak izan ezik) kategorrian utzi dute. Narratzaileak hori, gizartearen ustelkeria, hain zuzen ere, aditzera eman nahi digu, zuzenean ez badio ere. Planteamenduaren zati hau, beraz, ironikoki tratatua dago, baina zati hori ez da planteamendu osoa.

Tramaren ironiaren alboan, maila txikiagoko elementuen ironia dago. Sintaxiaren elementuen artean *Gosaria Tiffanys-en* nobelan ironia mailan elementurik interesgarrienak pertsonaiei dagozkienak dira. Nobela honetan zenbait pertsonaia ironikoki tratatuak daude. Has gaitzen O.J. Bermanekin. Nobelan O.J. Bermanek narratzailearekin daukan harremanaren zatirik handiena Hollyren apartamentuan elkar ezagutzen dutenean gertatzen da. Elkarren artean hitz egiten hasten dira, baina beti ere elkarrizketaren zuzendaritza O.J. Bermanek daramalarik, O.J. Bermanen zenbait hitz har ditzagun:

«Baina hori The Story of Dr. Wasel baino lehenago izan zen orduan izan zuen aurrera egiteko aukera. Nik badakit, ni bait nintzen bultzatu behar zuena - puroaz bere burua seinlatu zuen O.J. Berman.» (34).

O.J. Berman oso pertsona ezaguna izango bailitzan jokutzen ari da, harrokeria. Harrokeria horrek oinarri sendoa eduki lezake, bera benetan pertsona ezaguna eta garrantzitsua izango balitz bai. Kasu honetan ez litzateke ironiarik egongo. Baina, O.J. Bermanen hitzak kontextuan azter ditzagun. Hona hemen narratzaileak O.J. Bermanen hitz horiek entzun da gero pentsatzen duena:

«Ezagutzea espero zuen, eta ez zitzaidan batere axola itxurak egitea, nahiz eta ez nuen sekula O.J. Bermanen berririk izan. Hollywoodeko aktore agentea omen zen» (34).

Narratzaileak ez du O.J. Berman ezagutzen, baina ezagutzen dituenaren itxurak egiten ditu (Egia esanda barrutik barre egiten ari da). Ondorioz, O.J. Bermanek bere burua handitzat dauka, baina irakurleok ondorioztatzen duguna ez da hori. Narratzaileak ez dio zuzen-zuzenean O.J. Berman harroa eta inñuzentea denik, baina hala aditzera ematen du, ironiaren bitartez, hain zuzen ere. Ironia hau O.J. Bermanen hitzen esanahi erreferentziala kontestuan kontrastatuz lortzen da; bere deskribapenak ere kontraste hau nabarmentzen du:

«—Tipo bitxi batek ireki zidan atea. Tabako eta Knize koloniaren usaina zerion. Oinetakoetan takoi altuak zeramatzan; erantsitako zentimetro horiek gabe, nanotzat har zitekeen gizon hura. Burua, soila eta pekaz josia, ipotx batena bezain handia zen: eta han erantsiak belarri luzeska pare bat zeuden, elfoenak bezalakoxeak.

Pekines begiak zituen, kupidagabeak eta nabarmenak. Ile matazak ateratzen zitzaizkion belarrietatik, sudur zuloetatik; arratsaldeko bizarrak estaltzen zizkion masailezurak, eta esku ematea iletsua zuen ia-ia» (31).

O.J. Bermanen deskribapena bere buruaz harro dagoen Hollywoodeko aktore agente baten deskribapenetik ezin urrunago dagoela dirudi.

Bestalde, lehenago aipatu dugunez pertsonaien arteko konparaketak ezarriz pertsonaia baten tratamendu ironikoaz errezago ohar gintezke. Kasu honetan O.J. Berman Joserekin konparatuz O.J. Bermanen tratamendu ironikoa errezago ikus genezake. Jose itxuraz elegantea, maila handiagokoa da eta daukan lanpostua kontutan hartuz harro egoteko O.J. Bermanek baino arrazoi gehiago dituen arren apalagoa da:

«Konbinaketa zaindua zen, haren buru ilunak eta torero plantak bazuen zehaztasun bat, perfekzio bat, sagar batena, laranja batena bezalakoa, naturak erabat osatua duen zerbait. Honi erantsirik eta hornidura gisa, traje ingelesa eta kolonia bizi bat zeuden, eta oraindik ere latinoen kontraegoa dena, jarrera apala» (48).

Itxura ona eta jarrera apala, O.J. Bermanen kontraegoa.

Hala ere, aurrerago zerbait ikusi dugu, Jose ere azkenean ironikoki tratatua dago, baina ironia mota hau O.J. Bermanekin erabiltzen denaren desberdina da (aurrerago aztertuko dugu).

Ironikoki tratatua dagoen beste pertsonaia bat Mag Wilwood da. O.J. Berman ironikoki tratatuz lortzen den efektua gehienbat barregarria da. Magen kasuan, berriz, barregarritasunaz gain mesprezua ere soma daiteke. Hona hemen Magekiko ironia honen adibide argi bat, kasu honetan Hollyk esandakoen bitartez:

«—Oso tristea da —isilik geratu zen, espresio galdekorren zenbatekoa kalkulatzeko adina denbora, nahikoa zen—. Eta hain misterio-tsua. badirudi nabarmenagoa beharko zuela izan. Baina, jainkoak ondo daki, oso itxura osasuntsua du. Hain, zera, gabia. Horixe da harriarriena. Ez al zenuke esango —aldetu zuen kezkatu, baina zehatz inori ez ordea—; ez al zenuke esango oso itxura ona zuela?» (46).

Hitz hauek Hollyk bere apartamentuko jaietan esaten ditu. Magi buruzkoak dira eta ironiaz beteta daude. Hollyk Magek nabarmenagoa izan beharko lukeela dio; esanahi erreferentziala hori da, baina esandako hori kontextuan erlazionatzen dugunean guztiz aurkakoa esan nahi duela ondorioztatzen dugu. Mag nabarmenagoa izan dela esan nahi du:

«Neroni aurkeztuko naiz... mag Wi-Wilwood naiz, W-Wilwoodkoa, Arkansas toki menditsua da.

Dantzan ari zirela zirudien, pauso xebreak egiten Berman, arerioei tartean sartzen ez uzteko. Usoei botatako artoa balira bezala neskaren txiste totelak irensten zituzten gizon taldean galdu zen ordea Mag» (45).

Hau da, Mag guztiz zaratsua izan da.

Hollyren aurreko hitzekin jarrai dezagun. Hollyk mag itxura osasuntsukoa eta garbia dela dio. Baieztapen hauek kontestuan ikusi ezker guztiz kontrakoa esan nahi dutela ondorioztatuko dugu, Mag itxura txarreko eta garbia ez dela, hain zuzen ere; narratzailearen hitz hauek dioten bezala:

«(...) hornidura bihurtu zituen Magek bere akatsok argiro onartuz. Luzera azpimarratzen zioten takoiak, hain altuak ezen txorkatilak dardarka zeramatzen; korpino estu eta soil bat, hondartzara praka hutsetan joan zitekeela adierazten zuena; estu-estu atzeruntz orraztutako ilea bere modelo aurpegiaren giharrea eta gosea nabarmentzen zizkiola. Totelkeria ere, berezkoa izaki, apur bat areagotua zeukan, abantaila bihurtua» (45-46).

Ondorioz, guk Hollyk esandako hitzak irakurtzerakoan eta interpretatzerakoan erreferentearekin apurtu egiten dugu, hitz horiek kontextuarekin erlazioan jarri; ironiaren berezko jokua, hain zuzen ere. Baina gu narratzailearen eta erreferentziaren arteko harremanak aztertzen ari gara eta hitz hauek Hollyrenak dira. Hala ere, narratzaileak Hollyren hitz horiek bereak egin ditu. Narratzaileak nahi duena kontatzen duela eta diskurtsoaren moldaketa egin duela gogora dezagun. Honela ba, «itxura» eta «garbia» hitzak kurtsibaz idatzita daude (narratzaileak idatzita, testuaren idazlea bera dela aitortzen duelako) irakurlea hitz hoiaren ironiaz errezago kontura dadin.


Beste pertsonaia bat Rusty Trawlwe da. Nobela irakurtzerakoan Rusty ironikoki tratatua dagoela pentsa bagenezake ere, ironiaz barik mespretxuz tratatua dagoela esatea komenigarriagoa da.

«Holly “feto absurdo” harekin ezkontzen bazen, munduan gora zihoan injustiziaren armadak neroni ere bereganatuko ninduen» (75).

Azkenik, Jose aztertuko dugu. Joserengan jartzen den ironia ez da aurretik aztertutako pertsonaiengan dagoenaren modukoa eta funtsean ironia guzti hau Josek, joaterakoan, Hollyri utzitako ezkutzitzean konzentratzen da:

«“Nire maitetxo hori, besteak bezalakoa ez zinela jakinik maitatu zaitut. Baina saia zaitez ulertzen zernolako desesperazioa sentitu du-dan hain era gordin eta publikoan jakitean nolako aldea dagoen zu eta nire erlijioa eta karrera duen gizonak emaztetzat hartzea esperoko lukeen emakumearen artean. Pena handia dut, benetan, zure gaurko egoeraz, eta bihotzak ez dit uzten dagoeneko inguratzen zaituzten salaketei nirea gaineratzen. Beraz, zure bihotzak ni ez salatzeke agin-duko dizula espero dut. Nire familia daukat babesteko, eta nire izena, eta izutia naiz instituzio horiek jokuan direnean. Ahantz nazazu, txiki polit horrek. Orain ez nago hemen. Etxera joan naiz. Jainkoa izango ahal da beti zurekin eta haurrarekin. Ez ahal da Jainkoa izango izen-petzen duen hau bezalakoa, José”» (97-98).

Josek zintzo itxura eman nahi du, baina irakurleok ondorioztatzen duguna faltsua delakoa da. Eta hori zelan ondorioztatzen dugu? Bere hitzak narratzaileak eraiki duen kontestuan aztertuz. Ironiaren jokia, hain zuzen ere.



Ezpata txanpontzat

Unai Elorriaga

Maiz egiten zituen Josek gogoeta berberak. Ez zekien zergatik zeuzkaten gizonak horren buru desberdinak. Hau pentsatzean, jakina, Jesus Bengoetxea, bere lagun mina, zeukan gogoan. Jesus pertsona atzeratu bat zen, sarritan baztertuak gertatzen diren horietakoa. Herri txikietan, askotan, burla-gai hartzen den gizon modua.

Josek bihotzez estimatzen zuen, ordea. Halakoa zen Eibarren jaiotako gizon honen izaera; handi-itxurako pertsoneri iseka eta gizaki apalei berorika egingo zien. Nortasun hau gerran gorpuztu zuen.

Gerra zibilak nabarmen markatu zuen, hura igarotzeko modua kontutan hartuz gero. Frankoren tropak harrapatu eta bonbak desaktibatzen pasa zituen urte batzuk. Armen jaioterrikoa izaki ez omen zuen aitzakirik aurkitu behar hori saihesteko.

Une beltzak bizi izan zituen langintza zatar honetan. Bonba batek eztanda egin eta pake garaira eraman zuen metraila zati handi bat sartu zitzaion eskumako hankan. Beste behin, bonba bat desaktibatzeko agindua hartu eta proiektila bilatzen zebiltzala, ohe baten azpikaldean hezurdura oso bat topatu zuen ile eta guzti.

Baina, tartean, momentu barregarriak ere ez ziren aparte egon. Atxilotu baino lehen, herri batean sartu eta bertan ikusi zuten etsaien furgoneta bat, barnean bi edo hiru soldadu zeuzkala. Errekaren alboan zegoen geldi-geldi eta Joserren koadrilaren laguntzaz, bai furgonetak baita soldaduek ere bainu freskagarri bat hartu zuten bizpairu metrotako hegaldia egin eta gero. Soldaduei adarra apur bat jo eta, badaezpada, mendira egin zuten ihes.

Frankistek harrapatu zituztenean ere bada horrelako pasarterik. Alde batetik bestera bidaltzen zituztenean, bagoi berean sartu ohi zituzten euskaldun guztiak. Behin, bati, tripak txarto zeuzkala eta, kaka-gurea etorri zitzaion. Josek berak eman zion kaskoa bertan utz zezan

oparia, besterik ez bait zegoen. Kasko hura, harrezkero, ezin izan zuen berriro jantzi.

Jesus, egunotan, zorionsu zebilen, Don Bernardo Basagoitik batzar batera deitu ziolako.

Don Bernardo bertako aberatsena zen. Familiak heredentziaz utzitako ondasuna zeukan baina, halere, errespeto handia zor zaion pertsona horietakoa zen.

Garai horretan «club» antzeko bat sortzeko ahaleginetan beste lau jaunekin elkarte bat osatu zuen. «Club»a egin eta gero diru kantitate eder bat jarrita «sozio» bihurtzeko aukera eukiko zuten herritarrek. Bazkideek beraien diruekin erosi zuten lokala eta, halaber, beraien poltsikotik ordaindu zituzten barneko prestaketak, hau da, taberna, jantokia eta kartetan ibiltzeko inguru bat. Jolastoki hau zela eta «kasino» izena hartuko zuen gerora herritarren ahotan.

Dena prest zeukaten baina abokatu batekin kontsultatu eta honek aseguru bat behar zutela ihardetsi zien. Taldekideek, ordea, ez zeukaten diru gehiago ipintzeko gogorik eta ideia bat euki zuten: «Jesussek dirua eduki behar du; ez du ezertan gastatzen eta egunero, sekula faltarik egin gabe, “Altos Hornos”era doa lan egiten» esaten zuten bazkideek. «Bai, gainera engainatzeko errez samar daukagu» erantzun zuen Bernardo presidenteak irribarre ironiko bat luzatuz.

Honela, bada, Jesus konbokatu zuten eta, inongo lotsarik gabe, behar zuten dirua eskatu zioten. Honen erantzun sinplea «baina nik dirua ipintzen badut, erosten duzuen hori nirea izango da, ez da? Eta neure izena paperetan agertuko da, ez da?» izan zen. Bernardok baietz esan zion eta halaxe egin zuen. Jesusen izena jarri zuen aseguruaren paperetan. Haren sinadura eta dirua falta ziren bakar-bakarrik. Jesussek, gurutzea egiteko esku tartean sekula euki ez zuen luma eman ziotenean, azken gauza eskatu zion Bernardori: «Jauna, ni kasinoko sozio izango al naiz?» «Jakina» esan zion aberatsak arin izenpetu zezan.

Jesus eta Bernardoren arteko tratuak jakin zirenean, «Altos Hornos»eko gertaera famatu hura gogoratu zuen Joserren ilobak. Jesussek, dirudienez, ez zituen zenbakiak ezagutzen eta hilabetero soldata ematen zion langileak parte bat gordetzen zuen berarentzako. Jesus, aldiz, lagun batekin joan ohi zen lanera eta soldata hartu zuten arratsalde batean, Bilbora abiatu ziren paseo bat ematen. Telmok, lagunak, esko-petarako kartutxo batzuk erosi zituen eta Jesussek ere, imitatu nahian edo, zerbait erosi nahi zuela esan zion. Handik lasterrera, landareak saltzen zituzten denda baten ondotik igarotzean, arrebari horrelako berde eta zuriak gustatzen zitzaizkiola eta, haiek erostea erabaki zuen. Telmo-

ri mesedez eskatu zion bere sobretik dirua hartzeko eta ordaintzeko. Honi, Jesusen sobrea ireki eta laurdena edo falta zela konturatu zenean, soldata banatzailea etorri zitzaion burura. Hurrengo egunean, entzun beharrekoak entzun zituen langile bihozgabe horrek.

Josek, askotan, laguntzaile gisa izaten zuen Jesus bere lantokian. Ardura gabeko enkarguak ematen zizkion baina biak ere gustora ibiltzen ziren elkarrekin.

Josek, bestetik, kotxe txiki bat zeukan eta garai haietan, gauza berezia zen lujo hura. Batzutan Bilbora joateko beharra zuela eta, kotxea hartzera joan eta han, peto-peto, aurkituko zuen Jesus, edonora laguntzeko prest. Holakoetan, ostera, ez zion adarra joko horretarako abagunea eukita, nahiz eta bromak Joserren afiziotako bat izan.

Bere broma hauen helburu emaztearen ahizpa izaten zen. Behin egin ziona ez zuen sekula ahaztuko. Amaginarrebaren etxera gonbidatu bezala joan zen Jose bazkari batera baina jateko ordua bazen dagoeneko eta emaztearen ahizpa falta zen mahaietan. Dirudienez, hura gabe ezin zioten bazkariari hasiera eman. Josek, erabat birrinduta, leihotik begiratu eta, ate ondoan, itxaroten ari ziren neska bere nobio berriarekin ikusi zuen. Orduan, lapiko bat urez bete eta leihotik botata, «maitale» biak blai-blai utzi zituen. Neskak ez zuen berriro mutila ikusi harrezkero.

Bernardo eta bere lagunek asegurua sinatu eta handik gutxira inauguratu zuten kasinoa. Lehenengo egunean herriko pertsonai inportanteenak bazeuden sozio bezala, hauek bakarrik ordain bait zezaketen bertako kuota.

Aste batzuk igaro eta sozio kopurua handia zenean, lehenengo festa egitea erabaki zuen Basagoiti jaunak. Guzti-guztia ondo baino hobeto prestatu zuten, gizon garrantzitsu hoiek gustora gera zitezen.

Bederatziretan hasi ziren gonbidatuak iristen baina, halako batean, Jesus ere hara hurbildu zitzaien, bera «sozio zelako». Atezainak ezetz nabarmena luzatu zion baina Jesusek «Bernardo Basagoiti jaun lagunari» deitzeko esan zion. Don Bernardo, halere, ez zen agertu eta atezaintzailea haren mezuarekin itzuli zen: «Don Bernardok ezin zarela sartu esan dit».

Protesta izpirik ere ez zuen Jesusek azaleratu baina bertatik erabat betilun joan zen.

Josek ez zuen egunotan Jesus ikusi. Lantegira ere ez zen etortzen baina astebete baino lehen bere betiko aldarlean topatu zuenean lasaitu egin zen.

Joseren aitagarrebari, Adolfori, ez zitzaion batere gustatzen Jesus eta kasino horren arteko harreman ilun hura. Ez zuen, halere, ezer ere esango. Adolfo, beti, jaun goren bat bezala tratatzen zuen Jesus eta, hargatik, gustora joango zen Bengoetxea jauna haren kristaleri dendara.

Adolfo lekuz kanpo jaiotako XVIII. mendeko ilustratu bat zen. Fabulak irentsi egiten zituen, haien irakaspenak bere alabei azalduko zizkielarik. Samaniego, Esopo eta beste asko zeuzkan maisu baina ikasitakoak ez zituen buruan gordeko baizik eta ekintza moduan plazaratuko zizkigun. Gustora zegoen umeeekin eta bere alboan zegoen oro zerbait ikasi gabe ez zitzaion aldamenetik aldenduko. Ipuinak asmatuko zituen, buruko errota mugitzeko jokoak erakatsiko zizkien, jostailuak egingo zituen eta, pazientzia agortu gabe, irria piztuaraziko zien. Eskolan baino gehiago ikasiko zuten zenbaitetan, beraz. Halaber, ume bat bezala ikusten zuen Jesus eta neurri horretan maite zuen.

Jose bromazalea zen eta, bereziki, haundinahiak ikusi nahi zituen algarapean. Hala izaki, kasinoan ematen zuten hirugarren festarako, arraultze bi usteltzen utzi zituen. Nahiz eta ez zen oraindik uda ailegatu, egun sargaritsu bat suertatu zen jaia ospatu zen hura. Kasinoan leiho bat utzi zuten irekita baina, hori bai, gortinak itxita, jende xeheak haien dantzaldia ikusi ez zezan.

Gauerdian, kasinotik hogeitabost bat metrotara zegoen bere etxetik atera eta leihopean jarri zen Jose, neska bati gordea egiteko prest balego bezala. Ehiztari izakerak emandako abileziarekin arraultze usteldu biak bota zituen leihoa eta gortinaren arteko zoru zatira. Kolpearen ondorioz apurtu eta kiratsa hedatzen hastea bat izan zen. Jendeak, orduan, arrazoirik eman gabe, etxerako bidea hartu zuen apurka-apurka. Lasaitasunez ere ez zuten hartu, hogeitaz minututan ez bait zen bertan inor geratzen.

Bernardok ez zituen nahi aina edari saldu gau horretan eta etxera joateko atea ixten ari zenean, «paseatzen» zebilen Jose topatu zuen. «Zer, paseatzeko gau ederra, e?» galdetu zion aberatsak, «Bai» erantzun zion «fresko usaina ere nabaria da!»

Bernardo jauna eta bere familiak urtero ospatzen zuten San Juan gaba afari oparo batekin. Ohitura bihurtu zuten Basagoitiarrek eta egun seinatu honetan famili osoa biltzen zen handik eta hemendik ekarritako jakiak dastatzeko. Jai giroan pasatzen zituzten gau hauek, batak bere ibilerak kontatzen zituela, besteak pasarte barregarri bat aipatzen zuela, eta abar.

Baina giro goxo hori eten egin zen gau hartan, Bernardoentzat berderen. Telefono deia entzun zuen gauerdian aldera eta «kasinoa suak

hartuta dauka, Don Bernardo» izan zen bertatik galbahetu zen mezua. Aditu orduko, izerditan jarri, telefonoa utzi eta korrika bizian abiatu zen hara. Bidetik, San Juaneko bizpairu su ikusi zituen, aurkitu behar zuen haundi horren zantzu balira bezala.

Kasinora heldu zenean ez zegoen dagoeneko ezer egiterik. Teilatua erabat jausita zegoen eta handik bost minututara erainkuntzak zeukan solairu bakarra behera etorri zen. Suhiltzaileek, gainera, eginahalak eginagatik, alferrikako lana suertatu zen. Hurrengo eguneko izpiak iritsi baino lehen, Josek behin ikusi zuen hezurdura baino errukarriaga zen kasino horretatik geratzen zena.

Bernardok ez zuen berehala erreakzionatu; holako unetan egiten zena ez zuen egin. Ez zeukan gogorik bere taldekideak ikusteko eta are gutxiago sozio berri aberatsak bisitatzeko. Hargatik, Baionan zeukan etxe batera aldegin zuen eta bertan pasatu zituen pare bat aste.

Laster konturatu zen, ordea, ezin zituela eginbeharrak alde batera utzi eta etxera itzuli bezain pronto hari guztiak mugitzen hasi zen. Bien bitartean, taldekideek eta sozioek ez zuten erabakirik hartu, errespetoz edo. Erreketatik hiru aste pasata zeudela egin zuten beraz, lehenengo bilera. Erabakia argia izan zen: lehenengo eta behin aseguruua kobratu behar zuten. Gerora, ikusiko zituzten aukerak. Posibilitate bat dirua sozioei berriro bueltatzea zen; bestea, antzeko beste eraikuntza bat egi-tea, lehengoa baino apalagoa noski.


Honela, hurrengo egunean, Bernardo bera joan zen aseguruua kobratzera. Bere harridura, ostera, deskribaezina izan zen. Basagoiti jaunaren lehenengo hitzak «Egunon, eukiko duzue dagoeneko erreketaren berri, jakina, eta konpania honekin sinatuta daukagun aseguruua kobratzera nator» izan ziren. Langileak bazekien, gehiago esan gabe, nor zen eta zer eskatzen zuen jaun horrek baina, halere, irrifarre maltzur batekin erantzun zion: «Barkatu jauna baina aseguru hori kobratuta dago. Duela bi aste eta erdi, aseguruaren jabea etorri zen, Jesus Bengoetxea jauna. Gure langile bat gertakarien lekura joan eta argi ikusi zuen istripu baten ondorioa izan zela (alboan zegoen San Juan sutereren bateko zenbait txinparta seguruenik) egiaztatu zuen. Nola ez, aseguruak emandako diru guztia, gustora, Jesusek berak eraman zuen».

Don Bernardok ezin zuen guzti hura sinistu baina gehiago pentsatu gabe Jesusen etxera bideratu zituen pausuak. Honen atarira heldu eta atea jo zuenean arreba irten zitzaion. Jesusekin egon behar zuela esan zion, ea etxean zegoen. Honek baietz eta berehala deituko ziola. Halere, handik gutxira bueltatu zen arreba, bakarrik. «Jesusek zurekin ez duela ezer nahi esan dit. Agur» izan ziren honen azken hitzak atea itxi aurretik.

Bernardok erositako txanpon berberarekin kobratu zuen, beraz.

Hurrengo urtetan, etxean inguruan egiten ziren San Juan sute guztiak debekatu zituen udalak, denek uste bait zuten hauen erruz erre egin zela kasino berria. Baina Josek ez zion sekula inori esango San Juan eguneko gauerdia horretan bere etxeko leihoan egon zela eta, behean, kasinoaren inguruan, Jesus ikusi zuela eskailera batekin eta laupabost zuzirekin. Ez zion inori esango Jesusek zuzi gartsuok bai leihoetan barrena baita teilatuan ere ipini zituela gero eskailera hartzeko eta handik lasterka joateko.

Ez zion Josek inori esango bazekielako ezpata txanpontzat erabiltzen duen gizonak ezpata sartuta amaitu behar duena.



Malen

Ainhoa Segura

Paris, 1994ko Ekainak 27.

Kaixo laztana,

Bi aste dira etxetik kanpora nagoela eta badirudi urteak pasa direla. Hala ere ez dut zure begirada ahaztu, ezta zure ezpainen irripar ezta ere. Biok daukagun altxor preziatuak ez die gure bihotzei elkarrengandik urruntzen uzten eta ziur nago, zoriontsu egingo gaituela betirako.

Ederra da Paris. Orain lanean nabil, arnasa lasai hartzeko astirik gabe, baina bada zerbait nire eginbeharra arinagotzen duena: eztei bidaia. Sekula ere ez naiz aspertuko egin dudan bidaiarik zoragarriena izan dela esaten. Erreportaia pare bat besterik ez zait falta; igandean bueltan izango nauzu.

Ondo gorde gure altxorra, inork ere lapur ez diezagun. Maite zaitut.

lone.

Irakurriaz batera, ongi tolestu eta eskutitez gainezka dagoen zurezko kutxan sartu du; bertan daude ezkon aurreko maitasun olerki guztiak ere. Laster, kutxa haundiagoren bat beharko du, baina... nork daki zer gertatuko den biharko egunez? Mariok ez du geroaz mintzaztea atsegin; biharkoa, biharko utzi behar dela esaten du, ez dela planik egin behar, denak gaizki ateratzen direla eta. Egia esan, Marioren bizitza hondoa jotako plan bat baino ez da.

* * *

Itsasoa bare; eguzkiak ez du zero zabalean bere izpiak luzatzeko trabarik. Goizeko hamarrak dira eta Elantxobeko kaleetan jendearen mugimendua nabari da: gazteenak portura bidean; emakume taldetxo

bat, alboan erosketekin betetako poltsak dituela, kale nagusian kontu kontari... Madalenean, Joxepak —alkatearen emazteak— bere semearen istorioekin dihardu, goizero legez, lone harritu asmoz. Elantxobeko neskatxarrik ederrena da lone, Joxeparen ustetan: ile beltzarana, azal leun iluna eta gorputz fina. Hamazazpi urte bete berriak ditu eta aita hil zenetik bere amari lagun egiten dio dendan. Egunero egunero, irriparrea ezpainetan, herriko emakume gehientsuenen kontuak entzun behar izaten ditu; bateko, senarraren buruko mina dela, besteko amonaren eztula dela... Berriketaldi guztien artean, kalean behera Mario noiz pasatuko zain egoten da. Mario Bermeokoa da, baina mutil koxkorra zenetik Elantxoben igaro du uda partea. Goizero, portura bidetan, kale nagusian behera pasatzen da, eguzkia berotzen hasi bezain pronto.

* * *

Eguzkiaren argitasunak Marioren loa eten du. Maindirea alde batera baztertu eta isil isilik sukaldarantz abiatu da. «Oraindik goiz da; kafea egingo dut.» Konturatu gabe, okerreko armairua ireki du azukrea hartzeko eta eskutitzen kutxa ikusi du. «Larunbata; zein azkar pasatzen diren egunak! lone bihar hemen izango da». Kafeari zurrut egin eta logelara bueltatu da. Ohean eseri da, lo datzan Maleni so. «Bai ederra zarela! ile kixkur, begi biribil, azal xuri... bihotza hunkitzen didazu!» Malenek begiak ireki ditu eta Mariori begira geratu da, hitzik esan gabe. Honek bere ezpainekin Malenenak bilatu eta musu eman dio. «Esnatu egin zaitut? Ez zen hori nire asmoa, baina badakizu ezin izaten naizela luzaroan isilik egon. Gaixotasun bat dela esan izan didate batzuk. Zer uste duzu zuk? Guztia irriparre batekin konpontzen duzu, ezta? Bai. Nik ere hala egingo banu, askoz hobeto». Leunki Malenen bularra ferekatu du; honek, eskua Marioren aurpegira luzatu du eta bapatean logelako paretarantz zuzendu du begirada. «Zeri begira zaudete?» Maleni jarraitu eta kolorez apainduriko egutegiaz egin du topo. «Bai, oso azkar pasatzen dira egunak; hamabost ordu barru igandea izango da.»

* * *

—Zeri begira zaudete lone? Lan asko daukagu dendan eta ez denborarik galdu!

Baina lone noiz pasatuko zain dago. «Honez gero laster joango da porturantz. Bihar igandea da eta egun osoa izango dut berarekin egoteko. Hor non datorren!» Eskuaz agur egin eta irriparre bat luzatu dio. Mariok ere irriparre egin dio.

—Zerbait gehiago, Joxepa?

—Ez, laztana; oso ondo dago. Zergatik ez zatoz bihar gurera bazkaltzera? zu bezalako neskatxa eder eta esanekoak hori eta gehiago merezi du. Ion Kepa eta biok izango duzue zer kontaturik gainera! la-gun onak omen zarete...

—Eskerrik asko Joxepa, baina gaur arratsaldean nire lehengusina Malen dator eta bihar portuan bazkalduko dugu.

—Hurrengo baten, orduan.

—Bai, hurrengo baten.

Malen Mundakakoa da, hamabost urtetako neskatxa ile gorria. lone baino urte pare bat gazteagoa izan arren, elkarrekin oso ondo konpontzen dira. Horregatik, urtero urtero, oportetako hamabostaldi bat batera igarotzen dute; urte baten Mundakan eta hurrengoan Elan-txoben.

Eguna aurrera doa eta denda isteko ordua ere iritsi da. Ama-alabek bezperan gertatutako lapikoko goxoa dastatu dute jangelaren freskota-sunean. Fermin itsasoak eraman zuenetik Madalen mutu egoten da ja-torduetan, aulki hutsari begira. Ionek ere asko maite zuen aita. Mario-ren osabaren lagun haundia zen, sarri joaten ziren elkarrekin arrantzan. lone eta Mario ere joan izan ziren behin baino gehiagotan. Neskatxak asko atsegin zuen Mariorekin egotea eta honen emaztea zela amets egiten zuen gauetan. Oraindik ere izaten ditu antzeko ametsak noizean behin. Nork daki, beharbada hainbeste desiratutako amets hau egi bilakatuko da egunen baten!

Mahaitik altxatu eta harrikoa egiten hasi da lone. Momentu hone-tan txirrinak jo du. Neskatxari aurpegia argitu zaio bapatean: «Malen izango da»

* * *

«Zer iruditzen zaizu portutik bueltatxo bat egiten badugu? Arratsalde ederra daukagu gu biontzat bakar bakarrik». Diru zorroa ireki du. Bertan daraman argazkia atera eta sukaldeko mahai gainean utzi du. «Nire bizitza komedia bat da, faltsukeria hutsa! tragedia oro komedia batek estaltzen duela esaten dute. Ez dakit zer egingo nukeen nire alboan zu ez bazintut. Zu eta biok bakarrik. Beste guztia soberan dago». Atea itxi eta kalera bidea hartu dute. Ioneren argazkia sukaldeko isiltasunean geratu da. «Zoratuta nagoela uste al duzu? Badakizu? zure mututasuna, zure isiltasuna, barruan daramazun bake zabal, benetan apreziatzen dut. Sekula ez diezu nire galdera eroei baietzik esaten. Ez duzu ezer ere kanporatzen, bestela ere munduan nahiko zarata dagoe-la uste duzu; guztia zure barruan gordetzen duzu, itsasoa baino zabala-

goa da zure barnea eta bertan betirako murgiltzea gustatuko litzaidake. Entzuten duzu kaioen hotsa?».

Malen, Marioren besoen berotasunean, eguzkiari begira dago. Ekiaren izpiek ez daukate jada olatuekin jostatzeko indarririk, laster atsedean hartzera izkutatu beharko dira eta orduan, ilargiari utziko diote lekua. Gaua hurbiltzean ikaratu egiten da Mario. Iluntasunak bere erraie-tara sartu arazten du eta handik, barrenetik, galdera zaparrada bati aurre egin behar izaten dio.

«Zergatik?» Hauxe da galdera guztien maisua, loa galerazi eta oraindik erantzunik aurkitu ez diona. «Zergatik da hain krudela bizitza? zergatik da hain faltsua? Guztia da gezurra: gezurra da maitatzeak zoriontsu egiten duela; gezurra da bilatzen den oro aurkitzen dela; gezurra, guztia ahantz daitekeela... Hala ere gauaren ondoren eguna dator eta bizitzak aurrera egin behar du».

* * *

Igande goiza sekula baino distiratsuago esnatu da. Eta zer esanik ez lone. Astegunetan baino goizago altxatu da ohetik eguerdirako otarte-koak prestatzeko. Kafeontziaren hotsak Malen ere esnatu du.

—Egunon, Malen.

—Egunon. Zer egiten duzu horren goiz sukaldean?

—Gaurko bazkaria prestatzen ari naiz. Portuan pasako dugu eguna, zer diozu?

—Oso ondo, baina...

—Berriketa gutxiago eta prestatu gosaria; gose naiz!

Iloneren buruan Mario baino ez dago. Gaur, Mariorekin igaroko du egun osoa eta horrek ikaragarri pozten du: Mariorekin hitzegin, mariorekin jolastu, Mariorekin bazkaldu... Sekulako eguna gaurkoa! Neskatxek portura bidea hartu dute jatekoa zorroan sartuta. Ionak urrunera ezagutu du Mario, bere osabaren txalupa gorrian, uraren gainean hara eta hona. Agur egin dio eskua altxatuz. Mutila hasi da arraunean.

—Kaixo.

—Egunon, Mario.

—Gaur egun osorako portura, eh?

—Bai, bazkaria ekarri dugu. Hau nire lehengusina da; Mundakakoa.

—Eta zure izena?

—Malen.

Malenen ezpain eztietatik ateratako hitz bakarra nahikoa izan da mutilaren bihotza, alderik alde, preso hartzeko.

—Txalupan bueltatxo bat?

—Hobeto itsasoa pixkat baretu arte itxaroten badugu; ez duzu uste?

—Ez horixe! olatu haundiekin dibertigarriagoa da. Zatoz Malen, lone kakati bat da eta!

Aita olatu handi batek irentsi zuenetik, ikara haundia sortarazten dio itsasoak neskaxari; batez ere haserre dagoenean, gaur bezala. Sarri darabil heriotza buruan eta ez luke bere aita bezala hil nahi, baina bada zerbait gaurkoan, barruko zirrara hori ahaztu eragiten diona; ezin du inola ere gaurko eguna alperrik galdu. Aurrera pausu bat egin du. «Zer demontre, ez zaigu ezer ere gertatuko!». Zirrara ez da guztiz desagertu, ordea.

—Itxaron, ongi da!

Itsasoa eta zerua ez datoz bat: bata haserre eta bestea lasai. Igande goiz hau ere,aldi berean zoriontsua eta ikaragarria da. Mariok indartsu dihardu arraunean, baina olatu zakar batek txalupa jo eta irauli egin du. Lonek burua urpetik atera du arnasa sakon hartuaz, laster atera da urazalera Mario ere.

—Abentura izugarria! —oihukatu du mutilak barrez.

—Bai —lonek, oraindik arnas estuka.

—Eta Malen?

Neska mutilen begitartea guztiz ilundu da neskaxa ilegorria ez ikustean. Alde batera begiratu, bestera begiratu, baina Malenen arrastorik ez.

—Denbora asko pasa da. Eta ito bada? —lonek, negarrari eutsi ezinik.

Bapatean, zerbait atera da urazalera. Mariok neskaxa eztiaren bainujantzi arraiaduna ezagutu du. Igerian hurbildu eta besoetan hartu du bizirik gabeko gorpua. Beragandik hain hurbil daukan hura sekula ez dela berarentzat izango sentitu du bere barruan eta negarrari eman dio.

* * *

Mario eta lone nekaturik bueltatu dira portutik. bazkaria izozkailuan prest zuten, beraz, jan eta lokuluxkatxo bat egitera joan dira. Etzan bezain laster, ametsetan murgildu da Mario: Elantxobeko portua, bere osabaren txalupa gorria eta espresiorik gabeko Malenen aurpegi xuria. Bere bizitzaren ametsa da; hondoa jotako plan zoragarri baten ametsa.

Ate hotsa. lone heldu da, baina Mario lo dago eta ez ditu haren urratsak entzun. Sukaldera sartu da. Han, mahai gainean, bere argazkia

ikusi du. «Gogoratzen dut argazki hau eman nizun eguna: 1976ko abuztua zen. Jadanik baziren bost urte nire lehengusina Malen ito zela eta zu portuan ikusi zintudan. Bost urte elkar ikusi gabe, istripua gertatu zenetik ez bait zinen gehiago Elantxobera etorri. Zuregana hurbildu eta zer esan ez nekiela, zer moduz zeunden galdetu nizun. Poliki poliki, elkarrizketa goxo batean murgildu ginen eta ondoren, biok bakarrik paseotxo bat egin genuen. Egun hura zoragarria izan zen, zerua zabaldu zen niretzat eta ezin nuen Jainkoak eskeinitako aukera hura alperrik galdu. Nire helbide berria eta argazki hau eman nizkizun. Hasiera polita izan genuen eta jarraipena are politagoa: ezkontza, nire behin betiko ametsa!». Argazkia hartu eta logelarantz abiatu da. «Diruzorrotik erriko zitzaion».

Mariok, lo dagoen artean, sekula ahaztuko ez duen 1971ko uda darabil oraindik buruan. Orduan hamazazpi besterik ez zituen eta igande goiz hartan, aingeru haren ahots ezta entzun zuen momentutik jakin zuen maite zuela. Baina bapatean, bizirik gabeko gorpu hotza sentitu zuen bere besoen artean eta ikaratu egin zen.

—Mario! Laztana, amets gaiztoren bat zenerabilen buruan —esan dio lonek, senarraren larritasuna sumatzean, aurpegia maitekiro ferekatuz.

—Bai. Noiz...

—Noiz iritsi naizen? oraintxe bertan. Zain zeunden?

lonek musu bat eman dio ezpainetan bere senarrari. Ondoren, zutitu eta sehaskara hurbildu da bertan datzan haurtxoa ikustera. «Etorri da amatxo. Ikusten zaitudan bakoitzean, Mundakako nire lehengusina etortzen zait burura: azal xuri leuna, begi biribilak... zu bezalakoxea zen; izena ere berdina daukazue, gainera. Bai, Mariok ez zuen beste izenik entzun nahi. Malen izen polita da eta Marioren gustokoa bada... Bera da nire bizitza; bion artean zoriontsu egingo dugu.»

—Lo dago gure Malentxo —lonek, irriparez.

—Hala da, loak hartu du betirako.

Enseiukarrean



**Deustuko
Unibertsitatea**

• • • • •